Fa un segle i quart, en lo assalt de Barcelona (setembre de 1714), que nostres avis batallaren catorze hores seguides en defensa de llurs antics privilegis, [...], per poder transmètre a llurs néts l'herència i lo idioma [...]; i no obstant [...], sos decendents [...] s'avergoneixen de què se los sorprengue parlant en català, com un criminal a qui atrapen en lo acte. Mes açó cessar, al menos s'ho promet així lo autor d'estes poesies. Catalunya por aspirar encara a la independència, no a la política [...]; però sí a la lliteraria, fins a la qual no s'estén ni se pot estendre la política de l'equilibri. [Azpimarra gurea].

Ikusten da, beraz, kultur eta literatur gizonek berek eraman nahi dutela hizkuntzaren arazoa politika mundura. Idazleek amesten zituzten helmugak politikoen programa eta ekintzara iragatean, hizkuntz erreibindikazioak bere formulazio politikoa lortuko du.

3.6. Alderdi politikoak eta hizkuntza (1814-1874)

Hastapenetan, bazirudien *karlismoa* zela Kataluniaren erreibindikaziotarako egokien kokatua zegoena, eta inoiz esan ere egin da alderdi politiko horrek, edo, hobeki, mugimendu horrek, eman ote zion Kataluniari bere abertzaletasunerako formula biderik garrantzizkoena. Gaur, ordea, badakigu, karlismoak ez zuela federalismoak adinako eragimenik izan. Hala ere, ezin ukatua da karlismoak *Principataren* barnean izan zuen erakarmena, batez ere inguruan nekazalگو katalan hiztuna bilduz.

3.6.1. *Karlismoaren abotsa*

Esan beharra dago karlismoaren dei ofizialak askotan gaztelaniaz zabaltzen zirela, hala nola Don Karlos eta Don Alfonsok azken karlistaldiko manifestuetan, edota zenbait alderdi karlistatik sortu ziren agirietan, *Diputació de Catalunya* eta *Diputació a Guerrak* emandakoetan adibidez. Eskuratu ahal izan ditudan dokumentu karlistetan, deus guti agertzen da hizkuntzari buruzko kontzientziarik. Aipa dezadan aurkitutakoa.

1872an, Karlos VII.ak emandako Foruetan ez da hizkuntz politikarik zuzenean aintzakotzat hartzen, baina funtzionarioak sorterriz katalanak izatea eskatzen da. Urte berean, propagandarako liburuxka batean, bai, hizkuntzari halako garrantzi erretoriko bat ematen zaio: “katalana naiz, eta amagandik jasotako hizkuntza mintzatzeko hartzen dut luma [...], Napoleonen kontra gudukatu ziren asaben hizkuntza bera. Argi hitz eginen dizuet, beraz, argi eta katalanez. [...]. Zein probetxu ekarri digu Gaztelarekin bateratzeak? [...]. Gure asabek ez zuten ezagutu gaztelania” [Itzulpena gurea].

1872ko liburuxka karlista honek, lehenagoko katalanek gaztelaniari buruz zuten iritzi gaiztoa gogoratzen du: Gaztelako hizkuntza, zergalarien itsuskeriekin nahasten zuten haiek, *llengua de catastro* deitu ohi zioten. Bukatzeko, Sant Vicenç Ferrer-en esaldi batekin lotzen du idazleak Kataluniaren arrangura: “Vindrán los lleons de Castilla i et xuclaran la sang” (Etorriko dira Gaztelako lehoiak eta xurgatuko dizute, bai, odola). (Cucurull 1975, II: 309).

3.6.2. *Abertzalego ezkertiarra*

Abertzalego ezkertiarra eman zion urteotan hizkuntz erreibindikazioari agerbide garbiago eta helduagoa. Ezker politiko hau, batez ere, federalismoak betetzen zuen orduan. Federalismo katalanak –eta hau geroago nabaritutako da bereziki– aparteko nortasuna zuen Espainiakoaren barnean. Kataluniako tradizioak eta historiak erro propioak eman ziezazkioketen hango federalismoari.

Orain ikusten ari garen garaiaren buruan, botere politikoa federalismoaren eskuetara etortzean, Madrilgo federalismoarentzat unitarismoa izanen da tentazioa, eta federalismo katalanak ezingo du horrelako itxuragabekierarik ulertu. Abertzaletasun nazionalista jaio aurreko naziotasun katalanaren ahotsa dirudi federalista katalan haien borrokak. Horregatik ere, federalismoak katalanez emanen ditu bere agiriak.

Korronte hirukoitza aurkitzen dugu federalismo honetan: 1) *Intransigente* deitua eta alderdiaren gehiengoa berekin zuena (*tot o res*, dena ala deus ez alegia, da horien ikurra, eta 1873an *Estat Català*ren alde politikoan bilduko zen). 2) *Posibilista* da alderdiko bigarren korrontea: helburuetan bat zetorren lehenengoarekin, baina prest zegoen politikak zekartzan aldian aldiko akordiotara iristeko ere. 3) *Soziala* da hirugarren talde federalista, eta Cucurull-ek balio eta gaurkotasun bereziak aurkitzen dizkio, hain zuzen kritika soziala eta eskakizun nazionalak biltzen zituelako (Cucurull 1975, II: 49-54).

Antoni Puigblanc da federalismoan hizkuntzaren eskakizuna oso garaiz (1835) politikara ere eramango duena: gaztelaniari Estatu osokoa izateko gaitasuna aitortzen dio, baina “sin perjuicio de cultivar por su particular gusto, y para más radicar en sí el amor natal y a sus leyes el cántabro o vascuence los cántabros, y el catalán o lemosino los catalanes”. (Libertate hori ederra da, noski, baina lehiakide den hizkuntzak askatasun hori *bakarrik* darabilenean da ederra. Bestela, libertatea ez baita libertate ere). (Cucurull 1975, II: 29).

El Nuevo Vapor aldizkariak (progresista zen denboraldi batean, 1835ean) libertatea ere Estatutik babestu beharraren premia barrundatzen zuen, hain zuzen Estatuaren hizkuntza neutraltasunean fede handirik ez zuelako, nonbait. Estatu funtzionarioak hizkuntza prestamenik gabe, nonahi eta edonon barreiatzeak ondorio gaiztoak zekartzan, haren ustez, Kataluniarentzat, izan ere, “su [funtzionarioen] ninguna inteligencia del hermoso idioma en que nos expresamos vulgarmente, les infunde una animadversión que, mal disimulada, acarrea al país un sentimiento igual para con ellos”. *Laissez faire* soilak konpondu ez, baizik ozpindu egiten zuen giroa, berehala jarrera politiko jakin batzuk sortuz.

Guardiolarentzat, hizkuntza ez da harreman politikoak pozoiz ditzakeen tresna bakarrik; horretaz gain, naziotasunaren osagaia da diputatu liberal federalista honentzat. Mintzaira tarteko dela, frogatuko du Kataluniaren nortasun nazionala, eta horrexegatik ukatuko dio Espainiari bere naziotasuna: “España no es, en riguroso y buen sentido de la palabra, una sola nación, sino un haz de naciones” (1851 in Cucurull 1975, II: 33).

Illas i Vidalek areago joko du. Kataluniaren egoera *kolonia* batena da eta kolonialismo horren agergarri bat zera da, Gaztelak hizkuntzarekin egiten duena,

alegia: Gaztela da “la nacionalidad que da lenguaje a las leyes y a la literatura”. Illas-ek Estatu liberala itxuragabeko hautabide batera doala uste du: Kataluniaren historia, legeria eta hizkuntza separatismoaren eragile baldin badira (eta Gaztelak darabilen Estatuak pentsamolde horixe du), “¿cómo no se ha pensado combatir todas estas causas de rebelión, o de poco apego de nacionalidad española, y no se ha propuesto prohibir que hable el pueblo el único lenguaje que conoce, y mandar quemar anales y archivos, y derogar pronto, instantáneamente, la legislación catalana?” (Cucurull 1975, II: 34, 167).

Ez du errealitatea aitortu nahi Estatu espainol erdirakoia, eta gogozko itsumen horrek leramake zentzugabekeria horietara. *Pi i Margallek*, federalismoaren teorikari handiak, esan zuenaren arabera (1854): herriek hor dauzkate beren historia, hizkuntza eta literatura, eta maiz berorietan txertatuta elkarrenganako ezinikusia eta gorrotoa. Egia hori ezagutu nahi ez duenak, berriz ere harri berean egingo du oztopo. Eta, horregatik, premiazkoa da herri bakoitzari bere trataera ematea (Cucurull 1975, II: 149-150).

Urte haietan, gerora idazle eta politikari kontserbadorea izanzen zen *Mañé i Flaquer* erbestera joango da argibide eske, Madrilen agintean zegoen Gobernu progresistaren kontra (1855), Katalunia suharki defendatzeko. Espainia, nazionalitate elkarte bat da, bakoitzak du bere hizkuntza, eta unitarismo politikoak antzutu baizik ez du egin elkarte hori: Monarkiaren aginte nahiak kolonia bihurtu ditu probintziak. Katalunia harro-harro dago bere hizkuntzaz Erdi Arotik hasita, eta Estatuak ezingo du hori ahantzi. Geroago ez bezalako ausardia agertzen du Mañé-k urte hauetako esaldi eta erasoetan (Cucurull 1975, II: 155).

Mañé-ren bide bertsua egin zuen *Victor Balaguer*-ek ere, gaztaro bero batetik zahartzaro epelago bateraino. 1856an Espainiaren nazio aniztasuna ezin uler-tua salatzen du isabeldar Monarkiagan, eta aurrera joaz, Kataluniaren historia nola bortxatu izan den gogoratzen zuen: “El Principado era una especie de colonia española” idazten du, XVIII. mendeko borboitarren politika ahotan duela. Balaguer da bere belaualdiko idazlerik eginetakoa eta *Jocs Florals* haiek sortu eta irabazi ere egin zituenetako bat (Cucurull 1975, II: 193).

XIX. mendeko Katalunia, katalanez mintzatzen zen osoki: haurtzarotik zahartzarora, familian eta lantegian; hitz egin eta pentsatu, katalanez egiten zuen herri hark. *Joan Cortadak* idazten zuen bezala (1859), gaztelaniaz egitean itzulpen lanetan ari zen katalana, eta *oso zaila* zen hori. Eta hain zaila, zeren “gaztelania erbesteko hizkuntza atzerritar bat bezalaxe ikasi behar izaten baitugu” [Itzulpena gurea]. Eta artikulua honela bukatzen zuen: “és sant l’amor a la Pàtria, y la nostra Pàtria és Catalunya” (Cucurull 1975, II: 197-198).

1859an berriztatu ziren *Jocs Florals* haietaz gero, urtero errepikatzen ziren *Marià Aguilóren* kritikak: “Ez, ez du inork sekula herri bati bere hizkuntzaren defentsa bideak eragozteko arrazoirik” [Itzulpena gurea]. Asmo berari eutsiz, G. *Serraclarak*, Zuzenbidea hizkuntzaren zerbitzuan jar zedila eskatzen zion *Comitè Republicà Democràtic Federal de Barcelonari*, *El Estado Catalán* aldizkarian (1870). (Cucurull 1975, II: 200, 256).

Federalismoaren barnean, etorkizunaren zantzuak hobekien usnatu zituenetako bat, *Narcís Roca i Farreras* (1830-1891) izan zen. Aipagarria da, hemen darabilgun epearen barruan, *La Independencia* egunkarian argitaratutako lan luze bat. Eguneroko hau eklektikoa zen, posibilisten eta intrantsigenteen eskuetan erori gabe. Hasieratik bertatik zegoen hizkuntza arazoaz kezkatu. Gobernuak, katalanez behingoz, dei bat (soldaduskarakoa) egin zuenean, hala zioen egunerokoak (1872):

¿Por qué el Gobierno no sigue esta misma costumbre en todas cuantas disposiciones publicadas, mucho más interesantes para la generalidad de los ciudadanos, que las que se refieren a un mero alistamiento voluntario? ¿Es que el Gobierno sólo recuerda que la lengua catalana se habla en dilatadas provincias españolas cuando necesita comprar la sangre de sus hijos por un puñado de oro? En este caso Cataluña sabrá comprender los móviles de su aviesa conducta (Cucurull 1975, II: 306).

Koherentzia eta zolitasun handiko idazlea izan zen Roca i Farreras. Denbora berean, katalanista eta sozialista aitortu zuen bere burua. Betiere agintetik urrun ibili zen, abertzaletasunaren profeta-lan garbia eginez. Tortosako akordiora (1868) iritsi baino askoz lehenago, “Països Catalans” guztien batasunaz hitz egiten du, hizkuntza bakarraren lurraldeen batasunaz, alegia.

Alderdi eta gizon politikoen hizkuntzari buruzko defentsak, lehentxeago nahiz geroxeago, lege-erabakietara heldu behar du. Hori gertatu zen *Centre Catalanistak* Kataluniako diputatuei zuzendu zien agirian (1873), Konstituziora eta lege apalagoetara ere katalanaren ofizialtasuna eraman zedila eskatzean: “Que el idioma de cada provincia sea declarado oficial dentro de su Gobierno especial, sin perjuicio de convenir en una que represente el poder central” (Cucurull 1975, II: 334).

1814-1874ko urte hauetatik jasotzen ditugun testigantzak laster aberats litezke oraindik, baina gera bedi oraingoz bere horretan, agian aski baitira konzientzia politiko-linguistiko baten lehen urratsak erakusteko. Zalantzarik gabe,

literatur Pizkundean murgilduta ari ziren gizonak ukan zuten lehen hitza; berorien ondotik, erreibindikazio bera ikusi da politikarien baitan. Argitasun distiratsua aurkituko du egunsenti honek, *Renaixença*ren bihotzera sartzean.

4. *Renaixença* eta hizkuntzaren balioa

Katalanismoaren barnean, *Renaixença*k deus ekarri baldin bazuen, hizkuntzaren balioztatzea izan zen hori, bai intelektualen aldetik eta baita politikariengandik ere. Ikus ditzagun idazleen adibide batzuk.

Aribau-ren *Odarekin*, hala esan genezake, jendeak erreparatu egiten du: katalana baliozkoa da, bada, esaten du jendeak bere kolporako. 1839-1841. urteetan pauso berri bat ematen da: Rubió i Ors-engandik aitortpen bat jasotzen dugu; hizkuntzaren balio estetikoak ikusten du poeta honek: “Nadie tenía confianza en la eficacia estética del idioma”, iruzkintzen du beste Rubió batek, Rubió i Lluch-ek (*Discurso* en la Real Academia de Buenas Letras de Barcelona de 25 de febrero de 1912). “Éste fue el único paladín durante mucho tiempo de que podía y debía cultivarse la lengua catalana”, dio Parpal-ek (Rubió i Lluch; Parpal i Marqués 1919: 96). Beraz, ez da egin litekeena bakarrik, egin *behar* dena ere bai.

4.1. Literaturako ideia politikoak

Literatura herrikoia (Pitarra, Almirall, etab.) eta jantziagoaren lehiaketa gizatxar baten ondoren, kontrajarriak egondako joerak bateratu egin ziren, guztien artean teatroa berriztatuz. Teatro hau politikoki ere arriskutsua bilakatu zen nonbait, katalanez idatzitako antzerkiak debekatu egin baitzituen Gobernuak 1867an. Ez zion mesede txarra egin debeku hark literatur mugimendu osoari!

Hizkuntzarekiko kontzientzia politiko-nazionala ez da berehala argitzen. Milà-rentzat, oso beranduago ere (1859), *Jocs Florals* berrituek *babeslekua* izan behar zuten hizkuntzarentzat: *gutxienez aterpe bat*. Akademi lan aseztiko eta serioa, alegia. Han, ordea, hizkuntza bera zen benetan politikoa, eta Verdaguer-en *L'Atlántida* jaio zenean (1877), literatur lan soil batek ukan ohi ez duen harrera ona aurkitu zuen gizartean. Hizkuntza baztertu eta literatura zanpatuaren garaipenak, herriaren garaipenak ziren. Horregatik, poeta bera ere politikoki bilakatzen zen hizkuntzarekin batera: “El poeta catalán descendió de la montaña a la ciudad cantando su poema, y nuestra lengua volvió a existir viva y

completa, popular y literaria en una pieza” (Maragall). Herriaren beraren izaera propioa sentitzen zen obra poetikoetan ere. “Veus aquí per què us deia que servir la llengua és servir lo casal de la pàtria”: hizkuntza gordetzea, aberriaren sortetxea gordetzea dela) zioen Jaume Collell-ek (1887). (Cucurull 1975: 102).

Lorpen literario hauek ausardia berria ematen zieten katalan ekintzaileei. Egun batez, Bartzelonako Ateneoan lehendakari berriak katalanez ekin zion hitzaldiari. Ez zen halakorik espero eta entzuleek txundituta eta irainduta nonbait, ez zuten onartu atrebentzia hura. Hala ere, zetozen aldaketen indarrak ohartuki, ez zuen amore eman Angel Guimerà lehendakariak.

Etxe barruko erasoek ez ezik, kanpokoek ere estualdiak pasarazi zituzten, baina hizkuntzaren balioaz jabetzen lagundu zuten haiek ere. Narcís Oller-en *Memories literàries* liburuan ikus liteke kanpoko iritzi eta kritikek nola kontzientziatu zituzten idazle katalanak.

*Renaixença*ko idazlanek lortu ere egin zuten oihartzun onik Espainiako idazle gorenen artean: Pereda-k, Menéndez Pelayo-k, Pardo Bazán-ek, Valera-k, Clarín-ek eta Benavente-k goraitatu baizik ez zuten egin, esate baterako, Oller-en nobela. Inoiz gaztelaniara itzuli ere egin zituzten obra haiek. Zalantzarik gabe, kanpotarren kritika onak adorea ematen zien Kataluniako luma gizoni. Dena den, tartean ibili zen hizkuntzarekiko jarrera-arazoa, ez nobelística eta estetikarena soilik.

Pérez Galdós oso gogorra agertzen da bere iritzietan, beste eskutitz-lagunak ez bezala. Ez du *Renaixença*ren zentzua ulertzen; baliozko gizon horiek gaztelaniara jo beharko lukete. Honela idazten zion Oller-i (1866):

No puede Ud. figurarse el desconsuelo que siento al ver un novelista de sus dotes, realmente excepcionales, escribiendo en lengua distinta del español, que es, no lo dude Ud., la lengua de las lenguas... La admiración que siento por Ud. es bastante grande para hacerme desafiar las asperezas de una lengua cuyas bellezas no entiendo y cuya resurrección como lengua literaria no me explico... El castellano es la lengua de los dioses... El catalán, por lo poco que yo entiendo de él, no tiene construcción propia (Reglá 1974: 179-181).

Azken buruan, alde nahiz kontra dabiltzanek –bakoitzak bere gisara– eztenkatu baino ez dute egiten aitzina doan mugimendua, kontzientziazioa. Hauxe bera esaten zuen Estelrich-ek Joan Maragalli buruz, hau da, hizkuntzaren katalantasan politikoa agian inork baino hobekiago ulertu zuen gizonari buruz:

Inconscientemente o no, a pesar de su temperamento recluso, él fue la voz de su tierra... Le parecía en las grandes jornadas, llevar Cataluña encendida dentro de su pecho (Estelrich 1932: 82).

Maragallen teoria estetikoek (“la palabra viva”), hizkuntzaren inguruan hartzen dute beren gorputz politikoa. Nazioa eta hizkuntza hertsiki elkarrekin bizi dira:

La nación es la lengua. No digo que el Estado, ni que la Patria es la lengua; digo la nación, es decir, lo nativo social, el espíritu del pueblo (Chabás 1935: 36).

Maragall hau, azterketa honen hasieran aipatutakoa bera da. Unamunok ere ezin zuen ulertu hizkuntzaren *izpiritua* gizabanakoaren baitan ez ezik, kolektibitate oso baten kolkoan ere mamitzen zenik. Edo, beste era batera esateko, ez zuen Kataluniarentzat hizkuntzaren kolektibitate balioa konprenitu. Katalunia zabal zedila nahi zuen, baina, zabaldu, inoren mintzaira erabiliz, gaztelaniaz:

Dijo y sostuvo [Unamuno] que los catalanes debíamos esforzarnos en catalanizar España, y que debíamos hacerlo en Castellano (Maragall 1911 in Cucurull 1975, III: 334).

Maragallek, ostera, konplexurik gabe erasotzen dio aholku horri: “pues yo creo que esto no puede ser. [...] La prueba ha sido hecha, nada menos que por cinco siglos. [...] ¿Dónde está el rastro de catalanidad en el espíritu español de mientras esto así ha durado?” Eta zuzenean erantzuten dio Maragallek Unamunori:

No, mi admirado don Miguel de Unamuno; no, amigo mío muy querido; no puede ser, no podemos tomar la lengua castellana «como lengua propia», no podríamos hablar (Cucurull 1975, III: 336).

Herri oso baten gordailutzat ikusten du Maragallek hizkuntza. Horrexegatik garamatza mintzairak politikara, elkarbizitzan kokatzen baita hizkuntza. Estelrich-ek honela laburtu du Maragallen estetikaren alkantzu politikoa: “Este ideal literario (demostración catalana de su teoría) ha marchado paralelamente a la inspiración política” (Estelrich 1926: 252).

Testuinguru politiko batera datoz, beraz, *Renaixença*ko literatur lanen norabideak eta hizkuntzari buruzko pentsamoldeak. Politika ideologiak eta programak erabat literaturaren ondorio soil bezala ikusi gabe ere (eta izan da *Renaixença*ren horrelako interpretaziorik ere), historialariek beti ikusi izan dute mugimendu haren kulturgintzan indarrak politikara eramango dituen eragin azkarra. Ez da harritzekoa, mundu politikoak, hein handi batean, literaturaren ideia politikoak ispilatzea.

4.2. Politikarien ideiak (1874-1930)

Hiru epetan bana genezake hurbiltzera goazkion historiaren aldi hau, irakurlearentzat hemen bilduko diren ideiak pixkatxo bat ordenaturik azaltzeko.

4.2.1. *Monarkia berreirakiaren epeak*

1874-1901 epealdian berriro egiten du Espainiak bere borboitar Monarkia. Katalunian, federalismo errepublikazalea behera dator, eta nortasun katalanaren defendatzaileak nazionalista bihurtzen dira. Abertzaletasunak aurpegi garbiago eta ezagungarriagoa janzten du: Katalunia nazio bat da eta naziotasun horren zerbitzurako, programa eta alderdi abertzale nazionalistak sortu behar dira. 1898ko krisialdia tartekatzean, katalanismoak bere formulazio heldua iristen du. Mañé i Flaquer eskuinean, Almirall ezkerrean, Guimerà *Renaixença* aldizkaritik, Duran i Bas Zuzenbide katalanaren alde, Torras i Bages Elizatik eta Prat de la Riba politikan..., hogeita bost urteok oso aberatsak dira katalanismoaren barne hazkuntzan.

1900-1914. urteen artekoa da bigarren epea. Aurrekoen ondorio bidez, *Lliga Regionalista* jaiotzen da Prat de la Ribaren eskutik. Ez du katalanismoak erabateko batasunik, baina armagizonen mehatxupean, *Solidaritat Catalana* hauteskunde elkargoa moldatuko du, 1907an egundoko garaipena irabazteraino. *Solidaritat* honen barneko etenak eta 1909ko *Setmana Tràgica* gorabehera, *Lligak* ez du galduko bere hegemonia politikoa, ez baitzaio leinari onik faltako: Enric Prat de la Riba, guztien gidari. Ohiko alderdi espainolek (*Liberales* eta *Conservadores*) galdu dute beren tokia Katalunian, eta Madrildik saiaturiko dira Alejandro Lerroux-en ziri politikoa sartzeko. *Lligak* Espainia osoari emango dizkio ezagutzera Kataluniaren erreibindikazioak. Kontserbadore izanena da, noski, baina gaur bertan ere badago garai bateko *Lligakoengan* ideia abertzalea nola saldu ikasteko zer azter eta ikus.

1914-1930etako itxaropenak eta krisialdia, ederrak eta zitalak dira denbora berean. 1914an *Mancomunitata* sortzen du Prat-ek, lau probintzien arteko

zenbait zerbitzu batuz, eta agintea Diputazioetatik erakunde berrira pasatuz. Madrilek apenas ematen duen ezer, baina batasun Gobernu honek ez zuen gutxi balio izan gobernu autonomo eta batuak Kataluniari nola lagun ziezaiokeen erakusteko. Duran i Bas-ek sortu nahi izandako erakunde kontzientzia, Prat-ekin praxi politikoen bidez berretsi zen. Arrakasta politiko horrek, ordea, ezingo du *Lliga* hura, 1917-1923. urteetan, iraultza proletarioaren beldurretatik salbatu. Armagizon baten —diotenez, ez katalanisten etsaia, gainera— izenpean agertuko da tentazio politikoa: Primo de Rivera.

Lliga izaturik dago ezkerreko uholdearen handiaz, eta ez dio jeneralari ezeztzik esango, baina bai laster damutu ere: *Mancomunitata* desegin egiten du diktadoreak, hizkuntza zokoratu... Hala ere, *Lliga* ez da gai beharko litzatekeen indarrez aurpegi emateko, eta katalanismo borrokalaria gidari berrien bila hasiko da: Macià, Rovira i Virgili, d'Olwer, Carrasco Formiguera, Companys, etab. Errepublikaren atarian, abertzaletasun ezkertiarrek prest ditu bere jendeak eta erakundeak, aukera sortu bezain laster, agintea hartzeko. 1930eko abuztuan izenpetuko dute “Donostiako Akordioa”. Errepublikak aintzakotzat hartuko omen du Kataluniaren nortasun politikoa.

4.2.2. *Federalismoaren barrobotik*

Laburtutako testuinguru honetan aurkitzen ditugu politikoen ideiak, baina katalanismoaren ur handietan sartu aurretik, itzul ditzagun begiak iturrietara.

Partit Federalista de Catalunya deitua izan zen, harik eta sukurtsalismoa arazo bezala sentitu zen arte, nortasun katalanaren defendatzailea. Federalismoan biltzen ziren Katalunia zalerik beroenak. *Valentí Almirall* izan zen, esate baterako, Lehen Kongresu katalanistaren gidarietako bat (1880); eta, bi urte geroago, Almirall berak sortuko du alderdi espainolekin loturarik izango ez duen alderdi katalanista ere (*Centre Català*, 1882).

Federalismoaren bilakaera norabide batean baino gehiagotan gertatzen da: batzuk *Partit Federalistaren* barrutian doaz aitzina (J. N. Roca i Farreras, adibidez), baina federalismoari zentzu katalanista bat txertatuz (R. N. Roca i Narcís); eta beste zenbaitek, ezker abertzaleak bereziki, federalismoaren harrobotik jasotako langaiez eraiki zuen katalanismo nazionalista politikoaren pentsamendua. Katalanismoak sortutako talde berrietara odolustuko da federalismoa, azkenik.

XIX. mende hondarretako federalistek azken ondorioetaraino eraman zituzten, gezurra badirudi ere, abertzaletasun katalanaren teoriak: hementxe dago Kataluniako independentismoaren jatorri bat. Roca, Pi i Margall, Vallès i Ribot gero eta iraultzaileago agertu ziren, Monarkiaren berreraikuntza hartan itxaropenik ez zutelako ere bai.

¡Ah, impertinentes unitarios! ¿Recordáis los errores por los que fuimos a la pérdida de la Isla de Cuba? Por los mismos estáis poniendo en peligro la unidad de la Patria (Pi i Margall 1900 in Cucurull 1975, III: 191).

Federalismoa eta katalanismoa kontrajarri izan dira sarritan historia aztertzean, baina autodeterminazioaren bidegurutzean elkartu ziren haiek. Kataluniaren soberania, autodeterminazioa eta independentzia ere badaude bi korronteen atze-oihal bakar bezala. Federalismoaren aldarrikapenetan, bi gisatan sumatzen dugu hizkuntzarena: batzuetan isilpean, arazoa ukitu gabe, begi bistan dagoen eskakizuna dirudi; zenbaitetan, espresuki aipatuz.

XIX. mendeko azken bi hamarrekotan, eta lehentxeagotik ere, federalismoa itzaliz joanen da Katalunian. Eskuineko alderdiek hartuko diote txanda, eta ez nolana ere, berreraikia den Monarkiaren sistemari oso-osorik sartuz, aginteaz jabetzeko irrika biziz. 1714ko hondamendiaren mendeurrena, erakunde berritze batekin ospatuko da (*Mancomunitata* eraikiz), eta gailur hori ez du federalismoak irabaziko, ezta ezker abertzaleak ere. Eskuina izanen da garailea.

4.2.3. *Eskuina eta hizkuntz politika*

1874-1930. urteetan, eskuina izanen da agintea eskuetan ukanen duen indar katalanista bakarra edo. Hizkuntz politika egiteko aukera izan zuen, garaiko sistema politikoak ezartzen zituen muga estuen barnean. Batez ere, interesgarria litzateke *Mancomunitata*ren jokabidea ezagutzea, baina zoritxarrez, ez dut behar bezala iturrietara iritsi ahal izan, eta beste baterako utzi beharko dut Kataluniako une hori.

4.2.3.I. *Aitorpen zindoak*

Eskuina aberatsa da hizkuntz politikarako proposamen teorikoak egiten, eta praxia beste baterako lagatzen bada ere, badu interesik teoriatzat emandakoa ezagutzeak.

Bartomeu Robert i Yarzabal (1842-1902) medikua, Bartzelonako alkatea izan zen, eta egokiera sortu zenean, Madrilgo Gortean lan egin zuen katalanismoaren ideiak zabaltzen. Politika gizona baino gehiago zen abertzale suhar. Hizkuntzaren eskakizuna gogoan ukan zuen eta katalanismoan bi oinarri aipatzen ditu: bata, Kataluniaren barne soberania eta, bestea, hizkuntza (Cucurull 1975, III: 205).

Narcís Verdaguer (1868-1918), Zuzenbide katalanaren defendatzaile irmoa izan zen eta *Lligaren* barnean korronterik abertzaleenaren aitzindaria. Zuzenbidearekin batera, hizkuntza gogoratzen du 1887an *Centre Escolar Catalanistan* ikastaroa irekitzean, eta ezin jasanezko bidegabekeriatzat salatzen hizkuntz egoera ofiziala:

Badugu katalanok geure hizkuntza [...], gure pentsamenaren baitezpadako ibiltokia dena [...], baina bizitzako une arranditsuenetan zokoratzeraz bortxatuak gara, mundu ofizialaren ate aurrean utzi behar dugu, eta sentitu eta pentsatzen duguna faltsutzeraz eramaten gaituzte, sekula ongi ulertuko ez ditugun erak ezarriz [...]. Gaizkileak ote gara, gero, honelako iraina merezi izateko? (Cucurull 1975, III: 35, 105-106). [Itzulpena gurea].

Katalanaren erreibindikazioak gero eta jende gehiago irabazten zuen, ez bakarrik *Principatean*, baita gainerako *Països Catalans* deituetan ere. Mallorcakoa zen, esate baterako, *Ramon Picó i Campamar* (1848-1916). *Jocs Florals*etan nabarmendu zen, eta 1885ean *Mestre en Gai Saber* izendatu zuten. *Bases de Manresa* direlakoak moldatzen goraki parte hartu zuen Picók *Unió Catalanistaren* batzarrean, eta hain zuzen aurreproiektuan hizkuntzari zegokiona berak defendatu (hau da, katalana izanen zela Kataluniako hizkuntza ofizial bakarra). Gogorki erasotzen dio hizkuntza arrotza ezartzeko Katalunian eraman den politikari. Darabiltzan arrazoiak jaso ditzagun: hizkuntzak hagitz lagundu du nazionalitate kontzientzia iraunarazten, Gaztelak politikarik bidegabeena ezarri du hizkuntza kontuan; naziotasuna galtzeko, ez dago hizkuntza lagatzea bezalakorik. Katalanismoak emandako hizkuntz defentsarik abertzaleenetakoa da Picórena (Cucurull 1975, III: 133-136):

Geure hizkuntza propioa dugun unetik, gurekin jaio den hizkuntza, hain zuzen [...] gure baitan nazionalitatearen kontzientzia beti bizirik iraunarazi duen hizkuntza, ez du inork guri mintzaira hori erantzeko eta beste arrotz bat ezartzeko eskubiderik [...].

Jokabide horretan, Gaztelak injustiziarik haserregarriena eta indarkeriarik piztiena egin du [...].

Bidezkoa da, bada, bere buruaz kontzientzia duen herria [...], ahalgin dadila nortasun hori bizirik eta bere sen onean gordetzen, eta

hizkuntza arrotza inposatzeko egiten zaizkion bortxaketei etengabe gogor egiten [...].

[Zenbait nazionalitatez] osatua den Estatu baten botere zentralak, eskualde horietako baten hizkuntza beretzat hartu du, eta ez da zilegi, hain zuzen, mintzaira hartaz bakarrik baliatzea gainerako eskualde guzti-ekin harremanak eramateko [...].

Zanpatzaileen eta bortxatzaileen arrazak, eta horixe dira gure are-rioak, oinarritzko printzipioa hauxe izan ohi du: nazionalitate bat deuseztatzeko ez dago beronen hizkuntza itotzea bezalakorik. Etsaien jokabide horrexek erakusten digu zer egin behar dugun guk, nazionalitate katalana bizkortzeko [...]. [Itzulpena gurea].

4.2.3.2. *Torras i Bages*

Hizkuntzaren zentzu nazionala oso presente zegoen, ikusten denez, Manresako Baseak eman zituztenengan. Hango gizonak politikoak ziren, politika zibila egiten zutenak, alegia, baina elizgizonek eta Elizaren politika zuzentzen zutenek ere azaldua zuten arazo honetaz beren iritzia. *Renaixença*ren barnean hainbat elizgizon suertatu zen. Proletariotza, burgesia eta apaizeria elkarrekin agertzen zaizkigu abertzaletasunaren mugimenduan, beren arteko kontraesanak ezin gaindituz.

Elizak abertzaletasunaren teorialari gorenetakoa bat ukan zuen Josep *Torras i Bages*engan (1846-1916). Arestian jasotako Picóren aipu horiek idatzi eta hila-bete gutxiren buruan, Vic-eko apezpikuak bere *La tradició catalana* (1892) atera zuen jendartera.

Hain sarritan errepikatutako harako esaera zahar hura «estiloan gara gu geu» egia baldin bada, hizkuntzaren baitan dagoela herria bere nortasunean ere egia da. Hauxe da poetak emaniko identifikazioa: «Bere hizkuntza irabazten duen herria, bere buruaz jabetzen da» [...]. Gizarte lotura guztien artean, erlijioa salbu, hizkuntza da hertsienik lotzen gaituena (Cucurull 1975, III: 146). [Itzulpena gurea].

Torras i Bagesen arrazoi teologikoak baliozkoak ziren ala ez jakitea, ez da guretzat axolazkoena hemen; baina gogoan hartzekoak dira, beste korronte abertzaleen artean, pentsamendu katolikoak ere egin zuen gogoeta seriosa eta hizkuntza kontzientzia nazionalari ezarri zizkion zimentarri teorikoak.

Honelako ekarpen teoriko batzuei esker, eskuineko abertzaletasunak politikari egin-helduak eman zizkion Kataluniari, nahiz eta bidegurutze zenbaite-tan –larrietasun– beti-beti leialtasun berdinez ez jokatu gero. Dena den, aitortu beharra dago Kataluniak egun handiak zor dizkiola eskuineko abertzaletasunari.

4.2.3.3. *Prat de la Riba*

Enric *Prat de la Riba* (1870-1917) izan zen *Mancomunitataren* lehen Lehendakaria. 1914an zen hori, baina aski lehenagotik emana zion bere lanari norabide jakina. *Unió Catalanistaren* idazkaria zenez, 1892ko Manresako Batzarrean parte nabaria ukan zuen. Horren gaztetako pentsamendu abertzalea *Compendi de la Doctrina Catalanista* (1894) liburuxkan aurki liteke. *La Veu de Catalunya* egunkariaren sortzaile eta zuzendaria izan zen. *Lliga Regionalistaren* barnean egin zuen lan eta berau agintera igotzean, Kataluniaren gidari zolia bilakatu zen Prat. Historiak aparteko *seny ordenador* bat aitortu izan du haren baitan. Teoria mailatik ekintza politikora pasatzen asmatu zuen gizon aparta izan zela esan ohi da. Pentsatzaile eta ekintzaile honen oroitzapena ez da inoiz galdu Kataluniako kolore guztietako abertzaleen artean, eta haren *La nacionalitat catalana*, abertzaletasunaren biblia edo izan da urtetan.

Aipatutako *Compendi* liburuxka *Unió Catalanistak* eratutako lehiaketa batean saritua izan zen eta, horrela, alderdi batek erdi ofizialki onartua izan ondoren eman zuen argitara, 100.000 aleko edizioan. Gobernua erne zegoen, ordea, eta bahitu egin zioten edizioa, denbora berean autorea auzitegira eramanez. *Compendi* honek, aberri gisa aurkezten zuen Katalunia, *aberrri* hitzaren esanahia honela finkatuz: “La comunitat de gents que parlen una mateixa llengua, tenen una història comuna [...]” (*Compendi*: I, La Pàtria). (Cucurull 1975, III: 153-154).

Hizkuntza da lehenik aipatzen den balioa, nazionalitatea definitzean. Eta aitzina joaz, naziotasun horren eskubideak aipatzen ditu Prat de la Ribak, aginte politikoa eta beronekin erabili beharko den hizkuntza (Cucurull 1975, III: 153):

- Beste zein eskubide aitortu beharko zaigu? [dio galdera batek].
- Katalunian, azalpen publiko eta pribatu guztietan, mintzaira ofizial bakar gisa hizkuntza katalana erabiltzearena. (“Lo d’usar en tots los actes públics i privats la llengua catalana, com a única oficial a Catalunya”).

Abertzaletasun ikasgaia zen hori bakarrik, inoiz beharbada praktikara eramango zena; hala ere, hori zen buru abertzale batek hautatutako helburua, eta gero gerokoak. Une historiko batean, *Mancomunitataren* jaiotorduan, erretorika apurtxo bat tartean zela noski, gauza bertsua errepikatu zuen Pratek.

Pratek Kataluniarentzat eta katalanentzat hitz egiten zuen bereziki; *Lligako* beste politikari batek definituko zituen Espainiaren aurrerako ideal berak. Cambó izan zen katalanismo politikoa erbesteari aurkeztu ziona.

4.2.3.4. *Cambó eta Lliga*

Francesc Cambó (1876-1947) izan da, zalantzarik gabe, Kataluniak politika espainol garaikideari eman dion gizonik handiena. Katalanismoa Espainiako politikan sartu nahi izan zuen, eta eskuineko katalanismoaren ahotsik botere-tsuen gertatu zen. Bi aldiz izan zen Madrilen Ministro. 1914-1923. urteetan bazirudien Espainiako estruktura politikoak alda zitezkeela katalanistotik erasota, eta horretarako gizona Cambó zen, itxuraz. Hala ere gizarte iraultza baten beldurrez atzera egin zuen, eta jokabide horretatik jaiotzen ezkerretik egin zitzaizkion desleialtasun salaketak.

Hizkuntzaren erreibindikazio bidean, Cambóri zor dizkiogu formulaziorik biribilienetako batzuk, biribilak eta bipilak.

Gu katalanistak gara, ez erregionalistak garelako, Kataluniaren naziotasunaren kontzientzia dugulako baizik, eta garaipena erdiets dezala nahi dugu. [...]. Espainiak ez dezala itxaron handitasunik, aldeztu aurretik arazo katalana konpondu ez badu (Cucurull 1975, IV: 107, 112). [Itzulpena gurea].

Espainiaren aldaketarako ahalbideak oso hurbil sentitzen zituen orduan (1916) *Lliga Regionalistak* eta Cambók ere bai. Horregatik, politika berri posibleari norabideak eman eta helburuak izendatzea osoki premiazkoa zen Cambórentzat. Madrilgo politika irabaztera irten zen, eta han agertuko zituen Kataluniaren erreibindikazioak, baita hizkuntzarenak ere: “plantejarem el plet de l’oficialitat de la llengua catalana” (katalanaren ofizialtasunaren auzia aurkeztuko dugu). Kataluniari kanpotik ezarritako funtzionarioen ez-katalantasu-na salatzen zuen politikariak: epaileek, apezpikuek, maisuek ez dakite herriaren mintzairarik. Cambó bezalako eskuindar elizkoi batengan hain gupidagabekoa gerta zitekeen kritika hau ikus dezakegu:

Orain gutxi arte, Kataluniako apezpikuak, ia denak, katalanak genituen. Orain, ostera, apenas dugun inor katalanik. Badirudi zera esan nahi digutela: Elizak ere –Estatu etsaiaren zerbitzuan balego bezala– Kataluniaren desnazionalizazioan eman behar dituela bere indarrak (Cucurull 1975, IV: 110). [Itzulpena gurea].

Gobernuak Gorteei, Erregeren Mezua bezala, emandako programa politikoaren kritika eginez esaten ziren horiek. Zazpi diputatuen sinadurekin, zuzenketa bat proposatu zioten mezuari *Lligakoek*. Horra katalanari buruzko eskea:

Sería la obra de antipatriotismo e implicaría grave imprevisión de funestas consecuencias que [...] hubiera millones de españoles que no tuvieran reconocida la oficialidad de su idioma [1916]. (Cucurull 1975, IV: 117).

Lligak orduan hitz egin zuen Madrilen inoiz baino ausartago Kataluniaren naziotasunaz. Hizkuntzaren erreibindikazioa, horretxan ondorio bat zen:

El problema catalán [...] es un problema nacionalista. Y es un problema nacionalista porque arranca del hecho de la personalidad catalana. [...]. Es un hecho ante el cual no caben más que dos caminos: o aceptarlo con todas sus consecuencias o intentar destruirlo. [...]. Existe, sí, el pueblo catalán, que tiene una historia, que ha segregado de su propia substancia un idioma (Cucurull 1975, IV: 118-119).

Baina, Cambórentzat, hizkuntza ez da naziotasunaren ondorioa bakarrik; nazioari iraunbidea ere ematen dio mintzairak. “Hizkuntzaren azalpena desgertzen ez den bitartean, izaera katalan bereizgarri hau (*el fet diferencial català*) bizirik dagoela adieraziko du horrek, eta izaera horrek ondorio bidez dakartzan berezko indar eta ahalmen guztiekin, gainera, bizirik”. Behin eta berriz gogoratu izan zuen Cambók, Kataluniaren ordeztu Portugal izan balitz Gaztelaren menpe eroritakoa, gaur egun *problema portugués* bat, eta ez katalana, izanzen genukeela penintsulako politikan. “Ideal iberikoa ezin dezake aipa ere Espainiak, politika asimilista behin betiko baztertzen ez duen bitartean”. Katalunia, asmo asimilista horrexegatik, bortxatua izan da. [N. B.: ikus Azurmendi 1999].

Eskuindar politikoez poliki eraman zuten hizkuntzari buruzko erreibindikazio teorikoa, baina klase interesek ere egin zuten beren traizioa, eta ez zen

desleialtasunik falta izan politika pragmatikoan. Dikotomia hori aipatuko du ezkerretik Martí i Julià-k. 1916az geroztik ezkerren kritika indartuz joango da, indartuz eta zabalduz, 1931n agintera iristeraino, eta beraz, hizkuntz politika berri bat legeztatu ahal izateraino. Horregatik, komeni da orain ezker abertzale honen ildoari ere jarraitzea.

4.2.4. *Ezkerra eta bizkuntz politika*

Partit Federalaren eraikitzailetakoa zen *Valentí Almirall* (1841-1904). Egunkarien sortzaile eta zuzendaria izan zen. Federalismotik katalanismo abertzalera pasatu ondoren, Monarkia berreraikiko pentsamendu katalanistarririk garrantzizkoena gertatu zitzaigun bera. Haren lumatik irten zen geroago ikusiko dugun *Memoria en Defensa de los Intereses Morales y Materiales de Cataluña* (1885).

4.2.4.1. *Martí i Julià*

1888az geroztik, Almirallen izarra itzaliz doa ezkerreko abertzaleetan, baina egunsenti berriak ere badatoz. *Domènec Martí i Julià* (1861-1917) izan da ezkertiar abertzalegoaren teoriaririk garrantzizkoena. Urtetan, *Unió Catalanistaren* lehendakaria izan zen (1903-1916). Macià-rengan fede handia hartu zuen, *Lligari* bere politika kritikatzeko bitartean (1915). Nazionalismoa eta sozialismoa berdín txertatu zituen elkarrengan, baina ez zuen sekula aginte politikorik eskutan hartu. 1916ko hitzaldi batean, hau esaten zuen Martík Cambóren mintzaldi bat aztertuz:

Lliga ezin liteke izan, ez hemen, ez mundu osoaren aurrean leialtasun politikoaren eredu. Halakorik izan gabe ere [abertzale ez izanez ere, alegia], nazionalista izan litekeelakoaz konbentzitu nahi izan gaitu. Eta bere *Gazteriaren aldizkaria argitaratu ematean, gaztelaniaz ematera iritsi da; bori ez da abertzaletasuna*. [...]. Hirian bertan dugu *Lligakoek* gidatzen duten *Merkatalgo Ganbaran* oraintsu gertatua: lehenago egiten zuten bezala, irakaskuntza *katalanez ematea ukatu egin dute Lligakoek* (Cucurull 1975, IV: 115-116). [Itzulpena gurea].

Eta politiko eskuindarrei galdera hau eginez bukatzen zuen Martík bere eraso: “qué en podem esperar d’aquesta Lliga?” Ezkerrak kontraesan nazional ezin konponduak ikusten zituen *Lligako* gizonen teoriaren eta praxi politikoaren artean.

4.2.4.2. *Macià*

Erakunde faltaz, ordea, ezkerrari ere ez zitzaion erraza suertatzen printzipio garbien eta ekintza politiko lohituaren arteko ezkontza. 1916-1930. urteetan aurkituko ditu ezkerrak bere erakunde bizkorak eta herriaren gogoia jasoko duten gizon gidariak. Hauen artean jarri behar da Macià gogoangarria.

Francesc Macià i Llussà (1859-1933) armagizona izan zen, baina armada utzita, katalanismoaren politikara pasatu zen. 1917az geroztik, hauteskunde bakoitzean irabaziko du aulki bat Madrilgo Gorteetan, baina laster konbentzitzen da Kataluniari politika espainolak ezartzen zizkion baldintzez eta laga egingo ditu Gorteak.

Macià independentista gisa agertu zen Gorteetan eta berak gidatutako alderdien programetan: *Federació Democràtica Nacionalista* 1919an sortuan, eta *Estat Català* 1922an eraikian. Geroago ikusiko dugu 1928ko Habanako Kongresuko agiria ere. Arma bidez ere borrokatzearen alde egon zen, eta 1926an bere gizonak armatu ere bai.

Primo de Rivera-ren hizkuntz zapalketa salatzen zuen Maciàk 1924an (Perpinyà). Katalana jazarpen gogor baten erasopean bizi da, politikariak dioenez; izan ere, debekatua baitago korporazio publikoetan eta baita elkarte pribatuetan ere. 1926an Pirinioetako muga igarotzera doa Macià bere jende armatuarekin batera. Ekintza honen aurretik, eta egokiera zetorreanean zabaltzeko, prestatuta zeuzkan bere ideiak. Badago *Declaració d'Independència* bat ere, eta ez du ahanzten hizkuntzaren erreibindikazioa:

Ez al dugu geure hizkuntza berezi eta benetan geure bat? [...]. Hizkuntza da, hauxe bakarrik, geurea duguna, eta hau ere gure haurren ezpainetatik eskolen bidez kendu egin nahi digute itsuski, eta baita zuen ezpainetatik ere lotsaz eta irainez (Cucurull 1975, IV: 284). [Itzulpena gurea].

Aro berri baten aitzinean ote gauden pentsa liteke Macià-ri *Per la implantació de la República Catalana Independent* deia irakurtzean.

Oro har, *Renaixença*ren kulturak eta ezker-eskuineko katalanismo politikoek hizkuntzaren defentsa eskatzen zuten, erabaki politikoak har zitezela alegia, nazio nortasunaren funtsezko oinarri hau sendotzeko. Ezker politika, alderdien eta Kataluniako elkarten agiri eta programetan lege-proposamen batzuetara iristen da.

Bi puntu nagusitara bilduko dugu idazlan politikoetan idoro dezakeguna: alderdien agirietara eta Estatutu gaietako testuetara.

4.3. Hizkuntza, agiri politikoetan (1874-1930)

Alderdiek programa eta agirietan eman ohi dituzte beren hausnarketa ideologiko eta politikoak. Katalanismoaren barnean ere, bidezkoa denez, ez da honelako agiririk falta. Dokumentu hauek duten ofizialtasunagatik eta talde politikoaren gogoeten fruituak direlako, esanahi aberatsagoa dute agiriok bakarkako politikoek baino.

Urtez urte bilduko ditut hemen alderdiek beren programatzat aitortutako azalpenak; ez denak noski, baina bai hizkuntzaren aldetik eskabide nabariagoak eskaintzen dizkigutenak.

4.3.1. Alderdien agiriak

1890ean *Centre Català*k bere programaren azalpena egin zuen. Alderdia ez zen orduan jaiotzen, baina lehentxeago erdibiketa bat jasana zen. Almirallek sortua zen alderdia 1882an, *Catalunya i avant* deiarekin. Hizkuntzarentzat ofizialtasuna eskatzen du azalpenak, bizitza publiko eta irakaskuntzarako. Nahiko bitxia da gertatzen den zerbait: “Kataluniak sostengatuko dituen irakastokietan, Espainian ofizialak diren mintzaira denak irakastea baitezpadakoa izanen da”. Badirudi federalismoaren tradizioan datorren asmoa dela hau, eskualdeen artean ez hautsi deus, solidaritateak sortu baizik (Cucurull 1975, III: 121-122).

Kataluniaren beraren barneko bizitzari begira, ideia horrekintxe jaiotzen da *Solidaritat Catalana* 1906an. Giroa oso katalanista da hilabete haietan. Gertakari sonatu aski pilatzen da: diputatu katalanistek utzi egiten dituzte Gorteak; katalanaren Lehen Kongresua ospatzen da. *Estudis Universitaris Catalans* orduan jaiotzen da. 44 aulkitatik 41 dira *Solidaritateak* irabazi dituenak, eta senatarietan denak bereak ditu. *Programa del Tivoli* deituan erakutsi zituen helburuak hauteskunde talde honek. Batez ere erakunde politikoen eskea agertzen da programa barnean. Hizkuntzaren mailan interesgarria da, irakaskuntza, bere eginkizun gehienetan, Kataluniaren eskutara pasa dadila eskatzen duela jakitea; eta aldakuntza horretarako ekonomia indarrak ukaitea eskatzen da.

4.3.1.1. “*Memorials de Greuges*”

Hizkuntzaren errebindikazioa, alderdi agiri hauetan baino nabarmenago geratzen da kanporako egindako dokumentuetan. Izan ere, Katalunia barnera begira egindakoak ziren lehenak, eta etxe barnean apenas inork eztabaida zezakeen errebindikazio horren arrazoizkotasuna. Eraso kanpotik zetorrenez, harako hitz egitean behar zen hizkuntza garbiki defendatu. *Memorials de Greuges*

deituetan (laidoen oroigarrietan, alegia) azaltzen da batez ere hizkuntzarekiko eskakizun nazional eta politikoa.

Mota honetako lau dokumentu jaso ditzakegu hemen: 1885ean Alfontso XII.ari emana, 1888an María Cristina Erreginari zuzendua, 1916an *Lligako* diputatu eta senatariek Erregeri idatzitako agiria, eta azkenik, 1924an, Diktadura garaian, Nazioarteko Erakundeari bidalitakoa.

1885eko dokumentua Erregeri eraman zion Batzordean, lau lagun gutxiarik literatur Pizkundeko izen ezagunak eta gorenak ziren (F. Soler, J. Verdaguer, A. Guimerá, J. Collell). Katalanismo politikoaren talde kontzientziaren lehen azalpen ofizial batua da dokumentu hau. Monarkia birmoldatuaren barnean, Cánovas lehen ministroari ez zitzaion batere atsegina gertatu; izan ere, Katalanismoaren taldekatze arriskua erakusten baitzuen egitada hark.

Hizkuntza ofizialaren eskea honela geratzen da eskutitzean, salakuntzaren akuilua erabili ondoren:

Lo que nosotros deseamos, Señor, es que en España se implante un sistema regional adecuado [...].

No podemos usar nuestra lengua más que en nuestros hogares y en conversaciones familiares; desterrada de las escuelas, lo ha sido más tarde de la contratación pública y también de los tribunales, en los cuales muchas veces, y por muy ilustrados que sean, ni los jueces entienden a los testigos y procesados, ni estos entienden a los jueces.

Quiera Dios que nuestra trabajada nación pueda regenerarse por el particularismo, [...] en el que se mezclaran todas las lenguas nacionales, oficialmente iguales en categoría, y unidas en un sólo sentimiento (Balcells 1977: 216-219).

Hizkuntza guztientzat berdintasun ofiziala eskatzen da, anaiarte adiskide batera iristeko. Dokumentu honen ondorio politikoak hutsaren hurrengoak izan ziren, eta Kataluniako burgesia industrialak eta lur latifundismo espainolak elkarren adiskide segitu zuten 1898ra arte.

1888an Erreginari zuzendutako *Missatzeak* puntu eta eskakizun bertsuetara itzuli beharko du. Mezu hau katalanez idatzita dago eta *Jocs Florals*etan parte hartu ondoren ematen zaio Erreginari. Berrogeita zazpi elkartek izenpetzen zuten gutuna eta izen handiko beste 346 lagunek. Burujabetasun politikoaren aitortpena agertzen da, eta autonomia osoaren eskea; hizkuntzaren eskakizun

politikoa bi mailatan ezartzen da; eskuarki, katalanaren ofizialtasun orokorra eskatzen du eta irakaskuntzaren katalantasuna ere bai:

Que la llengua catalana sia la llengua oficial a Catalunya per a totes les manifestacions de la vida d'aquest poble: Que l'enseyança a Catalunya sia donada en llengua catalana: Que sien catalans los Tribunals de Justícia i totes les causes i litigis se fallin definitivament dintre del Territori (Cucurull 1975, III: 114).

Zentzu berean, baina zolitasun handiagoz hitz egingo du *Lliga Regionalistak* 1916an. Une hartan, askoren ustez, posible da *Lliga* katalan hura gertatzea Espainia berrizatuaren bultzatzaile. *Lligako* gizonek *Per Catalunya i l'Espanya Gran* agiria zabaltzen dute. Hitzak gordinak direla esango nuke:

Katalunia eta jatorri berekoak diren bi Estatuak, Mallorca eta Valentzia, Espainian sartu zirenean, beren hizkuntzak gaztelaniak bezalakoxe eskubide eta lehentasunak zituen, latinarekin batera barneko bizitza publiko osoan eta nazioarteko harremanetan ofizialtasun bera zuela [...].

Zergatik hizkuntza katalan hau –Gorte eta Parlamentuetako hizkuntza, diplomaziaren eta legeetako hizkuntza, zientzia eta poesiaren mintzaira, Monarkiaren baterakuntza hura osatzean jatorriz eta eskubidez gaztelaniaren parekoa zen mintzaira–, zergatik izan da, batasun horren poderioz, erbestetua eta bizitza publikotik bortxaz aterea, borta bezala bere sortetxetik botea, eta areago oraindik: ministro eta funtzionarioek iraindua, dialektotzat joa, *patois* arlote eta zaharkitu bat bezala heriotzara eramana, azkenik etxeko supazterrean hil zedin utzia? (Cucurull 1975, IV: 96-97). [Itzulpena gurea].

Gaurko tontorretik begiratuta, Prat de la Ribaren lumatik irtendako hitzek soziolinguistikaren zientzia bertsea dutela azpi-azpian esango luke norbaitek; hizkuntza *ezin da salbatu bizitza pribatu soiletik*. Hizkuntzak (hiztungoak, alegia) berariazko eskubidea du eginkizun publikoetara pasatzeko.

4.3.1.2. *Atzerrira deia* (1924)

1923an Bartzelonatik hartu zuen Primo de Riverak Madrilgo agintea, eta hasiera batean, eskakizun haien itxaropena suspertu bazen ere (lehendik hiz-

kuntza katalanaren maitaletzat agertua baitzen jenerala), laster ikusi zen zein politika zetorkeen.

Oraingoan, erbestetik eta nazioarteko elkarte politiko batentzat hitz egingo du katalanismoak: Diktaduraren kanpotik libertatean zegoen diputatu batek *Errege* bat zuzendu zion Genève-ko Nazioen Elkarteari, erbesteko askatasun horretaz baliatuz. Hizkuntza, Kataluniaren herritasun ardaztat ematen da. Manuel Massó Llorenç-ek Nazioen Elkarteari zuzendutako agirian (1924):

Hizkuntza katalanak –gure herriaren agerbide den eta beroni izaera bera loturik duelako, sekula baztertuko ez duen mintzairak– ez du lortu Estatu espainolaren barnean, gutxiengo nazionalen Nazioen Elkarrekin babestu izan dien askatasunik gutxiena ere. Auzitegiek ezin dute erabili hizkuntza hori, Estatuaren eskoletan ez da irakasten ere, eta Estatuaren aurrekontutik –beronen laurden bat Kataluniatik aterea da– ez da deus izendatzen gure kulturarentzat (Cucurull 1975, IV: 273). [Itzulpena gurea].

Eta Diktadurak ez du hori bakarrik egiten –gehitzen du Massó–; bildutako zergetatik ezer ez itzultzeaz aparte, Kataluniak berak bere patrikatik borondatez eman nahiko lukeena ere debekatu egiten zaio hizkuntzaren alde eralgitzea:

Areago, epe labur honetan, pertsekuzio espainola piztikieriaz jokatzeko ari da hizkuntza eta kultura katalanen aurka. Azkenik, Kataluniaren deskatalantzekoa da gobernu honen burubidea (Cucurull 1975, IV: 274). [Itzulpena gurea].

Hau dena politiko katalanisten konbentzimendua zen, eta eskakizunak egitura politikoetara eraman nahi ziren. Askapen bide bat asmatu behar zitzaion hizkuntzari; estruktura politikoaren baitan, libertate nazional horri leku bat egokitu behar zitzaion. Horregatik, sistema politiko osoaren moldatzaile den Zuzenbide Politikora (Konstituzioa, Estatutua) eraman nahi da hizkuntzaren trataera berri nazionala.

4.4. Hizkuntza, Estatutu-gaietan (1874-1930)

1883koa da alderdi politiko batek egindako lehen Estatutu-gaia. *Partit Federalak* asmatua zen proiektua, eta Kataluniako Eskualde Kongresuan onartuta zabaldu zen. *Constitució de l'Estat Catalá* gisa emana, badu erradikaltasunik bere

asmo eta helburuetan, bai arazo sozialetan eta baita nazionalen ere. Maciàren aurreproiektua salbu, Estatutu-gairik gordinena da katalanismoan ezagutzen ditugunetatik: Estatu katalanak soberania osoa du, eta hitzarmen bidez lotzen da bakarrik, baina inoiz soberania ahalmenik galdu gabe. Estatutu-gaia katalanez dago, baina ez da hizkuntza espresuki aipatzen. Badirudi arazo horretan ez dagoela eztabaida edo zalantzarik, eta burujabetasunari eta aitortua eta sentitua den nortasunari darion izan-modu natural bat dela Kataluniak katalana ofizialtzea. Hizkuntzarekiko eskakizuna argiago agertuko zaigu arestian dugun *Centre Català*ren programan.

Katalanismoaren historian eta Estatutuaren bilakabidean hain axolazkoak gertatu ziren *Bases de Manresa* aurkitzen dugu, ordea, hizkuntzaren trataera konstituzional baterako formulaziorik agerikoena.

4.4.I. “*Bases de Manresa*” (1892)

Unió Catalanista bildutako Batzarretik (1892) irten zen dokumentu konstituzional hau (honelaxe, *konstituzional*, izendatzen dut, horretara iristeko sortu baitzen). *Unió Catalanista*, alderdien gaineratik zegoen elkargo bat zen. 1891n jaio, eta Kataluniako herri guztietako talde katalanisten elkarte izan nahi zuen. *Lliga de Catalunya*ko gizonak ziren *Unió* honen gidaririk suharrenak (Narcís Verdaguer, Duran i Ventosa, Prat de la Riba, etab.).

Dokumentuaren izen osoa *Bases per a la Constitució Regional Catalana (Bases de Manresa)* zen eta bi parte ditu konstituzio-gaiak: Botere Zentralari dagokiona bata eta eskualdeko Botere autonomiari datzekiona bigarrena. Sozialki kontserbadorea agertzen da dokumentua, baina konfesionaltasunari buruz, esate baterako, ez zituen integristak kontent utzi. Arazo nazionalen bortizkiago jokatzeko du: barne gobernuko Kataluniari soberania aitortzen dio, ez du kanpotarrik onartzen hango kargu publikoetan, Botere Legegile bakarra Gorte Katalanena izango da, etab. (Agiria osorik, gaztelaniaz, Balcells 1977, I: 228-231).

Hizkuntzaren eremuan ematen den norabidea ezin argiagoa da: katalana hizkuntza nazional bakarra den ala ez esan gabe, testuaren azpitik horixe ageri da. Ofizialki, Kataluniaren hizkuntza *bakarra* katalana izango da, ez dago besterik. 1716tik 1892ra artean Monarkia espainolaren politika kolonialak txertatu zuen mintzaira arrotza ez da aintzakotzat hartzen, edo beharbada bai, baina betiere hizkuntza etorkiak egindako hondamendia konpontzeko erabakiarekin. Areago, oraindik: Kataluniak bere barnerako hizkuntza bakarra baldin badu, berdin gertatzen da erbestearrekiko harremanetan. Dena katalanez egingo da. Garai batean, katalanak Erregerekin katalanez mintzatzen baldin baziren, ukatutako usadio hura berriro beharra dago:

Base 3.º La Llengua catalana serà l'única que, amb caràcter oficial, podrà usar-se a Catalunya i en les relacions d'aquesta regió amb lo Poder central (Cucurull 1975, III: 140).

[Katalunian ofizialki erabili ahal izango den mintzaira bakarra hizkuntza katalana izango da eta berdin eskualde honen Botere zentralarekiko harremanetan]. [Itzulpena gurea].

Ikusten da, bada, katalanaren ofizialtasuna erabat garbiki definitzen dela; katalana da herri horren hizkuntza, eta ez besterik.

4.4.2. “*Mancomunitat*”aren gogoa

1892ko *Bases* haien ondoren, eskakizun hauek bizirik daude katalanismoan: hizkuntzarentzat politika berri bat egin behar da, baina, politika egiteko, ezinbestekoa da tresna instituzionalak eta aginte barrutiak mugatzea.

Lege eskuera horren bila doaz zuzenean, Karlisten aurreproiektua 1899an eta *Mancomunitatak* berak 1918an eta 1919an prestatzen dituen Autonomiarako Estatutu-gaiak. Hizkuntza ez da espresuki aipatzen. Une honetan badirudi elkarrizketa politikoak berez ekarriko duela erakundeen aldakuntza, eta truke horri naturalki darion zerbait izanen dela hizkuntzaren tratamendu berria.

4.4.3. *Macià eta karlismoa ere*

Eskuina Madrilekin tratuan dabilenean, berriz, ezkerra haren abertzaletasun praktiko epela salatzen hasi zen. Arestian ikusi dugu Martí i Julià-ren salaketa. Kataluniako abertzalegoa ezkerrera lerratzen hasiko da 1917-1923. urteetako krisian. Erreibindikazio nazionalaren ahots gogorra ezkerretik entzungo da: 1919an jaiotzen da Francesc Maciàren *Federació Democràtica Nacionalista*, eta berehala Kataluniaren barne Gobernurako, hauxe esaten du labur-labur: “La llengua catalana serà declarada oficial”.

Diktaduraren garaiak oraindik areago kontzientziatuko ditu politikariak, karlistak esate baterako. 1899an bere aurreproiektuan aipatu ere egin gabeko hizkuntza, 1930eko *Projecte d'Estatut de Catalunya*n ezingo du ahanzi karlismoak. Lehendabizi Kataluniaren *nortasun nazionala* aitortzen du *bere banakotasun bereizgarri guztiekin*; gainera, Manresako dokumentuan aipatzen ziren bi ikuspegi sartuak daude hizkuntzari dagokion artikuluan: Katalunia barneko ofizialtasuna eta kanpoko harremanetan katalanari lagako zaion lekua. Karlismoak –Foru tradizio soilera itzuli nahi guztiarekin ere– ez du 1716aren aurreko egoera linguistikora bueltatu nahi. Horregatik, kanpoko harremanak gaztelaniaz eginen dira,

bestelako akordiotara iristen ez bada bederen. Honela hitz egiten zuen aurre-proiektu karlistak:

Katalunian mintzaira katalana izango da hizkuntza ofiziala.

Botere konfederalaren eta federalaren arteko harremanak gaztelaniaz eginen dira, bestelako hitzarmenetara borondatez iristen ez den bitartean [Itzulpena gurea].

Hau zen Karlismoaren jarrera, eta *Lliga*rena lehentxeago ikusi da. Biak eskuintean zeuden, bai karlismoa eta baita *Lliga* ere. Laster, ordea, ezkerrek hartuko zituen hitza eta agintea, Maciàren gidaritzapean.

Sozialismoarekin edo UGTrekin Diktadurak ukan duen tolerantziarik ez du katalanismoak beretzat ezagutu. *Mancomunitate*aren garbiketa egin zen 1924an, eta 1925ean deuseztatu. Garai batean (1914-1923) katalanari *Mancomunitate*an emandako leku publikoa ere ukatu egin zitzaion. Elizaz baliaturik, katekesiaren bidez, gaztelania sartu nahi da haurren baitara. Jokabide asimilista honek Vidal i Barraquer-ekin topo egingo zuen. Oro har, zapalkuntzaren ondorioz, ezkerre-ra joko du katalanismoak.

Testuinguru honetan, Habanan bildu zuen Maciàk bere *Partit Separatista Revolucionari de Catalunya* alderdia; erbestean, Kataluniaren Estatutua prestatzen dabilta abertzalerik minduenak, beroenak. Aparteko ibilbidea bilatu beharko da, idazten du Maciàk Mendoza-tik:

Kataluniak Estatu Espainolarekin lankidetzan jarraituko balu (bere bandera erdeinatu, hizkuntza iraindu, tradizioak nahastekatu eta aberastasunak lapurtzen dizkion Estatuarekin, alegia), bere ohorearen kontrako konplizitatea onartuko luke [1828]. (Cucurull 1975, IV: 302). [Itzulpena gurea].

Altxamendu armatura dei egiten da: Diktaduraren zapalkuntzak ez dio beste biderik uzten, nonbait, katalanismo ausartari. *Constitució Provisional de la República Catalana* bat onesten da Habanako Batzarrean. Hauxe da, Katalunia zapalduan, katalanismoak sekula eman duen konstituzio-gairik erradikalena. Pentsamendu independentista eta elebakartasun ofizialaren asmoarekin datorren agiria da hau. Manresako Baseek zioten bera berritzen du, baina laburrago eta inolako zalantzari zirrikiturik laga gabe: “Art. 2. L’única llengua oficial de Catalunya és la catalana” (Cucurull 1975: 305-322).

Oraindik, zortzigarren artikulua barnean bada katalantasunaren azalpen

gisa hizkuntzari zer-nolako garrantzia ematen zaion erakusten digun zerbait: atzerritar adineko batek legezko katalantasuna lortu nahi baleza, bost urteko egonaldia behar du egin Katalunian, borondatez eskatu behar du nazionalitate hori; *katalanez mintzatu eta idazten ez baldin badaki*, ordea, ezingo zaio legezko katalantasun hori atzerritarrari eman (IV tit., 8. art., e). Konstituzio-gai honek lortuko den Kataluniaren independentzia daukanez oinarrian, espainolak ere atzerritar izanen dira, hizkuntzari buruzko baldintza hori betetzen ez badute.

Irakaskuntzaren antolamendua legeztatzean, katalana izanen da, aurre-proiektuaren arabera, lehen mailarako baitezpadakotzat ematen den hizkuntza (6-12 urte bitartereko); bigarrenenerako ere katalana da irakas-tresna, eta gaztelania obligazioz emango da, frantsesa, ingelesa nahiz alemana, hirutatik bat, nahitaezkoa dela (Cucurull 1975, IV: 316-317).

Hau da Macià eta bere alderdiaren pentsamendua, Errepublika etorri aurretik. Gero, agintea eskuratzean, ez dira eragozpen eta itxarobide berak ibiliko jokoan. Aldian aldiko, eta ingurunearen oihartzun nahiz erreakzio diren politikak egin ohi dituzte politika gizonek ere. Politika *egokituak* esan nahi da.

5. Ondorio bidez zenbait ohar

Bidaia agian luzeegi honen ondoren, bidezko izanen da, laburpen gisara, zenbait puntu azpimarratzea. Hona batzuk.

Eskuarki esan ohi den baino zaharragoa da abertzaletasun katalana. Ez da jaio XIX. mendean, XVII.lean baizik. Harrezkero, eta XVIII. mende osoan zehar egindako lan eta sortutako erakundeetatik jaio zen *Renaixença*. Mugimendu hau kulturala eta politikoa izan zen, aldi berean, eta XIX. mendearen hondarreen katalanismoari formulazio politiko heldua emateraino iritsi zen. Pentsamendu koherentzia bat lortu zuen.

Sozialki oinarri zabalak zituen *Renaixença*k nekazaritzan, merkataritzan, apaizerian, burgesian eta langilerian. Ideologiaz eta taldez, ezker-eskuinetan, bietan, topa ditzakegu zinezko abertzaleak. Ezker progresismoak ez zuen abertzaletasuna ukatu.

Mugimendua alderdi politiko bilakatu aurretik eta ondoren, alde batetik indar eragile eta bestetik erreibindikatu gertatzen da hizkuntza. Identitate nazionala mamitu eta nazio kontzientzia sustatu egiten ditu.

Hizkuntzari sostengu politikoa eman beharra sumatzen da kultur eta politika gizonen artean. Ondorioz, sustagarri nagusi bat bihurtzen da hizkuntza. Kultura eta politika lehiakide dira, beraz, mintzairari babes ofiziala egokitu nahian.

Hizkuntza, funtsezko balioztat aitortzen da kulturgintzan eta politikan.

Politika, heldutasuna lortuz doan heinean, ez du inork hizkuntzaren balio nazionala ahanzten, eta geroz eta argiago ikusi eta erakutsiko da mintzaira katalanaren ikuspegi politiko-nazionala. Anitzentzat hizkuntza da, hain zuzen, nortasun katalanaren *balio eta agerbiderik funtsezkoena*.

Inoiz, politikaren tratuetan, katalanaren erreibindikazioa epeltzen nahiz nahasten baldin bada, talde politiko tratularitik kanpo geratutako abertzalegoak jasoko du, berriz ere, hizkuntzaren bandera garbia.

Eta berriro erasoko zaio hizkuntz politika arrotz eta zanpatzaileari... Kataluniak ez zuen amore eman honetan, eta ahal izan zuenean, bortizki heldu zion politika berreraikitzaileari (1931-1939). Aro berri honetako lana arakatzeari beste baterako gelditzen zaigu.

BIBLIOGRAFIA

- Azurmendi, J., 1995, "Topoi nazional/nazionalistak Ernazimentuan: Camoensen «Os Lusíadas»" in Garzia, P.; Zaldúa, I. (ed.), 1995, *Historia: zientzia ala literatura*, Bilbo: UEU, 59-146. [N. B., gaztelaniaz: 1999, *El hecho portugués*, Hondarribia: Hiru].
- Balcells, A., 1977, *Cataluña contemporánea*, Madrid: Siglo XXI.
- Balcells, A. (ed.), 1980-1982², *Història dels Països Catalans* (2 t. 3 libk.), Barcelona: EDHASA. [N. B.].
- Ballot i Torres, J. P., 1814, *Gramática y apología de la lengua catalana*, Barcelona: En la estampa de Joan Francisco Piferrer.
<<http://www.archive.org/stream/GramticaYApologaDeLaLlenguaCathalana/Ballot1814#page/n0/mode/2up>> [N. B.].
- Bonet i Baltà, J., 1984, *L'Esglesia catalana, de la Il·lustració a la Renaixença*, Montserrat: Publicacions de l'Abadia. [N. B.].
- Capmany y de Montpalau, A. de, 1779-1792, *Memorias históricas sobre la marina, comercio y artes de la antigua ciudad de Barcelona* (4 libk.), Madrid: en la Imprenta de D. Antonio de Sancha.
- Chabás, J., 1935, *Juan Maragall, poeta y ciudadano*, Madrid: Espasa Calpe.
- Comas, A., 1972a, *Història de la literatura catalana. 4. Part Moderna*, Barcelona: Ariel.
- Comas, A., 1972b, "L'interès per la llengua" in Comas 1972a, 164-209.
- Comas, A., 1972c, "Els gèneres populars i tradicionals" in Comas 1972a, 210-351.
- Cortes: *Diario de las discusiones y actas de las Cortes*, 1811-1813, Cádiz: Imprenta Real.
- Cucurull, F., 1975, *Panoràmica del nacionalisme català, I: Dels orígens al 1813; II: Del 1814 al 1874; III: Del 1875 al 1914; IV: Del 1914 al 1931; V: Del 1931 al 1933; VI: Del 1933 al 1936*, París: Edicions Catalanes de París.
- Estelrich, J., 1926, *Entre la vida i els llibres*, Barcelona: Catalonia.
- Estelrich, J., 1932, *Catalanismo y Reforma Hispánica*, Barcelona: Montaner y Simón.
- Ferrer i Gironès, F., 1985, *La persecució política de la llengua catalana. Història de les mesures preses contra el seu ús des de la Nova Planta fins avui*, Barcelona: Edicions 62. [N. B.].
- Hina, H., 1986, *Castilla y Cataluña en el debate cultural, 1714-1939*, Barcelona: Península. [Jatorrizkoa: *Kastilien und Katalonien in der Kulturdiskussion, 1714-1939*. [N. B.].

- Molas, J.; Massot i Muntaner, J. (ed.), 1979, *Diccionari de la literatura catalana*, Barcelona: Edicions 62. [N. B.].
- Pabón, J., 1952-1968, *Cambó*, Barcelona: Editorial Alpha.
- Reglá, J., 1974, *Historia de Cataluña*, Madrid: Alianza Editorial.
- Rubió i Lluch, A.; Parpal i Marqués, C., 1919, *Milá y Fontanals y Rubio y Ors, Discursos...*, Barcelona: Imp. de Pedro Ortega.
- Sala, G., 1640, *Proclamacion catolica a la Magestad piadosa de Felipe el Grande Rey de las Españas y Emperador de las Indias nuestro Señor*, [Barcelona?]: [s. n.].
- Sanchís Guarner, M., 1976, “Jaume I, configurador del domini lingüístic català” in *VARI*, 1976, *Jaume I el Conqueridor, 1276-1976. En el VII Centenari de la seva mort*, Barcelona: Fundació Carulla-Font, 14-38.
- Sanchís Guarner, M., 1980, *Aproximació a la història de la llengua catalana*, Barcelona: Salvat Editores. (La expansió: Baix Aragó 105-108, Balears 124-127, València 128-135, Mediterrani 179-182). [N. B.].
- Soldevila, F., 1963, *Història de Catalunya*, Barcelona: Editorial Alpha.
- Torras i Bages, J., 1981 [1892], *La tradició catalana*, Barcelona: Edicions 62 i “la Caixa”.
- Torras i Bages, J., 1985, *L'Església y el regionalisme, i altres textos (1887-1899)*, Barcelona: Edicions de la Magrana. [N. B.].
- Vilar, P., 1978, *Cataluña en la España moderna*, Barcelona: Editorial Crítica.
- Vilar, P. (ed.), 1987-1989, *Història de Catalunya* (7 libk.), Barcelona: Edicions 62. [N. B.].
- Vilar, P., 1999, *El hecho catalán*, Hondarribia: Hiru. [N. B.].
- Villanueva, J., 1821, *Viage literario a las iglesias de España*, t. VII: *Viage a la iglesia de Vique, 1806*, Valencia: Imprenta de Oliveres, antes de Estévan.

2

POLITIKAK

Lehen partean ikusitako jarrereri buruzko historiak, hemen, bigarrenean, hizkuntzen inguruan egin diren politiketara garamatza. Eremu berri honetara lau idazlanen bidez egingo dugu jauzi.

Hasteko, batez ere XVI. mendeko albiste politiko-linguistikokoak jasoko ditugu, garaiko pentsamolde eta proiektuak gogoan hartzen ditugula, eta osagarri gisa, XIX-XX. mendeetako kolonialismoari ere bere lekua emanez.

Ondoren, tarteko XVIII. mendez eskainiko da sintesi labur bat, Europari begira eta berezikiago Erregimen Zaharraren tradizioan arrasto nabaria utzi zuen borboitarren politika aurkeztuz. Ondoko idazlana, Iraultza Frantsesaz ari dena, aurrekoaren osagarria da eta ondoko 200 urtetan ondorio larriak ekarri dituena.

Laugarren idazlanak, izaera mugatuagoa duen gertakari baten aurrean jartzen gaitu: Gobernuak, dekretu bidez euskararen eliz erabilpena debekatu nahi izan zueneko tirabira (1937-1939). Hizkuntzaren arazo honek Altxamenduaren eta eliz Hierarkiaren arteko desadostasuna agerian jarri zuen, lehenengoz jendaurreko argitalpen ofizialetan.

Idazlan hauetan, hizkuntz politikaren historia ere “magistra vitae” dela ikusi ahal izango du irakurleak.

HIZKUNTZEK BADUTE POLITIKARIK

Zenbait adibide*

Lanabes bat dugu hizkuntza; giza-gizatiarra den tresna da. Gizakiaren esan-kizunetarako adierazpidea da: gizakiaren ideiak, sentipenak eta desirak ematen ditugu mintzairaren bidez. Hizkuntzaren komunikagarritasun honek, berorren gizarte dimentsioa erakusten digu (Sapir 1974: 14).

Gizarte komunikaziorako tresna da hizkuntza.

Izan ere, sinbolozko arautegi hitzartua da hizkuntza, eta gisa berean erabili ohi dute hizkuntza komunitate bereko lagun guztiek. *Arautegi hitzartu* hau, ordea, zerbait propio eta bereizgarria gertatzen zaio mintzaira jakin hori daraman gizarteari. Bereizgarria eta lokarria delako, hizkuntza bidez bereganatu ohi ditu gizarte horrek hitzun berriak. Beste nolabait ere esateko: hizkuntzak bere baitan daraman arautegia gizarteari datzekio, eta, horregatik, berau osotzen dutenek berezko partaidetasun bat egiteko joera dute.

Horrela, bada, hizkuntzak era-moldatutako gizartera handik eta hemendik gizabanakoak beretartzeko erakarmen dinamikoa du hizkuntzak.

I. Sarrera oharrak

Eman ditzagun, botere publikoa instituzionalizaturik duten gizarteak. Hauetan ere berdintsu gertatzen da: komunitate barneko harremanetarako eta integraziorako tresna bilakatzen da hizkuntza. Hizkuntzen aurrean, ez dezake aginteak ez ikusiarena egin; izan ere lehentxeago nahiz geroxeago bortxatua aurkitzen baita hautapen batzuk egitera; batzuen alde nahiz besteen kaltetan

* 1978, "Ikuspegi politikoa" in *Euskararen liburu zuria*, Bilbo: Euskaltzaindia, 79-142. Hemen, izenburua aldatuta eman dugu, idazlanaren jatorrizko asmoari jarraiki. (Idazlan hau bera Euskaltzaindiaren *Libro Blanco del Euskara* liburuan ere ikus daiteke, gaztelaniaz, 81-116. or.).

diratekeen hautapenak, hain zuzen lehenengoei trataera politiko onuragarria eskainiz eta bigarrenei tratamendu politiko kaltegarria ezarriz.

Askotan aipatu ohi den *hizkuntza neutraltasunaren* arazoa da hau. Zer da ordea? Nola lor daiteke horrelakorik? Ez, noski, oharkabe bezala sortzen den legeria batez, ezta historiaren joan-etorrien zurrumbiloan itsuki gauzak joaten utziz. Egon, ez dago, izan ere, hizkuntza kontutan oharkabe eta itsuki egiten den neutraltasunik.

Neutraltasun aktiboa behar da, hizkuntza politika neutraltasunez egingo bada. Horregatik, premiazkoa da komunitate politikoan bizi diren herritarrek –eta guztiok gara horietakoak– hizkuntzaren arazo politikoari ongi ohartuki eta kontzienteki aurpegia ematea. Eta Estatuaren aldetik halaxe gertatu ohi da: dekretu bidez hautatu ohi dituzte Estatuak beren hizkuntza ofizialak. Jende xumeak berak ere ikusi du hori nolabait: adibidez berehalaxe pentsatu ohi dugu Estatu bakoitzari *bere* hizkuntza zor zaiola. Nahiz eta halako susmoa edozein hizkuntza -kartak bat-batean desegin, hasiera bateko uste ilun horiek (Estatua = Hizkuntza) behin eta berriz nahasi egiten dizkigute gure arrazoiketa politiko-linguistikoak.

Sala dezagun, bada, bai gure baitan, bai gure inguruan, joera makur hori: Suitzan ez da *suitzerarik* mintzatzen, Jugoslavian ez dago *jugoslavierarik* hizkuntza ofizialtzat (Michelena 1974: 127-128).

Baina ez da harritzekoa hori. Komunitate politikoak eta linguistikoak interkorapilatu egiten zaizkigu gure azterketan, izan ere gauzak baitira berez elkarlotuak. Hizkuntzak talde politikoan haragi hartzen duenean, testuinguruan dimentsio berri batez janzten da, eta dimentsio hau politikoa da. Nahitaez, botere politikoaren jardunak hizkuntzaren bizitza du beti tartean. Hizkuntza horretaz beti baliatzen da; batzuetan zerbitzatu egiten du, besteetan zokoratu. Aintzakotzat hartu gabe utzi ere bai ote?

Gizonak gobernagarriagoak baitira, eta maneigarriagoak ere, hizkuntzaren bidez.

Hjelmslev daniar irakasleak labur eta bortizki esan du hau bera: “Diktadore izan nahi dezanak, ongi egingo du semantika ikastearekin”, zeren eta hor baitabil hizkuntzaren dimentsio politikoa (Malmberg 1966: 107).

Hori horrelaxe izanik ere, ez dugu hemen *hizkuntza politikoaren* arloa ukitu nahi, hau da, ez dugu aztertu nahi politikariek sor dezaketen hizkera modu berezia. Ez. Hizkuntzak berez duen proiektzio politikoaz ari gara, izan ere mintzairaren izaera politiko horrexegatik baitaude elkarrengandik zintzilik hizkuntza eta politika. Elkar baldintzatuz agertzen zaizkigu biak.

Hementxe, hizkuntzaren eta politikaren urbieta honetantxe, nahi dugu lan egin.

Horretarako, bi ikuspegi jakin hautatzen ditugu, gure ustez interlotura hori ongienik erakusten duten bi ikuspuntu: lehendabizi, hizkuntzen gramatikari, apologista eta aztertzailleak ditugu gogoan; baina berorien axioma politikoak aztertuko ditugu, ez hizkuntza zientzia. Hizkuntzalariak ez dira mundutik at bizi diren gizakiak, munduko gauzez kutsatu gabe bizi direnak, alegia. Eta, horregatik ere, mintza gaitezke hizkuntzalarien linguistika politikoaz. Bigarren ekinaldi batean politikariei hurbilduko gatzaizkie: linguisten iritzi eta tesiek izan dute, bai, oihartzunik franko politikariren artean. Hauen teoria eta praxiarekin daukate iritzi haiek zerikusirik, eta joan-etorri handikoak ere gertatu dira, gertatu, hizkuntza batzuen faboretan. Hori bai: politikarien jokabideetan, interesgarriagoak ditugu hemen, ekintzen azpitik doazen korronte ideologikoak, ekintza politiko konketuak baino.

Gure arazora hel gaitezen, zientzia arteko begirapuntu batetik ekingo diogu lanari.

Soziologiara eta linguistikara joko dugu, politologiara eta zuzenbidera, literaturara eta historia orokorrera. Haatik, ez gara soziologia linguistikoa sartuko, ezta taldeen hizkerak arakutzen ere. Eta hemen ez zaizkigu apenas axola, zuzenki behintzat, klase politikoaren hizkera modu bereziak.

Behin baino gehiagotan, gure hausnarketa historiatik eginen dugu, izan ere pentsamendu-iturri oparoa baitugu historia. Baina esan dezagun: historia, argigarri bezala hartzen da, orrialde hauek ez baitute historia eman nahi, bertan erabili izan den zenbait teoria erakutsi eta aztertu baizik. Hori bai, Historiak ongi erakutsiko digu hizkuntzaren historiatasuna; mintzaira, gizakiaren eta gizadiaren aldiari, garaiari, lotua dago, egin ere, giza hizkera mendez mende joanean doazen belaunaldiei txertatua egiten baita; komunitatearen gorabehereri darie. Bai gizakia, eta bai beronen hizkuntza, espazio-garaien kateez loturik ageri dira.

Labur ditzagun eskuartean dauzkagun galderak:

Hizkuntza jakintzak zer-nola zerbitzatu du politika? Zein arrazoi, ideia eta pentsamolde erabili du zerbitzu horretan? Zein oinarri teoriko eman dio linguistikak botere publikoari gobernamenturako? Zeintzuk dira edo izan dira teoria linguistikoaren politika neutraltasuna edota konpromisoa?

Eta aitzitik:

Nola moldatu dira politikariak, linguistikatik jasotako teoriak politika munduan mamitzen? Zer-nolako eragina izan dute agintearen gobernamentuan? Nor egon da norengandik: politikariak linguistengandik ote, ala alderantziz? Estatuak eta komunitate politikoak, eta orobat alderdi eta taldeek ere, hizkuntza politika jakinak programatu eta egin izan dituzte. Horregatik, beti

galde daiteke zein printzipio politiko edo linguistikotan oin hartu duten. *Zibilizazio hizkuntza* direlakoan kasuan du muntarik handiena galdera honek: zeintzuk izan dira horien politika linguistikoaren oinarri teorikoak?

Ziurki, ugari dira galderak eta oso elkartrabatuak erantzunak.

Lerro hauetan teoria haien ildo nagusiak azalduko ditugu. Hori da hemen egin nahi duguna. Historiatik datorkigun hizkuntzen dinamika politikoa ikusiko da. Izan ere, alde zuzenetik adierazi nahi dugu, ez dugula onartzen hizkuntzekiko ikusmolde fixistarik: aldakorrak dira mintzairak, garaiak dakarren indarrez. Eta Historiaren indar aldagarri horietan, bat politikarena da. Erabaki politikoek lur jate eta betetze handiak egin dizkiete hizkuntzei, eta oso gogoan hartzekoa da politikaren eragin hori.

Hizkuntza baten zori ona nahiz gaiztoa ez dira ezinbesteko patu historiko baten fruituak. Aitzitik, ezagut daitezkeen ekintza historiko batzuen *ondorioak* dira. Eta erabaki historiko hauek, hein handi batean, aldakorrak eta hautazkoak izan ohi dira.

La lengua (y, en último término, la comunicación que la emplea) puede adquirir nuevos registros, aumentar con el cultivo la riqueza y flexibilidad, adaptarse a situaciones más complejas o, por lo menos, a situaciones muy distintas (Michelena 1974: 121).

Historiak hartara sakaturik, hizkuntza bat oso gai da teknika berriez jabetzeko. Mitxelenak, hau dela eta, Perry-ren kanoiak aipatzen ditu: ez zekiten japoniarrik, baina ederki tiratu zuten Japoniaren kontra, geroago hegazkin japoniarrek, ingelesik jakin gabe, Pearl Harbour-en aurka egin zuten bezalaxe. Hizkuntza ezberdinetan ikasitako teknika bat-bera erabili zuten, noski.

Hots, baldintza jakin batzuen barnean, teknika berriak sortu dituzten mintzaira haietan ito eta galdu gabe ere posible zaie hizkuntzei teknika haiek berak ikastea.

Aurreko bi atalburuetan ikusi ditugun hizkuntzaren ikuspegi linguistikoa eta antropologikoa, beste batez osatzera datoz ondorengo orrialdeok: ikuspegi politikoa, alegia. Hizkuntza guztiek duten gizarte ingurumenari datzekion dimentsio politiko hori, inolaz ere bazterrezinezkoa da hizkuntza bat salbatu edota hondatu nahi baldin bada.

2. Linguistika politikoa: gramatiketik politikara

Hizkuntzen gramatika eta hiztegiak ez dira berez jaiotzen: eramankizun handienarekin burututako lanen ondorio izan ohi dira. Printzipio eta metodologia zail ez eramandako estudio horiek hizkuntzen zentzua eta bizia argitara nahi digute; horrela, bada, ez-adituak ere badu hizkuntza fenomenoak hobeki ezagutzeko biderik.

Noizbehinka, jantziagoa den norbaitek jakin dezake nor den Saussure, nor den Chomsky eta abar. Hori ere kultura da, noski.

Baina linguistak, hizkuntzaren azalpen oro-hartzaile bat eskaini aurretik, errealitatearekin bortizki borrokatzen dira. Hizkuntzen errealitatearen eta iker-tzailearen artean teoria eta metodoa jartzen dira; baina hauek —teoriak eta metodologiak, alegia— ez dute errealitatea urratu behar: inolako saldukeriarik gabe bereganatu behar dute. Hori dela eta, etengabe berraztertu eta berrikusi behar dira teoria orokor eta metodoak, berorietan baitute, izan ere, zientziek beren sostengua.

Noizik behin egin ohi diren berrazterketa zientifiko horiei esker lortu ditu Zientziak, historian zehar eman dituen bat-bateko aurrerapauso batzuk.

Hizkuntzalariek berek egindako kritika eta oharpenak ere tartean ditugula, kapitulu honetan zera emango dugu: Aro Modernoan eta Garaikidean, hizkuntzen estudio hastapenetan erabili izan diren ikuspegi politikoak. Maiz suertatu baita ikuspegi horiek zenbait linguistikaren abiapuntuan gertatzea, eta, horrela, premiazkoa da hori horrelaxe —eta nola— izan den jakitea.

2.1. Gramatikariak eta politikariak Errenazimentu garaian

Gramatikari eta politikariek sasoi-sasoiko giroa aurkitu zuten Errenazimentuan; berrikuntza eta aldaketetarako aparteko egokiera eskaintzen zuen Pizkunde hark.

XV-XVI. mendeetan bata bestearen ondotik zetozen garaiko belaunaldiek berebiziko historia unea zuten. Eta instituzio berriak ere bai: 1500. urteko bizkarrezurraren gain zangalatrau doazen berrogeita hamar urteetan, Europaren mapa politikoa aurpegi berriz janzen da. Europa ez da, hartaz gero, lehengo Europa zaharra.

2.1.1. *Estatu bateratuak*

Utopien, posibilitateen eta iragan aldietatik datorren errealitatearen arteko bidegurutzetan mamitzen da Historia. Izan daitezkeen etorkizunen eta, are

gehiago, utopien izan-minik gabe, fosildu eginen litzateke errealitatea, horiexek baitira errealitatearen legamiak.

Estatu frantsesaren historialari dugun Pernoud-ek poliki gogoratu digu azaldu nahi dugun hau: Frantziaren bateratzean *posibilitate* eta *ameskari* anitz zen batera. Izan ere, historialari orok *lege historikoak* bilatzen ditu, baina berehala hasten da legeak zer-nola ulertu behar diren erakusten; *kontingentzia* aipatuko digu, alde batetik, eta ez du ahantzi beharko *giza libertate* erlatibo horren eragina ere.

Ez ditugu ahantzi nahi azpi-azpiko baldintzapen estrukturalak, ezta hainbat alditan hain erabakigarri gertatu izan diren ekarpen pertsonalak ere; baina ezin ukatua da *gertakari politikoetan* hala-mentura eta adurra ere. Eta hortik jaiotako errealitatean beti da, beraz, badaezpadakotasun zerbait. Alabaina, ausazko errealitate hori benetakoa da: behin betiko jaio dena hor dago eta ez da inondik ere, izan bazitekeen baina inoiz izatera iritsi ez den hura. Aitzitik, aukera guztietatik izatera heldu den horixe da, hain zuzen, egiaz eta *de facto* den bakarra. Errenazimentuko Historian gorpuztutako gertakarietako bat Estatu *nazionalen* sorkundea izan zen. Konkista eta herentzia bidez, hainbat lurralde eta herrialde ezberdin Erregearen eskuetan elkartu egiten ziren. Hala lortzen da Espainian, Frantzia eta Ingalaterran lurralde batasuna; Alemaniak eta Italiak ez dute horrelakorik XIX. mendea arte.

Orrialde hauetan Espainiako eta Frantziako bilakaera politiko-linguistikoa-ri begira jardungo dugu, eta bidezkoa da, beraz, gertaera historiko haiek hona ekartzea¹.

Erromatarren garaian eta Erdi Aroan ere Penintsulari *Hispania* deitzen zitzaion (Elliot 1965: 13); horixe zen Penintsularen izen geografikoa. Lurralde honen batasunak aparteko egokiera politikoa du Errege Katolikoekin, Isabel eta Fernando ezkontzean (1469). Ezkontza bidez egindakoa, armaz lortuko da Granadan (1492) eta Nafarroan (1512); baina, hala ere ez da batasun osorik, Portugal alde batera geratu baitzen. Eta Portugalekiko batasuna ere oso posible zen orduan. Izan ere, 1469an Isabelentzako senargai bat Portugaleko Alfontso V.a zen, eta gerrate zibil baten (1475-1479) ondorioz bakarrik gertatu zen ezinezkoa Portugal/Gaztelaren arteko bateratzea.

Bestalde, Portugal/Gaztelaren batasuna logikoagoa ere bazen une hartan².

¹ Errenazimentuko Estatuaren bateratzeaz gehiago nahi baledi, ikus Europarako: Lapeyre 1969, Elliot 1965.

² “La unión de un Portugal vigoroso y expansionista y una Castilla igualmente vigorosa y expansionista hubiera podido ser una equilibrada unión de dos países que se hallaban en estadios semejantes de desarrollo histórico” (Elliot 1965: 39).

Katalunia eta Aragoirekiko hautapenak ezeztatu egiten zuen Espainia = Gaztela + Portugal hura. Inoiz izatekotan, 1580-1640 artean izan zuen Hispania geografikoak batasun politikorik: ezkontzek, herentziek (Gaztela, Aragoi), eta armadek (Granada, Nafarroa, Portugal), orduan lortu zuten Penintsula politikoki zatikatua bateratzea.

Frantzian ere orobatsu gertatu zen; hor ere ezkontzaz eta armaz bultzatu zen baterakuntza.

Ordurako Erdi Aroko posibilitate anitz hondoratua zen: Okzitaniaren izan-minak, Iparraldearen hegemoniapean galduak; Ehun Urtetako Gerratearen ondoren, hondatua zen Frantzia/Ingalaterraren batasuna; berdin, Frantzia borgoinarren erresuma (bere mugak, Rhin ibaian bertan hain poliki zituena), Borgoinako María, Austriako Maximilianekin ezkondu baitzen (1477). Horregatik idazten du Pernoud-ek³:

Après la période de la Renaissance –époque critique entre toutes pour l’unité française– on verra la politique extérieure du royaume s’orienter sur un point très défini: la conquête de ce que l’on appela les *frontières naturelles* de la France (Pernoud 1966: 84).

Baina, Errenazimentu garaian, Rhin hura ez zen lehenen helburua; Britainia eta Nafarroa Beherea ziren bereziki XVI. mendeko jomugak. Ongi diogu: jo eta hautsi beharreko mugak.

Bretainiako Ana oinordekoak, bazituen nobiogaiak Gaztelatik Austriaraino, Ingalaterratik Gaskoiniaraino; baina, bata bestearen ondoren, Frantziako Karlos VIII.arekin (1491) eta Luis XII.arekin (1499) ezkondu zen. Hurbil zegoen, bai, Frantzia hura. Bide ona ari zen urratzen Frantziako Koroa: Ana eta Luis XII.aren alaba eta Britainiako Dukerriaren oinordekoa, Claude, Valois-Angulemako Frantsesekin ezkondu zen. Horrela elkartu ziren Frantses I.arengan Frantziako Erresuma eta Britainiako Dukerria. 1532an, pertsonalki egindako batasuna, Erresuma-Dukerrien beren arteko baterakuntza bilakatu zen, baina ez Erregeak, honelakoetan ohi den gisara, esalditxo egoki bat izenpetu gabe:

Nous voulons que les droits et privilèges que ceux du dit pays et duchè ont eus par ci-devant leur soient gardés et observés (Waquet; Saint-Jouan 1970: 68).

³ Estatuen mugen arazoaz zerbait ikusi nahi badadi, ikus 1969, *Atlas historique*, Paris: Stock. (Bada gaztelaniazko itzulpenik ere Istmo argitaletxean, Madrilen).

Hegoaldean bazegoen Frantziako Erresumak biziki gutiziatzen zuen lurralde bat: Nafarroa. Fernando Katolikoak Pirinio hegoaldea konkistatu zuenetik, Valoistarrek Iparraldeko Nafarroa Beherean zituzten beren politikaren helburuak. Albretarrak ziren Seigarren Merindade hartako Errege eta Biarnoko Bizkonde.

XVI. mendean zehar, etengabe ahalegindu zen Frantzia hegoaldeko Erresuma ttipian esku sartzen, horretarako ahal ziren ezkontza-bideak bilatuz (1527, 1548, 1572); baina, bien bitartean, Protestantismo bearnesaren arazoa tartekatu zen. Erlijio-gerrateen ondoren, Henrikeren (Nafarroako III.a, Frantziako IV.a) konbertsioarekin garbitu zen problema. Biarnok eta Nafarroak dinastia berri bat eman zioten Frantziako Erreinuari (1589); baina, hasiera batean batasun pertsonala zena, gerora (Bretainiaren antzera) Erresumaren bateratzea bilakatu zen 1607 eta 1620. urteetan (Tucco-Chala 1970: 56). Ekialdeko mugak oraindik ere harat-honatean badabiltza ere (Münster-eko, eta Utrecht-eko Itunetan kasu), Pirinioetako muga finkaturik geratzen da 1659an, Frantziari Rosselló uztean. Frantziak horrelaxe lortu zuen bere lurralde batasuna, eta Katalunia orduantxe gelditu zen Estatu arteko muga berri batek zatituta⁴.

Aro Modernoan burutzen dute, beraz, Frantziak eta Espainiak beren lurralde-batasuna: hori lortuta errazagoa zen instituzioa, kultura eta hizkuntza bateratzea.

2.1.2. *Herritar hizkuntzen gramatikak*

Errenazimentuko monarkia handi hauen lorpenek hizkuntzekiko gogo berriak pizten dituzte Estatuengan: Erdi Aroko Kristandadea berregituratu egin da Estatu monarkiko horietan eta premiazko ikusten da hizkuntzak ere egoera horretara egokitzea.

Gramatikari berrien lanek aurrea hartzen diete politikarienei, edo batera doaz, edota berehala datozen. Estatu *nazionalen* hizkuntzak gramatika berriz hornituko dira epe labur batean⁵.

⁴ Soldevila 1963: 1062-1068. Hor ikus daiteke Estatuaren arteko harremanetan herrien nortasunaz eta batasunaz nola jokatu den. Pirinioetako Tratatuz (1659) datu zehatzagorik nahi bada, ikus Reglà, J., 1951, "El tratado de los Pirineos de 1659. Negociaciones subsiguientes acerca de la delimitación fronteriza", *Hispania* XI, 1951, 101-166.

⁵ Francesco Fortunio-ren lana gogoan ukanik ere, lehenagokotzat ematen dugu Bembo-rena. Ikus Bembo, P., 1961, *Opere in volgare*, Firenze: Sansoni. Frantsesaren lehen gramatika ez zen frantsesez eman eta ingeles batek idatzi zuen: Barclay, A., 1521, *Introductory to write and pronounce frenche*, London.

- 1492an, Antonio Nebrijak *Gramática Castellana*.
 1525ean, Pietro Bembo-k, *Prose della volgar lingua*.
 1530ean, Palsgrave-k *L'esclaircissement de la langue françoise*.
 1536an, Fernao de Oliveira-k, *Grammatica da lingoagem portuguesa*.

Ikus daitekeenez, Elio Antonio de Nebrija (1441-1522) gainerako guztien aurretik dabil; berak egiten du hizkuntza erromantze baten lehenengo gramatika. Garaiko hizkuntzalari sonatua zen Nebrija, eta gramatika lanei heldu zien bereziki. 1482an argitaratua zuen latinaren gramatika bat, *Introductiones latinae* deitua, eta gerora, 1486aren inguruan, gaztelaniara itzuliko zuena. Giroari erantzunez –garaiko giro linguistiko-politikoari, esan nahi da–, Granada konkistatu eta Amerika aurkitu zen urte berean *Gramática Castellana* hura argitaratzera menturatu zen. Geroago, 1517an, *Reglas de Ortografía Castellana* emango zuen. Ez da batere harrigarria, Nebrija eta Bembo-engan eginkizun politiko, erdi politiko eta gramatikazkoak nahasian ikustea (Kukenheim 1932 in García 1971).

Errenazimentuko humanismo latinzaleak ez zien txera onik egiten herri-hizkuntzez arduratzen zirenei, hau da, herri-hizkuntza haiek tratatu bidez zientzia kategoriarra jaso nahi zituztenei. Baina, hain zuzen ere, Historiaren korrante nagusia beren alde zuten hauek, eta ez kultura aldetik bakarrik, baita politika eta gizarte aldetik ere. Orduantxe erabakirik, herritar mintzaira, edo hobekiago esanez, Estatu berrien hizkuntza *nazionalak* mendeetarako nagusituko ziren ofizialtasunean. Orduantxe sartu zen jokoan hizkuntzaz kanpoko kontzeptu bat: Mendebaldeko bizitza kultur-politikoan, Estatu *nazionalak* hautatutako herri-hizkuntzek beren egokiera historikoa izanen zuten (Valdés 1948: 10-11)⁶.

2.1.3. *Latina eta "hizkuntza nazionalak"*

Frantziako Erresuman topatzen dugu Errenazimentuko Estatu modernoaren *typus* garatuena, aitzinatua (Mousnier 1967: 110).

Eta Frantziak, utzi egingo du latina.

⁶ Literatura nazionalen arazorako, oro har zerbait jakiteko, ikus Queneau 1968 edota *The New Cambridge Modern History*, lehen bi liburukiak (I: *The Renaissance*, 1493-1520; II: *The Reformation*, 1520-1559). Erosoago, gaztelaniazko itzulpena: 1970, Barcelona: Sopena.

Tory inprimatzaile eta idazlea eta Ronsard olerkaria dira hautapen honen bidez kotasuna lehenengoz azpimarratuko dutenak. Zergatik ez hobetsi frantse-
sa? Tory-ren arrazoiak ikuspegi nazionala zuen: “escripre en françoise, comme François que nous somme”. Frantsesak bere baitako ahalbide oro urratu behar du eta ahal badezake, hizkuntza klasikoek egin duten bezalaxe: horretarako, landu egin behar da, eta bere gramatika arauak finkatu. Herri-hizkuntza horretan produkzio literario zabala eman behar da, hiztunen premia guztiak aseko dituen liburugintza oparoa (Brunot 1906, II: 33-35).

Naziotasun eta hizkuntza nazionalarekiko arduraren hau Errenazimentu garaiko giro orokorrari zor zitzaion.

Egia da Errenazimentuaren ezaugarrietako bat ereduaren da greko-latindarrak imitatu nahia izana, baina arazo hau ez da alde guztietan berdin nabarmentzen. Oro har, mundu greko-latindarrarekiko grina honek kosmopolitismo kutsua ematen dio garaia, eta badirudi, berdintasun klasikoa ezarriko zaiola Europa osoko kulturari. Hala ere, azpitik urduri bizi dira nazionalismoak (Saulnier, in Queneau 1968-1975, II: 65). [Itzulpena gurea].

Eta nazionalismo horren indar osagai bat —hala gogoratzen digu Saulnieren— erabakigarria gertatuko da Italian, Espainian, Frantzia eta Portugalen. Ingalaterra ere korronte berean sartuko da zenbait urte geroago, Elisabet I.aren erreinaldian. Erdiko eta iparraldeko Europan (Alemanian eta Eskandinavian) ere herri-hizkuntzek garaitu egingo dute latina, baina erresuma hauetan prozesuaren jatorrizko indarra beste bat da: Erreforma, eta ez Errenazimentua.

Gaztelaniari dagokionez, Karlos V.ak berak pertsonalki egingo du hizkuntza horren garaipenaren alde. 1536ko apirilaren 17an, Paulo III.a Aita Santuaren aurrean gaztelaniaz mintzatu zen Karlos, eta usadio eta protokolo guztien aurka jokatu zuen Enperadoreak horrela egitean. *Tabu* bat hautsi zen orduan, baina ez Frantziako eta Veneziako enbaxadoreak erresumindu gabe. Karlosen ustetan, Gaztelako hizkuntzak merezi zuen mintzaira unibertsal izatea eta normahik ulertzea (García 1971: XXVI).

Hizkuntzaren baieztapen ofizial politikoa zen hura: gaztelania edo espainola ofizialki baieztatzen zen Erroman, Aita Santuaren aurrean.

Entzuleetako batek, Frantziako Enbaxadore zen Mâcon-go Gotzainak, Karlos V.aren jokabidea tamalgarrizat jotzen du eta protokolo-haustea irizten dio. Aldi berean, Frantziako Erregeek beren hizkuntza *nazionalari* dioten amodioa gogorarazten du Apezpikuak. Hizkuntzen arteko ohore garbitzeak dira

eztabaidaren zioak. Gaztelaniaren nahiz frantsesaren aldeko lehiakideek arrazoi bertsuak darabiltzate bataren zein bestearen faboretan: frantsesak hautsiak ditu, bere zabalkundean, Erresumaren muga hertsia eta harro dabil –diote bere defendatzaileek– Artois-en, Ingalaterran, Enperadorearen Gortean eta Italian.

Garaiko idazle batek ez du horretaz zalantzarik: “la langue Françoisèse èt toute commune” Italian eta “an Espagne, on i parle ordinerement Françoisés és lieux plus celebres”. *Arruntki mintzatzen* zelako hori ez jakin nondik zekien idazle ausartak... Pentsa liteke ere, pentsa, ziurtasun hura ez zela herritarren artean egindako inkesta soziolinguistiko baten ondoren ziurra.

Arrazoi sasisozioologikoen ondoan, garaiko hizkuntzalariek bazuten beren zakutoetan *hizkuntza nazionalaren* aldeko arrazoi teologikorik ere. Cristóbal de Villalónék honela arrazoitzen du bere iritzia:

La lengua que Dios y naturaleza nos ha dado no nos debe ser menos apazible ni menos estimada que la latina, griega o hebrea [...]. Harto enemigo es de si quien estima más la lengua del otro que la suya propia (in Lapesa 1959: 204).

Horiek horrela, Errenazimentuak ondorio hau ateratzen du: latina duintasun osoarekin truka liteke herri-hizkuntzaz. Zerbait esangarriagorik ere bada egun haietan: liturgia katolikoaren hizkuntza, latina alegia, utzi egiten du Erreforma protestanteak, elizkizunen eta testu sakratuen hizkuntza herritartu eta herriaren mintzairara itzuliz⁷.

Hizkuntza trukatzeko honek ez zituen nola halako ondorioak ekarri herriaren erlijio bizitzan; sakonetik dardararazi zuen dena.

Errenazimentuko Humanismoaren parte handi batek herri-hizkuntzen alde jokatu zuen. Estatu berri handiek ere maiteago izan zituzten haiek latina baino, eta Erreformak erlijio bizitzarako ere ofizialdu egin zituen. Nora zihoan Kristandade zaharreko guztien hizkuntza hura? *Hizkuntza nazionalak* deituriko haiek hartuko ote zuten haren lekua? Europa batua zatikatu egingo ote zen hizkuntzaz eta kulturaz?

⁷ Queneau 1968-1975: I. liburukian ikus daiteke Frantziakoa; gainerako herrientzat, banan-banan, ikus II. liburukia. Jakina denez, tradizio horretxan barnean dago euskal literaturako bigarren liburu argitaratua: Leizarraga, Joanes, 1571, *Jesus Christ Gure Launaren Testamentu Berria*, La Rochelle. Kalbinistentzat egindako euskal itzulpena da.

Errenazimentuko literatura latindarrak ahalegin guztiak eta bost egin zituen horrelakorik gerta ez zedin. Eutsi egin nahi zion batasun hari (ikus Pognon 1975).

Erdi Arotik zetorren hizkuntza batasuna zen latinarena, tradizio baten ur bizietan zetorrena, eta Errenazimentuan, Antzin Aro klasikoaz egindako aurki-kundeei esker, indartzenago ageri zen mundu grekolatindarrarekiko jakin-mina; baina –D. Hayk dioenez– ez zen hori bakarrik latina bizkortzeko arrazoia. XVI. mendean, Europak premiazkoa zuen hizkuntza hori:

Latinaren ospea eta baliagarritasuna handiak ziren. Latinistak segurtaturik zeukan bere ogibidea, izan ere printzeek eta nobleziak liburuen izenburuetan eta eskaintzetan ikusi nahi izaten baitzituzten beren izenak, eta orobat irakasle, alkate, apezpiku, atezain eta soldaduek... Nazioarteko posta-trukerako premiazkoak ziren latinistak Italiako Errepublika, dukerri eta hirietan [...]. Lurralde bakoitzak zituen bere intelektualak, eskola, unibertsitate eta administrazioan. Gizon haiek ez ziren, noski, lurraldeko biztanleriaren ehuneko txiki bat baizik, baina Europa osoa hartuta nahiko multzo handia osatzen zuten. Nazioarteko talde bat zen hura, eta ezin zuen jasan frantsesa edo alemana frantziar eta alemaniarren artean egitea ere. Literatura unibertsal bat eraiki nahi zuen nazioarteko multzo latinista hark (Hay 1957: 252). [Itzulpena gurea].

Honela, literatura neolatindarrak bermaturik zeukan bere publikoa.

Eta bultzaka zetozen herri-hizkuntzez zer? Tradizio falta handi baten aurka ari ziren lanean; tradizio eskasaren eta irakurlego zabal eta leialik ezaren aurka. Ez zen batere erraza ibaian gora igeri egitea.

Italiak ekin zion lehenik lanari, izan ere italierak idazle sonatuak baitzituen, izen handiko lumak: Dante, Petrarca eta Boccaccio herri-hizkuntzan idazteaz ez ziren lotsatu. Eta ez hori bakarrik: hiri burgesia hura hurbilago zegoen herri-hizkuntza hartatik, eskolatuen latinetik baino. Haatik, Alemanian, Frantzian, Ingalaterran eta Espainian ez zen hori bera gertatzen: lurralde hauetako irakurleriak ez zuen era berean maite herri literatura; irakurlego hau kontserbadoreagoa zen, eta murriztagoa ere bai. XVI. mendeko lehenengo bi hamarkaden ondoren poliki agertu zen literatura nazionalen egitasmoek zenbaterainoko modernotasun eta errealismoa zuten. Laster gelditu behar zuen atzean latinak. D. Hay berak honela dio:

Frantzian eta Espainian, herri-idazleen gaitasunak eta nahikariak ez zaizkigu hain garbiki agertzen, baina, hala ere, aski estimagarriak dira. Ingalaterran eta Alemanian joera berdintsuak ageri dira, nahiz eta azkeneko erresuma honetan eta oro har, Europako iparralde eta ekialdean, latina oraindik ere premiazkoa gertatu, izan ere herri-hizkuntzetako idazleak ez baitziren, artean, obra iraunkor bat emateko lain [...]. Horrela, bada, garaiko literatura europarraren ezaugarrietako bat, herri-hizkuntzetarako joera hori da. Dena dela, latina asko erabiltzen zen literaturan, eta hortxe jarraituko zuen oraindik (Hay 1957: 252). [Itzulpena gurea].

XVI. mendeko lehen erdia burutzean agertu zen garbi herri-hizkuntzen garaipena. 1550-1560etako urte haietara arte erabakitzeke zegoen hori dena, eta sortu ziren eztabaidek zentzu osoa zuten garaiko kultur dialektikaren barnean.

Zer gertatu zen aldakuntza posible izan zedin?

Gauzak ez ziren ausaz suertatu. Jende asko zen han: politikariak, beren lehentasunekin, gramatikariak beren zientzia eta irakaskuntzarekin; apologistak, beren beroaldi eta arrazoiekin, eta idazleak, beren jeinu literarioarekin. Denak batean ari ziren Europako hizkuntzentzat mundu berria eraikitzen. Hizkuntza etorkizunari funts berria ezarri zitzaion orduan.

Argigarria da XVI. mendetik honantz erabili izan den eztabaidari begirada arretatsu bat ematea.

2.2. Gramatikariak, apologistak, idazleak, akademikoak

Arrazoi soziopolitikoek bortizki lagundu zuten aldakuntzan; baina zutik zeuden, hala ere, objekzio teoriko eta praktikoak. Idazleek eta intelektualek ez zituzten batere garbi ikusten, kultura osorako, literaturarako eta zientzietarako herri-hizkuntzak erabiltzearen premia eta zentzua.

Batez ere, zientziak izan ziren Aro Modernoan luzaro herri-hizkuntza horietatik urrun geratu zirenak.

Spinozak (1632-1677) bere obra osoa latinez eman zuen. Leibniz alemanarena (1646-1716) ez zen osorik bere herri-hizkuntzara itzuli eta frantsesez eta latinez lan egin zuen. Hobbes ingelesa (1588-1670), Koperniko poloniarra (1475-1543), Tycho Brahe daniarra (1546-1601), Kepler alemana (1571-1630), Newton ingelesa (1642-1727) eta Lineo suediarra (1707-1778) latinez ari izan ziren.

Zientziak, beraz, latinez mintzatzeko ohitura egina eta onartua zuen (Pognon 1975: 308-312).

Zientzia liburuen irakurleria gutxiengo txikiena zen, Kepler-ek berak *Astronomia Nova*-n (1609) aitortu behar izan zuenez (Leonoble; Belaval in Taton 1972, II: 220), baina latinez idatziz Europa osoarentzat ari zitekeen, eta ez zen hori hizkuntza klasiko honen abantailarik eskasena⁸. Gramatikari eta apologistak gertatu ziren herri-hizkuntzei egiten zitzaizkien objekzioen desegilerik bizkorrenak eta idazleen esku egon zen, mintzaira hauen ahalbideak zenbaterainokoak ziren ekintzekin erakustea. Zientzialariak askoz geroago agertuko zaizkigu alor honetan.

Lehen gramatiken hitzaurreetan eta apologietan jasotzen dira herri-hizkuntzen aurkako susmoak (Valdés 1948: 10-13, 40):

- latina da ikastunaren arretarik handiena merezi duen hizkuntza;
- herri-hizkuntzak ezin litezke harekin aldera;
- erromantzei eskainitako lana alferrikakoa da;
- jende lagunabar eta xumeenaren hizkuntzak dira erromantzeak;
- ezin dira herri-hizkuntzak, latina bezala, arauetara ekarri;
- batzuk –gaztelania hauen artean dela– oso eskas landu dira.

Baliteke gaur egungo jendearentzat arrazoi edo uste oso hauek funtsik gabekotzat agertzea, batez ere, gerora halako arrakasta izan duten hizkuntzak (gaztelania, frantsesa, etab.) gogoratzen baldin baditugu, baina eztabaidaren garai haietan muntarik handiena zuten; izan ere, geroagoko aukera historiko eta soziopolitikoek ez baitzuten artean indarririk.

2.2.1. *Herri-hizkuntzen apologiak*

Literaturen sortze uneetan edota krisialdian hizkuntza handiek beren apologista eta defendatzaileak eduki izan dituzte. Hizkuntzen artean halako hautapen historikoak egin behar direnean, apologista horiek betekizunik garrantzizkoena izaten dute hemengo nahiz horko mintzaira batek zokoratze galgarririk sufri ez dezan. Apologisten obretan, orrialdez orrialde errepikatu ohi da *hizkuntza nobleziaren* ideia.

⁸ Mitxelenak gogoratzen didanez, Erdi Aroko latina nolabait ere hizkera bizia zen. Erdi Aroko tradizioaren gainera jauzi eginez Antzin Aro Klasikora arte joateak, kalte baizik ez zion egin praktikotasunaren aldetik Errenazimentuko latinari.

Palsgrave nahiz Du Bellayrentzat, frantsesa da hizkuntza noblea; Nebrija, Valdés nahiz Villalónentzat, gaztelania da mintzaira noble hori; Bemborentzat, toskanera; Oliveirarentzat, portuguesa. Lehenen saioaldi apologetikoan, hizkuntza klasikoei aitortu ohi zitzaien nobletasunarekin parekatu eta bekoz beko jartzen zen herri-hizkuntzarena; nobletasun klasiko hura, mintzaira herritarri ere aitortu egiten zitzaion. Ondoko pausoan, norberaren hizkuntza *nazionala* alboko erresumakoarekin alderatzen zen. Beraz atzerriko erromantzearen pareko eta gehiagotzat jotzen da norberaren hizkuntza *nazionala*.

Defentsa eta erronka hauen guztien artean, gutxiengoan hizkuntzak ez dira aintzakotzat hartzen. Katalana, okzitaniarra, euskara nahiz bretoiara alde batera geratzen dira apologista ofizialetatik. Gutxiengoaren ahotsa ez da apologia horietan entzuten; gerora politika ofizialari arrazoiak emango dizkioten apologetatik landa geratzen dira herri ttipien mintzairak, nahiz eta geroago berauen duintasun platoniko eta teoriko baten defentsan sekulako izkribuak sortu luma ez-ofizialetan.

Bi koroen baterakuntza lortu zenetik, hizkuntza gorentzat hartzen da gaztelania; berau zen, Erresuma barnean ez ezik, European ere garai zezakeena. Ez da linguistikaz hizkuntza definitzen; politika da mintzairaren definitzailea eta politika berak hautatzen du hizkuntza jakin bat politikagintzaren erremintatzat.

Amado Alonso-k honela laburtzen du arazoa, gaztelaniaren onarpen ofizialaren zentzua Errenazimentu europarraren barnean ezarriz:

Así vemos, pues, que la historia de los nombres de nuestra lengua castellana en el siglo XVI, con el progresivo dominio de *español*, esta engranada con la índole de la cultura europea de la época, en cuya fisonomía el sentimiento nacionalista, alerta para los antagonismos, es uno de los rasgos nuevos más decisivos. El sentimiento de nación y la visión de las *lenguas como instrumentos nacionales* se manifiesta aquí en actuación (Alonso 1968: 41). [Azpimarra gurea].

Hizkuntzen balioztapena norberak bereari lagunduz egiten da, eta horretarako erabiltzen diren irizpideak ez dira inondik ere linguistikoak, politikoak baizik.

Apologiaren bigarren saioaldi honetan ez da batez ere herri-hizkuntza latinaren kontra defendatzen; aukeratutako erromantzeak elkarren lehian ageri dira orain: italiarren, frantsesaren, gaztelaniaren eta abarren artean norgehiagoka piztu da. 1492tik zetorren, gutxienik, iradokizuna, erromantze bati egin zitzaion lehenengo gramatikatik alegia.

Nebrijak bere *Gramática Castellana*n gogoan eduki zuen hizkuntzaren dimentsio politikoa. Hitzaurrean hauxe esaten dio Erregina Katolikoari:

Cuando bien conmigo pienso, mui esclarecida Reina i pongo delante los ojos el antigüedad de todas las cosas que para nuestra recordación i memoria quedaron escriptas, una cosa hallo i saco por conclusión mui cierta: que *siempre la lengua fue compañera del imperio*, y de tal manera lo siguió que junta mente començaron, crecieron y florecieron, i despues junta fue la caída de entrambos (Nebrija 1946: 5). [Azpimarragurea].

Antzekoa da Tory (1529) frantsesaren gutizian: erromatarren armadak baino hizkuntzak garaipen hobeak irabazi baldin bazituen, gauza bertsua opazion frantses hizkuntzari; araturik eta txukunduta, munduari artea eta ertia eman behar zizkion frantsesak (Brunot 1906, II: 33).

Gramatikariek ez zuten lehen-lehenik politika arrazoietara jotzen, baina geroxeago eta berehala ere bazekiten hori egiten.

Villalónek honela agertzen zituen, 1558an, bere *Gramática Castellana*ren helburuak: lehendabizi, “presumo reducir a arte la lengua Castellana, en imitación de la Latina y Griega” esaten digu, eta eginkizun horretan italiar humanistekin eta Nebrija espainolarekin ados dago (Villalón 1971: 3). Bere bigarren arrazoia honela ematen du Villalónek:

Y así agora yo como siempre procure engrandecer las cosas de mi naçión: porque en ningún tiempo esta lengua se pudiesse perder de la memoria de los hombres, ni aun faltar de su perfeçion, pero que a la continua fuesse colocandosse y adelantandose a todas las otras y también porque lo pudiesen todas las naçiones aprender (Villalón 1971: 8)⁹.

Gure egunotan, Constantino Garcíak (Villalónen edizio prestatzailea berau) propio azpimarratzen du gramatika haren zentzu politikoa. Inondik ere, Villalón ez zen geratu egiteko aseptiko eta apolitiko batean, ohargile honen arabera:

⁹ Gramatika bidez hizkuntzak salba litezkeelako ustea Nebrijarena ere bazen, ikus Nebrija 1946: 10.

Pero todavía otro interés manifiesto además del propiamente gramatical al codificar la lengua: el político. Los romanos habían llevado su lengua por toda Europa como medio de expansión, y, por otro, el pueblo que tuviese su lengua más perfeccionada tendría más ventajas para conseguir su hegemonía sobre los demás países (García 1971: XXVIII-XIX).

Honela, bada, Villalón eta Nebrija elkarren osagarri dira: hark tresna politiko bezala deskribatzen du hizkuntza, eta Nebrijak hizkuntzaren salbamendurako nahitaezko bezala aitortzen du ekintza politikoa. Beraz: politikak eta hizkuntzak elkarri laguntzen diote, beren zereginetan. Laguntzen ala enbarazu egiten¹⁰.

2.2.2. *Hizkuntzen hierarkizazioa eta sailkatzea*

Hizkuntza noblearen ideia, mintzaira *konplitu*en asmazioa, ideologi postulatatu bat izan da historian, eta kontrajartze arriskutsuak sortu ditu uste horrek. Adibidez kontzeptu hauen artean: *hizkuntza klasikoak/berri-hizkuntzak*, *hizkuntza nobleak/hizkuntza ez-nobleak*, *hizkuntza konplituak/hizkuntza ez-konplituak* (marketsak), *hizkuntza eskolatuak/hizkuntza eskolagabeak*, *hizkuntza landuak/hizkuntza basatiak*, *hizkuntza gortesauak/hizkuntza lagunabarrak*, *hizkuntza nazionalak/hizkuntza ez-nazionalak*, *legeko hizkuntzak/legez kanpoko hizkuntzak*, eta abar.

Nola ez ikus halako errezelo batez honelako bereizketak? Balioztapen bereizgarriak daude izendapen-modu horien azpitik, eta politikaratzuz gero ez lukete ondorio onik emanen.

Hizkuntza konplituaren gaia Platonek ere aztertu zuen bere garaian (Platón, *Elkarrizketak*). Nahiz eta erbesteko hizkuntzen ezaupiderik ez izan, Platonentzat bere greko hura zen mintzaira perfektu eta ideala. Printzipio bat ematen zuen filosofoak eta ez, inola ere, ikerketaren ondorioa (Calvet 1974: 16). Platonen ildotik datoz Errenazimentuko urak ere. Axioma horren eraginez, bete-bete sinetsi zuen Errenazimentuko Humanismoak latinaren eta grekoaren erabateko gorentasuna.

Hebreera, grekoa eta latina dira hizkuntza sakratuak, Bibliaren eta Liturgiaren mintzairak. Teologi arrazoiek hori bera azpimarratzen dute.

¹⁰ “[...] comenzando a declinar el imperio de los romanos, juntamente comenzó a caducar la lengua latina” (Nebrija 1946: 8).

Arrazoiketa honelatsu zihoan: Babelen hasi ziren gizadiaren gaitzak; idoro dezagun berriro jatorrizko hizkuntza eta orduantxe edukiko dugu Paradisuko mintzaira ere. Nahitaez paradisiko hizkuntza hark hizkuntza noblea izan behar zuen, hots, grekoa nahiz hebreera. Hala dio Duboisek (Calvet 1974: 17):

Bazirudien, Errenazimentuko teoria linguistikoak, maizenik, galdutako Paradisuaren bila entseatzen zirela, gramatika eta etimologia bidez saiatu ere.

Peluta eta noblea nahi zen hizkuntza nazionala, eta premiazkoa zen, beraz, beronen aitonon-semetasuna hizkuntza sakratu eta klasikoetatik jasotzea. Odola garbi, odola noble. Norberaren duintasun linguistikoa salburik zen horrela. Dena den, guretzat hemen ez da garrantzizkoena azalpen gisa hartu den teoria, pentsabide linguistikoa nazionalismoen zerbitzutan zer-nola erabili den ikustea baizik. Hizkuntzen artean hierarkia bat ezarri nahi da, denen arteko berdintasun demokratikoa ukatuz.

Euskararen aldeko apologietan ere joera eta asmo bera sumatzen dugu: ez da berdintasunik nahi, gainerakoen gainetik aitortu nahi da euskara. Paregabeko jatorria duelako, ohore guztiak aitortuko zaizkio, eta –gure kasuan– laudoriozko aterpe horretan babestu nahiko da gure mintzaira. Bien bitartean, inguruko hizkuntzek –apologia guztiak lagun– politikan izanen dute beren noblezia bikaindu eta zabaltzeko bidea. Betiere hobea baita aitorten platonikoen ondoan, politika ona ukaitea.

Hizkuntzen jatorriaren arazoak, berauen sailkapenarenera garamatza. Mendez mende, horretan saiatu baita linguistika Aro Modernoan, eta berezi-kiago XVIII. mendetik hona.

Kolonizatzaile eta konkistatzaileen kondairari esker, XVIII. mendean posible gertatu zen munduko hizkuntzen basoan sailkapen baterako interpretabidea bilatzea. Gehienetan, orduko linguisten hizkuntza arrotzekiko ezagutza inoren iturrian jasoa izan ohi zen; baina iragandako gizaldiek baino informazio zabalagoa zuten, inola ere.

Condillac, Maupertuis edo Smith bat datoz hizkuntzen eboluzio-teoria irakastean: agi denez, lehenengo egitura hasikinetatik dute hizkuntzek beren jatorria. Condillac-engan adibidez, *ekin-mintzaira* deitzen zaien hasikinok, estreina, elkar kateatu gabeko gramatika osakin desartikulatuak izango lirateke; hurrengo urratsa, hitzak sortzean emango litzateke (izenak, izenondokoak, izen aurrekoak, aditzak, etab.); azken pausoan, hitz horiek sistema linguistiko batean

kateaturik agertzen zaizkigu (deklinabidea, jokabidea eta joskera). Bazuen erakarmenik eboluzio-teoria horrek, eta oso onartua izan zen XVIII. mendean (Calvet 1974: 27-29; [Robins 2000: 191-193]).

Benetan ote zen *neutrala* teoria hori? Kaltegabekoa ote zen, gero? Ikus dezagun.

Hizkuntzaren eboluzio-teoria hau (= ikusbide diakronikoan jaioa bera) garaikideak, hau da, sasoi berekoak ziren hizkuntzei erantsi zitzaien (teoria diakronikoa errealitate sinkroniko bati ezarriz).

Jatorriz ajeaturik zetorren teoria honen arabera, hauxe ondorioztatzen zen: gizartean garai berean, ezberdinki eboluzionaturiko hizkuntzak genituela, hau da, alde batetik mintzaira basatiak zeudela, eta, bestetik, zibilizatuak. Linguistentzat posible zen, hartaz gero, eboluzio fosildu baten segidako epeak une batean berean atzematea. Denboraren jarraia, bere une guztiekin, garaikide bilakatzen zen, hizkuntzen eboluzio-uneak, mintzaira ezberdinetan, sasoi berekoak gertatzen zirelako. Mendez mendeko historia osoa linguistikarentzat alkantzu-alkantzuan agertzen zen, teoria horren arabera.

Eta ez hori bakarrik. Hartaz gero, hizkuntza eboluzioaren bata-bestearen ondoko geruzak eta estratuak sailkatzea ere egingarria zen. Eta, nola ez, baita hizkuntza bakoitzari legokiokeen *eboluzio hierarkia* erakustea ere.

Denboraz ez ezik, kulturalki ere mintzairak lehen hizkuntzatat eta hizkuntza modernotzat ematen dira. Hori dela eta, Calvet-ek hau dio (Calvet 1974: 31-32):

XVIII. mendean oso zabaldua zegoen fenomenoak topatzen dugu hemen. Europaren modernotasuna goraiatu nahi da, eta hain zuzen gainerako gizartearen basakeria prehistorikoaren aurrez aurre eman. Honela, geografia barreaketa, historia segida bihurtzen zen, eta sinkronikoa dena diakroniaren ikuspegitik juzgatzen. [Itzulpena gurea].

Teoria horren barnean europar etnozentrismoa igartzen dugu: metropoli zibilizatzaileetako hizkuntza ofizialak dira onik ateratzen direnak, ez kolonietakoak.

Oraindik ez ditu inork hizkuntzak deuseztatu nahi, baina bai kultura gabe-kotzat jotzen direnak eboluziobide batera bortxatu¹¹.

¹¹ Haatik, geroxeago ikusiko dugu kolonizazio zenbait nola lerratzen den malda kaltegarri horretan behera.

XIX. mendean aurrerakuntza handiak jaiotzen dira linguistikan: esate baterako, Franz Bopp-ek hizkuntza indoeuroparren ahaidetasuna frogatuta uzten du, eta F. Schlegel-ek bere sailkapen tipologikoa eman zuen. Azken honen iritziz, *flexionalak* eta *ez-flexionalak* izan daitezke hizkuntzak. Geroxeago, osatu egingo du sailkapen hau Schlegel berak, hiru taldetan emanez: 1) Osagai bakunak, sarrienik monosilabikoak, inolako aldaketarik gabe elkar-ondoratzen dituztenei, *hizkuntza bakartzaile* deitzen die Schlegel-ek (txinera da hauetako bat). 2) *Hizkuntza aglutinatzaileetan*, ostera, hitzen erroei aurrizki-atzizkiak erantsi ohi zaizkie (holatsu turkieran eta magyarreran). 3) Grekoa eta latina bezalako *flexio-hizkuntzetan*, aitzitik, flexio bidez ematen dira gramatika loturak.

Gaur egungo hizkuntzalarien artean ere, zenbait zuzenketatxo tarteko dela ere, onartua dago Schlegel-en sailkapen hori.

Sailkapen honen ondoren, Schlegelek bere ohar historiko diakronikoak egin zituen: flexio-hizkuntzak dira eboluzionatuenak, eta, hain zuzen ere, mintzaira indoeuroparrak flexionalak dira. Schlegelek eta Boppek oinarritzen dute hizkuntza indoeuroparren balorazioa, eta berezikiago Mendebaldeko indoeuroparrena. Behin eta berriz, teoria linguistikoa zimentarri onak emango dizkio politikari: preseski, oraingoan kolonia munduan Europak burutu nahi duen ekintza politikoari emango zaio babes teorikoa. Ingelesak, frantsesak, alemanak nahiz espainolak (diotenez, hizkuntzarik eboluzionatuenak direlako) kolonia gizarte horiek zibilizatu egin beharko dituzte (Calvet 1974: 34-38 eta berezikiago 120).

2.2.3. *Apologien iraupena*

Giza komunitateek eta kultur etniek, talde nortasunaz ohartuz joan diren heinean, beren hizkuntzen apologia egin izan dute. Europako literatur Historiek eta mugimendu abertzaleek ezagunak dituzte honelako apologi obrak: norberaren hizkuntzaren aldeko borroka biziki laudatu ohi da, hizkuntzaren baldintza soziopolitikoak aldarazi nahi dira. Edozein Estatutako gutxiengo linguistikoentzat eta mundu kolonialetako gehiengo handientzat hizkuntza apologia horiek berekin agertu ohi dute biziraupenerako planteamendu teoriko-juridikoa.

Alderantziz, Estatu handi baten indarrak baliatu diren hizkuntzek apologia horietan beren egoera abantailatsuaren zuzenespena bilatzen dute. Estatuaren eta metropoliaren mintzairaren gorentasuna eta bikaintasuna argudioz eta testu klasikoz erakusten da.

Zilegi izan bekigu arazoaren gaurkotasuna bi aiputan erakustea. Oraindik ere, gaur egunean linguistikaren lur azpitik doazen urek badute politika zan-

tzurik franko. Hizkuntzalariak *de facto* zerbitzari onak gertatzen zaizkio politikari¹².

1946an, bere jaiotzaren V. ehun-urteburuan Espainiak omenaldi bat eskaini zion Elio Antonio de Nebrijari. Aukera horrekin batean, haren *Gramática Castellana*ren edizioa eman zen argitara. Pascual Galindo katedratikoaren eta Luis Ortiz Herritar Hezkuntzarako Idazkariordearen ardurapean moldatu zen argitalpena. “Educación Nacional”eko ministroa zen José Ibáñez Martín-ek idatzi zion hitzaurrea liburuari. Honela azpimarratu zuen Nebrijaren asmo nazional eta politikoa (Ibáñez Martín in Nebrija 1946: 91-94):

Elio Antonio de Nebrija —y ésta ha de ser para todos los que lean las páginas de su Gramática la idea fundamental que más hondo cale en sus espíritus— fue ante todo y sobre todo, un gran español. En pocos escritores de su tiempo he visto resplandecer con tan luminosa claridad la auténtica metafísica de España, y muy pocos me han hecho vibrar con tan cálida pasión de patriotismo. Nebrija estuvo presente en la gran hora histórica en que se consagra la unidad española, como el más grande cimiento de nuestra grandeza nacional [...]. La unidad lingüística se requería así, como complemento de la unidad política. Nebrija encontraba una feliz manera de cumplir su vocación. [...]. Su empresa tiene por tanto, como primera premisa fundamental, la grandeza de la Patria. Es decir, una Patria grande y unida ha de poseer una lengua común. Y ello por la necesidad imperiosa de que sea uniforme la voz de todos los españoles, y esa voz pueda conservarse en el futuro.

Eman dezagun, Ibáñez Martínek Nebrijari egiten dion exegesi hau ez dago kiola gramatikariari; Nebrijak ez zuela hori esan nahi bere “Prólogo” ospetsuan. Hemen orain, berdín da adierazi nahi dugun arazorako. Izan ere, Nebrijarena gorabehera, jakin behar dena hauxe da: gaur egungo politikari batek, eta Hezkuntza-ministerioaren buruzagi hamabi urtetan izandako batek (1939-1951), eta CSIC delakoa eratu eta 1967ra arte gidatu zuenak, eta prentsaren zentsore urtetan izandako gizon politikari batek ontzat eman dezakeela hizkuntz politika baten helburu inperialista. Hori da hemen axolazkoena (Equipo

¹² R. Menéndez Pidal eta A. Alonso-ren idazlanak irakur litezke. Batez ere ikustekoago da oraindik bigarrenari aipatua diogun obra. [García Isasti-ren *La España metafísica* argigarria gogorarazi beharko litzateke hemen. Bilbo: Euskaltzaindia]

Mundo 1970: 91-94). Gramatikariaren linguistikaz kanpoko mezuak gaur egun ere izan dezake oihartzunik eta, hain zuzen, eginkizun eta ideia politikoen zerbitzutan izan ere.

Jakintzen arteko truke hauek (linguistikatik politikara igarotzea, alegia) ez dira ideologo guti batzuetara mugatzen. Noizbehinka prediku bertsuak egiten zaizkio jendeteriari.

Europako Ekonomia Erkidegoan ere oraintsu eztabaidatu da, noizbait Europako Estatu Batuetan beharko litzatekeen hizkuntzarekiko arazoa. XX. mendean ez diezaioke Europari batasuna latinak eman. Hizkuntza aniztasun irmoa behar du Europak. Nola joka, beraz, Estatuen, eta herrien, hizkuntzekin. Aipatzera goazen eztabaida honetan –XVI. mendekoaren antzera– Estatuen hizkuntzak hartzen dira aintzakotzat, ez herrienak.

1975ean, Holandan izan zen eztabaida ozpindu hau: frantsesak aurrerantzean ere segi behar ote zuen Irakaskuntzan obligaziozko hizkuntza bezala? Ala hobe zen, haren ordeztu, ingelesa sartzea? Gobernuaren legegaiak ez zuen frantsesa zokoratu nahi; baina aukerazko bezala utzi nahi izan zuen, eta, ahalik, ingelesa obligaziozko ezarri. Irakasleek eta Irakaskuntza agintariek arrakasta osoz eman zioten aurpegi legegai hari, eta ingelesa ikastea ez zen obligaziozko bihurtu.

Eztabaida hura bitarteko zela, Jean Dutourd jaunak¹³ *Paris Match* astekarian dei bortitza egin zion bere irakurleriari. Guk hemen ikusia dugun zenbait ideia ematen zuen Dutourdek. Gobernuaren proposamena ez zen aurrera irten, eta idazlearen ustez, “behingoz bederen kulturak bultzatu zuen politika” (Dutourd 1975: 7):

La victoire des professeurs hollandais est celle de la civilisation, de l’humanisme sur le détestable esprit mercantil du monde moderne. En simplifiant un peu (mais pas beaucoup) j’oserai dire que cette poignée de braves s’est battue par la langue des penseurs contre celle des marchands. A sa façon, elle a mieux travaillé pour l’Europe que tant de politiciens bonimenteurs depuis vingt ans. — La langue de l’Europe n’est pas l’anglais au l’américain, qui n’est que le dialecte du commerce international. Car ne nous y trompons pas: ce n’est pas la magnifique littérature anglaise, ce n’est pas Shakespeare, Milton, Macaulay, Sterne,

¹³ [Jean Dutourd akademikoaren albiste biografikoak (1920-2011) eta beraren heriotza-ondoko kronikak Sarean aurki daitezke].

Byron, Shelley, Walter Scott, Dickens, Wilde, Meredith que le gouvernement des Pays-Bas désire qu'on enseigne à l'école, mais une espèce de *basic english* qui permettra aux petits hollandais de se faire embaucher comme guichetiers dans des entreprises américaines quand ils seront grands. Ou de devenir commis voyageurs. — La langue de l'Europe est évidemment le français. Pourquoi? Parce que la Littérature française lui fournit ses idées et sa philosophie depuis bientôt cinq siècles. La culture allemande est beaucoup plus jeune, beaucoup plus fragmentaire, ainsi que la culture russe. Un pays européen qui, aujourd'hui, tourne le dos à la France me semble trahir absolument l'Europe. Il se ravale à n'être que la succursale d'un empire commercial, opération qui peut-être, peut lui apporter une prospérité matérielle temporaire, mais dans laquelle il perdra, fatalement, sa liberté et son âme. Comment faire comprendre cela à des gouvernements qui ne prennent en considération que des chiffres et des "niveaux de vie", c'est-à-dire qui ne s'intéressent qu'aux entrées? — Pendant cinq siècles, la France s'est adressée à l'âme, à l'esprit. Jamais au ventre. De là le rétrécissement actuel de ce qu'on appelle la *francophonie*. Les professeurs hollandais avec leurs banderoles et leurs imprécations, à La Haye, ont dit non à l'Europe des ventres. Quelle bonne surprise! Tous les clercs ne sont pas des traîtres.

Berotxoa da idazlan hau, objektibotasun kritikiko onik izan dezan, baina bere baitatik duen berezko etorri horretan pentsamolde jakin bat nabarmentzen da. Hizkuntz politika baterako aurreiritzi eta sloganak argi daude hor. Ikus ditzagun Dutourden artikulu horretan aurkitzen ditugun ondoriorik nagusienak:

1. Frantsesa da kulturaren eta zibilizazioaren hizkera, humanismoarena eta pentsalariena.
2. Frantses literaturak eman dizkio Europari ideiak eta filosofia.
3. Frantses kultura arimari, espirituari, mintzatu zaio: aspaldidanik dator hori Europan. Klasikoa da frantsesa Europan.
4. Zinez, frantsesa da europar hizkuntza (horretan alde handia du ingelesarekin eta alemanarekin).
5. Ingeles hizkuntza, merkatarien hizkera da, salerosketarako hizkera. Gizakiaren beharrian makurrenei (sabelari) begira ari da.
6. Ingelesa ez da Europan hizkuntza: amerikarra da.
7. Nazioarteko merkatalgoaren *dialekto bat* da ingelesa.

8. Frantziari ez ikusi eta ez entzun egiten dionak, Europari saldukeria egiten dio.
9. Frantsesa uzten duenak, Frantzia bera arbuiatzen du.
10. Kultura errusiarra eta alemana, gazteak dira eta gehienetan erdizkakoak.
11. Merkantilismoak eta berritsukeria politikoak eman diezaieke sorbalda Frantziari eta beronen hizkuntzari.

Artikulugileak ezagutzen ditu, noski, Shakespeare, Milton, Byron, Dickens, Wilde, eta abar. Aipatu ere egiten ditu, baina kontrajartzen dituen hizkerak zerak dira: alde batetik frantses oparo eta aberatsa, eta bestetik *basic English* arlotea. Dutourd eta antzekoen *chauvinisme* horrek Kant, Heidegger edo Marx ahan-tzi egin nahi ditu, eta hizkuntzak bi sailetan banatu: batzuk *espirituzkoak* dira kulturaren *arima* txerta dezaketanak; besteak, *hizkuntza materialistak* dira, herrien kulturak ustelarazten dituztenak¹⁴.

Nondik sortu ote da pentsamolde hori? Ez da erraza linguistek horretarako egin duten lana neurtzea; jende asko da, gaur ere, hizkuntzarekiko kontzeptu nazional-politiko-inperialista hori duenik. Gauza bat dago hor ongi salatzekoa: linguistek, kontzeptuok argitu eta mugatu egin behar zituzten, eta sarritan argitu ez baina ilundu egin dituzte. Eta gizarte eta kultur bizitzarako premiaz-koa da benetan ideia linguistikoko argiak ematea. Horregatik, zenbait kontzeptu linguistikoko nahitaz kritikatu beharra dago.

2.3. Kontzeptu linguistikoak eta politika

Gramatikek ez dituzte hizkuntzak asmatzen, ezta gramatikariek politika linguistikoak ere. Baina gramatikariak eta linguistak dira hizkuntzen errealitatea interpretatzen digutenak. Eta hizkuntzen azalpen hori politikarienganaino iristen da; azkenik, hauek ekintzarako erabili ere egin ohi dute interpretazio hori.

Horregatik, komenigarria da zientzia linguistikokoaren irakaskizunetara hurbilpen kritikoa egitea, zientzia horretan ere ez baita dena zientzia heldu eta umotua.

¹⁴ Europaren batasun politikoa, dirudienez, batasun linguistikoko baten bidez ere egin nahi da. Hizkuntza batasuna frantsesak eman behar du. Alemana eta ingelesa desegokiak dira; portugaleria, espainiera, eta abar, ez dira aipatu ere egiten. Iberiar Penintsulan berdintsu pentsatu izan da: batasun politikoa Gaztelatik egin behar da, eta batasun linguistikoa herrialde honen hizkuntzaz; gainerakoak ez dira horretarako aintzakotzat hartzen.

2.3.1. *Hizkuntzarekiko zeharbidezko ulermenak*

Errealitaterik soilena ere aniztasun aberatsa da. Ikuspegi askotatik ulerenezake, eta haren ezaupidera iristeko gizonak berak egiten du hautapena: ikusle kontziente bakarra den gizakia ikusbide jakin batetik hasten da hurbiltzen errealitate horretara.

Badakigu, hizkuntza, berez, sistema egituratu bat dena, eta sistema hau berau beste anitz sistemak inguratzen duela, eta betetzen. Linguistika da bere aztergai propiotzat hizkuntza duen zientzia bakarra; baina bada bestelako zientziarik ere giza-hizkuntza albotik aztergai duenik. Beste zientzia hauen hurbilbideak hizkuntzak *ad extra* dituen ikuspegietatik egiten dira. Historiak, soziologiak, pedagogiak eta abarrek ere estudiatu ohi dute hizkuntza; hala ere, kanpotikako hurbilketak dira horiek denak. Hizkuntzak bere baitatik kanpora dituen erlazioak jasotzen dira horrelakoetan, eta betiere jakingarririk franko bildu ohi da. Baina —esan beharra dago— alboko zientzia horiek ez dezakete hizkuntzalaritzak berez duen lekua har. Eta alderantziz: linguistikak ongi nahiz nola hala zehaztu eta mugatu dituen kontzeptuak eta baieztapenak, bestek egoki, oso nolabait nahiz desegoki erabil ditzake ekintza praktikoean.

Horixe da gure hemengo kezka: horrelakorik gerta ote litekeen linguistikaren eta politikaren artean.

Sarritan hizkuntzei eman ohi zaizkien izenondokoak aipatu ditugu (hizkuntza *gortesauak/lagunabarrak*, *eboluzionatuak/gabeak*). Linguisten artean ere topa ditzakegun kalifikazio horietatik asko ez dira ikerketa linguistikoen ondorio zehatzak, baizik eta hizkuntzek gizartean izan ditzaketen eginkizunen arabera ezartzen diren definizio-moduak. Nolabait ere, eta gehienez, balio soziologikoa izan dezakete izenondoko horiek. Anbiguotasun horregatik, adjektibazio horiek, hizkeren eta hizkuntzen izaera estali gehiago egin dute, erakutsi eta argitara ekarri baino.

Har dezagun, esate baterako, adibide hau: hizkuntza *literarioak* eta *ez-literarioak*.

Zer diosku bereizketa horrek? Hizkuntza ez-literarioak ez ote dira halako azpi-hizkuntza batzuk? Izan ere, ez dukete zibilizaziorik sortu, ez kulturarik: zenbait hizkuntza sailkapenetan esan ohi denez, hizkuntza ez-zibilizatuak dira, kulturagabeak... Eta, egiaz eta benetan, zer da hizkuntza ez-literario bat, *oraindik* hazkuntza idatzi bat izan ez duen hizkuntza ezik?

Horixe da, bakarrik. Besterik ez.

Linguistikak ez du honetan batere zalantzarik: *bizketaren kode orokor bat da hizkuntza*. Egon, berez dago hizkuntza, inolako idazkuntzarik gabe ere. Horren aurretik bizi da; balio du kulturarako. Idatzi ere, lehendik ere bizi delako

idazten da. Mendebaldeko gizonak badu arazo honetan joera makur bat: kulturak, kultura izena nahi badu, idatzia behar du izan. Honela, *abozko kultura* ez du aintzakotzat hartu ere egiten, eta hain zuzen ahozko kultura horietan leku-lekuan dago hizkuntza mintzatua. Milaka urtetan ehunka herrik ahozko komunikabidearen kultura bizi izan du. Mendebaldea bera ere ez da inprimategiaz oso berandura arte baliatu, eta herrien analfabetismoa ez da berehalakoan (eta oraindik ere!) ezabatu. Aski dugu gure ingurumarian begiratu bat ematea.

Haatik, Mendebalde honek eta herri ez-literario haiek hizkuntzak eduki dituzte, eta ahozko hizketaren munduan bizi ahal izan dituzte beren kultura propioak (Calvet 1974: 128-129). Ahozko kulturarekiko balioztapen horiek deus guti lagunduko digute hizkuntzen ezagutza zientifikoa izaten.

Eta soziologiaz zer?

Balorazio soziologikoekin nola ezagut dezake Hizkuntzalaritzak bere aztergai propioa? Zein esanahi dute guretzat Calvet-ek jaso duen esaldi honen gisakoek? (Calvet 1974: 45):

Frantzian, Sortaldeko lurralde elebidunetan, bi hizkuntza daude elkarrekin: lehen hizkuntza, dialekto bat da ...: *patoisants* direlakoak bigarren hizkuntza bat jakitera bortxatuta daude, hizkuntza nazionala alegia... [Itzulpena gurea].

Ikus daitekeenez, hastapen batean *hizkuntza* bezala aipatzen zaiguna, gero *dialekto* gisa agertzen da, familiarreko eta herritar arteko hizkera baita bakarrik, ez-ofizialtasunean dabilen zerbait. Esaldi horietan, inguru soziologikoak kontzeptu linguistikoa bera aldarazten du eta *hizkuntzatik* hizkuntza ez-nazionalera eta *bizkelegira* igarotzen gara.

Jokabide honen arriskuak errazki sala daitezke, errazkiago salatu, kendu baino. *Hizkuntza*, *hizkuntza nazionala*, *dialektoa* eta horrelakoek laudoriozko nahiz erdeinuzko konnotazioak ekarriko dizkigute berehala, hau da, gizarte bizitzari lotuta datozkigun balioztapenak; ez, ordea, ezagutza objektibo eta zientifikoak, hizkuntza definitzeko Hizkuntzalaritzak behar dituen kontzeptuak.

Oso kontuz ibili behar dugu balorazio historiko-kulturalaz eta soziologikoez, ez baitira hizkuntza bere baitatik ezagutzeko pentsatuak. Balorazio horiek gorentasun kontzeptuak eta helburu politikoak berekin ekarri ohi dituzte, eta ezer guti lagun diezagukete.

2.3.2. *Hizkuntzaren definizio linguistikoa*

Ikusi dugu Sapir-ek eman digun hizkuntzaren definizioa (Sapir 1974: 14).

Eman dezagun orain pausotxo bat gehiago: non ezarriko dugu *bizkuntzaren* eta *dialektoaren* arteko muga garbia? Garrantzizkoa da hau, elkarren osagarri eta muga diren kontzeptu hauen konnotazio gaiztoetatik kutsatu gabe irten nahi badugu.

Gaur egungo hizkuntzalariek badakite hitz horien mugan badela laino her-tsiririk franko (Lázaro Carreter 1962: 140, 259; [Fourquet 1987: 571-596; Lacroix 1975: 266-274; Kintana 1982: 72-73]), eta badakite zerbait gehiagorik ere: hizkuntzalaritzaz kanpo, hainbat erabilera makur izan dezaketena. Horregatik idatzi du Mitxelenak (Michelena 1974: 125):

En lingüística histórica, donde el concepto tiene su origen, se habla lo mismo, sólo que a nivel diferente, de dialectos indoeuropeos, de dialectos germánicos o de dialectos alto-alemanes; en lingüística descriptiva se alude con ello a una falta de autonomía, a una dependencia con relación a una norma no exterior en cierto modo, pero sí superior, puesto que es aceptada. Pero en el mismo uso corriente español, *dialecto* se contrapone a *lengua* (o al más culto *idioma*), con una connotación que, a la falta de autonomía, añade una falta de nobleza o de dignidad.

Makurkeria askotarako nahasbideak daude hor, *dialekto* hitza nolana-hi manea eta eskuzta badadi. Badago usadio historiko bat, hizkuntzen aldiaren eta genealogiaren haritik garamatzana. Hala nola, *bizkuntza* indoeuroparrak hainbat *dialekto* talde sortzen du (tokhariera, indoariera, iraniera, armeniera, anatolio-lizio-lidiera, grekoa, italikoa, zeltera, germaniera, eslavieria), eta hauetatik bakoi-tzak bere azpi-dialektoak ematen ditu gero (esate baterako, *italikotik* jaiotzen dira latina, oskoera, unbroera). Eta azpi-dialekto horietako batetik, latinetik, datoz erromantzeak (italiera, espainiera, portugaleria, katalana, frantsesa, okzitaniera, errumaniera).

Behin eta berriz zatitu diren mintzaira horietatik datorkigu, beraz, *gaur egun* hizkuntzatat daukagun asko. Baina mendez mende luzatzen diren genealogi enbor eta adarrei begira badieziaiegu, gaur egungo hizkuntza horiek indoeuro-parraren azpi-azpidialektoak baizik ez ditugu. Denboraren ardatz horretan indoeuroparra izanen litzateke *bizkuntza* bakarra, eta hori ere historian harago ezin joan garelako.

Diakronian darabilgun hizkera-modu honetan *bizkuntza* eta *dialekto* hitzek eboluzioaren erlazio genealogikoa izendatzen dute. Hitzek ez dute hemen balio sinkronikorik, eta inola ere ez konnotazio gaiztorik.

Diakronia eta historia mailatik sinkroniara igarotzean jaiotzen dira gaizki-
-ulertzeak, balioztapenak tartekatzen baitzaizkigu orduan. Katalanak eta gazte-
laniak, gaztelaniak eta aragoierak, frantsesak eta bretoierak zein moduzko elkar-
-erlazioa dute? *Dialektozko* erlazioa ote da? Eta hala balitz, dialekto erlazio hori
berdina da?

Linguisten artean, zergatik izendatzen da *bizkuntza* erlazio bezala katalana-
ren eta gaztelaniaren arteko eta dialekto erlazio bezala gaztelaniaren eta aragoie-
raren artekoa? Calvet-ek gogorki salatu ditu gaur egungo Linguistikaren anbi-
guotasun hauek, maneatze politikoak ere tartean baitabiltza (Calvet 1974:
45-47)¹⁵.

Autore berak, maneatze kolonialistak salatzen ditu. Europar kolonialismoa
poliki baliatu baita hitzen definizio falta horretaz, arrangura handirik gabe
baliatu ere.

Dialektoaren eta hizkuntzaren definizio sinkronikoa balorazio sozial, poli-
tiko eta kulturaletatik egin izan da. Ez da ezagutza linguistikoko hobeago baten
bila egin, *betekizun eta funtzio sozial* batez baizik. Errealitate sozial menderatzaile
baten zerbitzutan emandako azalpena da. Horrela, hizkuntza errealitatea ez da
ezagutza zientifikoaren onetan azaltzen, gizarte errealitate menderatzaile baten
mesedetan baizik. Calvet-ek honela esan du (Calvet 1974: 54, 121-123):

Orain artean esandakoak, argi uzten du dialektoa hizkuntza bentzu-
tu bat baino ez dela, eta, hizkuntza, berriz, politikoki garaile irtendako
dialektoa. [Itzulpena gurea].

2.3.3. *Dialektoetatik bizkuntzetara*

Etnia kolonizatu baten mintzaira *dialektotzat* ematen da, metropolikoa *biz-
kuntza* bezala ikusten den bitartean (Calvet 1974: 123).

Kontrajartze hauen guztien artean (zibilizazioa/basakeria, metropolia/kolo-
nia, literatura idatzia/ahozko literatura, etab.), herri kolonizatuari historia uka-
tzeraino hel liteke (Calvet 1974: 121-122). Testuinguru honetan, hizkuntza
menderatua dialekto balitz bezala sentitzen eta deskribatzen da. Pixkaka-pixkaka,
hizkuntzen hierarkiaren ideia sartzen zaio jendeari kaskoetan: arazo horretaz
pentsamolde bat, ideologia bat, sortzen da. Horrela, bada, hizkuntza mendera-
tzailea (hau da, metropolikoa, gizarte eta politika erpinean dagoena) betidaniko
izaera zimelgaitz, aldaezin eta paregabeaz mamitua da. Horregatik, ez da harri-

¹⁵ Martinet eta Bloomfield aipatzen ditu Calvet-ek.

tzekoa beti eta nonahi idazkera eta gramatika bakar bat finkatu badu. Alderantziz, hizkuntza menderatua dialekto nahaste-borraste bat da, ezin idatzizkoa, nahas-mendu guztien iturburua.

Horixe dio kolonialismoaren ideologia *argigarriak*.

Hala ere, begira zer dioen Sapir hizkuntzalari sonatuak (Sapir 1974: 30):

Hegoafrikako boskimano atzeratuena sinbolo sistema aberats baten formez mintzatzen da. Eta hizkuntza hori, funtsean, ederki asko konpara daiteke frantses kulturadun baten hizkerarekin. [Itzulpena gurea].

Eta gehiago dio oraindik Sapir-ek (Sapir 1974: I44-I45):

Hizkuntzaren egiazko arima ulertu nahi badugu, erantzi egin behar ditugu gugan, gure *balio* maiteenak, eta jakin-min eta bihotz zabaltasun berarekin begiratu ingelesa eta hotentotea. [Itzulpena gurea].

Bizi izan duen historiari lotuta daude hizkuntza baten ajeak; posible da, esate baterako, historia horrexegatik hizkuntzak hiztegi handirik ez izatea, edota –ezarri zaizkion gizarte baldintzengatik– praktikotasun txikia izatea, edota kultura distiratsu baten altxorrik ez izatea. Baina hori dena horrelaxe izanda ere, ez dago hizkuntza horren beraren egitura balioaz egoera historiko-soziologikoaren arabera judiziorik egiterik. Ez da harrizkoa, beraz, Sapir-ek idatzi duena (Sapir 1974: 30-31):

Jendeak hizkuntza primitiboez izan ohi dituen iritziak benetan funtsik gabeak dira: mintzaira horiek adierazpen urritasunera kondenatua daudela uste izaten da. Ipuin hutsa da hori. [Itzulpena gurea].

Hizkuntzen funtsezko oinarri eta azken posibilitateetan denek ahalbide bertsuak dituzte, irtenbide konkretuak ezberdinak izan arren. Eta hortxe, konklusio horietan dago gakoa: hizkuntz politika batek, jatorra eta egiatia izan nahi badu bederen, konklusio horietatik hasi behar du, eta ez sasizientifiko diren oinarri eta aurreiritzietatik.

3. Hizkuntz politika: integrabideak

Arakatu ditugun ideia linguistiko haien zabalkundea eta Europaren hegomen-debaldeko Estatu modernoan jaiotza garai berekoak dira, Errenazimentukoak. Frantzia, Ingalaterra eta Espainia iristen dira lehendabizi *Estatu-nazio* delakoari instituzionaltasun berria ematera. Bestalde, Estatuekin batera, bide politiko berriak sortzen dira.

Eratu berria den Estatuari oso baliagarri izan lekieke Errenazimentuan sortu den ideia politiko-linguistikoaren sistema hura.

Hizkuntza *nazionalen* hautapen historikoa egitean, bi abagune on izenda ditzakegu Europako mendebaldean: Italian eta Ingalaterran XIV. mendekoa, eta Frantzian eta Espainian XVI. mendekoa. XIV. mendearen erdi alderako burutua du Italiak bere erromantzearen nobletzea: Dantek, Petrarca eta Boccacciok frogatua dute toskanera noraino hel daitekeen. Literatura eder berri bat jaio da. Italiaren zatiketa politikoaren kontra eta atzerritarrek Penintsulan duten jabetzaren aurka ere, literaturgintza horrek itzalik errespetagarriena emango dio Toskanako dialektoari, Italiako hizkuntza *nazionala* izatera irits dadin.

Sasoi berean Ingalaterrak ere bere hizkuntza hautapena egiten du. Kasu honetan hautapen hori arras politikoa da: Ehun Urtetako Gerratearen barnean, 1362az geroztik, hizkuntza frantsesaren ordeztu ingelesa ezartzen da Auzitegietan eta Parlamentuan. (*Pleading in English Act*, 1362).

Italiako literatur oinarri eredugarri hark eta Ingalaterrako erabaki politiko honek *nazionalizat* sagaratzen ditu, XVI. mendetik honakoan, hizkuntza ofizial horiek.

Izan ere, Errenazimentuak lehen eta Erreformak berehala, hautapen hura argiagotu eta nabarmenagotu baizik ez dute egiten. Geroz eta gehiago izanen dira beren hizkuntza berariazkoak ofizializat emango dituztenak. Gaztelaniak (Gaztelako erromantzeak) edota *langue d'oïl* deituak (Frantziako Uharteko mintzairak), tradizioz datorren latinaren aurrez aurre jarriko dira. Erromantze hauek biziki ongi kokatuko dira gizarte politiko berrian. Bi baldintza dituzte oso egokiak: Erregearen Gorteko hizkuntzak dira, eta Frantziaren edo Espainiaren Monarkia modernoa instituzionalizatuko duten Erregeen mintzairak dira gaztelania eta *langue d'oïl* horiek.

3.1. Estatu-nazioaren bila

Errenazimentuko Estatuaren batasuna egin zuten Monarkien mintzairak ziren, gerora hizkuntza *nazionalak* deituak izango zirenak. Monarkia nagusiaren

hizkuntza bilakatu zen Estatuaren hizkuntza ere. Oso zaila gertatzen da hori dena halabeharrezko kasualitatez eta menturaz suertatu zela sinestea. Orduko hautapen politikoa, Estatuaren etorkizun linguistikoaren mugatzaile eta xedagarri gertatu zen. Errenazimentuak sortutako Estatu-nazioaren entitate politikoari zegokion errealitate linguistikoa eskaintzen zuten *hizkuntza nazionalak*.

Horregatik, bada, interesgarri da hemen *Estatu-nazio* haien esanahia poxi bat aztertzea.

3.1.1. *Aberria, Nazioa, Estatua*

Aberriaren (*Patria*) eta Nazioaren (*Natio*) ideiak ez dira Errenazimentuan jaiotzen. Goragotik datoz, Erdi Arotik (Bodin 1969: 109).

Herri barbaroen kulturetan eta egintza juridikoetan aurki litezke lehen hazi bezala. J. Lejeune-ren arabera (Lejeune 1948 in Bodin 1969: 178):

Erdi Aroaren azkenetan Estatuak beren gain hartzen dute —eta harro-harro aldarrikatzen, gainera, beren egiteko hau— aberriaren defentsa. Aberria burutu egin behar da, baita kanpoko janzkietan ere; egunero lanek eta ahaleginek osatzen dute aberri kunplitu. [Itzulpena gurea].

Baina aberriaren kontzeptu hau, ikus daitekeenez, ideia laikotu berri bat da. Errenazimentuko aberriak eta nazioak baztertu ditu Erdi Aroko bere osagai *eliztarrak*. Egia da hauexek izan zirela lehenengo mende haietan, kontzeptuari edukia eman ziotenak, baina, hain zuzen, Errenazimentu garaian *aberri* hitza eduki berri batez betetzen da. Izan ere, Erdi Aroan,

Gurutzadek eraginik handiena izan zuten nazioarekiko norberaren atxikimenduaren eta sentipenaren hazkuntza suspertzen [...]. Eta hori, frantsesengan berezikiago, hauentzat *Gesta Dei per Francos* baitziren gurutzadak (Bodin 1969: 179-180). [Itzulpena gurea].

Iberiar Penintsulan, ostera, Erdi Aroko *Hispaniari* batasun zentzua emango dion faktorerik bortitzena Errekonkista izanen da.

Monarkia eta Estatua etengabe saiatzen dira *nazio* ideiaz jabetzen. Boteredunek badakite kontzeptua beren zerbitzuan maneatzen. *Nazioa* ez da, pentsamendu ofizialean, gizarte errealitate etnokultural batean ikusi nahi, baizik eta etorkizunerako asmatu eta indartu nahi den Estatu *nazional* instituzionalizatu bati lotzen zaio. Kontzeptuz eta errealitatez Erdi Aroa gaingitu egin

nahi du Errenazimentuak, *nazio* edo *nazional* hitzak erabiltzen dituenen. Erdi Aroak Eliza-Inperioak zituen, boterearen ardatz unibertsal bakar edo bikoitz bezala: unibertsaltasun instituzionalizatu hari Estatu *nazionalarena* ezartzen zaio orain aurrez aurre. Federazio bidez edo, eratu den Estatu monarkikoaren izaki konstituzionala horrela birbaieztatzen eta birmoldatzen du Errenazimentuak.

Nazio kontzeptua –Antropologiak erabili ohi duen *etnia kulturalaren* zentzuan eta helburu politikoetarako eskubideak aitortuz– XIX. eta XX. mendeetan indartzen da. XVI. mendean politikoki nagusitzen den nazio kontzepzioa garaiko monarkiei atxikirik agertzen zaigun bitartean¹⁶.

3.1.2. *Federazioaren eta unitarismoaren artean*

Monarkia handien barnean diren nazio ezberdinek (eta orain *nazio* hitzaren esanahi etnokulturalaz ari gara) ez dute Errenazimentuan denen arteko bateratze politiko soil eta hutsa onartzen. Integrazio politiko horren kontrako indarrak oso bizirik daude, eta behin baino gehiagotan lortu egingo dute asmoa geldiaraztea.

Bretainiak aurpegi emango dio asimilazio politikoari, Herbehereek (Holandak) eutsi egingo diete beren lekuko autonomiei; Nafarroak behartu egingo du Erregeak bere barne konstituzioa aitortzera... Zentralismoa ez da egun batetik bestera Erregeak ezarri ahal izango duen sistema politikoa. Baina, Erregeak bereganatu dituen lurralde berrietan (eta hauetan onartu egin beharko ditu berariazko instituzioak), edo antzinatek lege zaharrak dituzten herrialdeen ondoan (gogora ditzagun, esate baterako, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia Penintsula barruan, eta Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa Iparraldean), badago halako erregezaletasun herritar bat ere Europan. Zaletasun lainotsu horrek bideak urratuko dizkie teoria eta praxi berriei, eta Erret Absolutismoa bera ere gertagarriago suertatuko da horrela¹⁷.

Erregeek ez dute ahantziko ahalbide hori. Saiatuko dira indartzen, eta gobernatzeko lanabes hobeto eta azkarragoak sortzen. Estatu geroz eta eraginkorragoa izango da Europako Monarkia handietan. Boterea dutenengan mentalitate eta psikologia berri bat ari da jaiotzen.

¹⁶ *Nazionalitate, nazio, etnia, estatu* erako hitzen azterketa baterako edo nazionalitatearen eta hizkuntzaren arteko harremanak, nazionalitate eta estatuaren artekoak aztertzeko, bada bibliografiarik franko. Suratteau 1975: II-55. Beste asko bezala, hau ere zentzu kritiko bizi batez irakurtzekoa. Busquets 1971: pass. Bestalde, interesik duenarentzat ez da zaila bibliografia zabal bat topatzea ere.

¹⁷ Monarkia Absolutuaren teoriak, ikus Lapeyre 1969: 20-214 (bibliografia).

Frantzian, Luis XI.az geroztik; Ingalaterran, lehen bi Tudortarren ondoren, eta Espainian Isabel eta Fernandorengandik hasita, Erregearen agintea indartuagoz doa. Zerga iraunkorrek, armada iraunkorrek eta Erregegoaren inguruan ugarituz datozen funtzionarioek Gobernu zentrala moldeberritu egiten dute. Garai berean, probintzietarako errege-administrazioa bizkortu egiten da eta tokian tokiko agintariak boterea galduz doaz, edota Erregeak bidalitakoek ordezkutzen dituzte (Jennin 1969: 199). [Itzulpena gurea].

Honela, bada, historia ezberdinak eta bestelako instituzioak dauzkaten lurraldeek Monarkia bat-beraren barnean bateratu beharko dute. Hori, bai, premiazkoa zen kasu bakoitzean integrazio-helburuetara iristeko, arriskuak eta ahalbideak ongi neurtzea.

3.2. Hizkuntza, Estatuaren itxuratzaile

Nazioaren kontzepzio estatistaren barnean, hizkuntza ofizialak kultur eta politika eginkizun garrantzizkoa beteko du. Arazo honetan leku seinalatua dute hizkuntzaren teorikariek.

Kukenheim-ek egin du XVI. mendeko gramatikarien historia. Autore honek espresuki aipatzen ditu hizkuntzalari haien asmo politikoak. Ez ziren politikatik urrun zeudenak (Kukenheim 1932: 303):

Las obras de los gramáticos del siglo XVI están animadas de sentimientos muy imperialistas, y no es por la sola curiosidad intelectual por la que los príncipes del Renacimiento han estimulado los esfuerzos de aquellos que querían *embellecer* la lengua nacional; es importante destacar que ese interés por su parte conllevaba puntos de vista netamente políticos: asimismo, más de una vez las autoridades han querido intervenir de una manera decisiva en favor de una codificación definitiva de la lengua *nacional*.

Politika ez ezik, inperialismoa ere topa liteke gramatikari haiengan. Zentzu hau erakusten duen gertakari bat ezaguna da Nebrijaren bizitzan eta beroren *Gramática Castellana*ren inguruan. Nebrijak berak kontaturik dakigu haren berri. Salamancan aurkeztu zion Erreginari bere liburugaia, argitara zezan. Gramatikak zer-nolako probetxurik ekar zezakeen galdetu zion Isabelek. Eta nebrijarrak dioenez, Avilako Apezpikuak hartu omen zion aurrea, hain zuzen, berak, auto-

reak berak, eman ahal izango zituen arrazoiak erabiliz (“i respondienddo por mi dixo”):

[...] después que Vuestra Alteza metiesse debaxo de su iugo muchos pueblos bárbaros i nacionales de peregrinas lenguas, y con el vencimiento aquellos tenían necesidad de recibir las leies que el vencedor pone al vencido i con ellas nuestra lengua, entonces por esta mi *Arte* podrían venir en el conocimiento della (Nebrija 1946: II).

Nebrijak 1492an idazten zuen hori, hain zuzen Amerikaren Aurkikuntza urtean. Hiru arrazoi ematen zituen liburuaren argitalpenaren alde, eta hiruetatik bat arrazoi politiko hauze zen.

Gure egunotan, Amado Alonsok azpimarratu du testu honen balio politikoa, eta, ondoriobidez, Nebrijaren kontzientzia politikoa (Alonso 1968: 18-19). Ibáñez Martín Ministroak honela iruzkindu du hori bera, gorago aipatu den liburuan:

Vale la pena meditar un poco sobre el profundo sentido de estas palabras. Es indudable que tanto el Prelado Abulense como Nebrija pensaban en la lengua como instrumento apostólico de evangelización, con lo que presagiaban su mejor y futuro destino. Pero, ¿qué expansión era ésta? No es ninguna audacia descubrir en estas afirmaciones el propósito político que ya debía bullir en la mente de la Soberana (Ibáñez Martín in Nebrija 1946: X).

Hori guztia idaztean ez zezakeen Nebrijak Amerika burutan izan, berehala aurkitzekoa baitzen oraindik, baina obraren ikuspegi politikoa ukazina gertatzen da.

Kanporako inperialismo linguistikoa aipatu dugu. Baina ikus dezagun beste ideia bat ere. Nebrijaren asmotan, Monarkiaren lurraldeetarako ideal bat zen hizkuntza asimilazioa (Nebrija 1946: II):

I cierto assí es que no sola mente los enemigos de nuestra fe que tienen la necesidad de saber el lenguaje castellano, mas los vizcainos, navarros...

Hori da Nebrijak Gaztelako aginte politikoari proposatzen diona. Helburu linguistiko horrek bere baitan du asimilazionismoaren ametsa: gero eta gehiago

gastelania, *español* bezala aipatzen da. Honela dio Amado Alonsok (Alonso 1968: 30):

El neologismo *español* para nombrar el idioma es hermano del neologismo *patria*, que aparece también en el siglo XVI en España y en el resto de Europa con un sentido suprarregional de la tierra natal.

Gero eta areago, *aberria* eta *Monarkiaren eremua* berdindu egiten dira, eta *Erregeen* eta *berauen Gortearen hizkuntza* (= *gastelania*) ere *hizkuntza nazional* bihurtzen da (= *espainola*).

Errenazimentuko kontzepzio estatu-nazional honek (ez baitzuen etnia nazionalen definizio soziopolitikorik lortu), geroko nazionalitate arazoan hazia erein zuen.

Juan de Valdés *gastelaniaren* apologistak zioenez, hizkuntzen ugaritasunaren arrazoietakoa bat “no estar toda (la provincia) debaxo de un principe” da (Valdés 1948: 28). Hau da, banaketa politikoak, banaketa linguistikoa dakar berez. Hemendik hasita, ez zegoen urruti Erreinu osorako batasun linguistikoaren beharra edo komenentzia baieztatzea. Eta nola ez horretaraino iritsi, esate baterako, Juan Valdés-i, inguruko hizkuntzei buruz zituen iritziak aintzatzat hartzen badizkiogu: euskara ulertezina da, dio Valdésekin, eta ez du Erreinu barneko komunikaziorako balio, *katalanak* erro arrotzak ditu, *portugesa* kasik *gastelania* bera da¹⁸.

Teoria hauek guztiak gehiegi hurbiltzen zaizkie Calvet-ek glotofagia politiko gisa salatzen dituen frantses irakaskizunei: “Horretaz gero, botere politikoa-renak dira bakarrik hizkuntzak, ala ez dira inola ere hizkuntza” (Calvet 1974: 21)¹⁹. [Itzulpena gurea].

Grégoire apaizak, Iraultza Frantsesaren gidari sonatuak, 1788an honako hau idatzi zuen:

¹⁸ “Esta lengua (vizcaina) es tan agena de todas las otras de Spaña, que ni los naturales de ella son entendidos por ella poco ni mucho de los otros, ni los otros de ellos. La lengua catalana diz que era antiguamente lemosina, que es ahora lenguadoc. [...] La portuguesa tiene más de castellano que de ninguna de las otras” (Valdés 1948: 29). *Gastelaniaren eta portugesarren arteko kideetasun horretaz*, ikus Tovar 1968: 50.

¹⁹ Ohar hau egiten du autoreak: “Le militarisme francophile du siècle témoigne d’un ultrachauvinisme qui n’a d’egal que le militarisme germanophile auquel il s’oppose”.

Ez Europan eta –nik dakidanez– ez inongo beste tokitan gertatzen da gizarte osoak hizkuntza nazionala ez erabiltzea. Oso bestelakoa da Frantziaren egoera: zortzi milioi lagunetatik gutxi batzuk dira kapaz totel-motel hitz batzuk nahiz esaldi batzuk ozta-ozta erabiltzeko: gainerakoek ez dute frantsesa fitsik ezagutzen (Certeau et al. 1975: 21). [Itzulpena gurea].

Idazle honi bere *Essai sur la Régénération physique, morale et politique des Juifs* sariztatu zioten 1788an. Juduez oso jakituna bagenuen, oraindik Europako hizkuntzen mapa bakar bat ere ikusteko zeukan.

“Argiak, erlijioaren ezaupide garbia, legeen ezarpen erraza, nazioaren zoriona eta politika ez-titasuna”, hori dena zen Grégoire-ren kezka (Certeau et al. 1975: 21). Horretarako, *l’anéantissement des patois* lortu behar zen, hau da, tokian tokiko hizkuntzen deuseztapena.

Hortaz, Grégoirek 1790ean zabalduko inkestaren helburua politikoa zen.

Errenazimentuan, arrazoi estatu-nazionalengatik, eta Iraultzakoan, arrazoi ideologiko-zentralistengatik, patu gaizto bera jasan behar izan zuten gutxiengo etnokulturalen hizkuntzek: bizitza zibil ofizialetik baztertuak izan ziren. Hona hemen, XIX-XX. mendeetan gutxiengo nazionalen eskakizun armatu nahiz ez-armatuen oinarri historikoak. Metropolietako teoriak eta praxiak, XVI. mendeaz geroztik aplikazio zabal eta berria aurkitu zuen kolonietan. Kolonialismoaren historian ere bi une bereiz ditzakegu: Espainiak eta Portugalek munduan bete zituzten konkista eta kolonizazioa, eta gero Europak XVIII-XIX. mendeetan lortutako kolonia zabalkundea.

Aipa ditzagun hemen bi kasu, Amerika Espainiarra eta Aljeria.

3.2.1. *Kolonizazioaren bizkuntz politika*

Arestian argi geratu zaizkigu linguistikaren eta politikaren arteko zerikusiak eta erlazioak.

Teoria linguistikoetan, gizaldi bakoitzak eman ohi du fruiturik aski bere enpresa kolonial eta politikoetarako. Esate baterako, Jules Ferry-ren kolonizazioak, afrikanismo kolonialaren ardura teorikoak ditu bide urratzaile bere aurretik. Maurice Houis-ek ongi azpimarratu zuen linguistikaren eta praxi kolonialaren arteko lotura, Calvet-ek gogorarazi digunaren arabera:

Honela sortzen dira lehen-hizkuntzen egitura pobreziaren ideia eta ahalbide eskasiaren ustea. Delafosse eta Westermann bezalako afrikazaleen idazlanetatik kolonizazioaren politikari segurtabide jakintsu bat

eskaintzen zaio. Zientziaren eta politikaren arteko hitzarmen hau Afrika Beltzaren linguistikaren historiako parte da. Horrela uler daiteke nola idatzi eta argitara eman zuen Davesne-k, 1933an, bere *La Langue française, langue de civilisation en Afrique Occidentale Française*. Autoreak badu argudiorik, irakaskuntzan frantsesa bakarrik zuzenesteko, Afrikako hizkuntzak zientzia itxurazko erdeinuz estaltzeko (Calvet 1974: 38).

Calvetek dioskunez, kolonizazioaren testuinguruan, eginkizun soziopolitikoetarako ere lan egiten du linguistikak, eta bigarren mailan geratzen da, orduan, beronen ezagutza funtzioa (Calvet 1974: 53-54).

Lurralde baten kolonizazio linguistikoan, elkarren segidan datozen epe batzuk bereiz daitezke: 1) kolonizazio aurrea, 2) kolonizazio ekintzailea, eta 3) neokolonizazioa.

Lehenen aldi horretan sortzen da kolonizazio orok behar duen *gainegitura ideologikoa*: metropoliko hizkuntzaren gorentasuna baieztatzen da, beronek duen helburu kolonizatzailea gogoratzen, kultur bide bezala eskaintzen da metropoliko hizkuntza. Nola adierazi da hori? Hizkuntzen sailkapen eta hierarkizazioak egiten dira, zientziatik ateratako izen eta hitz zenbait erabiltzen dira laudorioztatuz edo arbuio gisara.

Kolonizazio ekintzailearen epean, gainegitura ideologiko horren armek zerbitzurik onena eskainiko dute: lurralde konkistatuaren deskribapen kolonialista margotuko da. Aldez aurretik sortutako betaurrekoen argitan begiratuko dira kolonietako errealitateak. Askotan sinestezineko ziurtasunaz jokatu da, ideologiaren estalkiari esker. Armagizon, legegizon eta funtzionarioek oso argi daukate beren ideiak, kolonizazio aurrean ikasi dutena lagun. Ikusmolde kolonialistak mundua halatsu ikusiko du: kolonietako herriek ez dute kulturarik, ez historiarik, ez hizkuntzarik. Kolonizazioak –diote– Gizadiaren Historiara eramango ditu; zibilizazioaz jabetzeko aukera izango dute, eta, azkenik, kulturarik garaienera iristeko egokiera edukiko dute metropoliaren hizkuntza hartzean.

Horiek horrela, hautabideak ez dira dudazkoak.

Eta hirugarren epean gara, honetaz gero. Bigarren epean, kolonizazioaren garaian alegia, metropoliarekin bat etorri da kolonia: mendetasun ugariak sufritu ditu honek, jabetasun ederrak gozatu ditu hark. Deskolonizazioaren uanean hori guztia, dena bat-batean eta supituki, aldatuko ote da? Ez, ez da horrelakorik. Kontzientzia nazionalak dena itzulipurdikatzen eta alderantzikatzen ez badu, kolonia garaiko gainegiturek bere horretan iraungo dute. Metropolia kulturen eta hizkuntzaz eskolatu diren gizarte talde txoek (betiere gutxiengo baitira nabarmenki) beren *status quo* abantailatsuari eutsi egin nahi diote.

Kolonizazioak nagusigo berri eta iraunkorra eman die taldetxo horiei, eta ez daude prest, inondik ere, irabazitakoa galtzeko.

Hauxe da neokolonizazioaren epea, eta une honetantxe du hizkuntza faktoreak muntarik handiena. (Begiratu besterik ez dago postkolonialismoan Herrialde ezberdinek nola hartu duten Metropolikoa Estatu berrietako hizkuntza ofizialtzat, Ameriketara bezala Afrika eta abarretan).

Metropoliko hizkuntza, ezezaguna edo erdi-ezaguna da populaziorik gehienarentzat. Gutxiengo menderatzailearen hizkuntza horrek gehiengoaren menderatze politiko eta ekonomikoa sendotu egiten du, sendotu eta estali. Gutxiengo agintedun berria *aske* da orain, *burujabe* –diotenez; baina, egiaz eta beste nolabait izan arren, berriz ere Metropolitik dago. Estatu berriko talde agintariak, barnean nagusigo ageria du, baina erbestearekin loturik dago. Metropoliko hizkuntzak kanpoko harremanak bizkortu egiten ditu, eta berro-netsi egiten du barneko jendeteriarik handienaren zokoratzea. Afrika deskolonizatuan frantses nahiz ingeles hiztunek agintzen dute. Ameriketako Independentzia Gerrak *kreoleek* gidatu zituzten: *maiak*, *aztekak* edo *inkak* (gehiengo nahiz gutxiengo izan) ez dira gehiago botereaz jabetu. Amerika berria Europako hizkuntzetan mintzatzen da.

Itzul gaitezen aipatu dugun bigarren aldira, kolonizazio ekintzailearen epera. Une horretan, zein eskema du kolonizazio linguistikoak?

Armagizon, funtzionario eta merkatari kolonizatzaileak iristean, bertako zerbitzariak osatutako lehenengo inguru bat agertzen da: koloniako burgesia eroslea, etxe zerbitzariak. Hauek beretu egin nahi dute lehenbailehen metropolitarraren hizkuntza: laster izanen dira lurraldeko elebidun bakarrak. Gainerako biztanleria elebakarra da, eta aparte bizi da. *Norabide bakarreko indizio linguistikoa* da: biztanle koloniarrek konkistatzaileen hizkuntza ikasi behar dute, baina ez alderantziz.

Berehala botere kolonizatzaileak hizkuntza menderatzailearen usadioa ezarriko du: *gizarte erakunde linguistiko* bat asmatzen da. Metropoliko hizkuntzari erakunde bat sortzen zaio koloniako gizartearen barnean. Tribunaletan eta Administrazioan metropoliko hizkuntza bakarrik erabili beharko da. Ez da, beraz, komunikabiderik egokiena delako erabiltzen, izan ere, kolonizatuen artean gehiengoak ez baitu metropolitarraren mintzaira oraindik ikasi; menderabide egoki bezala aukeratzen da metropoliko hizkuntza. Koloniako biztanleria, ia dena, elebakarra denez, soziologiaren lege guztien kontra ezartzen da *bizkuntzazko bazterketa eremua*: hiriburura, metropolira, zuzendariari, jeneralari ez dakieke idatz edo mintza tokiko hizkuntzetan. Erabat mundutik at geratzen da hizkuntza menderatzailea ez dakiena.

Honela, ezarria geratzen da hizkuntzazko gainegitura bat (erakunde politiko).

Hizkuntzazko *establishment* hori sortu denez geroztik, kolonizazio ideologiak kulturaz ere beretartu egin nahi du kolonia, asimilatu: kulturaren eskaintza egiten zaio metropolitik koloniar. Zentzu honekin egiten dira hautapen politikoak: *eskola-plangintza* proposatzen da eta, gure egunetarago, *mass media* guztien eraketa bat. Tradizio zaharren *deuseztapen* bide bat izanen da eskola, baina metropoliak ez du *txikitzaile* bat bezala agertu nahi. Horregatik, metropoli urrunean goi-ikastetxe eta katedrak sortuko ditu kolonietako tradizioen albistek *kulturarako* salba ditzaten.

Erlikiak gorde beharra sentitzen du metropoliak; baina arrangura horiek agertzen direnerako, kolonizazioa oso aurreratuta dago; hiriak ez du metropoliko hizkuntza baizik erabiltzen (metropoliko funtzionarioak eta kolonian bertan asimilatutakoak); eta inguruko landak elebidun izaten hasiak dira. Kolonietan, elebitasuna elebakartasunerako ataria baino ez da izaten, eskolek, gizarte komunikabideek eta kolonia administrazioak horretara bultzatzen dute.

Kolonizazio aurreko tradizioari eutsi nahi bazaio, indar berriak aurkitu beharko dira, ez baita bestela kolonizazioa geratuko.

Erljio munduan idoro daiteke indar horietako bat, kontzientziazio nazionalak ere joan-etorri handia du arlo honetan. Baina kolonietako hizkuntzen ugaritasunak edota zatiketa dialektalak biziki ahul dezakete premiazkoa den jarkikortasuna, erresistentzia. Hizkuntza batu, finkatu eta eskolaratua izan daiteke ateka larri horretarako salbabide.

Baina Calvetek gogoratzen digunez, hortixe itzuri nahi du, hain zuzen, botere kolonialak²⁰.

Pasarte honetan, orain artean eman duguna paradigma bat da, kategoria bat. Kolonizazio bakoitzaren historiak ñabardura bereziak ditu; menderatua izan den hizkuntza bakoitzaren gauzek beren ibilbide propioa izan dute.

Kasu bakoitza, historia ezberdina da.

Hala ere, kolonizazioaren *plangintza* beteko bada, hiru oinarrizko zutabe eta pilare behar dira beti: 1) *ekonomia* lehendabizi: metropoliko hizkuntza baka-rrik darabiltenen eskuetan daude produkzio ondasunen kontrol-bideak (hizkuntzen banakuntzak kontrol-bide horiek irmotu baizik ez ditu egiten); 2) *legeria* bigarren: legeek zuzenbide mailara jaso eta eskubideztatu egiten dute

²⁰ Ikus eskema teoriko hau zabalago: Calvet 1947: 55-85.

kolonia plangintzak dakarren hizkuntza diskriminazioa eta bereizgoa; 3) *ideologia* hirugarren; sistema osoaren oinarri teorikoa ideologian datza. Kolonizazioaren ideologia, gizarte-praxira ez ezik, gizabanako bakoitzaren baitaraino heltzen da, herri kolonizatuengan batzuetan hizkuntzari buruzko errudun-ustea piztuz. Bere hizkuntza propioaz *kontzientzia erruduna* sufri dezake herri eta gizaki kolonizatuak, eta, horregatik, ez da ausartuko gizarte giro zenbaitetan eta *ongi kokatu*en artean bere mintzairaz baliatzen.

Baina, diogunez, kasu bakoitza istorio ezberdina da.

Dena dela, asmoa eta gogoia hortik doaz; joera horiek ditu kolonizazioaren lanak. Makurbide hori ezin du laga kolonizazioak. Horixe zen esan nahi genuena.

Kapitulu hau amaitzeko, euskarak aspaldidanik inguruan —eta etxean ere bai— dituen hizkuntzen bi kolonizazio-historia ikusiko ditugu. Kategoriatik gertakarietara igaroko gara, esandako bera ere hobekiago uler dadin. Nola burutu zuen erdarak Ameriketako hizkuntz kolonizazioa? Zein lanbide bete zuen frantsesak Aljerian?

3.2.2. *Amerika kolonialeko hizkuntz politika*

Richard Konezke izan da historia honetaz arduratu direnetako bat. Hari zor diogu Ameriketako hizkuntz politikaren ildo nagusien deskribapena²¹. Jarrai gakizkion.

XVI. mendearen hastapenetan, Reglák dioenaren arabera, Gaztelako Erresumak 7.000.000 arima inguru zuen (Ubieto et al. 1963: 183). Ameriketako lurraldeek, oster, 80.000.000, espainolek konkistatu zutenean. Hori ematen du Pierre Chaunuk hurbilpen gisa (Chaunu 1972: 6-7). Garaiko Txinaren biztanleriaren paretsukoa zuen Mundu Berriak (Chaunu 1973: 250). Gaztela eta Amerika, bi jendetza arras desparekatuak ziren, baina orduantxe topo egiten zuten Historiaren bidegurutzetan. Zibilizazio distiratsuak bizi ziren Erdialdeko Amerikan (Mexiko) eta Perun, eta kanpotik erronkan zetorkien beste zibilizazio arrotz bati erantzun behar izan zioten bat-batean.

²¹ Amerikako hizkuntz politikaz ezagutza egokia izateko, behar-beharrezkoa da Richard Konezke-ren lanak eta berak bildutako dokumentuak ezagutzea. Konezke-renetatik *Colección de documentos para la historia de la formación social de Hispanoamérica, 1493-1810* aipatuko dut hemen (Konezke 1953: 62). Gogora ditzagun beste autore jakingarri batzuk: Silvio Zavala (eta bere bibliografia aberatsa), Constantino Bayle, López Estrada, Robert Ricard eta abar. [1992ko Mendeurreneko ikerlan garia ezin da bazter utzi, gainera]. Izan bekigu zilegi modu orokorrean egiten dugun ohar honetara mugatzea.

Ordura arte elkarren aditzerarik ere ez zuten kulturen arteko topaketa zen hura.

Nork nori erasoko zion? Nor izango zen zibilizatzaile? Nor zibilizatu? Galderak asko eta nahasiak ziren konkistaren lehen urte haietan.

Nola kokatuko da kultur talde bakoitza bestearen aurrean? Zer egin behar zuten konkistatzaile gutxi haiek, indiarren jendeteria handi haren aitzinean, oso guti izan baitziren, izan ere, Gaztelatik Ameriketara igaro zirenak. Hala dio John Lynch-ek (Lynch 1970: 197)²². Bestalde, Amerika ez zen dena gisa berekoa: tribu gizarteen ondoan, Estatuetan eratutako komunitate handiak zeuden. Antilletako lehenengo harremanak eta geroko konkista (Mexiko, Peru) oso bestelakoak izan ziren.

Zein ondorio izan zuen kultura-trukeak amerindiarren hizkuntz bizitzan?

Berehala ikusi zen, indiarren hizkuntzak ez ezagutzeak ezartzen zuen hesia. Harremanak nekagarriak ziren, zailak: ingurua ere ezezaguna eta sarritan aurkakoa zenez, indiarrekiko komunikazioaren premia gorria sentitzen zuten konkistatzaileek. Eta konkistaldia bukatuta, kolonizazioaren gizarte berria moldatu zen heinetik, gomendarien eta gomendatuen arteko bizikidetzaz ez zen samurra gertatzen (Martinell 1988).

Misiolariak –Hitzaren lanbidea prediku eta katekesian zutelako ere– berehala ulertu zuten zer-nolako eragozpena zen hizkuntzek ebanjelizazioari ezartzen ziotena.

XVI. mendean, eta noizbehinka agertu ziren zalantza-malantzak gorabehera, Pierre Chaunu-k dioskunez, Elizak berriro aurkitu zuen *misio* eginkizuna. Mende beteko eliz nahasmenduen ondoren, Amerikaren Aurkikuntzak misio eginkizunari bizi eta sutsuki heltzera bortxatu zuen Eliza. Dena birpentsatu beharrean zegoen. Misioaren berezko egitekoa ez zen inongo kulturaren eramaile izatea, nahiz eta Brasilen eta Paraguain, eta Kalifornian geroago, horixe izan misioaren tentaldirik zirikagarrienetakoa. Izan ere, lekuko kulturak indargabeak eta ahulak zirenean (eta halaxe gertatzen zen aipatutako hiru lurralde hauetan), zergatik ez hel Europatik zetorrenari?

Fedearen deskulturatzea egin zenean (eta fedea bera onduta gertatu zen horrekin), kulturen aniztasuna idoro zuten. XVI. kristau mendeak protoantropologia sortu baldin bazuen, misio-jantzi horri zor izan zion (Chaunu 1973: 224-225, 252). Baina egintzetara igarotzean, ez da erraza gertatzen

²² Berrogeita hamar urtetan, 1509-1559, 15.480 lagun izango ziren legez Ameriketara joanak. Legez kontra, 150.000taraino? Konezke-k 300.000ren bat emango du XVI. mende osorako.

ebanjelizazioaren eta zentzu bakarreko kultura-trukearen bereizketa (Mauro 1968: 256).

Misiolari eta historialari euskaldun batek, gasteiztar Jeronimo Mendietakoak, ematen digu Mexikoko berri. Lehenen urteetako (1520-1530) misiolariek bazuten oztoporik franko: *Del trabajo que pasaron estos padres por no saber la lengua de los indios, hasta que la aprendieron* du izenburutzat autore honen *Historia Eclesiástica Indiana* liburuko kapitulu batek (Mendieta 1973: 133-134). Lehenen, otoitzak latinez irakatsi zituzten misiolariek (Mendieta 1973: 133); sei hilabete behar izan ziren azteka indiarrei berauen hizkuntzetan egoki samar (“hablar razonablemente”) mintzatzeko. Lehenengotako lana gramatikak sortu eta kristau Dotrina itzultzea izan zen. Hizkuntza berrietan egindako lehen predikuak, aldez aurretik ikasbidetutako haurren bidez moldatu ziren (Mendieta 1973: 136-137). Horrela gertatu zen bi kulturen arteko hastapenetako harremana.

Zertan ari ziren, bien bitartean, konkistatzaileak eta kolonoak? Zein hizkuntza kidesun sortuko zen hauen eta indiarren artean?

Amerikako kolonizazioan ezin liteke esan konkistatzaileen eta kolonizatzaileen artean irizpide batasunik izan zenik. Kolonia garaiko ia hiru mendetan ez zen, gainera, politika berdinek izan. Koroaren ustetan, ebanjelizazioa indiarren hizkuntzan egin behar zen: oinarrizko irizpide hori era askotan agertzen zaigu; esate baterako, aldizka-aldizka, indiarrei erretoretzat elebidunak emateko gogoratzen zien Erregeak Apezpikuei²³. Baina behin eta berriz gauza bera agintzeak berak salatzen digu, agindutakoa oso nolabait betetzen zela, nonbait. Misiolarien –geroz eta ugariagoak berauek– zabarkeriak bazuen zerikusirik utzikeria horretan.

Baina nagikeriaz aparte, baziren bestelako arrazoiak ere: Erret Patronatuak ez zituen lehenaldiko misiolari haien irizpide berak, eta oso errazki nahasten ziren ebanjelizazioa eta erdalduntzea jendearen burutan. Hortik ere misiolarien ekintzari ez zetorkion garbitasun berririk.

Horretaz gainera, 1550eko lege batean agertzen den iritzia ere tartean zebilen. Kolonizazioari zegokion iritzi ideologikoa zen hau: esaten zenez, indiarren hizkuntzek ez zuten balio ebanjelizaziorako:

Habiendo hecho particular examen sobre si aún en la más perfecta lengua de los Indios se pueden explicar bien, y con propiedad los

²³ *Recopilación* 1943. Liburu eta lege ezberdinetan aski jakingarri jaso liteke hizkuntz politikaz zerikusirik duenik.

Misterios de Nuestra Santa Fe Católica, se ha reconocido que no es posible sin cometer grandes disonancias e imperfecciones (*Recopilación* 1943: Ley XVIII, tit. I, lib. VI).

Erremedio-biderik onena gaztelania irakastea zen. Lege horren arabera, indiarren eskolatzea eratu behar da, gaztelania mendera dezaten eta kristau dotrina ikas. Indietako Legerian horixe agintzen da:

Habiendo resuelto que convendrá introducir la [lengua] Castellana, ordenamos que a los Indios se les pongan Maestros (*Recopilación* 1973: *ibid.*).

Misiolariez baliatu nahi du Estatuak, erdararen zabalkunderako. 1636ko lege batean nabarmenago ageri da azpijoko kolonialista horren gogoia:

Rogamos y encargamos a los Arzobispos y Obispos, que provean y den orden en sus Diócesis, que los Curas y Doctrineros de Indios, usando de los medios más suaves, dispongan y encaminen, que a todos los Indios sea enseñada la lengua Española, y en ella la Doctrina Christiana (*Recopilación* 1943: Ley V, tit. XVIII, lib. I).

Izan ere, nola ez maneia misio lana, kolonizazioaren eginkizun politikoetan lagun zezan? Misioa eta zibilizazioa (edo, beste era batera esanik, erdalduntzea) hain hurbilak izanik, ez zen samurra tentazio hau baztertzea.

Misiolariek segur aski, oro har, ez zuten hizkuntzen esanahi etnokulturala balioztatu; nazionalitate balioa betiere bigarren mailakoa zen. Baina, neurriren batean, leialak izan zitzaizkion hizkuntzen egiteko pastoralari. Hizkuntzak ikasi, gramatikak eta hiztegiak argitaratu, beroriek katedra eta eskoletan irakatsi...²⁴

Hori dena laguntza ona izan zitekeen etorkizunean, kultura zaharrei bultzada pizgarri bat emateko eta askapen nazionala lortzeko ere bai²⁵. Baina legeria indiarzaleena ere, misiolarien praxirik idealistena, ez ziren komunitate indiarrek salbatzeko lain.

²⁴ Misiolariek, “tarea compleja y de magnitud enorme” deituari eskaini zioten bibliografiaz, ikus Zavala 1967, IV: 24 (5. oharra).

²⁵ Independentziaren ondoko hizkuntz politikaz bibliografia: Zavala 1967, IV: 24 (2. oharra).

Konetzke-k aztergairik franko bildu du amerikar hizkuntzekin zer-nolako politikaz jokatu zen jakiteko²⁶. Historia haren barnean, 1596ko urtea mugarri bat da Amerikaren erdalduntzea nola egin zen jakiteko.

Ordurako ia mende bete egina zuen kolonizazioak. Ez 1550eko lanbide anti-indigenistak, ezta 1580 inguruko lege irekiek ere iritsi zuten kolonizazioak bere baitan duen helburu asimilazionista. Indiarrek ongi indiar jarraitzen zuten, baita hizkuntzaz ere. Hasierako ebanjelizazio indiarzale hura moteldua zen, eta kolonizazioaren abiada asimilatzailea bizkortu premia sumatzen zen. Felipe II. ak plangintza bat eskatu zion Indietako Kontseiluari, “para la educación de los indios, desde su niñez en la lengua castellana” (Konetzke 1971: 200). Samurtasunez nahiz gogorbidez, Erregeak ez zuen utziko kolonizazioaren helbururik.

Felipe II.aren kezka ezagutuki, Indietako Kontseiluak irtenbide argi eta erabakia eskaini zion: Indiarren hizkuntzen gaitasunik eza gogoan zela, “se ha deseado y procurado introducir la castellana como más común y capaz” (Konetzke 1953, II-I: 39, 19. dok.). Kontseiluaren erantzunak proposamen oso gogorak egiten zituen, Indietako lurraldeak eta Gaztelakoak erabat berdinduz: guztietan, gaztelania beharko zen mintzatu.

[...] dejen y olviden la propia [lengua] [...], no solo con los niños, sino con los de todas edades [...] so graves penas principalmente contra los caciques [...] declarando por infame y que pierda el cacicazgo [...]

Egiten diren hausnarketak gogoan ditugula, ezin pentsa politika hura irizpide jakin batzuk gabe edo oharkabean jasotzen zenik. Kontseiluak bazekien, jakin, zer nahi zuen.

Kontseiluaren iritziz, hizkuntza politika egoki batek, amerindiarren hizkuntzen deuseztapena lortu behar zuen. Erromak Inperioa latinizatu zuen bezala, gaztelaniazko batasuna ezarri behar zien Ameriketako herriei Gaztelak. Bide horretatik bizkorragoa izango zen kultur asimilazioa, eta hizkuntzak zere-rako balioko zuen (Konetzke 1953, II-I: 39-40):

²⁶ Ikus Konetzke 1953, dokumentu hauek: I: 113, 182, 183, 431, 460; II: 19, 29, 39, 88, 99, 224, 233; III-2: 520, 531, 559, 561, 568; II: 1, 7, 8, 20, 21, 22, 23, 52, 54, 166, 174, 214, 218, 245; III-2: 265, 361. Dokumentu hauek denak hizkuntzari zuzenean begiratzen diotenak dira; baina irakaskuntzari nahiz pastoralgintzari zegozkienak ugari dira eta berauetan erraz aurki liteke hizkuntzekiko hamaika gauza eta erabaki.

Para encaminarlos en las buenas constumbres y vida política con que es justo que vivan [...], para su edificación y para saberse regir y gobernar como hombres de razón.

Berehala ikus daitezkeenez, *balio* kulturaletik aurreiritzi batzuekin jokatu nahi da, eta hizkuntzak ere ez dira aurreiritzi horietatik salbatzen. Indietako kulturak nahiz hizkuntzak patu bakar bat eduki dezakete etorkizunean, erdal-duntzea.

En los círculos políticos de gobierno se reconocía también la significación política que tenía la unidad lingüística para la dominación hispánica en América (Konetzke 1953, II: 201).

Nazionalizazio gaztelauaren printzipio politikoa zen politikarentzat gidaririk onena, Indietako Kontseiluaren ustetan. Solórzano legegizonak ere halatsu pentsatzen zuen, urte batzuk geroago bere *Política Indiana* liburua idaztean:

[...] hubiera sido fácil y conveniente haber obligado a todos los indios que iban entrando en la Corona de España a que aprendieran la lengua de ella, y que hoy aun será mucho más fácil y conveniente [...]. Y así en breve tiempo estuviera corriente entablado nuestro idioma o lenguaje, y se olvidara de suerte el suyo, que ya no supiéramos qual había sido (Solórzano Pereira 1970: 395-404).

Eskolen arduraduna Eliza zen. Kolonizazioaren bereganatzea bete zedin, eragozpen handiak zituen garaiko eskolatzeko eskasak: Amerikako geografiaren luze-zabalak, biztanleriaren sakabanaketak eta misio lanak berak ere (nahiko indigenista baitzen) porrot eginarazi zioten Kontseiluaren aurreplangintzari. Jendetza izugarri hura alfabetatzeko adina eskola eta maisu falta zen. Bestalde, “bertakoek, komunitate etniko guztiek bezala, gogor eusten zioten beren hizkuntzari” dio Konetzke-k. Kolonizazioaren oinarriak, eta gogorbidezko kolonizazioarenak ere bai, ezarrita daude XVIII. mendearen hastapenetik. Misioen bitartez burutu nahi zen zeharbidezko kolonizazioak porrot egin zuen; baina, garai berri baten aldardean, nork zekien zer egin zitekeen? Ez ote zen teorietatik egintzetara pasako?

Giro-aldarte berri hori XVIII. mendean sortu zen, Borboitarren zentralismoarekin batera, lehenik Metropoliar eta Ameriketako erreforma politikoa gero. Intendentziak orduan instituzionalizatu ziren. Hizkuntzen politikari ere

komeni zen begirada bat ematea. *Kreoleek* barne-egitura bilduagoa ematen zioten Ameriketara XVIII. mendeko gizarteari. Bazegoen XVI. mendetik alde ederrik. Gutxiengo espainiaru bikaina zen *kreoleen* gizartea. Gaztelaniaren aldeko politika bortitz bat pozik hartuko zuen gizarte hark.

Hauxe zen, beraz, aukerako mementoa.

El despotismo ilustrado proclamó por primera vez y sin reservas la asimilación lingüística de los pueblos como el derecho soberano de los españoles y consecuencia natural de la conquista y colonización hispánicas. Se propuso, además llevar a la práctica esa asimilación, considerada como una necesidad política. La formación de un cuerpo de súbditos lingüísticamente homogéneo²⁷ aparecía como medio para la creación de un estado nacional unitario. Se concebía la centralización bajo la forma de hispanización del imperio americano. La misma debía influir paulatinamente, y de manera general, para poner a un lado las enormes disparidades en las condiciones de vida, y, en particular, para encuadrar más cabalmente a los indios, desde el punto de vista económico y cultural, en la comunidad política. La integración de las poblaciones aborígenes, hasta entonces aisladas, había de constituir una medida preventiva contra amenazantes rebeliones (Konetzke 1971: 202).

Ez zegoen, bada, Ameriketarako aniztasun linguistikorik.

Aldaketarako ekina Mexikoko Artzapezpikuarengandik etorri zen, geroko Lorenzana Kardinalarengandik²⁸. Erregeari idatzi zion, Indietako gaztelaniaratzeko eskasa salatuz. Indietako kultur-artekotasunak apaizeriarengan izan zuen eragina gogoratzen dio: apaizeria xumea indigenatu egin da, erdiko eta goreneko apaizeriak espainiar dirauen bitartean. Arazo honetan, Lorenzana bigarren taldearen alde agertzen da, eta behekoen kontra: “párrocos y ministros (que)

²⁷ Borboiak dira Penintsulan ere Administrazio bidez hizkuntza bat-beratasuna bizkorrago ezarri nahi dutenak. Hala nola, “Decreto de Nueva Planta” deitua (1716) Kataluniarako. Ikus Soldevila 1963: 1168-1188.

²⁸ Francisco Antonio Lorenzana y Butrón (1722-1804), Espainiako Gotzainen artean, XVIII. mendean, ezagunenetakoa izan zen. 1765.ean Plasenciako Apezpiku egin zuten, eta hurrengo urtean Mexikoko Artzapezpikutara jaso. Urte gutxitan lan eskerga egin zuen han. 1771an Mexikoko IV. Kontzilio Pastoralak bildu zuen. 1772an Toledora aldatu zuten. Ondoren, mendeko astinaldiak hurbil-hurbiletik ikusi eta jasan zituen.

hacen alarde de estar cada día más expeditos en los idiomas”, direlako horien aurka dago Artzapezpikua (Konetzke 1953, III-I: 365).

Apaizeriaren barnean, gizarte borroka ispilatzen du hizkuntzak, eta, bestalde, aurkako interesen arma ere bada. Lorenzanaren arabera, klero xumearen interesak, tokian tokiko hizkuntzen biziraupenaren alde izango lirateke: herriarengan ditu apaizeria apal horrek bere erroak, eta maite zuen herri horrek bere jatorrizko mintzaira. Jatekoa ematen zionak berak, ematen zion hizkuntza ere beheko apaizeriari.

Europatik zetorren kleroa, edota *kreole* espainiarra gizarte talde menderatzailekoa zen, eta gutxi-asko indigenatu zirenen aurrez aurre aurkitzen zen. Hain zuzen, indigenatutako gizarte mota horrexek salatzen du gaztelaniaritzearen porrota; ordura arteko lanak ez ziren aski izan Amerikako gizarte osoari erdara ezartzeko. Lorenzanak banan-banan ematen ditu egoera horren arrazoiak; lehenik egoeraren beraren datuak emanez:

Pasado más de dos siglos y medio se mantienen en lo más descubier-to y civilizado, como es en México y Puebla, muchos y diferentes idiomas, en que los indios están encerrados, rehusando aprender el castellano (Konetzke 1953, III-I: 364).

Egoera linguistiko hori oso aldakaitza da gainera, herriak gorde egin nahi baitu berezko hizkuntza: ez dago aldaketarako borondaterik herri xumearengan, ez du horretarako bortxatua izan nahi. Hizkuntza aniztasunaren arrazoi bat –Lorenzanak dioenez– borondate hori da:

No porque los naturales no entiendan el castellano, sino porque no quieren hablarlo. [...]. Parece que cada día más se indisponen los ánimos.

Herria kexu da hartu ohi diren legezko neurri batzuen kontra. Horregatik, behin betiko erabaki batzuk hartu beharko lirateke, egoeraren zuztarretara joz, gaitzak bere iturriak baititu: herrietan eskolarik eza, indiarren jarkikortasuna, funtzionarioentzako itzultzaileak jartzeko ohitura, apaiz elebidunei lehentasuna ematea, indiarrei predikuak beren hizkuntzetan egitea, europar apaizak baztertzea...

Aje hauek sendatzeko politika berri baterako zutabeak finkatu nahi ditu Lorenzanak: apaiz, erretore eta benefiziatuak beren balio eta merituengatik aukeratu behar dira, hizkuntzak dakizkien ala ez begiratu gabe; biztanleria erdal

-eskolatu behar da; apezpikuei eta agintari zibil guztiei, Indietako erreinuak erdalduntzeko duten betekizuna gogoratu behar zaie. Plangintza honetarako arrazoiak honela laburtzen ditu Artzapezpikuak:

Es cierto que el pastor debe entender la voz de sus ovejas [...] pero esta razón en nada convence, porque los obispos son los primeros pastores [...], y nunca han pensado mis predecesores ni yo en colocar a los que los [idiomas] saben por que ninguna utilidad resultaría de ellos y acaso muchos perjuicios (Konetzke 1953, III-I: 365).

Eta apaiz elebakarren alde idazten du hurrena: hainbat hizkuntza indiar dagoela, herriak erdalduntzea da bide egoki bakarra. Horregatik ere, goi-ikasketak egin dituzten apaiz elebakarrak zapuzterik ez dago. “Konkistaren lehen garai haietan indiarrek erdalduntzen ahalegin guztiak egin izan balira, mende erdi aski izango zatekeen helburua lortzeko” [Itzulpena gurea]. Bestalde, predikuetan irakaskuntza garbirik gordetzeko segurtasun bat da erdalduntzea.

Artzapezpikuaren ustez, bada erdalduntzearen kontrako aurreiritzirik, eta horiei ere erantzun nahi die. Apaizeria apalak badaki hizkuntzen jakiteak goi-apaizeriaren lehiaketatik defendatzen duela bera. Indiarrek, oster, hobekiago babesten dira beren hizkuntzetan zurien aurka eta beren-berena bezala sentitzen dute hura, horregatik.

Gaztelatik begiratzen zuen Artzapezpiku harentzat, halako hondamendi hura berehala konpontzekoa zen. Horretarako legeak berriztatu eta egintzetara eramane behar ziren; lehendik emandako legeek, Artzapezpikuaren iritziz, inperio batu bat nahi zuten; horregatik, dio berak, gaztelania zabaldu beharrekoa da:

Se debe extender y hacer único y universal en los mismos dominios, por ser el propio de los monarcas y conquistadores, para facilitar la administración y pasto espiritual a los naturales y que estos puedan ser entendidos de los superiores, tomen amor a la nación conquistadora, destierren la idolatría, se civilicen para el trato y el comercio (Konetzke 1953, III-I: 364).

Egia da “tomen amor a la nación conquistadora” hori oso arrazoi bitxia gertatzen dela; baina jakinduria historikoz betetakoa dela ezin uka, kolonizazioaren kondairari begiratzen baldin bazaio, delako amodioa iruzur hutsa izan arren. Inoiz gutxitan laburtu dira hain poliki kolonizazioaren hizkuntza helburuak.

1596an bezala, orain ere irizpide ezberdinak agertu ziren Mexikotik bidalitako txosten honen aurrean. Alde batetik –eta betidanik Elizak defendatutako politika indiarzalea ahantziz– Artzapezpikua eta Erregearen aitorlea zeuden; bestetik berriz, Indietako Kontseiluak manto soago jokatu nahi zuen, gaztelania irakatsiz bai, baina erdal pastorgintzarik ezarri gabe alegia. Beharbada, politikariek (eta berauen artean Mexikoko Erretordeak berak) hobekiago ikusten zituzten gogorbidezko politikaren arriskuak. Artzapezpiquaren kontra zeuden, beraz (Konetzke 1971: 202-203).

Denak zetozen bat, luzarora kolonizazioak zaindu behar zituen helburuetan. Zertan bereizten ziren, bada? Azken helburu horietara iristeko bideak hautatzean.

Europatik iritsi berria zen Artzapezpikuak berrogeita hamar urtetarako plangintza gertatuko zen política onartu zuen (1770ko martxoaren 10eko Errege Zedula). Ameriketako kolonien historian, hizkuntz politikan inoiz emandako legerik gogorrena zen hura; gogorkeriaz jokatu nahi zuen, itxurarik gabeko kolonialismo baten alde. Indietako agintari guztiei zuzendua zen (Erretorde, Lehendakari, Gobernadore, Epaileei; Artzapezpiku, Gotzain, Kabildo, Erlijiosoen Nagusi, Eliz Epaileei), bakoitzak zeukan aginte eremuan betearaz zezan:

[...] cada uno en la parte que respectivamente le tocasse, guarden, cumplan y ejecuten y hagan guardar, cumplir y ejecutar puntual y efectivamente.

Erregeak, Artzapezpiquaren irizpideak osorik berresten zituen. Legearen egitekoak horrelaxe ematen ziren Karlos III.aren Dekretuan:

Se extingan los diferentes idiomas de que se usa en los mismos dominios, y sólo se hable el castellano, como está mandado por repetidas leyes, Reales cédulas y órdenes expedidas en el asunto (Konetzke 1953, III-I: 368).

Legeak ez zuen ilunbistarik, zirti-zartako legea zen. Puntuz puntu (*puntualmente* esaten zen) betearaztea zen Erregearen borondatea. Baina,

La razón de Estado absolutista no logró imponer la unidad idiomática en América y ni siquiera inducir a la población aborigen al bilingüismo (Konetzke 1971: 204).

Hala ere, kolonizazioak ez zuen alfer lanik egin: Ameriketara zuzen gaztelania nagusitu zen gerorako. Independentziaren orduak jo zuenean, neokolonizazioaren txanda hasten da, eta jatorrizko indiarrek ez dute zereginik politika berrian (edo, gure alor honetan, zaharraren luzapena den une berrian). Gaztelania izan zen Amerika berriko gizarte menderatzailearen tresna: klase menderatzaileak bere hizkuntza menderatzailea ezarri zuen (kolonia garaian bezalaxe, eta areago). Gaztelaniari aitortuko zitzaizkion kulturaren errespetagarritasuna, eskola modernoaren laguntza eta komunikabideen zabalkunde tresnak. Ofizialdu diren hizkuntzen etorkizuna bera ere hala-holakoa da Ameriketara, kitxuarena Perun, eta guaraniarena Paraguain. [N. B.: Idazlan hau 1978an argitaratu zenetik datu berriak daude, noski, alor honetan].

Hispanoamerika askeak, kolonizazioaren helburu linguistikoak segurtatu baizik ez ditu egin. Amerika gizarteko klase nagusia gaztelaniaz mintzatuko da, erdaldunak baitira botere ekonomikoa, politikoa eta linguistikoa beren eskuetan dituztenak.

3.2.3. *Hizkuntz politika Aljerian*

Aljeriaren Aro Modernoko historia atzerritarren agintepean egin zen. Kanpotarrek agindu zuten Aljerian.

XVI. mendean espainiarrak kokatu ziren Aljeriako kostaldean. Badituzte han indar-hiriak: Oran, Bejaia, etab. Indar europar eta kristau hauetatik ihesi, aljeriarrek beste nonbait bilatzen dute aterpea: kortsarioei deitzen diete, eta Istanbulen izenean hartzen dute hauek agintea. Turkiarren Inperioari gutxi-asko men eginez, anarkiarik aski barnean dela, XIX. mendera arte Aljeria janizari turkiarren agintepean biziko da. Aro Moderno osoan mendebaldeko Mediterraneoan egingo dute beren itsaslapur lana Aljeriako kortsarioek, hain zuzen lurralde hau baita itsaslapurreta horren babeslekua. Vienako Kongresuak egoera hau moztea erabakitzen du; baina erabaki hori ez da berehala egintzetara eramango.

1830era arte, gauzek bere hartan iraun zuten. Urte horretan *deyaren* eta Frantziako kontsularen artean eztabaida sortzen da, eta, diplomazia legeak hautsita, Aljeriaren konkistari ekiten zaio. Urte hartatik, berriz burujabetasuna eskuratu arte, 132 urte igaro ziren: kolonizazioaren aroa da hori.

Aljeriaren kolonia-aldia, Hispanoamerikarena baino laburragoa eta *modernoagoa* da. Amerikako kolonietan baino espresukiago eta zehazkiago egiten da plangintza; kolonialismoaren historiaren beranduagoko epe batean kokatzen da Aljeriakoa. Hizkuntzari gagozkiola, asimilazioak huts egiten du, kontzientzia nazional arabiarra dela medio eta beronek Estatua eskuratzen duenean aurreko egoera indarberritzen da, oster.

Egia da, dirudienez, kolonizazioaren hutsegitea, porrota, ez dela oraindik, 1962an, erabat agerian ipini, baina, egia da nonbait, Estatu berriak geldiarazi duela hizkuntz kolonizazioaren prozesua. Independentziaren urtean, Aljeriako 600.000 ikasletatik ia inork ez zekien apenas arabieraz idazten; frantsesez mintzatzen ziren kasik guztiak. Kolonizazioak egoera horretaraino eraman zuen Aljeria, eskolatzearen eta *mass media* direlako bidez. Aljeriako iraultza sozial eta nazionalak, kolonia munduko oinarri kulturalak irauli egin ditu. “Ezin liteke erabat aljeriarra izan, arabieraz mintzatzen jakin gabe” esan du orain gutxi Aljeriako Ministerio bateko funtzionario batek (Alcoverro 1976).

Geografiaz eta gizartez kontraesanez betetako lurralde batean, Aljeriako kolonia historiak kolonizazio bizi eta planifikatua izan du²⁹. Hispanoamerikakoa baino askoz pentsatuagoa.

Prévost-Paradol (1829-1870) kazetarien iragarpen eta profeziak benetan utopiak gertatu ziren: haren ustez, 15/20 milioi lagun izan behar zituen berehalako batean Aljeriak. 1850ean, ehun mila europarretik gora ditu. Gizarte eta nazio egoera berri bat sortu da:

Las leyes de naturalización para los extranjeros dan como resultado la formación de una verdadera nacionalidad argelina, hermana de la francesa, pero consciente de sus intereses peculiares, (Schnerb 1969: 439).

Europarrak hirietan biltzen dira. Tokiko juduak laster europartzen dira. Arabiarrek berriz, 1876ko sukar-ustelaren izurritea gainditu ondoren, biztanle kopuruan hazkunde nabarmena dute: 1850ean 2.500.000, 1881ean 3.000.000, 1901ean 4.000.000. Gaixotasun franko jasan behar du biztanleria horrek, baina oztopo guztien kontra gora doa Aljeriako populazioa.

Kolonizazioak bere lanari ekiten dio. Irakaskuntza eta hezkuntza, funtsean erlijiozkoak dira arabiarren artean: *habus* zirelako konfiskatzearekin hezkuntza hori hondatzeko arriskuan jartzen da. XX. mendean, askapen gerrateen aurretik, Aljeriako bi komunitateak geroz eta gehiago urruntzen dira elkarrengandik: Ipar Afrika osoak (Tunisiak, Aljeriak, Marokok) jatorriz europarrak diren 1.600.000 bizilagun ditu, eta 21.500.000 arabiar. 1936tik 1946ra,

²⁹ Kolonizazio honen kondaira laburtu baterako, Historia orokorretara jo lezake irakurleak. Esate baterako, Crouzet 1967; Mauro 1968; Miede 1975.

Aljeriako biztanleria musulmana %38 hazi da. Europarrak %11 bakarrik dira, eta ia denak hiritarrek (%80 inguru hirietan).

Lurren partiketa oso ezberdina da: 25.000 nekazari europarrek 2.7200.000 hektarea lantzen dituzte; baina 532.000 laborari arabiarrentzat 7.700.000 hektarea gelditzen dira bakarrik. Etorkizuneko eskakizun abertzale eta soziale-tarako oinarriak ongi tinkaturik daude.

Bi gizarte kontrako daude elkarren ondoan. Kolonizazioak lortu ote zuen, gero, nazio aljeriar bakar bat?

Planteábase siempre el problema de saber si Argelia debía ser considerada o no por Francia como una simple prolongación de su territorio. A los argelinos de origen francés y a los naturalizados, como franceses que eran, no se les podían discutir los derechos de ciudadanía francesa. Pero... ¿y los musulmanes? Y, por otra parte, los argelinos de origen francés, ¿aceptarían que sus asuntos fuesen dirigidos desde París? La historia del régimen político y administrativo de Argelia traduce la lucha entre tendencias divergentes sin que en un solo momento llegue a darse el caso del triunfo decisivo de alguna de ellas sobre las demás. Hay un abismo, desde luego, entre el “reino árabe” y el sistema llamado de uniones, entre la autonomía y la asimilación; pero ni la autonomía fue jamás un *self government* ni la asimilación afectó nunca a las multitudes musulmanas (Schnerb 1969: 441; demografiarako, ik. Crouzet 1967, VII: 696 eta hurr.).

Bai, noski, jendeteria musulmana alde batera geratzen zen; baina kolonizazioak —beti talde musulman zuzendari minoritarioetan— lortu ditu garrantzizko jomuga batzuk: kultura eta hizkuntz asimilazioan, esate baterako.

Zein bidetatik ekin zion Frantziak Aljeriaren kolonizazioari?

Kolonizazio honen historian bi tresna aipatu behar dira hasiera-hasieratik: eskolak eta gizarte-komunikabideak. Hauen zeregina berebizikoa gertatu zen Aljerian, arabierari kolonia *status* bat ezartzeko. Yvonne Turin-ek egin du alor honen kondaira, eta Calvet-ek laburtu (Turin 1971: 68). Kolonizazioaren lehen urteetatik, hizkuntza arazoak lekurik nabarmenena zuen metropolitik etorritako irakasleriaren eta hezkuntzako gidarien artean. 1831tik bertatik inkesta ofizial bat egiten zaie irakas-kolonizazioaz arduratu behar dutenei: nola burutuko da kolonia berrirako plangintzarik egokiena?

Ofizialki galdetzen da zer egin litekeen koloniaren eremuan mintzatzen diren hizkuntzekin, eta bada erantzun bitxirik. Esate baterako, M. Paigné-k

garbiki aitortzen du ez duela ezagutzen Aljeriako egoera, baina erreparo handirik gabe ematen du iritzia: “erabateko premia gorririk ez bada behintzat, ez dut ikusten zergatik aldatu beharko dugun irakas-sistema frantsesa itsas-haraindira eramatean” [Itzulpena gurea]. Hurrengo urtean Rivogo-ko Dukeak irizpide hau ematen du (merezi du oso-osorik gordetzeak):

Lurralde hartan gure nagusitasuna irmotzeko biderik eraginkorrena ikusten dut irakaskuntzaren eta gure hizkuntzaren zabalkundea... Erdietsi behar dugun egiazko miraria, arabiera frantsesaz ordezkatzeara... [Itzulpena gurea].

Kolonia erregimena finkatu da, eta bere egiteko *zibilizatzailea* betez hasi behar du. Zalantza eta eztabaiden ondorean, Genty de Bussy intendente zibilarren aurreplangintza onartzen du Parisek. Bi urte bakarrik dira Frantziaren soldaduak Aljerian agertu zirela. 1833ko ekainean irekitzen da *elkar-irakaskuntzaren* lehen eskola. Eskola kolonialaren molde bat da, eta kutsu gizatiarra eman nahi zaio. Humanista izan behar omen du eskola horrek. Asmakizun berriak ez du harrera onik jatorrizko aljeriarren artean; laster irabazten ditu bertakoen ezinikusia eta gorrotoa ere.

Hastapenetako arrakasta kaskarraren ondoren, ikasleriak piper egiten du, frantsesek berek ez baitzuten arabiera-ikastaldietara etorri nahi.

Hamar urteren buruan, ikusi da ongi, bere humanismo eta guzti, eskola modu hark ez duela etorkizunik. Ikasle iheslariak bildu eta eskolaratu beharra dago. Kolonizazio emankorra nahi bada, premiazkoa da lehenik inbertsioren bat egitea ere. Kolonia administraziotik Mme. Allix-ek landu zuen proposamen berria: ikasleriari zergatik ez eman doan jaten, eta, areago ere, diru-sari bat seme-alabak eskolara bidaltzen dituzten familiei. Horrela *isilaraziko* ditut *baien arrangura guztiak*, dio Mme. Allix-ek.

Parisen, buruzagien semeentzat eskola berezi bat sortu zen. Hara bildu behar ziren, gerora kolonian bertakoen buru izatekoak. Baina ongi eskas joan ziren ikasleak.

Hogei urtetako eskarmentu eta zalantzek zera erakutsi zuten: lehenik, kolonizazioak ez zuela kultura arabiarra aintzakotzat ere hartu nahi eta, bigarren, frantsesak izan behar zuela irakaskuntzako hizkuntza. Bestalde, Gerra eta Irakaskuntza Ministerioen arteko auzia oso modu bitxian bukatu zen: Aljeriako eskolatze plan barnean, eskuera eta konpetentzia bitan banatzen zen. Juduen eta europarren eskoletan Irakaskuntza Ministerioak izango zuen agintea; eskola arabiarretan, ostera, Gerra Ministerioak. Beraz, eskola arabiarrek arazo poli-

tiko-militartzat hartzen dira [2-juillet-1848ko dekretua]. Erabaki politiko hau 1850ean osatzen da beste bi dekretuz: Gerra Ministerioak zainduko ditu kolonizazioak sortutako eskola arabiar-frantsesak; Gobernadore Nagusiari dagozkio lehendik datozen lehen eta bigarren mailako eskola musulmanak. Kolonizazioaren aurretik sortutakoak ere kontrolpean jartzen dira. 1850ean egiten da hogeituro urtetako esperientziaren etsamina, eta europarren eta bertako jatorrizkoen bereizkuntza egitea erabakitzen da, eskola munduan.

Huts egin da, biztanleria eskola arabiar-frantsesetan eskolatu nahi horretan; baina metropoliak nahi duen lege-kontrolpean ezartzen dira eskola koranikoak.

Burubide *zentsuzkoagoaz* jokatu nahi da 1850etik aurrera eta helburu politikoak hobekiago neurtzen dira: eskola frantsesak sortzea bizkortu egingo da, eta eskola tradizionalaren (koranikoaren) frantsestea bultzatuko. Kolonizazioaren tresneria nahiko ahula agertzen zaigu oraindik Aljerian; ezin ditu bere helburuak berehala iritsi. Behin-behingo, ez du bizkorregi lan egin nahi. 1854ean Camou jeneralak hau idazten du, eskolatze plan kolonialista zuzenetsi nahiz.

Gure interesen eta geure politikaren probetxuan eskolatze plan oro -hartzaile bat zuzendu eta gainbegiratzeko ahalbidea dugunez... (Calvet 1974: 68-71tik laburtua).

Motelaldi taktiko honen ondoren, eta kolonizazioaren sistema indar ledinean, berriro ere posible litzateke helburu kultural eta linguistikoko garbietara itzultzea. Hau da, *bizkuntzen gizarte-eraketa kolonialista* antolatzea.

Hizkuntzei eginkizun ezberdinak izendatzen zaizkie. Mostefa Lacherat-ek honela deskribatzen du:

Herriaren baitan, frantsesa “hemen beheko mintzairatzat” ematen da; arabiera dago aurrez aurre, “beste bizitzarako espirituzko irabazien hizkuntza bezala”.

Eguneroko bizitza arrunta frantsesez egiten da, hizkuntza menderatzaileaz, zabalduena ez bada ere. Meskita barnean bakarrik erabiltzen da ofizialki arabiera. Egitekoen banaketa hau propioki koloniala da; horrelaxe egiten da arabieraren ospe onaren jorraketa. Modernoa, bizia, dinamikoa denak frantsesez hitz egiten du; politikaren, negozioen, zientziaren eta ogibide jantzien hizkuntza, frantsesa da.

Kontzientzia hartze nazional bortitz batek bakarrik salba lezake horrela-koetan hizkuntza. Hauxe izango litzateke 130 urtetan Aljeriako kolonizazioak halako atarramentu eskasa atera izanaren azalbidea: Estatuaren ekingailuen laguntza bere alde zuela, eta horregatixe kolonizazio hori benetako alfer-harria eta kulturen makina desagilea izanik ere, hizkuntza frantsesa ez zen benetan nagusitu Aljerian, 130 urtetan (Calvet 1974: 82).

Horiek horrela, betiere eboluzio osoa frantsesaren alde bilakatu zen. Thebault-ek, 1959an, independentziaren bezpera-bezperatan beraz, hau idatzi zuen, oraingoz ondoko historiaren irrigarri (Thebault 1959)³⁰:

Aljeriaren frantsestea oso aitzinaturik dago Kabilian eta Tel-eko lurraldeetan. Gertaera hau herrialde honen etorkizunerako garrantzizkoena bezala agertzen zaigu. Herri hauen benetako beharrazanei egokitu dago hori, ez beti noski herri horien sentipenei, baina bai berauen hobena hiari, izan ere gizarte moderno batean dagokien tokirako presatzen ari baitira. [Itzulpena gurea].

En 1769 el arzobispo presentó al rey un memorándum en que resumía la política hasta entonces vigente, exponía las causas del fracaso en la castellani-

zación de Nueva España, denunciaba los *prejuicios* de misioneros que alardeaban cada vez más de conocer las lenguas indígenas, sugería las medidas que debían adoptarse, etc. La exposición ofrece una antología de prejuicios culturales, de renuncias a la historia de la evangelización americana y de despropósitos pastorales. Baste un ejemplo de ello:

Que es cierto que el pastor debe entender la voz de sus ovejas, y que por esta regla han creído algunos ser más estrecha obligación la de que los párrocos sepan el idioma de cada pueblo de América; pero esta razón en nada convence, porque los obispos son los primeros pastores que han de visitar todos los pueblos y curar las enfermedades de sus ovejas, a las que ni entienden ni pueden entender todos sus diferentes idiomas, y nunca han pensado mis predecesores ni yo en colocar con preferencia a los que lo saben, porque ninguna utilidad resultaría de ello y acaso muchos perjuicios (Solano 1991: 258, 244).

El documento alude también al "transcendental perjuicio" que ambos cleros —regular y secular— han hecho aprendiendo los idiomas americanos,

Procediendo —dice— en esto contra la práctica de los conquistadores, como los romanos introdujeron su lengua en las naciones conquistadas.

¿Cuál fue el destino de aquella propuesta de Lorenzana? Lo hemos sugerido ya: el rey aceptó los medios que proponía el arzobispo y mandó expedir las Reales Cédulas correspondientes (1770), con el objeto de que:

de una vez se llegue a conseguir el que se extingan los diferentes idiomas de que se usa en los mismos dominios, y sólo se hable el castellano, como está mandado por repetidas leyes, Reales cédulas y órdenes expedidas en el asunto.

Ante el temor de posibles inconvenientes prácticos de las medidas adoptadas, el monarca se declaraba dispuesto a escuchar las alegaciones que se le pudieran presentar para los casos concretos y no adecuadamente previstos por la nueva normativa, y el arzobispo, por su parte, anticipándose incluso a la Cédula Real, había tratado de mostrar a sus curas la razonabilidad y las inconveniencias de los nuevos criterios con un carta pastoral, en la que no faltaron alusiones al *Timeo* de Platón, al *Promptuario de theologia pastoral*, del navarro F. Larraga (Pamplona, 1706), y a las lenguas hebrea, caldea, siríaca y griega, y argumentando la condición bárbara de las lenguas indígenas.

Engarzando este momento de la política colonial con algunos rasgos del pleito seguido en Navarra y Gipuzkoa acerca de los *turnos lingüísticos* entre los receptores eclesiásticos, cuyo ejemplo fue seguido por los funcionarios de los tribunales reales, podemos comprobar que en ambos casos son hombres de la Iglesia quienes adoptan posiciones más extremas y negativas respecto de las lenguas minorizadas (el euskera aquí, y las lenguas amerindias en América). En cambio, los funcionarios civiles parecen ir a remolque de las iniciativas y criterios de aquéllos, y matizándolos con indicaciones prácticas más contemporizadoras.

Llama la atención esta rígida actitud eclesiástica, cuando la propia tradición americana era de signo contrario: recuérdense las cátedras de lenguas para misioneros, en el siglo XVI, o en el propio siglo XVIII, la normativa lingüística oficial de los Colegios de Misioneros. En general debe subrayarse, además, que desde la creación en Roma de un organismo central romano para el gobierno de las misiones (Congregación de Propaganda Fide, 1622), las indicaciones acerca del aprendizaje y utilización de las lenguas se habían multiplicado, en sentido positivo. Los términos usados por Lorenzana chocaban frontalmente con las orientaciones establecidas desde hacía décadas, tal como puede verse en una memoria oficial conmemorativa bien documentada (*Memoria Rerum. 350 anni al servizio delle Missioni. 1622-1972*. Freiburg, 1973), o en las experiencias particulares de los Colegios de Misioneros (cfr., por ejemplo, T. Canducci, *Il Collegio Missionario di S. Bartolomeo all'Isola Tiberina*. Roma, 1968).

Por otra parte, a pesar de la Real Cédula de 1770, la prudencia política aconsejó al poder civil más cautela, y el Despotismo Ilustrado fue proponiendo medidas más tolerantes y realistas (aunque sin renunciar a su carácter colonialista): promovió la enseñanza del castellano y la creación de nuevas escuelas para ello (1778, 1782, 1803) en las principales ciudades de lo que hoy es Bolivia, y en Nuevo México. Este estilo político, más cultural que coercitivo, venía aconsejado por la necesidad de atemperar el descontento social generalizado que múltiples insurrecciones locales y el levantamiento liderado por Túpac Amaru (Perú, 1780-1781) habían puesto en evidencia: el conocimiento directo y diario de la realidad americana pedía cada vez un mejor tacto y prudencia con la población indígena.

De este modo, desde Estrasburgo a Perpinyà, de Luis XIV a Carlos III, de Valencia o Pamplona a Potosí y México, al fin el nuevo estilo de gobierno había abierto un cauce de ideas y objetivos políticos que han perdurado entre las clases dirigentes francesas y españolas, no sin incidir también en la mentalidad general de las gentes: es decir, para expresarlo en términos de caricatura pero históricos,

los daños gravísimos que en todos tiempos y naciones se siguieron de permitir bajo el dominio de un mismo soberano diferentes idiomas [Lorenzana, 6 de octubre de 1769].

Sirvan estas notas que hemos presentado para conocer el trasfondo de condicionantes generales que se refleja en los pleitos y reflexiones recogidas por el historiador Jimeno Jurío de los archivos. En verdad, fue aquél un tiempo de incertidumbres mentales y certidumbres interesadas; tiempo, además, en que tradición y cambio se enfrentaron en aras de un reformismo racionalista, por presión de los poderes y debilidad institucional de la comunidad lingüística.

El lector podrá comprobar que a lo largo de las páginas de Jimeno Jurío los datos se acumulan, se ilustran mutuamente, se completan en la geografía y la cronología del reino y la diócesis. Desearíamos que, desde el panorama general descrito, la lectura del texto del historiador resultara más apasionante, si cabe: ¿cómo actuó en Euskal Herria y frente al euskera el Despotismo Ilustrado? y ¿cuál o cuáles fueron las reacciones dadas en Navarra y Gipuzkoa, a las propuestas hechas desde el poder? La respuesta a estas preguntas adquiere aquí, en Jimeno Jurío, rasgos vivos y concretos: las afirmaciones de los legajos de archivo son cotejadas, pueblo a pueblo, con los actuales conocimientos sobre la geografía histórica de las lenguas del reino y la diócesis.

El análisis que ofrece esta obra mejora con creces nuestro conocimiento de la historia institucional de la lengua, y apunta hacia algunos de los problemas actuales de la normalización del euskera: ¿cómo conjugar la fidelidad política al patrimonio cultural heredado con el presente y porvenir de la comunidad lingüística?, ¿cuál es la comprensión del trabajo funcional, como servicio también a esa comunidad?, ¿qué podemos o debemos esperar de las coberturas políticas exteriores, en ocasiones claramente opresivas? Finalmente, ¿qué decir de las dificultades o la desidia internas —pasadas y presentes— de la propia comunidad lingüística en la salvaguarda de su patrimonio?

Al cabo de estas líneas —ya demasiado extensas— sólo desearía que el lector acometiera con redoblado interés la lectura del presente libro, que muestra una coyuntura ciertamente importante de la historia de nuestras instituciones.

BIBLIOGRAFIA

- Bérenger, J., 1990, *Histoire de l'Empire des Habsburg. 1273-1918*, Paris: Fayard.
- Brunot, F., 1966, *Histoire de la langue française des origines à 1900, V: Le français en France et hors de France au XVII^e siècle*, Paris: A. Colin.
- Caussat, P. et al., 1996, *La langue source de la nation. Messianismes séculiers en Europe centrale et orientale (du XVIII^e au XX^e siècle)*, Liège: Mardaga.
- Ferrer i Gironés, F., 1985, *La persecució política de la llengua catalana. Història de les mesures preses contra el seu ús des de la Nova Planta fins avui*, Barcelona: Edicions 62.
- [Intxausti, J.], 1978, "Perspectiva política" in *El libro blanco del euskera*, Bilbao: Real Academia de la lengua Vasca, 79-133.
- Klein, P., 1981, "Situation linguistique" in Klein, P. (ed.), *L'Alsace*, Paris: Les Éditions d'Organisation, 398-429.
- Konetzke, R., 1953-1962, *Colección de documentos para la historia de la formación social de Hispanoamérica, 1493-1810*, Madrid: CSIC.
- Levy, P., 2004 [1929], *Histoire linguistique d'Alsace et de Lorraine* (2 libk.), Paris: Éditions Manucius.
- Marcet i Juncosa, A., 1994, *Abrégé d'histoire des terres catalanes du Nord*, Perpinyà: El Trabucaire.
- Marcet i Juncosa, A., 1995, *Le rattachement du Roussillon à la France*, Perpinyà: El Trabucaire.
- Martinell Gifre, E., 1988, *Aspectos lingüísticos del descubrimiento y de la conquista*, Madrid: CSIC.
- Macek, J.; Mandrou, R., 1984, *Histoire de la Bobème. Des origines à 1918*, Paris: Fayard.
- Moreno Fernández, F., 2005, *Historia social de las lenguas de España*, Barcelona: Ariel.
- Philipps, E., 1978, *L'Alsace face à son destin. La crise d'identité*, Strasbourg: Société d'Éditions de la Basse-Alsace.
- Philipps, E., 1986, *Les luttes linguistiques en Alsace jusqu'en 1945*, Strasbourg: Société d'Éditions de la Basse-Alsace.
- Raynaud, F., 1982, *Histoire de la langue allemande*, Paris: PUF.
- Solano, F. de, 1991, *Documentos sobre política lingüística en Hispanoamérica (1492-1800)*, Madrid: CSIC.
- Tonnelat, E., 1941, *Histoire de la Langue Allemande*, Paris: A. Colin.

IRAULTZA FRANTSESAREN HIZKUNTZ POLITIKA*

Iraultza Frantsesa dela eta, gainera datorkigun argitalpen-uholdearen eta ospakizun kulturalen artean, Iraultzaren hizkuntz politikak ere badu lekurik. Adibidez, aurten, apirilean Iraultza eta beronen hizkuntz jarrera eta jokabideak aztertzeko bilkura bat ospatu da Parisen. Baina, oro har, gertakari iraultzaile hark hizkuntz munduan ekarri zituen aldakuntzen albiste historikoak isildu egin izan dira, edo guztiz oihartzun sozial eskaseko ekintza eta argitalpenetara mugatu, historiografian.

Frantziako ikertzaileen lagunarteak ez du bereziki maite izan alor hau. Badaude, noski, jada autore klasikoak diren sona handiko sinadura batzuk, Hexagonoko hizkuntz historia honetaz espresukiago arduratu direnak. Brunot izango litzateke saiatuena; Brun edo Levy, geroago. Azken hamar-hamabost urteetan ere heldu zaio gaiari, eta lan berritzaileak kaleratu dira (Balibar, Certeau, Philips...); baina, beste alor batzuekin alderatuz, ez dirudi, emankortasunez eta zabalkundez, gai honek zegokion lekurik irabazi duenik. [N. B.: Begira orain idazlan honi osatu diogun bibliografia].

Datu berriekin ez bada ere, ideia-hedapenari laguntzeko bederen lagungarri izango delakoan biltzen dugu hemen Iraultza hark sortutako aldakuntza linguistikoen albiste laburra. Baina, horretara pasatu aurretik, begira dezagun zein zen Hexagonoan antzaldatu nahi zen egoera.

I. Iraultza bezperako egoera

Lehen hurbilpen bezala, interesgarria izan liteke garaikoek Frantziaren mapa demolinguistikoa nola ikusi zuten gogoratzea. 1793an Konbentzioan emandako datuetatik honela ageri zen Frantzia: Pariseko hizkuntza, barnealde-

* "Iraultzaren hizkuntz politika" izenburuarekin argitaratu emana, *Jakin* 51, 1989, 69-86. Idazlan honen ondoko (1989...) informazio eguneratua: Siouffi in Rey 2007a: 917-957; Rey 2007a: 961-980.

ko hamabost departamendutan bakarrik zen mintzaira arrunta. Gainerakoetan, partez edo guztiz, bestelako hizkuntza ohiturak ziren nagusi. Errepublikako bi bostenak bakarrik zuen frantsesa bere jatorrizko hizkuntzatzat.

Horrela, bada, datuok ñabardura apur batez mugatzeko, zera esan dezakegu: hiru milioi inguruk frantsesez ere egiten zuen; sei inguruk ordea, apenas, eta beste sei milioik ez zekien frantsesik. Hauek ziren Grégoire-ren kalkuluak, gisa guztiz frantsesaren alde baikorregi lerratuak, gainera. Abade diputatuak honela ematen zuen, nahaste-borraste batean, izengaiztoz *patois* deituen 30eko hizkuntz zerrenda.

Agian ez da alferrikakoa gertatuko beroriek hemen aipatzea: behe-bretoiera, normandiera, pikardiera, waloniera, flamandera, champagnera, metzera, lorenera, franche-comtera, borgoinera, bressera, lionera, daufinera, auverniera, poitouera, limogera, proventzera, languedochera, velaiera, katalana, bearnesa, euskara, rouergera eta gaskoia. Azken hau bakarrik 60 legoetako eremuan hedatzen da alde guztietara [N. B.: Certeau et al. 2002: 333]. [Itzulpena gurea].

Aipu honetan nahasita ageri dira dialektoak eta hizkuntzak: *oil* eta *oc* hizkuntzak eta dialektoak, noski, eta baita bi hizkuntz eremu hauetatik kanpoko hizkuntzak ere (bretoiera, katalana, euskara, alemana, italiara). Argitasunen baten bila, Iraultzaren gogoeta linguistikoan zeregin politikoetarako sarritan bereizi ohi ziren dialektoen lurraldeak hizkuntzenetatik.

Napoleonek eskuratutako lurralde berrien ondorioz, ugaritu baizik ez zen egin Inperio Frantsesean hiztun talde atzerritarren presentzia, eta, Barne Ministerioko estatistika ofizialen arabera, 1806an ondoko zifra hauek eman zitezkeen sinesgarritzat. [N. B.: Oyharçabal 1992: 287].

Italiara.....	4.079.000
Alemana.....	2.705.000
Flamandera.....	2.277.000
Bretoiera.....	967.000
Euskara.....	108.000
Guztira.....	10.136.000

Egoera honen aurrean eta aurreko mendeetako historiaren emaitzak laburbilduz, Brun historialari klasikoak honela egin zuen errealitate haren balioespina (1923):

Errege doktrinaren eta praxiaren eboluzioa absolutismorantz bazihoan ere, eta absolutismo hau ekintza zehatz eta koordinatutan azaldu izan arren, bateratze zentralizatuak bere bigunaldiak ditu Erregimen Zaharraren azkena arte [...]. Nobleziaren menderatzeak ez du esan nahi feudalismoa osorik abolitu zenik. Eraikuntzak dituen eskasia eta partezkotasuna oso ederki ispilatzen ditu —berorren sinboloa da, hain zuzen— egoera linguistikoak: etxe aurrea ederra da, frantsesa baita hizkuntza idatzi bezala nonahi ageri dena. Baina, probintzietako eskualdeetan, milioi asko dira berori apenas ulertzen dutenak, eta oso gutxitan frantsesez mintzo direnak. Hegoaldean, egin du hizkuntzak bere erabilera aurrerapenik, baina Gorte alemanetan edo Errusian zabaldu den arrazoi berberengatik izan da: letra frantsesen loraldiagatik, kultura frantsesaren itzalagatik, hau da, *elitea* baino harago apenas doazen arrazoiengatik. Ez al da, gero, harrizkeoa, boterearen utzikeria edo hoztasunagatik, filosofiaren, gizarte apainaren eta diplomaziaren hizkuntza etsaien gain ere nagusitzea, eta frantses herriaren jendetza aski zabalaren artean arrotza gertatzea? (Brun 1973: 484). [Itzulpena gurea].

Iraultzaileen amets eta kezka politiko-linguistikoak ulertzeko ez da historialariaren testu hau batere desegokia: Iraultza-bezperako balantzea ematen du eta, bide batez, erreparo handirik gabe, bestelako egoera *hobeago* baten gogoia erakusten.

Aldakuntza soziolinguistikoetarako gogoak eztenkada ezberdinak zituen Frantzian, aurreko belaunetatik ere. Komeniko da bizpahiru datu bederen hona ekartzea. Lehenik, Monarkia Zaharraren tradizio politiko-linguistikoa azpimarratu behar da: Frantzisko I.aren erabaki ezagunaz gain (1539), batez ere Luis XIV.aren (1643-1715) politika aipa genezake. “Erregeren hizkuntzaren aroa” bezala aurkeztu izan da garai hura. Tradizio politiko-linguistiko haren barnean, frantsesaren aldeko joerak aski definituta ageri ziren, Brun-ek arestian gogoratu dizkigun *bigunaldiak* tartean izanik ere.

Bestalde, frantsesaren XVIII. mendeko arrakasta ezingo dugu ahantzi, iraultzaileen mentalitate linguistikoak ulertu nahi bada. Louis Réau-k aztertu du hizkuntza arrakasta europar horren historia. Datu, gertakari eta mugimendu aberatsek erakusten digute hizkuntza frantsesak nolako oihartzuna ezagutu zuen Europako Gorte eta intelektualen artean. Hori zela eta, frantses-hiztunek —intelektualek batik bat— beren hizkuntzarekiko harrotasun berria sentitu zuten.

Ez da, beraz, harritzekoa hizkuntzaren fenomeno hartaz Frantziako idazleek erakutsi zuten arreta. Analisisirik ezagunena, Rivarol-en *Discours sur l'universalité de la langue française* hura (1784) ekar liteke hona (Rivarol 1991); baina, horretaz gain, hizkuntzaren inguruko bibliografia, ugaria izan zen Iraultzaurreko hamarkadetan. Honek guztiak ere, girotu zituen politikari berrien mentalitateak, hizkuntz(ar)en aldeko eginkizunetan parte hartzeko.

2. Iraultza, bere hizkuntz(ar)en bila

1789-1799. urteetako hizkuntz borroka eta eztabaidak interesgarriak gertatzen dira, esanahi handiko une historikokoak direlako ez ezik, orduan jaiotako edo indarberrituriko joerek gerokoarekin eta gure etxeoarekin ere zerikusi hurbila izan dutelako.

2.1. Hizkuntzekiko interes berritua

Iraganari begira, egia da, Iraultzaren politika eta ideologia soziolinguistiko nagusiek berritasun guztiz erlatiboa izan zutela; baina, hala ere, ezin dugu ahan-tzi, Monarkia Zaharrak askoz gaingirokiago marraztu eta egikaritu zuen hizkuntza politika bertsuak, Estatu berritu sozialki boteretsuago baten bidez, komunitate etnolinguistikoak lehenago ez bezala barru-barrutik ukitu zituela.

Bestalde, Iraultzaren egokiera honetan, hizkuntzen arazo politiko eta estatu-nazionala, aurreko mendeetan inoiz ez bezala espresuki aztertu zen, Gobernuan eta Asanblada Nazionalean¹ ez ezik, hiri eta herrietako bilkura eta talde politikoetan, eta interesgarriago gertatzen dena, Hexagonora zabaldu ziren inkestetan.

Hau dena are jakingarriagoa gertatzen da, gainera, garaiko hizkuntz politika, zalantza betetakoa izan zela ikustean. Iritzi eta irizpideak ez ziren monolitikoak izan, eta, proiektu politiko jakobinoaren ondoan girondinoak edo federalistak egon ziren bezalatsu, hizkuntzen baliagarritasun historiko-politikoaz ez ziren iraultzaileak beti bat etorri, ez teoriarik eta ez praxiarik.

¹ “Asanblada Nazionalea” erabiltzea erabaki dut, “Nazio Biltzarra”ren ordean, “Biltzarra”, historikoki, beste zerbait delako Iparraldean. *Orotariko Euskal Hiztegiaren asanblada* hitzak badu bere tradizioa: Urteren hiztegiaren ageri da (lehen edizioa, gutxi gorabehera 1715koa) eta baita Iraultzaren garaiko hainbat testuetan ere (*OEI*, s. v. *asanblada*).

Iraultza Frantsesak, bere praxian, benetako iraulketa ekarri nahi izan zuen Hexagonoko komunitate etnolinguistikotara; baina, ondoko bi mendeetarako finkatuta eta aldaezinik geratu zen irizpide glotozidara iritsi aurretik, unealdi ezberdinak bizi izan zituen Iraultzako eztabaida ideologiko-linguistikoak.

2.2. Bi unealdiko hamarkada (1789-1799)

Esan bezala, Iraultza Frantsesaren hizkuntz politika ez zen beti bat bera izan 1789-1799etan muga dezakegun hamarkadan. Iraultzari eman ohi zaion epekapenari eta gertakari politiko-linguistikoei jarraikiz, bi unealdi kontrajarritan banatuko dugu hamar urte hauetako historia: Estatu Orokorretatik Izualdirainokoa (1789-1794) eta Termidorretik Kontsulaturainokoa (1794-1799).

Iraultzako gertakarietan bezala, hizkuntzen politikan ere 1794ko Termidorra da muga-marra garbiena eta politika kontrajarrien mugarrria. Pentsa daitekeenez, hizkuntzen politika-molde haien jitea ikuspegi eta alde ezberdinek moldatzen zuten: herritarren hizkuntzekiko sentierak, talde iraultzaile ekintzaileen pentsamoldeak, intelektual eta unean uneko politikarien iritziak, denak ere Parisetik eskualdeetara joan-etorrian zebiltzanak. Ordezkarien eskarmentuak, tokian tokiko egoera soziolinguistikoak eta abarrek –guztiek, alegia– baldintzatzen zuten hura. Baldintza hain ezberdin haien artean, ez ziren denak erritmo eta gisa berean aldatu, ez zuten guztiek indar bera izan; baina eragin guztion azken emaitzak bi politika-une ongi kontrajarritan definitu ziren.

3. Proiektu hautagarriak

Iraultzaren lehenengo bost urteetakoa, hizkuntza arazo berri edo berrituen planteamendu teorikoen eta lehen praxi sozialen garaia da. Asanbladan eta prentsan, arazoaz arduratu zirenen izenak ezagutuko ditugu, ideia eta analisisien lehen azalpenak topatuko, parlamentarien txosten eta lege-proposamenak agertuko zaizkigu, sentiera eta jokabide politiko ezberdinetarako ateak irekita ikusiko ditugu oraindik, hainbat arazo praktiko suertatuko da hizkuntzen praxi politiko-iraultzailean.

Lehenengo urte hauek, lege eta dekretutan pobreak izanda ere, aberatsak gertatu ziren bizpahiru alde ezberdinetatik: a) oinarrizko arazoak azpimarratu ahal izan ziren; b) Iraultzaren eguneroko praxian itzulpenen baliagarritasuna frogatzerik egon zen; c) hurrengo unealdian delibramendu erabakigarriagoak

hartu ahal izateko irizpide ideologiko eta politikoak zorrotzu ziren. Bestalde, nahikoa argi geratu zen ondoko urteetan zeintzuk izan zitezkeen hizkuntz politika baterako barruti soziofuntzional zainduenak: Administrazioa eta Eskola, Armada eta Eliza.

3.1. Tokian tokiko hizkuntzak Iraultzaren lanabes ote?

Frantzia, Estatu Orokorrak bildu eta laster, suteagian irakiten hastera zihon lapikoa gertatu zen. Historialari eta idazleek ongi deskribatu dute hilabete haietan eta lehenen urteetan *hiritarrek* bizitako sukarraldia. Betidaniko jauntxo aristokrata edo elizgizonen ondoan edo aurka, dozena milaka hiritar eskolatu edo ez-eskolatu biziki arduratu ziren Parisetik edo eskualdeko hiriburutik zetozen albisteez. Eta bat-bateko ardura kezkatu hau ez zen harriztekoa, zeren eta gertakari berriek norberaren bizimodua, eskubideak, ohiturak eta ondasun-jabe(gai)goa ukitzen baitzituzten, itxuraz. Errealitate berriak ezagutu, haietaz iritzia eman eta berau, bakarka nahiz taldean defenda zitekeenez, hiritarren komunikazio-premia gehitu eta larritu egin zen, norbanakoaren interesen arabera.

Lehen epealdi honetan, komunikazio-behar hau izan zen, batez ere, Hexagonoko hizkuntzen arazoa plazaratu zuena. Guztientzat irabazi-ala-galduzko arloak ziren agintarietako harremanetan aztertzeak: jabegoaren erreforma soziala, eskubide politikoaren finkapena, erlijio-politika iraultzailearen gatatzak, erbesteak edo erreazioak piztutako ekintza armatuak... Eztabaida horietan edo hiritarren arteko elkarriketa politikoan, hizkuntzaren hautape-nak bete-bete harrapatzen zituen bi alderdiak: hau da, arrunki frantsesez ari zen Pariseko edo hiriburuetako agintaria, batetik, eta sarritan frantsesa ez zekien hiritar xumea, bestetik. Erakunde politikoak berrantolatu ahal izateko laster sumatu zuten agintariak (Parisen eta Probintzietan) herri-hizkuntzak, gisa batean edo bestean, aintzakotzat hartu beharra.

Hiritarrengana iritsi nahiz eta egoera linguistikoaren aurrean politika errealista batez jokatzearren, iraultzaile anitzek herritarren hizkuntzez baliatzea eskatu zuen. Korrante honen barnean, joerarik ausartena *federalismo linguistiko* eta *elebitasun administratibo* oso bezala definitu izan direnen eskea daukagu. Bi eskualde urrunetatik heldu ziren, esate baterako, Parisera eskabide hauek: Hego-Mendebaldeko Montauban hiritik (1791) eta Altsaziatik (1790). Agiri haue-tan, dialekto eta hizkuntzen ortografia finkatzea iradoki zen, agiri ofizialen itzulpena Estatuaren kontu egitea, herritar bakoitzari bere hizkuntzaz idatzi eta mintzatzea, eta *patois* deitzen hizkuntza-ohorea errespetatzea. Honela idazten

zuen Montauban-eko idazkideak (Brunot 1967: 28), bere arrazoiak zabalago ere ematen zituen bitartean [N. B.: Certeau et al. 2002: 284-289]:

Ez dezala inork pentsa hegoaldeko hizkuntza ezberdinok jargoi hutsak direnik: aldiz, egiazko hizkuntzak dira hauek, inguruko gure hizkuntza moderno gehienak bezain antzinakoak; Europako edozein hizkuntza bezain aberatsak, haiek bezain oparoak, beren esamolde noble eta ausartetan: Goudelin-en olerki hilezkorrak erantzunik gabeko froga dira [Itzulpena gurea].

Bigarren kasuan, Estrasburgon puntuz puntu definitu nahi izan zituen bertako idazkari-itzultzaileak hiztunen —alemanen nahiz frantsesen— hizkuntz eskubideak: Administrazioak alemanei alemanez egin behar zien, eta ez frantsez; Administrazioaren zeregin mintzatuetan, eman daitezela alemanez ere itzulpenak; bailaretako epaileek, bake-epaileek eta bestelakoek alemanez eman dezatela herritar aleman-mintzatzaileei dagokien oro, eta partaideek izan dezatela eskubidea beren hizkuntza ez dakiten epaileak ezesteko.

Sentiera hau tarteko, eta mendetan erroturiko hizkuntza-bizitza soziala medio, Errepublikako mapa politikoa departamendutan banatzean ere, hizkuntzen ukipen-eremuetan egon zen gatazkarik. Biarnok eta Euskal Herriak, adibidez, eztabaida ozpinduak izan zituzten elkarrekin, bi herriek departamendu berean joan beharko zuten ala ez erabakitzean, eta hizkuntz ezberdintasunak ziren proiektuaren kontrako arrazoietakoa bat, Garatarrek Asanbladan azaldu zuten [N. B.: Duhart 1992-1993: 965]. Baina diputatu gehiengoaren espiritua bearneseak defendatutako bideetatik joan zen: ezabatu egin behar ziren “probintzien interes eta espiritu bereziak eraberdintzea eragozten duten bereizketa guztiak, betiere Nazio osoaren interesaren eta espirituaaren faboretan”. Bereizgarri haietako bat, eta ez txikiena, hizkuntza propioa zen.

Hiztun talde berezien eskubideak jada arriskuan ageri ziren lehenengo unealdi honetan, baina artean Iraultzaren zabalkunde ideologikoa zaindu beharrek agindu zuen, oro har, praxi iraultzailean. Hemen ezin gaitezke xehetasunetan sar, baina esan dezagun hiritarren jaietan, klub politikoetan eta bilera politiko irekietan, lekuan lekuko egoera soziolinguistikoak agindu zuela hizkuntza mintzatua hautatzean. Erabilera idatzietan, gauzak Parisetik baldintzatuagoak iritsi ohi ziren, batez ere itzulpen-lana eskasegi edo berandu burutu zenean. Frantzia alemanean —hizkuntza ofizialaren eta herritarren arteko alde handiagatik, eta lurralde horietako hiztun talde frantsesa guztiz txikia zelako ere bai— alemanaren aldeko borroka bereziki bizia agertu zen. Beste eremu lin-

guistikoetan, testu idatzi frantsesen gain, lekuko hizkuntzaz emandako *prediku*, propaganda eta bilera mintzatu herritarrez osatu zen Paris Iraultzaitik herri-ka txikien tarainoko zubia.

Horiek horrela, aipagarria da lehen orduko Iraultzaren praxi politiko-linguistikotik hasita, frantsesaren mugei gaina hartzeko itzulpen bidez egindako ahalegina. Lehenik, aparteko hizkuntzak zituzten Departamenduetan bertan egin zen lan hori; gero, Paristik bertatik eskaini zen itzulpen-zerbitzua: 1790eko urtarrilean eman zen, dekretuak lekuan lekuko hizkuntzetara itzultzeko Asanbladaren erabakia.

Asanbladaren dekretuak Frantziako eskualde ezberdinetan mintzatzaren diren hizkuntza guztietan argitara emateko eskatzen zaio botere exekutiboari. Honela nornahik izango du aukera beroriek nahiago den hizkuntzan irakurri eta idazteko, eta lege frantsesak mundu guztiaren zat ezagunak bilakatuko dira (Brunot 1967: 25). [Itzulpena gurea].

Borondate oneko itzultzaileen lanek eta gobernutik modu gaizki antolatuan sustatutakoek, kritika eta protestak piztu zituzten laster, itzulpenen desegokitasunak salatuz eta itzulpen-lanen atzerapenak azpimarratuz. Egoera hau hobetzeko sortu zen Dugas-en inguruan, itzulpen-bulegoa, hogeita hamar Departamenduetarako lanak egin zitzaizkan. Hauetako bat, hain zuen, *Pirine Apaletakoa* zen, Iparralde euskaldunari ere zegokiona. Lan haietako batzuen berri *Euskararen Liburu Zurian* aurki daiteke (374-378 or.), Rica 1975ean [eta Arcocha 1991n], garaiko euskal itzulpenen albistea eta testuak.

Iraultzaren urte hauetako lanean, bada, korrante kontrajarriak ageri badira ere, oro har hizkuntzekiko tolerantzia suma daiteke. Lehenengo Asanblada iraultzaileek ez zieten eraso Hexagonoko hizkuntzei, alderantziz baizik: Iraultza ezagutzera eman eta zabaltzeko hiritarren hizkuntza guztiez baliatu ziren modu nahikoa programatuan. Ez zegoen deus ezarririk, deus debekaturik, eta hizkuntzen erabilerarako zenbait ekinbide, botereak lagunduta burutu zen. Baina, dakigunez, estalki liberal praktiko horren azpitik, bestelako korrante bortxagarriak ere ari zen uhanditzen: Grégoire Abadearen proiektua.

3.2. Grégoire: frantsesa guztien gainetik ote?

Henri Grégoire (1750-1831), gizon ardatza izan zen Iraultzan nagusituko zen ondorengo politika definitzeko (Hourdin 1989: pass.). Korrika eta presaka zihoan Iraultzaren barnean, patxadaz eta programatuki burututako lana izan

zen Grégoirerena: 1790ean zabaldutako inkesta batekin eman zitzaion hasiera eta 1794raino luzatu zen lege berrietarainoko lan politiko hau. Inkesta honen esanahi ideologiko eta historikoak, argitan jarri dituzte dagoeneko historialariek: hizkuntzekiko ikusmolde baten atarikoak izan zen, edo nahiago bada, azken sintesia [N. B.: Certeau et al. 2002: pass.; Bidart 1991: 150-152].

Frantziako hiritarren etorkizuneko hizkuntza estatu-nazionala erabakitze-ko boterea, Hexagonoko gizarte eta komunitate linguistikoaren eskuetatik Pariseko aginte iraultzailera pasa zitekeela, eta halaxe egin behar zela, uste izan zuen Grégoirek. Bere bulego paristarrera bildu zuen Grégoirek arazoa.

Hortaz, hasieratik bertatik, galdeketa-sorta ideologia jakin batekin jaio zen. Aurreko hamarkadetan landuta zegoen hizkuntzarekiko diskurtso eta mentalitate *argizatua* jaso zuen inkestarako galdeketak: iritzi-analisia eta inkesta zientifikoa nahasita zabaldu zituen Grégoirek bere galdeketan. Alde batetik, inkestatuen sorlekuarekiko atxikimendua ezagutu nahi zuen, eta bestetik, etorkizun kultural hobe eta jasoago baten irtenbidea iradoki. “Errespetuz” jokatu nahi zuen inkestatzaileak: *patois*en ondarea amoroski bildu, eta museotan gorde behar zen.

Inkestaren zerrendak 43 galdera zituen, eta hauetako batzuen asmo politikoa nabaria zen. Inkestako testu osoa eskueran dago gaur egun, zenbait erantzunekin batera [N. B.: Certeau et al., 2002: 185-273; Bidart 1991: 160-162]. Unean uneko politika motzetik harago, errealitate eta egoera egonkorragoan ardura ispilatzen zuen: Nola joka Hexagonoko kultura ezberdinekin? Nola eman batasunik inkesta aurretik ere begi bistan ageri zen egoera etnokultural hari? Gorputz soziokulturalaren eraberdinketa premiazkoa zen, Errepublikari taxuzko batasuna emateko. Hori uste zitekeen behintzat.

Horregatik, frantsesaren eta gainerako hizkuntza eta dialektoen arteko erlazio administratibo, sozial eta kulturaletan, egoera berria baldintzatu nahia nabaria zen inkestan. Politika errealista baterako oinarriak eraiki nahi ziren: izan ere, frantsesaren egoera sozial erreala ezagutuz gero eta *patois* deituen erresistentzi indarra neurtu ondoren, azken helburu politikoetarako jokabide errealistagoa erabakitzea samurragoa izan zitekeen. Helburuak alde aurretik definituta zeuden, baina bitarteko arrisku eta baliabideak ezagutzen lagundu behar zuen inkestak.

Bilaketa etnolinguistikoaren ondoan alde aurretik emandako epaia zegoen, hortaz, 29-30. galderak iradokitzen zutenaren arabera:

29. Zein izan liteke *patois* hori erabat deuseztatzeak izan dezakeen garrantzi erlijioso eta politikoa?
30. Zeintzuk izan litezke horretarako baliabideak?

Idatzi izan denez, “galdeketak bi zeregin lotu nahi zituen elkarrekin: aldez aurretik ezarritako *plan* bat, ageriko eta *zuzentzat* hartua, eta *kontsulta*-lana, itxurazko itzuli-mitzulien ondoren, botereari argibideak eman eta beronen ordezkariak mugiaraziko zituen”. Probintzietako solaskidea ez zen erantzule *baliagarri* bat baizik: boterearen urruneko begia, hain zuzen [N. B.: Certeau et al. 2002: 30-38].

Herritarren sineskeria eta errepublikazaletasun eskasa, hizkuntza ez-frantsesek *argien* zabalkunderako jarri izan zituzten oztopoetatik zetozeela uste nahi zuen inkestako galdera-sail batek (38-42); iritzi horren ondorioz aurkeztutako puntua asmoz beteta zectorren: “Quelles sont les causes et quels seraient les remèdes à ces maux?” (40).

Erantzuleek ongi jaso zuten galderen ezkutuko mezu isildua. Berrogeita bederatzi erantzunetatik hogeita hamasei ezagutzen ditugu: lau, diputatuena dira; zenbait, Grégoirek berak adiskideen artean eskatuak; beste batzuk, prentsa iraultzailearen bidez zabalduak deiari irakurleek emandako erantzunak, eta, azkenik eta garrantzizkoenak, *Konstituzioaren Lagunartetatik* helduak (honetako 14 talde-erantzun jaso ziren). Batez ere ekialdeko lurraldeak, Britainia eta hemendik hegoalderako Atlantiko aldea hartzen zituzten inkesta jaso zutenek.

Inkestaren galderetan eta beronen erantzunetan jaso litezkeen ideia eta ikusmoldeak azpimarragarriak ditugu. Frantsesaren funtzio sozialen emankortasun oparagoak lehentasun hierarkikoa ematen zion Hexagonoko hizkuntzen artean; hizkuntza idatziaren eta mintzatuaren arteko bereizketa da beste alde hierarkizatzaile bat: hizkuntza mintzatuak (= *patois*) betiere arkaizanteak dira, batasunik gabeak, herri eskolatugabearen zabarkerien zaborteziak, hizkera geldiak, araurik gabeak, anarkikoak; iraganaren adierazgarri erromantiko bezala badute baliorik, baina etorkizun politiko-kultural landurik ez zaie ikusten Iraultzaren modernotasun berrian.

Sozialki, *patois* horiek landetako jende nekazariaren hizkera dira eta hirietako hizkuntzari kontrajartzen zaizkio: hiltzeaz dagoen, eta aurrerapen berriek irentsiko omen duten mundu etno-museotar baten tresna traketsak dira *patois* deituak (dialekto nahiz hizkuntza izan). *Argien* mundurako hizkuntza frantsesa da, Iraultzaren hobekuntzak dakartzana eta gizarte berrituko bizimoldeetan gero eta gehiago erabili beharko dena. Etorkizuna hirietatik gidatuko da, eta frantsesa bakarrik zen hirietako hizkuntza.

Idea-modu horiek bildu eta eratu zituen inkesta hau izan zitekeen ondoko urteetan Iraultzaren hizkuntz politika gida zezakeena. Halaxe gertatu zen ikusiko dugunez.

4. Hobetsitako frantsesaren aldeko politika (1794-1799)

Bi unaldietako hizkuntza politiken bihurguneak bere ataria 1792tik honako hilabete larrietan izan zuen. Ezaguna da momentu hartako testuingurua: erbestearekin gerra, barnean Iraultzaren erabakiak gizarteratu beharra, eta zenbait eskualdetako errebolta armatuak ezabatzeko premia. Gizartearen gaineko kontrol-nahia eta indar guztiak aginte beraren esanetara biltzeko gogoia izango dira, hizkuntzen trataera modu berritu eta espres batera eztenkatuko dutenak. Grégoire-ren txostenak, zituen argibide eta balio guztiak, batasun-beharrizan politiko horri ere erantzun nahi zion.

4.1. Errepublika frantsesez alfabetatzen

Jada Termidor aurreko (1794ko uztaila) hilabeteetan hizkuntzekiko zalantza politikoak argituz joan ziren; hainbat jenderen pentsamoldea bakartasun linguistikoa alde lerratuz zihoan. Bi barruti ezberdinetatik zetorren bereziki hizkuntz politikarekiko kezka: alde batetik Eskolaren mundua berriztatu nahi zenez, bertako irakasgaien programak berehala zuen zerikusirik Iraultzaren ideologiarekin eta eratu nahi omen zen Frantses Nazio berriarekin; bestetik, abertzaletasun iraultzailearen ardura bizia zen Aberriaren segurtasuna bermatzea, Iraultzaren mezua ahalik leialen eta gehien hedatuz eta hiritarren fideltasuna ongi lotuz. Honetarako ere Eskola-hizkuntza, tresna erabakigarria izan zitekeela uste izan zen, eta propagandan erabiliko zen hizkuntza, zer esanik ez, frantsesa. [Frantsesa “Iraultzaren hizkuntza” bilakatu zen (Siouffi 2007: 948-957)].

1792az geroztik behin eta berriz heldu zitzaion Irakaskuntzaren arazoari. Izan ere, Konbentzioari zor zaizkio Eskola-Lege iraultzaile handiak, 1792-1795. urteetakoak. Gaia aztertu behar zuen Irakaskuntza Batzordetik dozenaka aurreproiektu pasatu ziren; baina gutxi batzuen eskuetatik etorri, iradokizunik baliagarrienak: Lanthenas-en Txostena, Barère-ren gehikuntzak, Sièyes, Daunou eta Lakanal-en lanak...

Robespierre-ren ahoz egingo da Lepeletier-en Txosten berriaren aurkezpena (1793-VII-29), eta Danton izan zen defendatzailerik suharrenetakoa; Grégoire, arrazoi sozioideologikoengatik legegaiaren hainbat alderen kontra agertu zen (Brunot 1967: 140-146). Azkenik, urriaren 21ean eman zen lege berria, Frantziako lehen mailako eskola publikoa sortuz (Gontard 1959: 155-156): handik aurrera Hexagonoko haur guztiek ikasi beharko zuten *hizkuntza frantsesa mintzatu, irakurri eta idazten*. Erabaki honen balioespena honela egin izan da (Brunot 1967: 147):

Azpimarra dezagun hizkuntzaren irakaskuntzari ematen zaion leku bikaina. Berau da aipatzen diren gai gutxietako bakarra. Badu federik pentsamendu frantsesaren balio hezitzailean; espiritu nazionalaren emaitza da hizkuntza, baina, bestalde, espiritu hori bere askatasunean eta bere indarrean eratzen laguntzen du hizkuntza honek (Brunot 1967: 148). [Itzulpena gurea].

Legearen aplikazio-arauetan eta ondoko legerian luzatu zen pentsamolde estatu-nazionalista hau: hirietako erabakietan, eskola-liburuaren sorkuntzan eta argitalpenak sustatzean. Eskolaren honek historia luzea izan zuen berehalako urteetan [N. B.: Rey 2007: I.070-I.075]; baina gatozen orain, hizkuntzek propaganda iraultzailean izan zuten lekua ezagutzera.

4.2. Propagandaren kontraesanak

Propagandaren barrutian agertu ziren Iraultzaren hizkuntz politikak izan zituen kontraesan eta zalantzarik nabarietak. Botere zentralak, hein handi batean frantsesa ez zekien gizartea bereganatu behar zuen, eta iraultzaile suharrak ere lanak eta izerdiak zituen nahi zuen mezua egoera soziolinguistiko hartan hedatu ahal izateko.

Hori horrela, itzulpen-premiaren defentsa edota itzulpen-tentazioaren arriskua –norberaren ikusmoldearen arabera, bata ala bestea– bizirik egon zen: aipatuta dugun Dekretuaren ondoren (1790), berriro heldu zitzaion eginkizunari, aurreko Asanbladen tradizioari jarraituz, ordura arteko itzulpen-lanek ez baitzuten, askok zioenez, abiada egokirik izan. Dekretu berriek (1792-XI-2, 1793-XII-3), lehendik zetozen atzerapen horiek zuzendu nahi izan zituzten. Bretoieraren nahiz euskararen arrotasuna azpimarratu zen Asanbladako txosten eta eztabaidetan, eta batez ere berauentzat eta aleman hiztunentzat ikusten zen premiazkoa itzulpena. Euskal Herritik ordezkari politikoak Barne Arazoetako ministroari idatzi zionez (1792-X-29),

Euskaldunak kuraiatsuak dira, ausartak, beste hizkuntza ezagunekin inolako zerikusirik gabeko mintzaira hitz egiten dutenak; hizkuntza hau ez da idatzi izan, idazteko guztiz erraza izan arren; jaierazko zenbait liburu da hizkuntza honetan idatzi den bakarra. Apaizek herri hauen konfiantza osoa dute; duten itzalaz itxuragabeki baliatu dira haiek. Euskaldun guztiak fanatikoak dira, eskolatugabeak; erabat fun-

tsezkoa eta guztiz premiazkoa izango litzateke Iraultzari buruzko obra on ugari euskarara itzultzea, hiritar desbideratuok argi ditzagun. Jende bidegalduok eskolatzeko nirekin lankidetzan jardungo duten eta itzulpenak gogoz egingo dituzten itzulzaileen Batzorde bat biltzera iritsi naiz; baina beharrezkoa da inprimaketa-gastuak Errepublikak ordain ditzan. Egin berri dut Baionatik Donibane-Lohitzunera, Hendaiara eta Urruñara ikustaldi bat, Konbentzioko komisario diren Garvau, Carnot, Lamarque hiritarrek eta Lecuée laguntzaile orokorrarekin: guztiok konbentziturik daude gastu hau egin beharraz, eta berorrek Errepublikaren faboretan emango duen fruitu onaz (Brunot 1967: 161-162). [Itzulpena gurea].

Baina, iraultzaile gehienek ustez, argi zegoen itzulpenen berehalako fruitu on horrek ez zuela inor hortik harago itsutu behar, izan ere epe luzearako politika jatorrak zuhurtzia eta bide luzeagorik ere eskatzen zuten, *Chronique de Paris* aldizkariak aditzera eman zuenaren arabera:

Aleman, *patois* eta abarretan Dekretuen itzulpenak egiteko agintzen duen legea gogoratu da Konbentzio Nazionalean. Neurri hori ona da, noski, memento honetarako; baina badago irakaskuntza publikoaren plangintzan sartu behar den besterik, eta, lehenik, hor garrantzizko artikulua izan behar duen hau: *patois* eta hizkuntzen erabateko deuseztapenarena, alegia (Brunot 1967: 161-162). [Itzulpena gurea].

1793ko dekretu pare batek berriz ere itzulpenen egitekoa arautu bazuen ere eta hizkuntzen propaganda-erabilera ezberdinak gorabehera, oro har nagusituz zihoazen irizpide berriek ez zuten hizkuntzen eta dialektoen itzulpenezko errespetu hura bermatuko, aitzitik baizik. Poliki-poliki, hizkuntzetan Iraultzarentzat arrisku bat ikusi zen; frantsesak ez zirenak susmagarri bilakatu ziren askoren aho eta burutan. Dialektoak ez baizik “hizkuntzak zituzten lurraldeetan, hizkuntza diferentzia horrek eragozpen serioak zekarzkion Iraultzaren garapenari” (Brunot). Hizkuntzen kontrako kexuak nonahitik zetozen Parisera. Pirinio Beheretatik ere bai; Uztaritzetik, ordezkari batek honela idatzi zuen:

Fanatismoa da nagusi; lagun gutxik daki frantsesaz mintzatzen; apaiz euskaldunek eta nola-halako beste hiritarrek beren interesen arabera azaltzen dizkiete dekretuak auzotar gizagaixo hauei (Brunot 1967: 179).

4.3. Hizkuntz borroka, azkenik

Arrazoi hauek, noski, berdin balio zezaketen itzulpenak ere bultzatzeko; baina, inguru ezezagunaren beldurrak, eguneroko eskarmentuak eta Aberriaren batasun eraberdinduak bestelakorik eskatzen zuten, garaiko iraultzaile askoren ustetan. Herritarren indarrak batu behar izan ziren hartan, hizkuntzek sortzen zituzten eragozpen ernegagarriak gehiegi ziren Parisetik Iraultza gidatzen ari zirenentzat. Behin baino gehiagotan, adibidez, Armadako batailoiak berak ere birbanatu egin behar izan zituzten buruzagiek soldaduek elkar ulertzen ez zutelako.

Arrazoi hauek guztiak urratu zituzten gerra linguistikorako bideak, Parisetik ez ezik Probintzietako zenbait lagunarte iraultzailetatik ere. Beste gerra armatuaren barnean, gerra soziolinguistikoa gertatu zen hau. Usu errepikatu izan diren Barère-ren hitzak hartu izan dira filosofia politiko berriaren agerpen erradikalentzat:

Euskaldunak, arbasoen ondare bezala ikusten duten hizkuntza zoli eta nabar horrekin, beren apaizen menpe daude, nahiz eta jada Bidasoako muga haietan Errepublikaren alde nolako jaierez borrokatzeko lain diren erakutsi izan duten. [...]. Federalismoa eta sineskeria bretoieraz mintzatzen dira; emigrazioa eta Errepublikarekiko gorrotoa alemanez ari dira; kontra-iraultzak italieraz egiten du eta fanatismoak euskaraz. Apur ditzagun aurreiritzi eta errore-tresna hauek. Hobe da jendea eskolatzea, eta ez itzulpenak egitea: kontra-iraultzaile eta fanatikoak baizik zerbitzatu ohi ez dituzten jargoi barbaro eta hizkuntza arlote horiek mantentzea guri balegokigu bezala.

[...]

Monarkiak bazituen Babel dorrea maiteago izateko arrazoiak; demokrazian, hiritarrak, hizkuntza nazionala ez jakinez, boterea kontrolatzeko ezinean uztea, aberriari traizio egitea da, inprimategiaren ongi egiteak ez ezagutzea, jakina denez inprimatzaile bakoitza legeen eta hizkuntzaren irakasle izan arren. Frantsesa, hizkuntza unibertsal bilakatuko da, herrien hizkuntza izanez, [...], frantses guztien hizkuntza bilakatu behar du. [...] Herri libre batean, bat bera izan behar du hizkuntzak, eta guztientzat berdina (Brunot 1967: 181) [N. B.: ikus gainera Certeau et al. 2002: 321-331, 334].

Nekeza izango litzateke, Izualdi Handitik aurrera, Iraultzakoan ez ezik ondoko hamarkadetan ere, Frantziako politika linguistikoaren ideia ardatzak

Barère-ren pasarte honetan baino argiago eta koherentzia hobezagoz agertzea (1794-I-27). Handik hona, ez dira funtsean botere zentraletik printzipio horiek zalantzan jarri. Gehienez ere, beroriek gizartean, politikoki modu egokienean nola gauzatu izan da arazoa: hau da, indarrez eta bortxaz, ala luzaroragoko politika patxadatsu baten bidez. Baina azken helburuak zutik mantendu dira, Barère-ren aurrez aurreko erradikaltasunik gabe izan bada ere.

Ohar horrekin iradokita daude ondoko historiaren bi alde ezberdinak: bortxa instituzionalez hitzun ez-frantsesei egindako eraso, lege-zigor gogorrenak ere erabiliz (isunak, presondegia, etab.), eta, bigarren, modu samurragoan eta lasaiago, Errepublikak jasotako erakunde soziopolitikoaren bidez (Administrazioa, Armada, Eskola, etab.), bortxakeria itsu hura gabe, gauzatutako politika linguistikoa.

1794an eraiki ziren lehen politika-molde hartarako teoria ofiziala eta legeria. Irakasmunduaren erreformaren barnean txertatu zen hizkuntz politika berria (1794-I-27, 1794-II-18): “Il sera établi dans dix jours... un instituteur de langue française dans chaque commune... Ils seront tenus d’enseigner tous les jours la langue française”, dio artean itzulpeni ere lekurik uzten zien Dekretu batek (Brunot 1967: 184).

Sortzen ari ziren legeok testuinguru sozial zabalagoa zuten une hartan. Brunotek –eta ez da batere susmagarria– izenburu esangarri batekin deskribatu du garaiko egoera: *La Terreur Linguistique* aipatu du, adibidez, Alsazian ezarritako politika aditzera emateko. Hizkuntza ez-frantsesen deuseztapenerako biztanleen deportazioa edo lekuz aldarazteko lur-politika programatua ere proposatzen iritsi ziren politikari batzuk, hizkuntz helburu jatorrak lortzeko, eskola ez zela aski izango eta.

Arestian ikusi dugun Grégoirek maiatzean aurkeztu zuen, azkenik, bere Txostena Irakaskuntza Publikorako Batzordean (1794-V-28), eta berehala Konbentzioan ere bai (1794-VI-6). Lanaren tituluak bazuen indarrik: *Rapport sur la nécessité et les moyens d’anéantir les patois et d’universalier l’usage de la langue française* [N. B.: Certeau et al. 2002: 331-351]. Euskaldunak ere gogoan izan zituen txostenak:

1792ko Urriaren Eki [sic] Pirinioetan zeuden [ordezkariek] idazten zizuetenez, euskaldunen artean –herri otzan eta adoretua izan arren– asko eta asko da fanatismoak jo duena, argien zabalkunderako behatzopagarri baita hizkuntza (Certeau et al. 2002: 336). [Itzulpena gurea].

Zaila da hemen, lan honetan, eskualdez eskualde eta ezin-nahien artean, 1794aren Urtarrileko aipatu Dekretuak –Grégoire-ren Txosten-ondoko frantsesaren aldeko dei ofizialaren giroan ere– izan zituen aplikazio-arazoen histo-

ria egitea; baina politika horren praxian, oztopoak oztopo, ikusi ahal izan zen eskualde ezberdinetako gidari politikoen artean nola ari zen indartzen frantsesaren aldeko pentsamolde eta erabaki politikoa. Akize hiritik, adibidez, Lagunarte herritarrak ongi begi onez ikusten zuen gaskoiaren deuseztatpena eta frantsesaren erabilera orokortzea (1794-VII-25).

[N. B.: Ondoko hizkuntz politika, Legez bederen, Administrazioari zegozkion lerro nagusietan zehaztuta geratu zen, gure egunak arte izan dituen ondorio guztietarako. Hona zer zioen Legeak (Brunot 1967: 186-187):

- Art. I. À compter du jour de la publication de la présente loi, nul acte public ne pourra, dans quelque partie que ce soit du territoire de la République, être écrit qu'en langue française.
2. Après le moi qui suivra la publication de la présente loi, il ne pourra être enregistré aucun acte, même sous seing privé, s'il n'est écrit en langue française.
 3. Tout fonctionnaire ou officier public, tout agent du Gouvernement qui, à dater du jour de la publication de la présente loi, dressera, écrira ou souscrira, dans l'exercice de ses fonctions, des procès-verbaux, jugements, contrats ou autres actes généralement quelconques conçus en idiome ou langues autres que le français, sera traduit devant le tribunal de police correctionnelle de sa résidence, condamné a six mois d'emprisonnement, et destitué.
 4. La même peine aura lieu contre tout receveur du droit d'enregistrement qui, après le mois de la publication de la présente loi, enregistrera des actes, même sous seing privé, écrits en idiome ou langues autres que le français].

5. Ondorio gisa

Termidor-ondoko erreakzioaren ondoren (1794ko uztaila), hizkuntz politikak ere aipatutako erritmo geldiago hura hartu zuen; hizkuntzekiko tolerantzia berriaz ere hitz egin izan da, botereak aurreko hilabeteetako bortxa bera erabili ez zuelako. Izan ere, gainerako gobernu-sailletako lehentasun politikoei eta beste interes soziopolitiko larriagoek hartu zioten aurrea hizkuntz politikari, Iraultzaren ekinbide berrietan. Baina legeek, oro har, beren hartan iraun zuten, indarrean. Hori dela eta, badago frantsesaren historiografia klasikoan salakizun den zerbait, eta berau aipatu nahi nuke.

Batez ere Direktorioari (1795-1799) hizkuntzarekiko hoztasuna eta utzikeria aurpegiratzen zaizkio, hau da, frantsesaren hedapena aski ez lagundua. Geroko hamarkadetako frantsesaren hedapen-historia geldiagoa politika motzago baten ondorio gisa ikusi izan dute Frantzia Handiaren historialariek: Hizkuntza Nazional izateko aukeraturiko mintzairak, politika azkarrago eta programatuago baten bidez zor omen zitzaion garaipena lehenago lortu behar zuela uste izan da, nonbait. Eta, agian, horixe zela, hain zuzen, bidezkoena eta modernoena. Ikusmolde honek oharkizunen bat merezi du.

Termodorren ondoko politikak frantsesaren politika glotofagikoari ez zion Hexagonoan inolako saldukeriarik egin; alderantziz, utzikeriaz edo pragmatismoz, errealitate soziolinguistikoen aldakuntza erritmo historikora moldatu zen hura eta, halabeharrez, memento eskolatze plan iraultzailearen porrotera. Errepublikaren une hartako tresneriak ezin zuen gehiago, edo askoz gehiago, egin; baina hizkuntz bakartasunaren proiektua zutik mantentzen zen, legeetan eta ideologia estatu-nazionalistan. Hala ere, Iraultzak bere oldar soziala galdu zuelako (eta, beraz, ororentzako doako eskola publikoaren asmoa kamustean), kasik mende bat geroago, Ferry-ren legeekin, sortutako egokiera historikoari itxaron behar izan zion Iraultza soziolinguistikoaren programak (1881-1883); tartean, bizi izandako lan ez hain programatuek ongi bete zuten beren egitekoa: frantsesaren hegemonia beste hiztun taldeak gehiegi asaldatu gabe segurtatu, alegia.

Iraultzaren garrantzia ukazina da frantsesaren historian: frantses-hiztun taldeak eta Hexagonoko beste glotoetnik ez zuten ezagutu aurreko mendeetan halako teorizazio politiko-linguistikorik eta hain presakako ekinaldi politiko praktikorik; handik honako historia, berriz, hamarkada iraultzaile hark markatuta utzi du. Iraultza barnean ezaguturiko beste kontrapuntu argigarriek (federalismo linguistikoak, itzulpen-programak eta abarrek), garaile atera zen zentralismo linguistikoa azpimarratzeko balio izan dute gaurdaino, eta, gehienez ere, Iraultza-ondoko politika irabazlea *berezko eta logikoa* ez, baizik eta *hautapenezkoa* izan zela erakusteko balio.

Iraultzaren proiektu politikoan, hizkuntzari ere (frantsesari, noski) leku jakina eman zitzaion, tradizio ezagun bati jarraiki: "Hastapenak jarrita zeuden, eta bultzada, emanda. Frantzisko I.aren, Richelieu-ren, Colbert-en joerak, doktrina bihurtu ziren, eta Estatuaren doktrina. Hizkuntzak nazionala izan behar zuen eta nazionalitatearen funtsezko osagarrietako bat izan. Bere betekizuna bete zezan, Estatuak bere laguntza zor zion" (Brunot), Estatu-Nazioaren erai-kuntzari ekiten zion unean.

BIBLIOGRAFIA

Bibliografia hau idazlanean erabilitako eta berorren ondoren argitara emanda-koekin moldatu da, irakurlearentzat ondoko azterlanetan baliagarri izan daitekeelakoan, eta inolako osotasun asmorik gabe, noski.

- Agirreazkuenaga, J., 1991, "Historiographie basque des deux derniers siècles concernant les événements issus de la Révolution Française" in Orpustan (ed.), 133-144. [N. B.].
- Arcocha, A., 1991, "Sur la traduction en basque des textes officiels de la période révolutionnaire" in Orpustan (ed.), 171-191. [N. B.].
- Askoren artean, 1978, *Euskararen liburu zuria / El libro blanco del euskara*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Askoren artean, 1985, *La question linguistique au sud au moment de la Révolution Française (Actes du colloque)*, Montpellier: Université Paul Valéry (Lengas 17/18).
- Askoren artean, 1989, "Iraultza Frantsesa. 1789-1989", *Jakin* 51, 1989, 7-86. [Zenbaki berezia].
- Balibar, R., 1985, *L'institution du français. Essai sur le colinguisme des Caroligiens à la République*, Paris: PUF. [Bigarren atala osorik Iraultzakoari eskainia].
- Balibar, R.; Laporte, D., 1976, *Burguesía y lengua nacional*, Barcelona: Editorial Avance.
- Bidart, P., 1991, "La Révolution française et la question linguistique" in Orpustan (ed.), 145-170. [N. B.].
- Boyer, H. et al., 1989, *Le texte occitan de la période révolutionnaire (1788-1800). Inventaire, approches, lectures*, Montpellier: Association Internationale d'Études Occitanes.
- Brun, A., 1973 [1923], *Recherches historiques sur l'introduction du français dans les provinces du Midi*, Genève: Slatkine Reprints. [Iraultzakoaz, 483-498].
- Brunot, F., 1967, *Histoire de la langue française des origines à nos jours, IX. La Révolution et l'Empire*, Paris: Librairie Armand Colin.
- Certeau, M. et al., 2002 [1975], *Une politique de la langue. La Révolution française et les patois: l'enquête de Grégoire*, Paris: Gallimard. [Gogoan har edizio honetako hitzondokoa, D. Julia eta J. Revel-ena]. [N. B.].
- Charritton, P. et al. (ed.), 2005, *Pierre Haristoy. Historia Jardunaldia. Journée d'Histoire*, Donostia: Eusko Ikaskuntza. [N. B.].

- Cohen, M., 1987, *Histoire d'une langue. Le français (des lointaines origines à nos jours)*, Paris: Messidor-Éditions Sociales. [Iraultzari buruzko atalburua: 232-246].
- Duhart, M., [1993-1994], *Dominique Joseph Garat (1749-1833)* (2 libk.), Bayonne: Imprimerie du Labourd. [BSSLA aldizkariaren 148 eta 149. zenbakietan. Separata]. [N. B.].
- Fauchon, P., 1990, *L'abbé Grégoire, le prêtre-citoyen*, Tours: La Nouvelle République. [N. B.].
- Feijóo Caballero, P., 1991, *Bizkaia y Bilbao en tiempos de la Revolución Francesa*, Bilbao: Diputación Foral de Bizkaia. [N. B.].
- Furet, F., 1980, *Penser la Révolution Française*, Barcelona: Ediciones Petrel [Jat. ed., 1978, *Penser la Révolution française*, Paris: Gallimard].
<http://es.scribd.com/api_user_11797_Hino%20Hotaru/d/7266758-Francois-Furet-Pensar-La-Revolucion-Francesa>
- Gendre, Cl.; Javelier, F., 1979, *École, histoire de la France et minorités nationales*, Lyon: FEDEROP.
- Gontard, M., 1959, *L'Enseignement Primaire en France de la Révolution à la loi Guizot (1789 - 1833). Des petites écoles de la monarchie d'ancien régime aux écoles primaires de la monarchie bourgeois*, Paris: Les Belles Lettres.
- Goñi Galarraga, J. M., 1979, "La Revolución Francesa en el País Vasco: la Guerra de la Convención (1793-1795)" in *Historia del pueblo vasco*, Donostia: Erein, III, 5-69.
- Guilhaumou, J., 1989, *La langue politique et la Révolution Française. De l'événement à la raison linguistique*, Paris: Méridiens Klincksieck.
- Hourdin, G., 1989, *L'Abbé Grégoire. Évêque et démocrate*, Paris: Desclée de Brouwer.
- Julia, D., 1988, "L'école: un gigantesque effort pédagogique" in Vovelle (ed.), 203-208.
- Lefebvre, G., 1966 [1950], *La Revolución Francesa y el Imperio (1787-1815)*, México: FCE.
- [Monreal, G.; Rica, M.], 1978, "Ipar Euskal Herria" in Askoren artean, *Euskararen liburu zuria*, Bilbo: Euskaltzaindia, 373-379.
- Orpustan, J.-B. (ed.), 1991, *1789 et les Basques. Histoire, langue et littérature. Colloque de Bayonne, 30 juin - 1^{er} juillet 1989*, Bordeaux: Presses Universitaires de Bordeaux. [N. B.].
- Orpustan, J.-B. (ed.), 1994, *La Révolution française dans l'histoire et la littérature basques du XIX^{ème} siècle*, Baigorri: Éditions Izpegi. [N. B.].
- Oyharçabal, B., 1992, "Lehenbiziko inkesta geo-linguistikoak Euskal Herrian frantses lehen Inperioaren denboran: ipar aldean bildu dokumentuak" in *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra (1991)*, Bilbo: Euskaltzaindia. 285-298. [N. B.].

- Oyharçabal, B., 1993, “Les documents recueillis lors des enquêtes linguistiques en Pays Basque durant la période révolutionnaire et le Premier Empire” in Orpustan (ed.), 62-119. [N. B.].
- Péronnet, M.; Jourdan, J.-P., 1989, *La Révolution dans le département des Basses-Pyrénées: 1789-1799*, Le Coteau: Éditions Horvath.
- Philipps, E., 1986, *Les luttes linguistiques en Alsace jusqu'en 1945*, Strasbourg: Société d'Édition de la Basse-Alsace.
- Rey, A. (ed.), 2007a, *Mille ans de langue française. Histoire d'une passion*, Paris: Perrin. [N. B.].
- Rey, A., 2007b, “D'une Révolution à l'autre” in Rey (ed.), 2007a, 961-1030. [N. B.].
- Rica Esnaola, M., 1975, “Traduction en basque de termes politique sous la Révolution”, *ASJU IX*, 1975-1, 3-172.
- Rivarol, A., 1991 [1784, 1797], *De l'universalité de la langue française*, [Paris]: Obsidiane. [N. B.].
- Siouffi, G., 2007, “La langue française et la Révolution” in Rey (ed.), 2007a, 917-957. [N. B.].
- Soboul, A., 1966, *Compendio de la historia de la Revolución Francesa*, Madrid: Editorial Tecnos.
- Tulard, J. et al., 1987, *Histoire et dictionnaire de la Révolution française: 1789-1799*, Paris: Robert Laffont.
- Vovelle, M. (ed.), 1988, *L'état de la France pendant la Révolution. 1789-1799*, Paris: Éditions La Découverte.

EUSKARAREN ERABILPEN-DEBEKU ETA ARAUAK LEHEN GOBERNU FRANKISTEN ELIZ POLITIKAN (1937-1940)*

Ondoko idazlana lehenengo Gobernu frankisten hizkuntz politikaz ari da, eta zuzenago elizkizunetan euskara debekatu eta gaztelania nola ezarri nahi izan zen azaltzen du. Estatuaren (Martínez Anido, Serrano Súñer ministroen) eta Elizaren (Lauzurika gotzainaren) arteko gatazka eta negoziazioak gogoratzen ditu.

Fraideen komentuetan, bizitzako joan-etorria islatuz, *Kronikak* idazteko ohitura izan da, orain gutxi arte bederen. Horietako batetik helduko diot hona dakardan gaiari. 1937ko abenduaren 20an Donostia-Egiako frantziskotarren etxean lerro labur batez eman zuen debeku baten berri kronikariak: “En este convento se recibe la orden de no predicar en vascuence” (*Crónica*, I: 346). Zer zen hori?

Berehala ikusiko dugunez, debeku hori zekarren agiriko mami politikoa pasarte honetan zegoen laburbilduta: “[...] no toleren al clero de esta provincia el empleo de otro idioma que no sea el español en las pláticas y sermones [...]”.

Agiriaren testu osoa K. Zubizarreta artxibozainari esker eskuratu ahal izan dugu, Arantzazuko artxibategitik, zeren lehen aztarna eman zigun komentukoan ez baikenuen topatu agiria bera. Laster ikusi ahal izan dugunez, Torrealdaik 1998ko lanean jasota dauka testua bere funtsean (121 or.), eta ondoko testu nagusiak ere bai (124-125, 147-148, 151-153).

Idazlan honen egitekoak bi izango dira: testu horiek elkarrekin batera ekimen politiko bat beraren katebegi bezala aurkeztea, eta lehen frankismoaren hizkuntz politika nola formulatu eta ezarri zen erakustea.

* 2000, in Txipi Ormaetxea et al. (ed.), *Txillardegi lagun-giroan*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 193-230. Orain 4. puntuan hona bildu da “Euskararen debekua Donostiako frantziskotarretan” 2005ean *Un convento en la ciudad* liburuan erdaraz argitara eman zena (Donostia: Kutxa, 375-389).

1937ko abenduko debekua hizkuntz politika orokor baten funtsa eskainiz eman zen, eta halaxe ulertu zuten gertakari haietako protagonistek. Frankismoaren barnean piztu zuen eztabaidagatik, agintari zibil-militarren eta eliztarren artean sortutako gatazka tenkatuagatik eta erabili ziren prozedura politikoengatik, debekuaren hura hizkuntz politikan urte haietako jazoera politiko ofizial larriena izan zen (1937-1940). Ez daukagu orain hori azpimarratzen ibili beharrik, lan osoak esango duena baita.

Lana lau ataletan banatuko dugu: 1) Debeku-eztabaiden historiaurreaz eta inguru soziopolitikoaz argibide batzuk emango dira, lehenik. 2) Arazoak izan zuen kronologia azalduko da, gero. 3) Hirugarrenen, ezarri nahi izan ziren debeku eta arauen edukia jarriko dugu argitan. 4) Azkenik, Donostiako frantziskotarren komentuko gertakariak azalduko ditugu, adibide zehatz gisara.

I. Gertakarien historiaurrea eta ingurua

1937ko debekuaren inguruan eta ondoren, bi erakunde nagusi aurkitu ziren aurrez aurre: Gobernua eta Gasteizko Diozesia. Hizkuntzen hautapenean bakoitzak zituen bere barne-historia, ideologia eta praxia, baina bakoitzaren baitan posible zen definizio eta jokamolde finko bat bera eta bakarra ez izatea ere.

Protagonista nagusiekin batera, erakunde bakoitzeko bigarren eta azken mailako agintariak ere bazeuden (governariak, guardia zibil-buruak, alkateak, parrokoak, komentuetako nagusiak), eta dena jasan edo gozatzen, Mugimenduko ekintzaileak eta kristau eliztar xumeak. Azken hauek, gainera, norberaren ekimenaren edo gogoaren arabera, ikusle ez ezik salatari ere bilaka zitezkeen.

Gertakarien ingurua ezagutzeko, hemen bi erakunde protagonistari buruz esan behar da zerbait, hau da, arazoa xaxatu eta gidatu zuten Gobernu frankistez, eta nahitaez auzian esku hartu behar izan zuen Diozesiko Gotzaindegiaz (eta Gotzainaz bereziki).

I.I. Frankismoa: euskararen inguruko zalantza eta ziurtasunak

Euskaldunok ongi dakigunez (edo jakin beharko genukeenez), euskararen aurkako politika ez zuen Francok asmatu; belaunaldi dezente lehenagotik zetorren zerbait zen. Frankistek —behar izanez gero— bazuten tradizio espainolean non ikus eta non ikas (Intxausti 1990: 99-100; Ferrer 1985: pass.), beren familiarte politikoan ez ezik Errepublikarenean geratutako korronte batzuetan ere (Rossell 1977: 78-79).

Tradizio hartako hiru korronte politiko eskuindar elkartu ziren batik bat Altxamenduko lagunarte nabarrean: monarkia canovista eta primorrivistatik zetozenak, karlismo bateratuak zekarrena eta Falange berriarena (Carr 1969: 643-644). Bakoitzak zuen Espainiaren ikusmoldea (gutxi-asko, berariazkoa), eta bakoitzak aldarrika zezakeen bere hizkuntz politika.

Komeni da hori gogoan izatea, hona dakartzagun gertakariak hobeki ulertzeko. [N. B.: Betiere alderdi politikoetatik kanpo gerraurrean Espainiako intelektualek esandakoak albora utzi gabe; esate baterako, aukera ona dago orain R. Menéndez Pidal-en pentsamendua ezagutzeko (García Isasti 2004)].

I.I.I. *Monarkiazaleen hizkuntz politika*

Dakidanez, Espainiako alderdi politiko liberalek ez zuten izan hizkuntz politikarako egitarau orokor onarturik. Batez ere praxiak agindu zuen alderdi progresista eta moderatuaren ekimenetan. Hala ere, Katalunia eta Euskal Herriko nazionalistek beren hizkuntz proposamenak aldarrikatu zituztenetik, egokiera politiko bakoitzari beren formulazio eta irtenbide praktikoekin erantzuten saiatu ziren.

Bi moldetako politika izan zitekeen hura: a) gaztelania izan ezik, gainerako hizkuntzak aintzakotzat hartu gabe legetan politika elebakarra (kasik aitortu gabea) egin zuena, eta b) horretarako aukera edo beharra izan zituenetan, auziari aurrez aurre heldu, eta eztabaida teorikoetan nahiz unean uneko erabaki politikoetan bere hizkuntz politika egin zuena.

Gure artean, J. Urrutia-k azpimarratu zituen, batez ere, lehenengo jokamolde hark izan zituen ondorio praktiko luzeak. Isiltasuna, aintzakotzat ez hartzea eta urak betiere gaztelaniaren errotara bakarrik eramatea zen politika haren ardatz erabakigarria (Urrutia 1978: 388-389, 399-413). Horrek ez du esan nahi, ordea, hizkuntz politika hura bidegaldutan zebilenik, ez ikusiaren planta egiten zuela baizik. Baina Penintsulako nazionalismoek beren hizkuntz eskakizunak aldarrikatu zituztenetik aurrera (Azurmendi 1979a: 117-142; Atxaga 1996: pass.), *obarkabeko* hizkuntz politika hura ez zen izan halakoa (Intxausti 1978: 19-23, 26 eta hurr.).

Borboitarren monarkia izanberritu ondoren (1875), behin baino gehiagotan eztabaidatu zuten politikari liberalek hizkuntzaren arazoa Parlamentuan: gogora, adibidez, Romero Robledo-ren (1888, 1899) edo Romanones-en hitzaldiak (1902). Baina sistema monarkiko izanberrituaren barnean, 1915-1916ko parlamentarien eztabaidak dira, noski, garaiko korronte monarkikoen hizkuntz jarrerak argien erakutsi zituztenak (Ferrer 1985: 77-78, 82, 96-103, 107-111, 113-133).

Monarkiako indar politiko hegemonikoek oso garbi izan zuten zer pentsa eta zer egin, gaztelania ez ziren Penintsulako beste hizkuntzekin. Hori ulertze-ko, Romanones Gobernuburuaren hitzak (berriz ere!) eta Lliga Regionalista-ko Cambó-ren erantzuna izan daitezke Erregeren Gobernuak nondik nora zebiltzan jakiteko eta eskuin erregionalista bera haiengandik zein urrun zegoen erakusteko testu egokiak (Ferrer 1985: 131-132):

[...] en estas cuestiones, si las examinamos con un espíritu de concordia y armonía, podremos llegar a soluciones, pero si vosotros reclamáis del Gobierno, sencillamente, la declaración de la oficialidad del uso del idioma catalán en las Corporaciones públicas, en los Tribunales de Justicia, en los documentos notariales y en la enseñanza, os diremos que no podemos acceder a vuestras pretensiones. (*Muy bien*). No es el Gobierno el que lo dice, no es el partido liberal; de todos los lados de la Cámara han salido opiniones en este mismo sentido [Gobernuburua zen Romanones Kondeak: 1916ko uztailaren 8an].

Para una colectividad que tiene un idioma propio [...], toda limitación al empleo de ese idioma significa una opresión, [...] que entendemos [...] como una tiranía [...]. Reconoced nuestro derecho, declarad, como es justo, que todas las lenguas vivas de la parte española de la Península son igualmente nacionales; proclamad la cooficialidad de la catalana. [...]. Decía el Sr. Alvarez: Pero es que si os concedemos ese derecho, los gallegos y los vizcaínos podrían pedir otro tanto. Evidente, Sr. Alvarez, y si estas reclamaciones están apoyadas por una conciencia colectiva tendrán plena razón y deberá concedérseles [Cambó katalan *regionalistak* Kongresuan: 1916ko uztailaren 8an].

Romanonesek zeukan arrazoia: Monarkiako gehiengoaren ahotsa berarena zen, ez Cambórena, nahiz eta honek Kongresuko egun hartan bizi izan zuen bere une politiko handienetako bat (Pabón 1952, I: 451-457). Geroago, Romanonesen arrasto berean mintzatu izan ziren Diktadurako gobernatzaileak ere (1923-1930).

Beldur izan zitekeenez, Errepublika ekarri zuten indarrek ere —sozialistak barne— ez zuten samurra izan pentsamendu glotozida hura ahanztea (Azurmendi 1979b: 8-12), eta Konde herrenaren doinu berttua entzun zen Parlamentu errepublikanoan, Royo Villanova, Ortega, Unamuno, Azcárate, García Valdecasas, eta abarren ezpainetatik (Ferrer 1985: 155-165).

Pentsamolde zahar horren segidatasunaren lekuko da (bere kasuan, modu ongi zakarrez) Martínez Anido Jenerala, 1937an. Une batez bere baitan Espainiako hizkuntz tradizio politiko eskuindarra, eta militarra ere, Falange-arenarekin lotu zuen honek.

Dena den, frankismoaren barruan ez ziren izan monarkikoak pisurik handiena izan zutenak; horregatik, beste bi taldeak dira gure historia honetan gogoanago izango ditugunak, karlistak eta falangistak baitira kasu honetan, zeharbidez, elkarrekin talka egingo dutenak.

I.1.2. *Karlismoaren tradizio euskaltzalea ere*

Monarkia isabeldarrak edo canovistak gaztelaniaz bakarrik egiteko joera makurra baldin bazuen, karlismoarentzat, aitzitik, euskara edo katalana ez ziren izan sekula hizkuntza arrotzak, inoiz gudaroste karlistako euskaldunen hizkuntz ohiturez zenbait talde gaztelau elebakar kexu izateraino. Bestalde, armak irabazle suertatu eta berariazko Aldundiak eratu zituztenean, euskararen aldeko politikarik ere egin nahi izan zen, arrazoi ideologikoengatik ez ezik hizkuntzari aitortzen zioten kultur balioengatik ere.

Bakea egin zenean (1875), tradiziozaleek berriz ere heldu izan zioten euskara sustatzeari, eta, jakina da, 1936ko Gerra Zibila baino lehen karlismoak bere euskaltzale eta idazleak izan zituela. Foruzalea ez zen beti urrun ibili euskaltzale ere izatetik.

Garaian garaiko jakitunen euskaltzaletasunean, J. B. Erro-rengandik hasi eta J. Urkixo-renganaino ibilera luzea egin zuen karlismoak Euskal Herrian. Era berean, Iparragirrerengandik hona karlistek beren bertsolari eta olerkariak izan zituzten, eta batzuetan, oihartzun handikoak ere bai.

Prentsa karlistan ez da falta hizkuntzaren estimua erakusten duen idazlanik, eta euskal liburugintzan elizgizon karlistak beren ahaleginean saiatu ziren, abertzaletasuna jaio eta hedatu baino askoz lehenagotik, eta geroago.

Hurbilagoko lekukorik behar bagenu, gomuta dezagun nola Jon Etxaide idazleak eman zigun bere aita I. M. Etxaide integristaren eta Euskaltzainburuaren antologia bat (Etxaide 1986). Era berean, J. M. Lojendio ere Euskaltzainburua izan zen gerraondoan, eta, A. Arrue euskaltzainak bere politika karlista alderditar eta pertsonalaren barnean, idazketa-lana ez zuen laga, *Eganen* parte hartuz eta hainbat hitzaldi politiko eta kultural euskaraz emanez.

Ez dago esan beharrik, karlismoaren euskaltzaletasunaren historia oso bat egiteko dugula oraindik, baina egon da alde hau zerbait aztertu duenik ere (esate baterako, Garmendia 1984: 425-431, eta berrikitan ekarpen ona egin duenik: López Antón 1999). Azken gerrateak bestelako premia larriagoak

sortu baldin bazizkien ere, ezin da ahantzi aurreko historia hura, eta berorrek izan zezakeen pisua, nahi bezain erlatiboa izanik ere.

Garbi dago: tradizio horretatik urrun zegoen Falangea, historia honetako hirugarren talde frankista.

I.1.3. *Falangearen hizkuntz politika*

Falangeari sinetsi nahi baldin badiogu, Altxamendu Nazionala *Iraultza* zen: “Revolución Nacional-Sindicalista”, alegia (ikus Solé-Tura 1971: 21-22). Errotiko aldakuntza orokor baten ametsa zuenez, pentsa daiteke hizkuntz arloa ere beraren politikagintzarako eremua izan zitekeela. Ez zen izango hori hizkuntzen arloari helduko zion lehenengo iraultza, halakorik aski aldiz gertatu baita.

Iraultzek hizkuntz politika osorik birmoldatu behar izan dutelarik, bi jarraira arrunt kontrajarriak erakutsi izan dituzte:

- a) Proiektu politiko berriaren alde hizkuntza guztiak erabili behar direla defendatzen duen korrontea. Adibidez, ideia horren zerbitzuan itzulpen-bulegoak sortu izan dira, Iraultzaren mezuak mintzaira guztietan landu eta hedarazteko.
- b) Iraultzek, ordea, alderantzizko biderik ere hartu izan dute eskueran zeuzkaten hizkuntzen aitzinean: proiektu iraultzailea esku bakar batetik ongi loturik eramateko, hizkuntza nagusia ezarri eta horretaz bakarrik baliatu behar dela dioen kontrako tesia (beharbada, gainerakoak zapalduz eta baztertuz, gainera).

Bi tesi kontrajarriok elkarren segidan ager daitezke, baina baita aldi berean ere. Iraultza barneko sentiera eta pentsamenduak ez daukate zerbait monolitiko eta zurruna izan beharrik, askotan iraultzaileak beren jatorri ideologikoetan ezpal berekoak izan ohi ez diren bezala. Frantziako Iraultzan ikus dezakegunaren gisara, bi tesi kontrajarrien presentzia eraginkorra Iraultzaren barneko kontraesanetako bat izan daiteke, eta hain eraginkorra ezen tesi batek bestea ordeztu baitzuen kasu hartan (Intxausti 1989: 73).

Bestalde, hizkuntz trukaketarako proiektu baten eta erabateko hizkuntz tolerantziaren artean, hainbat ikuspuntu eta ñabardura sor daiteke hizkuntz politika egitean, batez ere frankismoa bezalako familiarete politiko nahasian. *España* ez baitzen berdin definitzen Falangetik ala karlismotik.

J. A. Primo de Rivera fundatzaileak Espainiaren naziotasuna “unidad de destino en lo universal” zeritzan hartan ezartzen zuen (Primo de Rivera 1952: 65-66, 67):

La Patria es una unidad total, en que se integran todos los individuos y todas las clases [...] La Patria es una unidad trascendente, una síntesis indivisible, con fines propios que cumplir. [...]. Queremos que España recobre resueltamente el sentido universal de su cultura y de su Historia [Teatro de la Comedia, Madrid, 1933].

Eta urte berean, Euskal Herriari buruz zera idatzi zuen:

La nación no es una realidad geográfica, ni étnica, ni lingüística: es sencillamente una unidad histórica. [...]. Piensen los vascos que la vara de la universal predestinación no les tocó en la frente, sino cuando fueron unos con los demás pueblos de España. Ni antes ni después, con llevar siglos y siglos hablando lengua propia y midiendo tantos grados de ángulo facial. Fueron nación (es decir, unidad de historia diferente de las demás) cuando España fue una nación.

Primo de Riveraren pentsamenduan, nazioaren baitan hizkuntzarena bigarren mailako funtsa da (Primo de Rivera 1952: 86), baina horrek ez du esan nahi huskeria historikoa denik, hain zuzen “unidad de destino en lo universal” hartan tresna praktikoso baliagarria eta bateratzailea izan baita gaztelania. Hala ere, jatorrizko lehen funtsezko pentsamendu eta proiektu falangistan badirudi jasangarria zela gainerako hizkuntzen presentzia (Primo de Rivera 1952: 560).

Baina 1933tik 1936ra urte *asko* pasa ziren Espainiako politikan, eta hizkuntzarena ere ozpinduz joan zen. Haren ingurukoek eta jarraitzaile anitzek (hain zuzen, lehen urteetan indarririk erabakigarriena izan zutenek) hizkuntz politikaren arazo hau oso bero hartu zuten, gerrakoan eta gero. Hori frogatzen duten testuak eta orduko jarrera praktikoen lekukoak bukaezinezko errenkan luzatzen dira hemeroteketatik jasotako antologietan.

Falangeko jarrera liberalenak ere *etxeko* eta *etxerako* hizkuntzak onar zitzakeen, baina inola ere ez bideren batetik edo bestetik ofizialtasunen batera joan zitekeen haien garapen sozial edo kulturala. Mintzaira horiek *beren muga naturalen* egon behar zuten: eskola edo administratibotik kanpo, kultura idatzi serio-rik gabe, gaztelaniari eskubidezkoa omen zuen nagusitasunaren garapena mozteke, modernitaterako lekuz kanpoko irrika barik...

Horregatik, euskararen prozesu arauemailea eta abertzaleek landutako berrikuntzak biziki gorrotatu zituen Falangeak.

I.1.4. *Bakarra ote, leben frankismoaren bizkuntz politika?*

Oro har, frankismoaren familiarte politiko nahasi-mahasi hartan ordena pixka bat jarri beharra sentitu zuten gidari altxatuek. Horregatik, Serrano Súñer koinatuaren iradokizunei jarraiki, Francok batasun-bidea eratu nahi izan zuen, lehenengo “Falange Española y de las JONS” antolatuz, eta gero “Movimiento Nacional de FET y de las JONS” alderdi ofizial bakarra eratu, 1937ko apirilaren 19an (Tamames 1975: 344-345).

Talde politikoen arteko batasun formalak, jakina denez, ez zuen ekarri mirakuluz taldeen arteko sentiera eta egitarau politikoen batasun teoriko eta praktikoa osoa. Mugimenduko ekintzaile izan arren, beren bizitza pertsonalean (eskualde geografikoak, familiak eta tradizio politikoek halaxe erakutsita) Penintsulako aniztasun kulturala txikitatik bizi (eta beharbada maite ere) izan zutenen artean, zaila zen Falangearen zirrikiturik gabeko kultur politika hertsia onartzea (hertsitasun horretarantz lerratu baitzen dena, azken buruan) (Preston 1998: 334-335, 339).

Lehenago, ordea, Hedilla Falange-Buruaren inguruko alderdikide katalanek, adibidez, eskertu egiten zioten honi, beren artean katalanez mintzatzeagatik ez erasiatua. Aitzitik, gerratean, Burgosen errefuxiatutako katalan frankista ospakoren batek estualdiren bat ere pasatu zuen inoiz katalanez jarduteagatik. Donostian bertan *Unidad* egunkariak katalanez ari ziren errefuxiatu frankisten epelkeria bortizki salatu izan zuen (Benet 1973: 153-154, 160-161).

Mugimendu barruko zalantza haiek gorabehera, frankismoak oro har elebakartasunaren aldeko politika egin zuen, Administrazioa guztiz elebakarra ezarriz, gaztelania ez ziren hizkuntzei eskola eta kulturarako bidea erabat moztuz, eta, praktikan bederen, lotsa handirik gabe behin eta berriz bizitza pribatua ere sartuz. Hemen orain ikusiko dugun kasuak erakutsiko digunez, eliz jende frankistari berari ere arau berriak paratu nahi izan zitzaizkion.

Frankismo osoa zegoen ados, Espainia Berriak hizkuntza ofizial bakarra behar zuela, eta berori ezarri egin behar zela esatean (II. Errepublikak egindakoa ezabatuz); baina horretarako metodo, erritmo eta prozeduretan ez ziren guztiak irizpide berekoak. Irekitxoak ez zeuden konforme lehendik, inolako gatazkarik gabe, indarrean zeuden erabilpen-ohitura eta jokamoldeak beste gabe mozteko.

Labur esanda: posible zen, azken hauentzat, espainolista eta frankista gogorra izan, eta gaztelania ez zen besterik ere erabiltzea, betidaniko mugarik hautsi gabe egiten baldin bazen, behinik behin (B hizkuntzak egoera diglosiko gordinenera kondentatuz) (Benet 1973: 153). *Zabaltasun* honen barnean, norbaitek pentsatu ere egin zuen euskara erabil zitekeela Mugimenduaren alde lan egiteko (Torrealdei 1998: 141).

Frankismoaren lehen urteetako arrastoa begiratzeko, badugu gaur tresnarik. Orduan gauzatutako hizkuntz politikaren historiarako langairik franko bildu zuen Benetek (Benet 1973), eta ezaguna dugu gurean ere (Torrealdai 1982, 1998). Bada hor perla ederrik (Torrealdai 1998: 85, 93-95, 97-98, 104, 106).

1.1.5. *Gobernu protagonistak*

Hizkuntz egitarau teorikoak gorabehera, gerrako harat-honat eta aldarateek ere izan zuten Gobernu frankistetan beren eragina, eta joera ezberdinak agertuz eta burubideak nabartuz joan ziren: esate baterako, Erregimenaren 1937ko erakundetzea eta erantzukizun politiko-linguistikoak, eta 1939ko udaberrikoak bestelakoak ziren, nahi den hurbilenak izanda ere.

Altxamendu Nazionala egitura juridiko-politiko batean eratzea ez zen egun batetik bestera egin. Altxamenduak garaipena lehen egunetan lortu ez zuenez gero, 1936ko uztailaren 24an “Junta de Defensa Nacional” deitua moldatu zen, M. Cabanellas Jenerala buru zuela. Francok ez zuen Estatu-Gobernuen gidaritzara 1936ko urriaren Iean baizik hartu, eta artean ere Gobernu-Taldea ez zen Gobernu, “Junta Técnica del Estado” zeritzana baino (Solé-Tura 1971: 17-27). Gobernu gisako hau 1938ko otsailaren Ieraino egon zen indarrean, eta data honetan antolatuta zuten Francoren lehenengo Gobernua.

Eremu nazionalan eta gerratean, botereari batasuna ematen ziotenak militarrak ziren batez ere, eta ez alderdi edo talde politikoak. Hilabete haietan, Armadatik zetozen agintariek susmo eta errezeloz begiratzen zituzten karlista eta falangisten ibilera politikoak (Carr 1969: 644-645). Alde horretatik azpimarratzekoa da, esku artean darabilgun lehenengo debeku orokorra Jeneral baten eskutik sortu zela.

Hilabete batzuen buruan, eta Francoren gidaritzara politikoa segurtatu ahala, garbi ikusi zen berorren neurrikoa izango zen aginte-egitura instituzional berri bat sortzeko premia. Ikusi dugu Serrano Súñer-ek alderdi politiko nazionalak bateratzeko egindako ahalegina. Geroxeago, era bertsuko zeregina burutu nahi izan zuen Elizarekin ere, alferrikako gatazkak albora uzteko. Horren ondorioz, esan daiteke gure hemengo arlo linguistikoari zegozkion prozedura politikoetan 1939ko Serrano Súñer ez zela 1937ko Martínez Anido.

Horrela, bada, “Junta Técnica del Estado”tik irten zen 1937ko abenduko euskararen debekua. 1937ko urriaz geroztik, Junta hartako Barne-Seguratasun, Ordena Publiko eta Mugen Buru izan zen Martínez Anido, eta agintean gorako urrats bat eman ondoren, Ordena Publikorako Ministerioa eman zitzaion hurrengo lehen Gobernuan. 1938ko martxoan Gotzainari erantzun zionean,

Gobernuko ministro zen, hortaz. Hala ere, ez zen ministro-aldi luzea izan harena, urte bereko abenduan hil baitzen Jenerala (Equipo Mundo 1970: 17-19).

Lehen Gobernu horretan (1938, otsaila) Altxamenduko joera guztietako indar politikoak zeuden, monarkikoengandik hasi, eta tradizionalista eta falangistenganaino. Ez zitekeen espero, beraz, Gobernu hartatik kultur eta hizkuntz politikan molde bakarra, eta Sail bakoitzeko arduradunaren nortasunak eta alderdien eraginak bazuten kaleratu ziren erabakiekin zerikusirik, Pedro Sainz Rodríguez lehen Gobernu hartako Hezkuntza Ministroak askoz geroago (1982) Euskaltzaindiari aitortu zionaren arabera (ikus *Euskera* XVIII, 1937-1953: IV).

Martínez Anido historia luzeko gizona zen: 1920ko hamarkadako lehen urteetan Bartzelonako langileriaren aurka metodo guztiak erabili zituen, harik eta Gobernuak berak kargutik kendu behar izan zuen arte. Primo de Riverarekin Gobernaziotik lan egin zuen, berriz ere langileriari aurre eginez. Francok deitu zuenean, Gobernazioko lanetarako ongi prestatuta zegoen, bada, Mz. Anido (Carr 1969: 496-497, 503, 547).

Lehen Gobernu hartan Barne Ministro zenak, Serranok, eskuratu zuen Mz. Anido Jeneral hil berriak hutsik lagatako eserlekua: 1938ko abenduan bertan Serrano Súñer-ek Ordena Publiko eta Barne Ministerioak Gobernaziokoan bateratu zituen, bere eskuetan. Hortik aurrera, hizkuntzen arazoa ere CEDATik zetorren erdi-falangista honek izango zuen bere ardurapean.

Francoren bigarren Gobernu antolatu zenean (1939ko abuztuan), Serranok bere aurreko lekuan jarraitu zuen, Gobernazioan, harik eta hirugarren Gobernuan Atzerri Arazoetara pasatu zen arte (1941eko maiatzean). Serrano izan zen (ministra bera, alegia) 1939ko urrian Elizarekin hizkuntz arazoaz molde berri batez oster mintzatzeko hasi zena. Gobernazioa utzi aurretik burututzat eman ahal izan zuen auzia, 1940ko martxoan (Preston 1998: 320-324, 339).

Hori da historia honetako lehen erakunde protagonistaren (Gobernuaren) testuingurua, eta bigarrenaren aurkezpena egin behar dugu orain.

1.2. Gasteizko Diozesia eta bere Administrari Apostolikoa

Gerratearekin, Mugimendu Nazionalaren eta Francoren eliz politikan buruhauste handietako bat Euskal Herriko Elizarena izan zen (Preston 1998: 340-342). Lehenengo orduetatik, lurraldez gerra-lubakiaren alde bietan, eta politikoki, mendekotasun zibil-militar kontrajarrietan banatuta egokitu ziren herritar eta eliztarrak, eta Diozesia. Jakina denez, banaketa politiko hori arazo

erlijioso bihurtu zen berehala (Iturralde 1978: pass.; Rentería 1982: 197 eta hurr.), katoliko askorentzat kontzientzia-arazo ere bai, gertakariak eta Gotzainek lagunduta (Onaindia 1975: pass.).

Banaketa hori zen egoera orokorra. Horrek ez zuen esan nahi, ordea, eliz jendeak –frankista izanik ere– bere hizkuntz ohiturak bat-batean aldatu behar zituenik (ohitura arauturik ere zegoen toki edo zereginetan behintzat).

Elizaren kasuan, arau jakin batzuk ez ezik hizkuntz ohitura eginak zituen elizbarrutiak, aurreko hamarkadetan duintasun berriz eraman nahi izan zirenak, gainera (ikus besterik ez dago, adibidez, nola eman zitzaion leku hizkuntzari, eta nola goza bertako euskara Gasteizko Gotzaindegiaren Buletinean eta Katekesian).

Erregimen Zaharreko pasadizo ezagunetara gabe (esaterako, Calahorrako Sinodalak ditut gogoan), 1885eko Sinodo-Arauek tradizio zaharrari eutsi zioten, eta bide horretatik zetorren –Eusko Pizkundeko planteamolde berriak ere tarteko zirela– Gotzaindegiaren beraren eta, ondorioz, apaiz diozesitarren hizkuntz politika eliztar zahar eta berritua. Hor, berez, ez zegoen artean geroago ko politika *separatistarik*, gatazka berezirik gabeko eliz tradizio heldua baizik.

Horregatik, M. Miguel Gómez Apezpikuak berretsi baizik ez zuen egin lehendik eta aspaldidanik ezaguna zena, ondoko arau hau ontzat ematean:

Siendo un hecho indudable, gracias á Dios, según nos hemos informado en la Santa Pastoral Visita, que en la mayor parte de las poblaciones de Guipúzcoa y Vizcaya, y principalmente en los caseríos, apenas se habla otro idioma que el vascuence, encargamos á los Párrocos y demás Sacerdotes que, en la predicación del Santo Evangelio y explicación de la doctrina cristiana, se valgan del idioma usual en las respectivas localidades (Miguel Gómez 1885: 32-33).

XX. mendeko bigarren hamarkadatik hasita, Gasteizko Diozesiak euskarazko bere baliabideak eguneratzen urrats berriak emanak zituen, Baionan lehenago (1909, 1923) eta Iruñekoan geroago (1926) egin zen bezala, eta hori –gerrako eztabaida politiko lazarriagoak etorri aurretik, behintzat– aurrerapen egoki modura ikusi izan zen (Villota 1985: 174-178; *Congrès* 1910: 254; Intxausti 1990: 134-137).

Eliza katoliko unibertsalaren hizkuntz arauak jasorik, saiatu zen hainbat elizgizon 1920ko hamarkadan Euskal Herriko Elizari pentsamendu-euskarri bat eraikitzen, gerora frantziskotarren artean B. Gandiagak egingo zuenari aurrea hartuz (Urrutia 1923, Intxaurren 1926, Gandiaga 1960). Bestalde,

Gotzaindegitik ere finkatu ziren eliz lanerako hizkuntz irizpideak, hain zuzen monarkiazale garbia zen Zakarias Martínez Gotzainak gidaturik (Martínez 1924). (Buletinean barreiatuta utzitako testu eredugarri batzuk irakurri besterik ez dago, indarrean zegoen sistema politikoari Gotzainak nolako atxikimendua zion jakiteko).

Baina Elizan zaharra zena eta Monarkian administrazio eta eskola bidez egin nahi izan zen hizkuntz politika nahikoa aldenduak zeuden beren irizpide eta helburuetan. Eta, aldenduak ez ezik, kontra ere bai arlo batzuetan. Eliza erromatarraren Euskal Herriko (eta beste hainbat tokitako) hizkuntzazko inkulturazioan historikoki alde kritikagarririk franko ageri bada ere, arlo honetan elkarren lehian jarri ziren bi botereen hizkuntz politiken alde nabaria da.

Horrez gain, ohiko hizkuntz tradizio bien ondoan, Gasteizko Diozesiaren 1937ko egoera instituzionala ezin da aipatu gabe laga, hilabete haietako testuinguru politiko-instituzionala argigarria baita hemen ikusiko ditugunak hobeki balioesteko.

Gasteizen ez zegoen orduan bertako Gotzainik, Mateo Mujika erbestean baitzen, baizik eta Francorekin adostu eta Vatikanok izendatutako Administrari Apostoliko bat zegoen Diozesia gobernatzen: Frantzisko J. Lauzurika.

Lauzurika izan zen Gasteizen *Francoren Gotzaina*, frankistek berek orduan esan zutenaren arabera, 1937ko urritik 1943ko abenduraino. Altxamendu Nazionalaren alde eta beronen babesean ahalegindutako hierarkia katolikoaren barnean, Lauzurikak leku behinena du frankismoaren lehen urteetan, haren prediku eta gutunetako testuek erakusten digutenez (Rentería 1982: 313-409; Sánchez Erauskin 1995: 166-167, 169).

Durangaldeko Iurretan jaioa (1890-1964), Comillas-en egin zituen bere eliz ikasketak. Logroño, Zamora eta Valentzian kalonjiak irabazi ondoren, azken hiri honetako Gotzain Laguntzaile egin zuten (1931). Gerra lehertzean, Durangon zegoen oporretan eta Jaurlearitzak lagundurik, pasatu ahal izan zuen muga (Erromarako omen), baina bertan behera Dantxarineatik alde nazionalera iragateko (Onaindia 1973, I: 44-49). Handik aurrera, Hegoaldean altxatuen aldeko eliz hierarka suharrena dugu, Gomá kardinalarekin batera.

1943an Palentziako Gotzain izendatu zuten, eta Oviedoko Artzapezpiku izatera iritsi zen gero. Kargu hori zuela hil zen. Apaiz, karlista eta herrikide zuen Etxenagusia parroko euskaltzain urgazleak damu garbirik gabeko haren gerrako gehiegikeriak gogoratu zituen inoiz (Rentería 1982: 340).

Lauzurikak esan, idatzi eta egindakoek, historiografian arrasto iluna utzi dute (Sánchez Erauskin 1995: 176-177). Harritzekoa gertatzen da Gasteizko

Diozesiaren arduradun hark egindako gutunak eta predikuetan esanikoak irakurtzea, are gehiago Euskal Herriko katolikoak gerra anker batean itota zebiltzala jakinda. Esan dezagun, gutxienez, guztiz itsutu zela Lauzurika, gerraren zurrunbiloan. Karlista frankozalea izan zen osorik, eta Diozesia gerraurreko ildo zentzatuetatik aldendu eta Espainia berriaren zerbitzuan jarri nahi izan zuen, Seminariotik hasi eta elizbarrutiko antolaketaraino (Rentería 1982: 391-401; Sánchez Erauskin 1995: 161-177).

Alde ilunaren ondoan, ordea, ezusteko beste argiagorik ere izan zuen. Jasotzekoa da Lauzurikarekin zinez kritikoa den baten ondoko lekukotasun hau:

Me da pena recordar esas cosas de don Javier Laucirica [sic]. Era euskaldun y amó siempre el euskera, que lo hablaba siempre que podía. Dio un decreto en que mandaba que la predicación se debía hacer en euskera, siempre que la mayoría de los oyentes hablaran esa lengua. Los curas que querían ocupar cargos, aldeanos y euskaldunes muchos de ellos, no hacían caso. Consideren nuestros lectores hasta dónde llegaba esto, que un sacerdote joven, más tarde, años más tarde, dijo en el Seminario que quería olvidarse del euskera para que no le enviaran a un pueblo.

En el euskera, don Javier Laucirica no tuvo jamás ningún complejo y le gustaba hablarlo en los cuarteles que visitaba con los euskaldunes que estaban cumpliendo el servicio militar.

Años más tarde, en el funeral de don Domingo Abona [Bilboko artzapeza berau, karlista eta frankista, Lauzurika bezala, eta beronen adiskidea] que celebró él mismo y asistió Monseñor Morcillo, a la salida en la plaza de Albia me dijo: «Chileno, que me despreciaste» [Lauzurikak bere elizbarrutira eramán nahi izan zuen inoiz idazlea, baina Renteriak Txilerako bidea hartu zuen]. Y allí le vi, alegre y lleno de vida, hablando en euskera con muchos de los que le saludaban.

Fue un aldeano vividor, español cien por cien, sumiso hasta el servilismo con Franco, nunca traicionó su idioma nativo, lo empleó para decir las mayores barbaridades que se pueden imaginar. Otras cosas mejor ni las nombro (Rentería 1982: 340-341).

Aipatutako On Domingo Abona ere, politikan bezala hizkuntzatan, Lauzurikaren ezpal berekoa zen, nonbait (Rentería 1982: 324). Horrela, bada, espainolista petoa eta frankozale porrokatua genuen Lauzurika Gotzaina, baina baita zinezko euskaldun mintzatzailea ere. Hau da, nonahi ere euskaraz mintzatzen saiatu zena, Durangon, noski, baina baita bisitatu izan zituen hainbat herri euskaldunetan ere, kalean edo elizan, euskaldunik aurkitzen zuen lekuetan. Euskararena, barrutik zerion zerbait zuen, berezko komunikazio-tresna naturala.

Bestalde, goian aipatu dugun hizkuntz tradizio diozesitarra betidanik eza-gutu zuen Lauzurikak, harmonia ederrean bizi izandako tradizioa, gainera. Egia da, segur aski haren ustez, euskararen inguruan *berrikeriarik* eta interes politiko alderdikoirik ere ezagutu izan zuela, baina, itxura guztiaren arabera, Lauzurikarentzat azaleko eta pasaerako gorrina besterik ez zen hori; euskara bera, ostera, asmaziorik gabeko herritarren jatorrizko izan-modua. Hortaz, behar izanik, Altxamendu Nazionalaren ideia eta asmoak berak ere zabaltzeko balio zezakeen lanabesa, eta, zer esanik ez, elizkizun eta katekesian erabil zitekeena.

Abiapuntu honetatik ulertu behar da, uste dugunez, ondoren azalduko ditugunetan ikusiko dugun Lauzurikaren jokabidea.

2. Gertakarien kronologia eta esanahia

1937ko abenduaren 17ko Ordena ez zen asmo eta jite horretako lehenengo: lehenago ere Gobernu espainolak eginda zuen saioaren bat elizetako hizkuntz politika bere gisara moldatzeko. Gerrate bat —eta halako zama ideologikoa zekarrena— ez zen egokiera txarrena Altxatuen gogo bero-berrituak azaldu eta indarrean jartzeko. Are gutxiago, berariazko hizkuntzak zituzten Katalunia eta Euskal Herriaren parte bat arerioarekin joana zelarik.

Iradoki ditugun arrazoiengatik, hizkuntzarena Gobernuaren eta Elizaren arteko eztabaidagai bihurtu zen, politika-korridoreetan eta prentsan ere. Modu hain zabal eta programatuan Gobernutik elizkizunak baldintzatu nahi izatea, Euskal Herrian lehenengo aldiz orduan gertatu zen. Espainiako Monarkian horren aurrekari antzekoenak, moriskoei eraso zitzaientean (1566), Kataluniako erreforma borboitarrean (1716) edo Ameriketako kolonizazioan (1772, etab.) aurki daitezke.

2.1. Lehen urratsak

Egia da, ordea, abenduaren 17ko hura ez zela heldu, aurretik saio apalagoren bat izan gabe. Gogora daiteke, hamarkada batzuk lehenago, norabide bereko ahaleginik izan zela Espainian bezala Frantzian (Intxausti 1990: 136). Estatu espainolaren antzera (1902) Frantses Errepublikak (1902, 1906) katekesia eta predikua erdaraz egiteko agindua eman zuen.

Hegoaldean, Gerra Zibileko politika kulturean jasan ezina gertatu zen, mespretxuz begiratzen zen hizkuntza eta susmagarria zen apaizen ezpainenatik kontrolik gabeko mintzaldiak entzutea. Irtenbide erosoago bat asmatu beharra zeukan Altxamenduko botere agintariak.

Goitik zetozen iradokizunei jarraiki, ziur, Komandante Militarrak (uste dudanez, Gipuzkoakoak) jada 1937ko ekainean kontrolatu nahi izan zuen elizetako Liturgia, hizkuntza ez ofizialen jendaurreko erabilpena debekaturik zegoela gogoratuz. Lehen erabakitzat, edozein herritan zela ere, mezatan gaztelania erabiltzeko agindu zuen, nahiz eta lehen orduetakoetan euskarak, salbuespenez, lekuren bat izan zezakeen. Agindu-prozedura honek hautsi egiten zuen, garbiki, Elizaren aginte-autonomia, eta agintari zibil edo militarren irizpideetara jartzen elizetan zaindu beharko zen hizkuntz politika. Egon zen, orduan, herrietan agindua betearazi nahi izan zuen agintaririk: Tolosako alkateak elizgizonei azaroan pasatako oharrean ikus daiteke horren adibide bat (Torrealdai 1998: 106, III).

Hemen ia ukituko ez ditugun arau batzuk ere badaude, aipatu behintzat egin beharko direnak; hauek ere elizetarakoak. 1938ko martxotik aurrera Gobernuaren irizpideak eta Gotzainenak bat ez zetozeela ikusi zenean, esku-sartze mugatuago batzuk entseatu ziren, hamar minutuko euskarazko tarte bat onartuz (Torrealdai 1998: 128, 135). Hemen ez ditugu iruzkinduko arau xeheago hauek, baina beude aipatuta.

Gobernua eliz munduan sartzen hasiz gero, ez jakin noraino hel zitekeen arazoa. Josefinismo agintezale baten atarian ote zegoen Eliza espainola? Aliatu ala mendeko izan behar zuen Elizak hizkuntzen arlo horretan? Ez da hau urrunagoko arazo hori argitzeko egokiera, eta gurera mugaturik, zuzenean hizkuntz politikaz jazotakoak ekarriko ditugu hona.

2.2. Gatazka-une nagusiak

Aztertu nahi dugun gertaera, esandako aurrekari horiek gogoan direla, ia hiru urtetan luzatu zen, 1937ko ekainetik 1940ko martxoraino. 1937ko abenduaren 17ko Ordenak eman zion izaera ofiziala auziari.

Horren arabera, herrietako ohiko eliz jarduera arrunta delitutzat jo zen, zigorgarri. Eta salaketa-sistema bat jarri zuen indarrean, eliza eta elizgizon guztiak susmagarri bihurtuz, edo, gutxienez, alde horretatik elizetako eta Diozesiko artzain-lana salatari ofizialen (tokian tokiko agintari zibil edo militarren) ardurapean ezarri.

Itxura denez, hain frankista leial agertutako Lauzurikak eta Euskal Herriko beste hainbat elizgizonek ez zuten espero, kontsultarik gabe, Gobernuaren halako esku-sartzerik. Segur aski, ondoko asteetan, ahal zena egin zuten apaiz eta fraideek, ekaitzari aurre egin eta urak berbideratzeko; tokiko eliz agintariek ahaleginak eta bost egin bide zituzten beren iritzi eta ezinegonak Gotzainari ezagutarazteko. Ondoko gertakarien aurrean, hori da behintzat pentsa daitekeena, nahiz eta artxiboak horretan arakatzeko ditugun.

1937ko abenduko Agindu hari Diozesiko Buletinean eman zitzaion zehar-bidez erantzun ofiziosoa, segur aski ez Burgosko politika-bulegoetan zenbait kontsulta egin gabe. 1938ko martxoaren Iean agertu ziren Gasteizko eliz aldizkari ofizialean hizkuntz praxia Elizaren barrutik eratzeko Administrari Apostolikoaren arauak.

Hau da historia honen bigarren une ardatza: handik aurrera elizbarrutiak eta apaiz-erlijiosoek bazekiten beren Diozesi-agintariaren arauak zeintzuk ziren, eta horiei, eta ez besteri, zor zieten beren mendekotasuna. Zalantzarik gabe, Gobernuo sektore jakin baten eta militarren agindupetik at, eliz barneko burujabetasuna berreskuratu nahi izan zuen Lauzurikak, frankismoaren barnean hurbilen zituen indar politikoen babes segurtatuz, pentsa daitekeenez. Lehen Gobernu hartako Justizia Ministroaren laguntzarik izan ote zuen? Rodezno Kondea izan zen Ministerio horretan karlismoaren ordezkaria.

Euskal Herriko frankismoaren barruan, euskararena izan zen paper ofizialetara eta prentsaraino iritsi zen lehenengo auzi larria, Ministroaren eta Gasteizko Administrari Apostolikoaren artekoa, eta urak mantsotu ez ziren arte herrietako eliz jendea urduri egonarazi zuena.

Ministroak ez zion batere ez entzun egin Gotzainaren agiriari; aitzitik, aurrez aurre eta berehala oldartu zitzaion, publikoki gainera. Buletineko Gotzain-oharra hilaren batean agertu zen, eta I3an izan behar zuen indarrean. Bi aste tarte horretan idatzi zuen Ministroak erantzuna, Gotzainarena espresuki aipatuz: “El Boletín del Obispado de Vitoria...” hitzekin hasi zuen bere azalpena Martínez Anido-k.

Ongi azpimarratuta utzi zen testuan, Gotzainaren esanei jarraituz gero, bertan behera indargabe geratuko zirela Gobernutik emandako arauak: “[...] como esta disposición anula las órdenes que tengo dadas a los Delegados de

Orden Público [...]”. Hortaz, Administrari Apostolikoari begiramenik gabe eraso zion:

[...] los dependientes de mi autoridad considerarán como inexistente la mencionada disposición de la citada autoridad eclesiástica, velando por el cumplimiento de cuanto tengo dispuesto sobre este asunto, y deberán sancionar con el mayor rigor la menor infracción de lo ordenado con anterioridad (Torrealdai 1998: 125).

Esandakoarekin, agerian geratu zen bi botereen arteko desadostasun baten aurrean zeudela eztabaidako protagonistak, Eliza eta Gobernuak, eta bataren nahiz bestearen zerbitzariak: nor zen legezko agintaria eremu horretan, Gotzaina ala Ministroa? Martínez Anidok, bere prozedura eta tankerarekin garbi utzi nahi izan zuen zinezko aginteduna zein zen, nahiz eta ikusiko dugunaren arabera, zirrikituren bat ere irekita utzi zuen (“... y únicamente, por excepción...”).

Une hartan ministro batek eman zitzakeen oinarrizko arrazoi politiko eta soziolinguistikoak ezagutzeko, testu antologikoa da agiriko pasarte hau, eta merezi du hemen lekurik:

Alegar desconocimiento de la lengua española en provincias que son orgullo de la mayor cultura, y precisamente cuando está incrementada su población en estos instantes por un inmenso número de habitantes procedentes de otras regiones, sería ofensa grande para ellos y atentatoria a los sentimientos de hospitalidad el uso y abuso del vascuence, dando lugar a que los extranjeros que tan en contacto están con nuestra zona fronteriza, y que se afanan por conocer nuestra lengua y costumbres, observaran que a estas alturas, conceptos tan indiscutibles pudieran ser objeto de polémicas y discusiones precisamente en los momentos solemnes de la lucha contra los enemigos de la civilización y el cristianismo, formando un deplorable juicio sobre nosotros y, sobre todo, de la Autoridad que por debilidad o ineptitud consintiera [...] ese socavamiento de los principios fundamentales de la Nueva España (Torrealdai 1998: 127).

Horrela itxi zen aginte bietako erpinen arteko jendaurreko eztabaida. Handik aurrera, itxura guztien arabera, gobernatzaileak eta elizgizonak ibilera praktikoak bilatuz joan ziren, euskararen gutxieneko presentzia jasanez zibil-

militarrak (betiere berauen iritzi eta irizpideen mende mantendu nahiz erabilpen-maila eta unean uneko egokieraren gobernua), eta elizgizonen aldetik, eliz tradizioak eskatzen zuena eta tokian tokiko mehatxuek onartzen zuten erabilera segurtatuz.

Ministroak, bada, ez zuen uste izan atzera egin behar zuenik, eta 1938ko maiatzaren azkenean emandako aginduari eutsi zion Komandante Militarrek: “[...] en las iglesias no debe permitirse la predicación en vascuence [...]”, nahiz eta elizaratutako gehienek gaztelania ez bazekiten “[...] pueden autorizarse diez minutos de plática en vascuence [...]” (Torrealdai 1998: 135).

Arazoak, bada, bere bidezidor ofizialak ibili zituen, izan ere Katalunia Altxamendu Nazionalak menderatu zuenetik (1938-1939ko neguan), hizkuntzaren hau are minberago agertu zen. Bestalde, lehenago Gotzain bakar batekikoa izan zitekeena (Gasteizkoa, alegia), 1939an hainbat Diozesirekin zerikusia zuena bilakatu zen. Hizkuntza katalanaren lurretan, gainera, lehen ordutik menderatutako eskualde batean (Balearretan), Falangeko mutilak Josep Miralles Mallorcan Gotzaina aztoratzera heldu ziren, katalanaren kontra egindako gehiegikeriez (1937ko irailekoa izan zen honen protesta) (Guardiola 1980: 45, 99).

Horregatik, 1939ko urriaren 29an Serrano Súñer-ek Katalunia eta Euskal Herriko Gotzainei konfiantzazko galde-gutun bat zuzendu zien, denen arteko adostasun baten bila. Aginduak eman ordez, gutun honetan galdetu egiten zen, ea bertan aurkezten zien (eta geroago ikusiko dugun) erabilpen-irizpidea onargarri izan zekiekeen ala ez galdetu, alegia.

Gutun horretan, aitorten bat dago hemen interesgarria izan daitekeena: katalanaren eta euskararen eliz erabilpenak kezkatuta eta urduri zeukan Estatuko gobernu-aparatua, eta egoera Gasteizko Diozesikoa baino zabalagoa zen, gainera:

Es asunto que preocupa al Gobierno, el del uso público de las lenguas vasca y catalana y los gobernadores civiles nos consultan reiteradamente acerca del criterio a seguir en esta materia. [...]. Yo le agradecería me comunicase S. E. Rvma. su autorizado parecer y si sería prudente que los Prelados con jurisdicción en provincias catalanas y vascongadas, diesen instrucciones a los Párrocos en el indicado sentido; pues en tal caso este Ministerio se dirigiría a los Gobernadores para que supieran a qué atenerse (Torrealdai 1998: 147).

Kontsulta horren fruitua da ia bost hilabete geroago Gobernaziotik (oraingoan Idazkariordeak, eta ez Ministroak berak) konfiantzazko gutun bezala

bidalitakoa (1940ko martxoaren 14ko datarekin) (Torrealdai 1998: 151-153).

Datu hauek adierazten digutenez, Gobernuak Gotzainekin negoziatu zuen testu berria, eta Gotzainek hizkuntz arloko eliz agintea eliz barnean gorde ahal izan zuten. Horren kontrapisu gisara, ordea, irizpide eta praxi-eredu hertsia goa onartu behar izan zuten eliz agintariak. Gobernuaren aldetik, berriz, erabateko debekua albora utzi behar izan zen eta politika malguagoa onartu, kasuan kasuko egoerara egokituz. Agiriak Euskal Herriko eta Kataluniako Diozesietarako balio behar zuen. Neurri on batean eta nabarmenkeria handiren batean jausten ez baziren, tokian tokiko elizgizonek zeresan handia izan zezaketen ondoko praxi-bilakaeran, elizetako bizitza arruntean behinik behin.

Hori zen irabazi eta galdutakoa, negoziazioaren ondorioz; baina edukiaren arazo honek azalpen zehatzagoa behar du.

3. Emandako debeku eta arauetako edukiak

Historia honetan lau dira nahitaez gogoan hartu behar diren agiriak: a) Martínez Anido-ren debekua (1937); b) Lauzurika Gotzainaren arauak (1938); c) Ministroaren erantzuna (1938); d) Gobernu-Gotzainen arteko testu negoziatua (1940).

3.1. Martínez Anidoren debekua (1937)

Debeku hau, 1937ko abenduaren 17an sinatuta eta Probintziako Komandante Militarrek bidalita Guardia Zibilaren bidez iritsi zen Parrokia eta Komentuetara. Esan bezala, Donostiako Egia-Atotxako frantziskotarrenera heldutako agiri-papera ezin izan dugu eskuratu, baina bai Arantzazura Oñatiko Komandantziatik bidalitakoa. Hona beronen testua (AKA. XXXVI. Lib., 24. zk.):

GUARDIA CIVIL. PROV^a DE Guipúzcoa. PUESTO DE Oñate. [Zigiluan emana]

El señor Delegado de Orden Público de la Provincia, en escrito número 4759, de fecha del 17 del actual dice al Señor Primer Jefe de la Comandancia de la Guardia Civil de esta Provincia, lo que sigue:

«Ruego a V. se sirva ordenar a las fuerzas a sus órdenes que no toleren al clero de esta provincia el empleo de otro idioma que no sea el español en las pláticas y sermones que dirijan a sus feligreses, denunciando a mi

Autoridad las infracciones que se observen».

Al tener la distinción de trasladar a Vd. el preinserto y superior escrito, le ruego tenga a bien hacer las advertencias convenientes al personal de esa Comunidad, al objeto de evitar la imposición de sanciones por infracción de lo ordenado.

Dios guarde a Vd. muchos años.

Oñate 23 de diciembre de 1937. SEGUNDO AÑO TRIUNFAL.

El Comandante del Puesto. [Sinadura irakurtezina].

Rvd°. Padre Guardián de la Comunidad de Padres Franciscanos de Aránzazu. Oñate.

Agindu honek hiru alde bereziki azpimarragarriak behintzat bazituen, bere testu laburrean:

- a) Hitzaldi eta sermoietan debekaturik geratzen zitzairen elizgizonei gaztelania ez zen beste hizkuntzarik erabiltzea. Testu honek ez zituen aipatzen elizako bestelako lan eta harreman pertsonalak (aitorlekua, otoitzak, etab.).
- b) Agindua bete zedin, indar armatuez baliatuko zen Gobernuak; espresuki, Guardia Zibila izendatu zen agindua betearazteaz arduratzeko, premiazkoa izan zitekeen zainketa baten bidez. Bestalde, agindua bera ere Guardia Zibileko aginte-katean zetorrena zen, eta guardia zibil bakoitzaren egitekoa zen salaketak egitea.
- c) Tokiko eliz nagusiaren ardurapean geratzen zen erlijioso (edo apaiz) bakoitzari aginduaren berri eman eta berori betearazteko bertatik bertarako ardura.

Horrela, ordena publikoko arazo bilakatu zen euskararen eliz erabilpen mintzatua, predikua. Agindu hori gorabehera, ez zen hori bakarrik izan, zeren beste hainbat lekukotasun eta paperetatik baitakigu euskarazko katekesia eta otoitzak ere debekatu izan zirela.

Gutxienez Probintzia osorako emandako agindua zen abendu hartako hura (“Delegado de Orden Público de la Provincia”rena zela esaten baita), baina, zalantzarik gabe, Ministeriotik bertatik zetorrena (hurrengo martxoan Gobernazioko Ministroak “cuanto tengo dispuesto” esanez gogorarazten baititu agindu hauek). Testuak ez zuen ñabardurarik, ez interpretazio beharrik: bere horretantxe oso garbi zegoen.

Testu horretaraino iristeko Ministerioan zer-nolako lanketa egin zen ez dakigu, eta, geure artean, hiri eta herrietan agindua nola hartu eta bete zen ere ez. Parroko, apaiz eta fraideek nola saihestu ote zuten arriskua? Mementoz erdarara pasatuz, ala beste ihesbideren bat bilatuz? Hirietan eta herri txikietan berdin gertatu ote zen? Salaketarik izan ote zen? Zenbat, eta non? Ala elizgizonek men egin ote zioten, eta agian zenbaitek pozik ere bai? Gorago ikusi dugu Renteriak elizgizon gorazaleen artean suma zitekeen erdalkeria interesatuaz dioena (Rentería 1982: 340). Hala ere, aztertzeko dago dena.

Aginduaren Administrazio-barruko historia ezagutzen ez dugun bezala, haren aplikazio sozialarena ere ezezaguna dugu, baina badakigu egoerari Gotzainak nola egin zion aurre.

3.2. Gasteizko Administrari Apostolikoaren erantzuna (1938)

Gasteizko Administrari Apostolikoak, Lauzurika Gotzainak, bi hilabete luze hartu zituen Gobernutik su emandako auzi honi aurre egin aitzinetik; apaizgoaren iritziak jaso, errealitatea gertutik ezagutu eta kontsulta politikoak egiteko lain denbora bai, noski.

Bere goberna-moldeetan oso berea izanik ere, susma daiteke Lauzurikak konfiantzazko elizgizon minenen artean kontsultarik egin eta erantzunik jaso zuela. Gasteizko eliz artxiboan egon daiteke horretaz argibiderik, artzapez- eta parrokia-artxiboetan, eta, nork daki, agian Lauzurikaren artxibo pertsonalean. Bego hori, oraingoz, horretan.

1938ko martxoaren Ieko *Boletín Oficial del Obispado de Vitorian* (LXXIV, núm. 5) argitara atera zen Administrari Apostolikoaren “Circular núm. 7: *Normas para la predicación sagrada*” zeritzan idazkia, Gotzainak berak sinatua. Agiri honen bidez, Elizak eta Diozesiak (hiru Probintzietarako) definiturik utzi zituen eliz euskara mintzaturako jarrera eta irizpide ofizialak.

Hiruzpalau egiaztapenekin hasten zen gotzaina, berehala ohar eta arau zabalagoak emateko:

- a) Euskal Herrian beti izan du Elizak “el problema de la necesaria adaptación al pueblo fiel”, eta lehendik ere Gotzainek “repetidas veces, ya en público ya en privado, legislando y contestando a los variados casos que la práctica presentaba, habían dictado normas”. Horien artean zegoen, aipatu dugun Zacarías Martínez-ena.
- b) Oinarrizko irizpide hau finko utzi behar da: “El criterio fundamental que ha de regir en esta materia es el de la mayor eficacia de nuestros

ministerios sacerdotales. Que son harto gravísimos los deberes que sobre Nos pesan, para que en el templo santo de Dios hayamos de pararnos en otras consideraciones que en las de hacer realidad viva [...] el ejemplo de Jesucristo y las páginas del Evangelio”. Argudio hau, kasu honetan, euskararen erabilpen-premiaren aldekoa da, garbiki.

- c) Oinarrizko arau horren ondoan, hala ere, katekesiari eta predikuari betekizun hezitzailea ere ezagutzen zaie Gotzainaren agirian: “[...] pueden cumplir también una misión educadora [...]”.
- d) Ondorioz, hizkuntza ezberdinen erabilpenen arteko harmonia bat bilatu behar da, “procurando armonizar el amor y la reverencia que nos ha de merecer nuestra milenaria lengua vascongada con el fervoroso cultivo de la lengua castellana al que nos obliga a la vez nuestro inquebrantable amor a España”. Agiriak, beraz, euskararentzat begiramen nahi du, betiere garaiko diskurtso espainolista gaztelaniazalea ere aldarrikatuz: “[...] esta maravillosa habla de la cultura española por la que vertieron sus sublimes conceptos nuestros místicos y ascetas [...]”.

Irizpide hauen gain zortzi puntutan egituratu zen elizako hizkuntz politikarako arautegia: 1. Predikuaren gaia dogma eta moral katolikoak ziren. 2. Gai profano, zail eta garaiegiak alhora utzi behar zituen predikariak. 3. Sermolarien mintzamoldeak balio profanoez ez, baizik Jainkoaren espirituz landu behar ziren.

Puntu hauen ondoren zetorren agiri honen mami politiko-pastorala (mar-txoaren 13tik aurrera indarrean egon behar zuena: 8. art.), eta hitzez hitz honela zioen:

- 5º. Cuando el concurso de fieles posee y usa como lengua ordinaria la lengua castellana en ésta se les habrá de predicar la divina palabra.
- 6º. Cuando el concurso de fieles, en su inmensa mayoría no acostumbra a utilizar otra lengua que la vascongada, en ella se les predicará la divina palabra.
- 7º. En todas las funciones sagradas en las que se hubiere dirigido la palabra a los fieles en lengua vascongada, se hará un brevísimo resumen de lo explicado, en lengua castellana.

Agiriak erdaldun huts eta euskaldun elebidun arruntentzat gaztelaniazko predikua segurtatzen zuen, lehenik; euskara bakarrik zerabilen gehiengo nagusi

-nagusirik zegoen tokietan (hortaz, ehuneko altuko baldintza betetzen zenean), euskaraz egingo ziren sermoiak.

Azpitarratzekoa da, Gobernuarentzat jatorrizko euskaldunen gaztelania ulertzeko gaitasuna erdararen erabilpena hobesteko argudioa zen bitartean, Gotzainaren ustez euskararen hobespena beste bi datu hauetan oinarrituta erabaki behar zela: entzuleen euskararen erabilpen arruntean (“no acostumbra a utilizar otra lengua que la vascongada”), eta entzuleak gehiengo handiz euskaldunak izatean (“en su inmensa mayoría”).

Entzuleek gaztelania ulertzen zutela eta, erdarara lerratzea ez zen aintzako-tzat hartu Gotzainaren agirian. Alderantziz, Z. Martínez-ek 1924ko arauak ematean, hizkuntz ulerpen-irizpidearen gain formulatu zituen haiek, hori bai bi hiztun taldeentzat berdintasuna, kasik matematikoa, bilatuz eta heziketa erlijio-soaren urrezko araua ororen gainetik jarritz (*BOOV* 1924: I-4, 56-57).

Gotzainak erabileraren irizpide horri eutsi zion arren, beste puntu jakin batean eman zuen amore, ordura arteko tradizioarekin hautsiz: herri euskaldun elebakarretan ere, norentzat ez dakigula, esandakoaren laburpen motz bat egitea ezarri zuen (“un brevísimo resumen”). Baina, gaztelania hutsa erabil zitekeenetan, ez zen euskarazko laburpenik eskatuko.

Agintari zibilek, justu kontrako ikuspuntua izan zuten denbora batez: nonahi ere dena gaztelaniaz egin behar zen, eta herri txiki euskaldunetan euskarazko hamar minutuko laburpena eman, eta horixe agindu zuten Tolosa eta Igorreko alkateek, goikoen aginduz (Torrealdei 1998: I28, I35).

Bistan da, bada, euskararen ohiko erabilpenak zer bait galdu zuela Lauzurikaren agiri horretan; baina Martínez Anido-renaren ondoan euskararen aldeko funtsezko puntu batzuk, behintzat, ongi mugatu zituen berorrek:

- Euskara erabil zitekeen elizetako predikuetan, eta behar zen gainera, alde horretatik eliz tradizioa berretsiz.
- Entzuleen hizkuntz erabilpen-familiartekotasuna zen bata ala bestea hobesteko irizpidea, eta ez ulermen gaitasuna.
- Arauok emateak berak, elizetako hizkuntz arazoa eliz agintarien eskuetara bildu nahi izan zuen.
- Praktikaren kontrolerako ez zen deus antolatzen, tradizioz edo egoera soziolinguistiko euskaldunagoz indarrean egon zitezkeen hizkuntz ohiturei ere bide utziz.

Oro har, hizkuntz gobernabide instituzional hau ez zitzaion Gobernuari eramangarria gertatuko, eta, bere amore emateekin ere, urrunegi uzten zuen

elizetako hizkuntza bizitza gobernari frankistentzat onargarria izan zitekeen hizkuntz politika-eredutik.

3.3. Martínez Anido Ministroaren erantzuna (1938)

Gotzainaren kolpe honek aurrez aurre jo zuen aitzineko abenduko debekuan ageri zen hizkuntz proiektua. Eta esan dugu halaxe ulertu zuela Martínez Anidok, egun gutxiren buruan aditzera eman zuen bezala (Torrealdaí 1998: 125-127).

Ministroak gogorarazi zuen, Gobernuaren arauetan euskarazko predikua, otoitzak eta jendaurreko ekitaldiak, denak, zeudela debekatuta (“preces y predicaciones y en toda clase de actos públicos”). Gotzainak baliozko ezer irado-ki izan balu, onartzeko prest ere egon zitekeela esan ondoren, gogor eraso zion eliz agintariarenari:

[...] pero como lo que se logra es atender al principio de unidad de nuestra Santa Cruzada, dividiendo la población en castas y grupos y tendiendo a una disolución de espíritu, quedando al criterio y anticipada apreciación de muchas personas; todos los predicadores y oficiantes, al discernir el adecuado y oportuno uso de la lengua a utilizar, dando lugar a la consiguiente perturbación para los oyentes, tanto en el orden religioso como para el mantenimiento de la paz pública; ratifico la orden [...].

Interesgarria da ikustea hizkuntzen presentzia *kasta-banaketa* bezala definitze hori, eta zein garbiki iritzi zion, Gotzainaren bidetik joz gero, hizkuntz kontrolik gabeko egoera onartuko zela Elizako bizitzan. Berriro ere kontrolak Ordena Publikoko Ordezkararen eskuetan egon behar zuela azpimarratu zuen Ministroak.

Testuaren ondoko lerroetan, lehendik esandakoak garatu zituen, eta irizpide demografiko hutsen arabera banatu hizkuntzen erabilpen-lurraldeak. Hasteko, hiriak eta herri handiagoak jarri zituen alde batera (gaztelaniaren erabateko erreinua), eta, bestera, herri txikiagoak:

[...] ratifico la orden de que ni en la capital, cabezas de partido, ni pueblos de importancia se varíe o altere en lo más mínimo lo que tengo dispuesto sobre el particular, acerca del empleo de la lengua española; y únicamente, por excepción, en aquellos pequeños caseríos o pueblos de

la zona montañosa en donde la precaria existencia de escuelas y el alejamiento y escasa relación con los centros urbanos, pudiera aceptarse como ventajosa la aceptación del vascuence, por no ser perfecta la comprensión del español, podrá ser utilizado aquel, siempre a juicio del Delegado de Orden Público, que apreciará y autorizará la conveniencia de su uso.

Adibidez –diogu– Donostian, Azpeitian, Gernikan, Tolosan edo Ondarroan ezin zitekeen, inola ere, euskarazko sermoirik edo otoitzik egin, eta salbuespen bidez euskaraz egin zitekeenetan (esate baterako, Ataunen, Errigoitin, Zegaman edo Zeberion) Gobernu-Ordezkararen baimena beharko zen.

Esan beharra dago, ordea, Ministroak bazuela, itxuraz, arranguraren bat eliz agintariekiko, zeren hau gehitzen baitu bere agirian:

Respetuoso como el que más con los sacrosantos principios de la Religión, no quiero pensar un momento en que se me pueda atribuir la intención de la menor molestia y atentado con los preceptos de la Iglesia y sus Ministros [...].

Baina, aldi berean, gogoan zituen gerra eta euskal probintzietako arazo politikoa eta “los malos patriotas, que por desgracia aún hay bastantes dispersos y ocultos en los servicios de retaguardia”. Hortaz, konprenitu beharra zegoen neurri berezien premia.

Oro har, oso gutxi zen, idazki ofizialen arteko eztabaida horren bidez abenduko aginduari zuzendu zitzaiona; Ministroak berretsi egin zuen bere gobernu-kontrola eta zirrikitu gutxi utzi zion pastoraltzan hizkuntzak libreki erabiltzeari. Ministroa beldur zen egoera soziolinguistikoak egitarau politikoa desbideratuko ote zion, baina Gotzainak ezin zitezkeen egon ados ezarri nahi zen gobernu-prozedurarekin. Beste bideren bat bilatu beharko zen.

3.4. Gobernu-Gotzainen arteko negoziaketa (1939-1940)

Martínez Anido desagertzean, indar ezberdineko bi botereen arteko elkarriketari ekin zitzaion. Esan dugu. Gobernua, alde batetik, eta eliz Hierarkia frankista, bestetik (hau ere sistemaren barnean, hor barruan leialtasun frankistaren poderioz aurki zitzakeen aliatuekin).

Serrano Súñer Ministroak goitik lehen bultzada eman ondoren (1939ko urrian), Ministerioan beheagoko mailatik eraman nahi izan zituen arazoa eta

elkarrizketa. Formalki, lortuko zen akordioak (1940ko martxoan) ez zuen Ministroa izango sinatzaile, eta konfidentziazko zirkular gisara zabaldu zen adostutakoa, buletin ofizialera pasatu gabe. Bestalde, orain euskaraz ez ezik katalanaz ere arduratzen dira agintariak, bietarako arau orokor berak proposatuz.

Serrano Súñer-en kontsulta-gutunean ondoko puntuok dauzkagu. Euskara nahiz katalana, baldintza soziolinguistiko jakin bat bera betez gero, hiru unetan izan zitekeen onargarria, ordu eta lekuagatik gehienak euskaldunak ziren kasuetan: igande-mezetako sermoietan, katekesian eta arrosarioa errezatzeko orduan: “en todos los demás actos religiosos se utilizaría el español” (Torrealdei 1998: 147-148).

Zer pentsatzen zuten honetaz eliz agintariak?

Ministroaren galdera-proposamena probintziako gobernariarentzat irizpide bateratuak lantzeko aitzakia edo arrazoiarekin aurkeztu zitzairen gotzainei, eta goian ikusi ditugun testuen arabera, hizkuntz politika adostua lortu nahi zuen ministroak, agintari zibil eta eliztarren artean.

Gerrako porrotaren/garaipenaren ondoren, ez zen bertzutuentzako unerik lasaigarriena, halako galderak egiteko; hots, galtzaile garbi gertatzeko arriskuan aurki zitezkeen euskaldungoa eta katalan-hiztunak. Dena den, hasteko, hobe zen proposamen-itaun bat, Mz. Anido-ren eraso zuzena baino.

Hilabete haietako isilpeko elkarrizketaren ondorioak ondoko puntuetara laburbil ditzakegu, emaitzak 1940ko martxoaren 14an zabaldutako zirkularren arabera ulertu behar baldin badira, behinik behin:

- a) Formalki, konfidentziazko zirkularrak zioenez, eliz Hierarkia ados jarri omen zen bere erantzunetan Gobernuko irizpideekin, “hizkuntza nazionala eta eskualdeetakoak” elizetan nola erabil zitezkeen definitzean.
- b) Berriz ere, hiriburuetan eta herri handietan (eta baita baserri-herrietan ere) erdara erabiliko zen bakarrik: “con carácter de generalidad, en la predicación y rezos de todas clases en las capitales, pueblos de importancia y parroquias rurales, siempre que la gran mayoría de sus habitantes hablen o entiendan llanamente el idioma castellano”.
- c) Herri txikiagoetarako ebanjelioaren predikuan, katekesian eta ohiko errezoetan euskararentzat behin-behineko egoera bat onartzen zen, harik eta eskola bidez gaztelania ongi zabaldu arte. Hauetan, nolanahi ere, gaztelaniazko laburpen bat gehitu behar zen.
- d) Arau hauen aplikazioan, malgutasun baten premia azpimarratu zuen

agiriak (zalantzarik gabe, Gotzainek eskatutako baldintza), leku, denbora, pertsona, kultur maila eta abarren arabera malgutasuna.

- e) Arauok bete beharrean, Probintziako Gobernariak mugaz kanpoko zabarkeria handiren bat ikusiz gero, Gotzainari salatu beharko ziokeen egoera, eta beronek zuzendu ezean, edota hain zuzen Gotzainak berak arauak hausten baldin bazituen, beste ezertara gabe Ministeriotik emango zitzaizkion esanetara egon behar zuen Gobernariak.

Horrela, egiteko arruntak Gotzain eta elizgizonen eskuetan utzi ziren bitartean, inoiz edo besteko “gehiegikeriak” berriro aginte zibilaren menpe geratu ziren, edo agian negoziazio berrietarako aztergaitzat utzita. Horrela itxi zen zuzenbidezko eta politikazko auzi hau, teorian bederen.

Arauen praxia nondik nora joan zen jakiteko azterlanak falta zaizkigu, artxiboetan egin daitezkeenak, edo, zorte onik balitz, protagonisten oroitzapenetatik jaso. Oraingo, Donostia-Egiako frantziskotarren kasua bakarrik dakargu hona.

4. Euskararen debekua Donostiako frantziskotarretan

Euskararen eliz erabilpenerako debeku eta arauak ez ziren izan legeria edo Administraziooko gertakariak bakarrik, gizartera ere jaitsi zen haien eragina, eta haiek zegozkien agintari eta herritarrek, onerako nahiz txarrerako aintzakotzat hartu behar izan zituzten. Horregatik, galdetzekoa da zein izan zen, haien aurrean, herri eta elizetako burubidea, pertsonala eta instituzionala.

Arauek agintari zibilak ez ezik eliztarrak ere ukitu zituzten: Gobernari eta Gotzainak, baina, beherago, baita Alkate eta Parrokoak ere. Eta erlijioso-etxeak ez ziren geratu, honetan, albora. Hauetako bat zen frantziskotarren komentu donostiarra.

4.1. Bi kronikari: Narbaitza eta Amundarain

Komentu horretako jokabidearen albistegia bi kronikariren eskuetatik iritsi zaigu. Datuak badu interesik, biak ere nortasun oso ezberdinekoak baitziren.

Debekuaren lehenengo albistea eman ziguna Aita *Pedro Narbaitza* berriztarra suertatu zen (1911-1979). Bera izan zen komentuko kronikari ofiziala, 1937ko azaroaren hasieratik 1938ko apirilaren 28raino. Auziaren lehenengo lau hilabete eta erdian, Gobernu-debekuaren eta Gotzain-erantzunaren aurrean jarraituta-

ko etxe barruko politikaren lekuko zuzena izan zen, beraz, Narbaitza. Gizon honen soslai laburtu bat eman beharra dago hemen.

Pedro Narbaitzak 1927an egin zuen bere lehen fraide-profesa, eta 1935eko udan apaiztu zen. Bizkaitarra sortzez, ikasle gazte zela aukera izan zuen Errepublikan urteetan frantziskotarren orduko euskaltzaletze bizkorragoa Arantzazuko lagunartean ezagutzeko. Gerra lehertzean Bizkaian zegoen non-bait apaiz gaztea, eta gudarien kapilau joatea egokitu zitzaion. Hortaz, lehen gerra-uneak abertzaleen ikuspuntutik begiratzeko erraztasuna izan zuen.

Bizkaiko frontea erortzean, Narbaitza Donostiara ekarri zuen Probintzialak, beharbada jada orduan Ameriketara bidaltzeko asmoarekin. 1939ko urriko Komunitatearen atxilotetaren ondoren, Kubara joan zen eta han eman zuen gainerako bizialdi osoa, La Habana-n hil zen arte (ikus *Crónica*, I: 484-485).

Kronikari modura, betiere euskararen debekuaren kontzientzia ernea erakusten du Narbaitzak, lehenengo unean eta berehalako asteetan; alde horretatik, bere azalpenen hoztasunean ere, informazio-zerbitzu ona bete zuen, garaiko kronika ofizial batean esan zezakeena azalduz, eta, horrela, ondoko kronikariari egiteko bera samurtuz. Hizkuntzarekikoak, albistea errepikatuz ere, beti inolako iruzkinik gabe eman ohi ditu. Gizon kritiko eta zorrotz modura gogoratzen dute ezagunek Narbaitza.

Izaera eta aiurritz, bestelako gizona zen gure historia honetako bigarren kronikaria: Aita *Jose A. Amundarain* orendaindarra (1903-1993). Zalantza handien ondoren egin zen apaiz, hain zuzen garaiko Rekondo Probintzialak bultzatuta (1929). Eskuetan jartzen zitzaizkion mandatuetan, langile arretatsua zen; ardura horrek eramanda, datu, xehetasun eta objektibotasunaren eskrupulua izan zituen bere grina eta ezinegon.

Donostian bizi izandako urteetan (1931-1940), Probintziako Ekonomoa (1934-1940), Idazkaria (1935-1937), eta komentuko Nagusiordea izan zen (1937-1940). Nafarroako Erriberrin egonaldi labur bat beteta (1940-1943), Arantzazun jarri zen bizitzen, lehendabizi apaiz-zereginetan, eta gero Santutegiko aldizkarien administrazioan lan eginez.

Sermolari handietakoa izan gabe, predikari fina zen, erdaraz eta euskaraz. Donostiako komentuko kronikaria izan zen gerraurretik (1931-1936), eta ondoren (1938ko apiriletik 1940ko abuzturaino) (*Crónica*, I: 521-522). Segur aski, Kantabriako Probintziak XX. mendean izan duen tokiko kronikari onena izan da Amundarain, eta harritzekoa gertatzen da batez ere Arantzazun utzi duen albiste-harrobia. Berriemaile modura, fidagarritasun osokoa da Amundarain.

4.2. Komentuan nork hartu zituen erabakiak?

Kronikari berriemaileen ondoan, agindutakoa betetzeko batez ere komentuko Nagusiak zeuden. Debeku-gertakarien unean A. Mitxelena zen etxeko Nagusia, eta Aita K. Apraiz, Probintziala. Maila probintzialari gagozkiola, esan dezagun Kontseiluak (*Definitorio* deituak) Arantzazun egin zuela berehalako bere bilera, 1937ko abenduaren 28 eta 29an, baina ez orduan eta ez ondoko sei hilabeteetako bileretan ageri da arazo honetaz ezer (*Actas Definitoriales*, II: 40-50).

Egia esan, agian ez zen Probintzi Kontseilu hori auzigaia erabiltzeko lekurik onena, zeren bertako lagunak holatsu defini bailitezke: bost euskaldun diplomatiko (Apraiz, Egiluz, Bikuña, Zelaia, S. Larrañaga), abertzale isildu bat (B. Madariaga) eta bi frankista ezagun zeuden bertan (Miangolarra/Gutiérrez). Probintzi mailan erabaki behar zena (halakorik izan baldin bazen), segur aski Aita Probintzialak deliberatu zuen, kontsulta ez-formalen ondoren.

Donostiako *Discretorio*ko aktek ere –Komentu-Kontseilukoek alegia– ez dute deus esaten honetaz. Badakigu, garai haietan (praxian, bederen) Kontseilu horrek arazo ekonomikoak bakarrik begiratzen zituela. Horregatik guztiagatik, susmoa dugu etxeko Nagusiak Probintzialarekin hitz egingo zuela, irtenbideren bat hautatzeko, izan ere hurrengo hilabeteetan egindako *Discretorio*-bileretan ere ez baita deus esaten honetaz.

Paper hain ofizialetatik izan gabe, Kronika ofizialetik dakizkigu ezagutu ahal izan ditugunak. Honek ere ez du deus esaten, Komentuan edo Probintzian segitu izan zen debekuarekiko erabaki-prozeduraz; komentu hartako fraideek debekuaren ondoren jarraitutako jokamolde praktikoaz bakarrik ematen zaizkigu berriak. Honetaz dakiguna bilduko dugu hona.

4.3. Egia-Atotxako frantziskotarren jokamoldea

Nondik nora joan ziren, bada, Egia-Atotxako burubideak?

Hasteko, egitar euskaldunen sentiera ez zuten mindu nahi izan fraideek, aldakuntzak besterik gabe ezarriz, hau da, euskara utzi eta gaztelaniara pasatuz. Baina, Gobernuaren mehatxuetatik libratzeko, badirudi hautabide salomondar batetik jo zutela:

Este mes debido en parte a la delicada salud de los padres de la Comunidad y en parte a la prohibición de predicar en vasco, ha habido menos predicación que de costumbre (*Crónica*, I: 348-349).

Abenduko Kronikan ezin izan dugu baieztatu gaixotasun haien benetakotasuna, eta erratzeko arrisku handirik gabe, esan daiteke aitzakia zurigarri bat zela hori, igande haietako *lanuztea* garbitzeko; izan ere, hurrengo otsailean berriro agertzen baita arrazoi bera, baina ez gaixorik (*Crónica*, I: 357). Hau horrelaxe zela ikusteko, 1938ko urtarrilaren amaieran emandako esplikabidea ekar daiteke hona:

«Predicación en casa». Se ha predicado en casi todos los domingos. En la Misa de las 6 1/2 todavía no se ha empezado a predicar debido a las circunstancias especiales en que está la predicación en vascuence (*Crónica*, I: 353).

Bistan da ondoko hilabeteetako konponbidea ez zegoela Egia-Atotxako eta beste eliza-komentuetako apaiz eta fraideen esku, eta guztiak ere goiko eliz agintarien aginduen zain zeudela. Gotzainaren arauak indarrean jarri ziren igande beretik euskarazko sermoiek ere beren betiko lekua izan zuten (martxoaren 13an):

Hoy se ha empezado de nuevo a predicar en vascuence en la Misa de las 6 1/2. No se había predicado desde el mes de Diciembre (*Crónica*, I: 358).

Martínez Anido-ren erantzuna ezagutzean, berriro ere zalantza eta beldurra jabetu ziren komentuetan, lehenik igande arrunt batean (martxoaren 27an) eta geroago Aste Santuko ospakizunetako Nekaldi-hitzaldian (apirilaren 15ean):

Hoy se ha dejado de predicar en vascuence en la Misa de 6 1/2.
Se han celebrado las funciones [Aste Santukoak] con algunas variaciones, vgr.: la predicación ha sido exclusivamente en castellano, incluso el sermón de Pasión del viernes santo por la mañana (*Crónica*, I: 359, 365).

Memento, Gobernuaren agindua nagusitu zen, eta goizetako Maiatzeko Loreetako hizkuntzarena papereratzean (euskaraz egin ohi ziren goizeko hauek), kronikari berria (Amundarain) bere isil-misilean, kexu da gertatzen ari denaz, eta ez du utzi nahi debekua aipatu gabe:

Comienza el ejercicio de las Flores de Mayo. Se hace el ejercicio en castellano tanto a las 7 de la mañana como a las 7 de la tarde, por no haber autorización para hacerlo en vascuence por las mañanas, como en años pasados (*Crónica*, I: 367).

Badirudi elkarren jarraian idatzi zuten bi kronikariak, behintzat, ez zeudela ados gertatzen ari zenarekin; ez dakigu sentiera hori zenbateraino zen gainerrako fraideena. Nolanahi ere, 1938ko Jesusen Bihotzaren hila iristean (ekaina), debekuak bazuen artean indarrrik Atotxako bizitzan:

Comienza el ejercicio del mes de junio en honor del Sacratísimo Corazón. Se hace el ejercicio a las 7 de la mañana y de la tarde. Por las tardes con exposición solemne y asistencia de la Comunidad. No se hace nada en vascuence por estar prohibido hacerlo (*Crónica*, I: 372).

Abuztua iristean urak errota berera doaz, baina kronikariak, osterera ere, ez zuten esan gabe utzi nahi zergatik ari ziren gauzak horrelaxe gertatzen:

Por la escasez de personal en condiciones de predicar, y por atender mejor al Confesonario, se ha suprimido la predicación en la Misa de 6 1/2, que se reanudó en mayo último. Toda la predicación es en castellano, pues se ha prohibido hacerlo en vascuence (*Crónica*, I: 383).

Amundarainek —euskalduna izan arren (eta euskaltzalea), honela ari zenean— ez zuen idazten arrazoi euskaltzaleengatik, euskaldunei egiten zitzaien kalte pastoralagatik baizik. Orendaindarra ezagutu zutenek eta Kronikaren irakurleak esplikabide logikoena hauxe dute.

Udazken aldeko bederatziurren eta hilabeteetan egoerak ez zuten hobera egin, eta kronikariak berriz dakar bere orrialdeetara lelo ezaguna, Arantzazuko Andre Mariaren, San Frantziskoren (urrian) edo Arimen (azaroan) bederatziurrenetan, eta Sortzez Garbiaren ospakizunetan (abenduan). Azken honetan, euskara kentzeak goiz-arratsaldeetako jende-banaketa aldatzea ekarri ote zutenaren susmoa ere badu kronikariak (*Crónica*, I: 389, 391, 402, 415). Azpimarra dezagun Donostiaz orokorrean esaten dena ere:

Comienza en este día [irailaren 9an] el solemne Novenario de la Virgen: por la mañana a las 7 en castellano (no hay autorización en todo San Sebastián para hacerlo en vascuence) con órgano y cánticos [...].

Novena de N. P. San Francisco. Por la mañana a las 7 (en castellano por haber prohibición de hacer en vascuence) con órgano y cánticos [...].

Día 2. Día de ánimas. Mucha asistencia a las Misas. Comienza el Novenario de ánimas: por la mañana a las 7 y por la tarde a las 6 1/2, cantándose al final el responso. Al acto vespertino asiste la Comunidad. Por la prohibición existente no se practica en vascuence por la mañana el Novenario [...].

Horrela ageri zen hori dena 1938ko urte hartan, Egia-Atotxan, baina bada-kigu Donostiako beste eliz etxeetara eta inguruetakoa hainbat herritara ere joaten zirela frantziskotarrak komentutik: besteak beste, hilabete haietan Zegama, Altza, Oiartzun, Beasain, Soraluze, Usurbil, Leitzza, Arroa, Arrazola edo Aizarnazabalera, adibidez. Euskaraz egin zirela hauetakoa asko, uste izan dugu, baina ez da hori batere segurua, zeren jakin izan baitugu gaztelania sekula entzun gabeko zenbait herrixkatan denboraldi batez erdaraz bakarrik egin zirela, nonbait, elizkizunak (Bizkaiko Zeanurin, adibidez). Baina, okerreanean ere, laster hasi ziren salbuespenak agertu eta ugaritzen: 1938ko urrian, A. Mitxelenak zazpi sermoi hizkuntza bitan eskaini zituen Donostiako Pobreen Ahizpatxoan Zaharren Babesetxean; beraz, euskaraz ere bai (*Crónica*, I: 399).

1939ko lehen sei hilabeteetan, Amundarain kronikaria ez zen astez aste edo bederatziruenez bederatziruenez arazoak beti esanak errepikatzen ibili, baina urte hartako ekainera iristean ondoko ohar hau idatzi zuen, Donostiako elize-tako une hartako egoera adierazten diguna. Aurreko eta ondoko pasarte gehienak baino esanahitsuago gertatzen da berori; esanahitsuak, diogu, artean Gobernu-Gotzainen arteko negoziazioak bere emaitza ez baitzuen eman, eta, gainera, Donostiako hiriburuan ari zen jazotzen esaten zaiguna, ez nonahiko zokotan:

«Ejercicio diario del mes de junio». Como en los años anteriores; pero todo en castellano, incluso el acto de la mañana por no haber aún autorización de las autoridades militares para hacerlo en vascuence como antes. Sin embargo, se ha oído que ya en muchas iglesias de San Sebastián, o al menos en algunas, han comenzado a usar el vascuence en los ejercicios de piedad, etc. por las mañanas a primera hora; e incluso en la predicación. Realmente, por los que se confiesan en vascuence

sobre todo a primera hora, se deja ver cuán conveniente sería se predicara también algo en vascuence para los que no pueden por ignorancia y desconocimiento de la lengua castellana recibir la instrucción religiosa en castellano (*Crónica*, I: 453, 510).

Bistan da euskararen kristau arteko betidaniko hizkuntz ohiturak indar gehiago zuela, hirian izanda ere, Gobernuko agindu makurrak baino (Egiako euskaldun elebakar praktikoak ez ziren hain gutxi, nonbait), ezarri nahi izan zen eguneroko eta nonahiko kontrola zorrotz eramaten ez baldin bazen, behintzat.

Donostiako elizetan euskararen eliz erabilpena ohiko moldeetara zetorrela zirudienean, ordea, ezusteko gogor batek jo zuen Egia-Atotxako frantziskotarren Senitartea: 1939ko urriaren Iean, igandez, Komunitate osoa, Aita Probintziala barne, atxilotu eta komentua itxiarazi egin zuen Rivas Gobernariak, eta dena, abertzale hildako baten alde meza eman zelako. Normaltasun-eskea, hizkuntzarena baino etxearena berarena lortzea izan zen berehalako hilabeteetako buruhaustea, harik eta hori 1940ko otsailean erdietsi zen arte (Intxausti 2005: I51-I56).

Hala ere, komentura itzultzean, kronikariak errepika zaharra kantatu beharko du ostera, gauzen egoera ez dela pastoralean normaltasunera itzuli adierazteko (*Crónica*: 497, 499-500, 510):

«Siete Domingos de San José» en las Misas de 6, 7 y 8 con muy buen concurso. Todo en castellano por no haber autorización para hacerlo en vascuence como se ha hecho tradicionalmente en las primeras Misas. [Atotxa, 1940-02].

«Viernes Santo». A las 6 1/2: sermón de Pasión y Vía-Crucis solemnemente con asistencia de más de 200 personas. Todo en castellano por no haber autorización para hacerlo en vascuence. [1940-03-22].

«Novena de San Antonio». A las 7 de la mañana y de la tarde como otros años, todo en castellano (antes se podía hacer a la mañana en vascuence). [Atotxa, 1940-06-05].

Gobernuaren politikak batez ere bizitza hiritarra erdaldundu nahi zuen, azkar eta gogor (ikusi dugu testuetan erabaki hori). Horregatik samurragoa zen, lehendabizi, euskarari herri eta auzoetako elizetan leku egitea; kontrol ofiziala ere zailagoa baitzen han, segur aski, hirietan baino.

1940ko martxoan A. Mitxelena Martutene auzoan aurki genezakeen Misio bat euskaraz ematen (*Cronica*, I: 399, 501), eta akordio haren ondoren, elizgizonek ohitura zaharretara itzultzen ari ziren; ez, noski, beti euskararen ohiko erabilpean maila bera irabaziz, baina bai debeku eta muga sobera itogarrietatik irtenez.

Urte horren amaierarako urak beren arrora edo biltzen ari zirela dirudi, zeren Atotxan bertan eta Donostiako Artzain Onaren elizan bederatziurren bikoitzak eman baitziren (1940ko azaroan), bata euskaraz eta bestea erdaraz, Lizarralde kronikariak dioenez, eta hurrengo urteko data beretan berdin egin zen (*Crónica*, I: 529, 530, 556):

Empieza la Novena de ánimas; por la mañana: a las 6 1/2 en vascuence; a las 7 en castellano. [Atotxa, 1940-II-02].

Los PP. Aranguren y Lasa predicán sendos Novenarios [de ánimas] en la Parroquia del Buen Pastor. El primero por las tardes en castellano; el segundo en vasco por las mañanas. [Artzain Ona, 1940-II-02].

Esta noche ha comenzado a predicar el P. Secretario [P. Aranguren] el novenario de ánimas en el Buen Pastor en castellano. [...]. El P. Lasa comienza el novenario de ánimas en vascuence en el Buen Pastor. [Artzain Ona, 1941-II-01/02].

Protagonistak ezagututa, badirudi Ondarroan Arangurenek eta Lasak emandako Misioa (Arakama parroko zegamar karlistaren gidaritzapean) euskaraz egin zela (1941eko azaroan); eta are segurtasun osoagoarekin gauza bera esan daiteke D. Garmendiak San Ignazioko Parrokian emandako Sortzez Garbiaren bederatziurrenaz. Egia-Atotxan ere bederatziurren bera goizeko elizkizunean euskaraz egin zen, data berean (1941eko abenduan) (*Crónica*, I: 558).

Serrano Súñer-ek euskara hirietatik kanpo nahi izan arren (gogora “capitales, pueblos de importancia” hura), horra nola sartzan zen hizkuntza zaharra hirietan ere, gaixorik, ahul eta eskas, baina presente.

1941-1943. urteetako hilabeteetan Egia-Atotxan lortu zen euskararen normaltasuna diglosikoa zen, noski, baina kasik lehengo tamaina-modura itzulia. Erregularitasun batez egiten ziren euskarazko elizkizunak, iraunkorki, igandeko mezetan bezala prediku-sailetan (Misioak, Gogo-Jardunak), nahiz eta galdu ere zerbait galdu zuen: goizetako seietako eta zazpietako mezak, sei eta erdietako bakarrera mugatu ziren; baina Ostiral Santuko Nekaldiko Sermoia berreskuratu ahal izan zen euskaldunentzat (*Crónica*, I: 565, 566, 567, 584).

Ondoko urteetan, Gobernu-debekuen itzalik gabe, baina hiriak ekarri zuen erdalduntzearen zamapean eratu zen elizako elebitasuna (*Crónica*, II: 24 [1944], 153r [1952]; III: 15 [1955]). Vatikanoko II.ak ekarriko zituen, azkenik, planteamolde berriak, baina ordurako Egiako demografia erdarara askoz lerratuagoa zegoen, hiritartze-fenomenoaren barruan.

1940ko hamarkadan eta gero Erregimena hizkuntzari zor zitzaion errespetutik eta hiztunen hizkuntz eskubideetatik urrun ibili zen arren, Elizaren zenbait euskarazko azalpen ofizialago ere jasan egin behar izan zuen hark, sinestuen euskalduntasunak behartuta. Alde horretatik, nola-halako esanahi soziala duen Egia-Atotxako sermolaria bati dagokion 1946ko albiste hau (*Crónica*, II: 41): “El Padre Guardián [Lasa] ha tenido una alocución radiada en vascuence, con motivo del Congreso Euscarístico”.

Gerrak baldintzaturik, alde errepublikanotik ihesi etorritako zenbait fraide etxean zela, hizkuntz eskubideak eskatzeko nahiz euskaltzaletasuna agertzeko adore berezia behar zelarik, eta fraide-talde osoaren atxiloketa bat tartean, mozerro samar jokatu beharra zegoen. Horregatik beragatik ez zen indartu, nahi bezain laster eta lehengo punturaino, komentuetako euskararen *statusa*.

Hori guztia gorabehera, egon zen Atotxan hamarkada oso beteko predikari-ibilaldia egokiro bete zuenik (J. Lasa), eta etorri ziren ahots berriak ere, beharbada –arrazoi guztiz–berreskuratutako *statusa* motz eta jasanezin aurkitu zutenak. Belaunaldi berri bat hain zuzen hau, gogo berriztatuak zekartzana (S. Mitxelena).

5. Azken begiratua

Aurreko orrialdeek ez dute ispilatzen euskarak urte haietan bere bizitza sozial orokorrean jasan zuen eraso. Gu, hemen, frankismoak eliza barnean euskarari jarri nahi izan zizkion muga hertsiez aritu gara (eta agiri jakin eta elkarrekin lotutako batzuetara mugatu). Bere mugatasunean, gertakariak interes originala du, besteak beste sistema frankistaren barruko kontraesanetako bat euskararen eta katalanaren inguruko hau dela erakusten baitigu auzi honek.

Une jakin hartako testuingurua gaindituz, euskaldungoaren hizkuntz historia zail eta luzean 1937-1940. urteetako honek badu beste berritasunik ere: euskararen kontra, orduan sartu zen elizetan barnera Estatua, lehenengoz halako indar eta eremu zabalean, eta ez zen gainera une bateko kontua izan, gerran eta gerraostean ia bi urte eta erditan luzatu zena baizik.

1937ko abenduko debekua, bere gordinean, euskararen aurka egun argitan sekula hartu izan den zitalenetakoa izan zen: hasteko, erabateko debekua, alegia. Eta, halakoxea zelako, modu orokor eta iraunkor batean ezartzen zaila, edo ezina. Izan ere, garaiko euskaldungoa –gerrarekin, hizkuntzaren kultur eta erakunde-mailan hain ahuldua gertatu zena–, parte estimagarri batez bederen, bere hizkuntza ohituretan praktikan elebakarra ere bazela esan liteke: erdara zekien euskaldun askok gaizki zekien, artean, bigarren hizkuntza hori. Halako bat-bateko administrazio-kolpeak baino min eta kalte handiagoa egin zion euskaldungoari, bere hizkuntz erabilpenetan, ondoko bi hamarkadetako hizkuntz politika orokorrak (1940-1960). Hala uste dugu, behintzat, hori baieztatzeko azterlanik ez dagoen arren.

Frankismoak –bere Falange-aren arrastoan– hitzunen bi geografia eta bi soziologia ezarri nahi zituen. Gaztelania sartu samarturik zen hiri eta herri handiak (zeinetan modernotasuna eta etorkizuna ageri baitira) erabat erdaldunak nahi zituen, euskararik gabeak, eta irizpide horixe zen elizetan ere nahi zuena. Hortaz, herri handietako gizarte hiritarra eta kultura erdaldunak ziren, harentzat, hizkuntz trukaketa osorako lehen atari handia.

Herri txikiek aski zuten beren ezbeharrarekin: euskarari gaina ezin hartu izana zen, ziotenez, haien eskastasun kultural nagusia. Horren aurrean, falangismo irekienak “tolerante” izateko zuhurtzia eskatzen zuen: *denbora bebar da eskolak, eta elizak ere, bere gaztelaniazko beziketa-lana burutu dezaten*. Hori gertatzean (guztiak elebidunak bilakatzean) izango da gaztelania hizkuntza bakartzat ezartzeko mementoa (pentsamendu hau ageri da Serrano Súñer-en galde-gutunean, eta ondoko erabaki negoziatuan ere: “... hasta tanto que una tenaz labor escolar...”).

Frankismoaren hiri/herri txikien banaketa horretatik hizkuntzen kultur soziologiara gatozela, funtsezko beste ideia bat honako hau da: ezjakin eta analfabetoen mundua da euskara, kultura eta historia idatzirik ez duena; nor-nahirentzat ere lotsaizun izan daitekeen hizkuntza. Jakitatearen gizarteak gaztelaniaz egiten du, eta gorako bide berriak ireki nahi direnetan, gaztelaniak ireki izan dizkie euskaldunei horrelako itzaropenak (Gaztela, Amerika: Inperioa).

Bereziki nabarmentzekoa da (hemen gutxi ikusi badugu ere), frankismoak euskara laidotu eta berorri izen ona kentzeko esan eta egindako lana: hizkuntza horrek ez zuen kulturarako balio, baina, badaezpada, alor horretatik kanpo uzteko ahal ziren erabaki guztiak hartu zituen Erregimenak.

Jokabide politiko horren barruan dago elizetako hizkuntz mundua eskuratzeko proiektua. Kristautasunean (eta beste erlijioetan) interes kultural handia duen arloa da politika linguistikoarena. Hori historian hala izan baldin bada,

esan beharra dago bestalde lehen frankismo hartan erakunde boteretsua zela Eliza, herriarengana iristeko lanabes eraginkorra. Honen hizkuntz politika maneiatzean, mezu-emaile horren bizitza hobeki kontrolatzeko erosotasuna irabaz zitekeen, baina ez da hori bakarrik. Espainia Berriko proiektu nazionalaren funtsean dago, azkenik, hizkuntz batasunarena ere: denek jakin behar zuten gaztelania. Baina –berriro ere– hizkuntz ordezkapena ere bilatzen zen ahalegin ofizialaren azken ikusmugan.

Bistan da, totalitarismoak ezin izan dituela autonomiak, aliatuenak ere, errespetatu. Bide horretatik, Gobernuak hortxe –Elizaren baratzean bertan sartzean– egin zuen topo elizgizonekin. Hierarkiak ezaguna zuen Monarkiaren mendekotasuna (1876-1936. urteetako Diozesi-Buletina irakurri besterik ez dago hori jakiteko), baina betiere eliz sistemari bere eguneroko oinezko autonomia ukatzen ez zitzaion bitartean. Mz. Anido-k hizkuntz debekua ezarri nahi zuelarik, botere-autonomiaren lege hori hautsi egin zen, eta, kolpe txar horrekin batera, herrian eta apaiz artean ongi errotutako hizkuntz tradizio errespetagarria ere, hots, elizgizonen herriarenganainoko zubi naturala. Hizkuntzaren auziak ozpindu egin zituen harmonia onean zebiltzan agintarien harremanak une batez, eta ez dirudi 1940an (testuak bestelakorik iradoki nahi duen arren) adostasun zinez onartura iritsi zirenik.

Eliza barnean, Lauzurika ez zen izan zalantza-malantzatan ibili zen gobernatzailea, eta itxuraz, apaizen artean iruditu zitzaizkion lekualdaketak beldur handirik gabe egin zituen. 1938an berak emandako arauak betetzeagatik agintari zibilek zigortutakoekin nola jokatu zuen Gotzainak? (halakorik egon baldin bazen behintzat; eta lehentxeago eta geroxeago izan zen halakorik). Eta zer egin zuen, Gotzain-arauak albora utziz, Ministroaren esanetara ibili zirenekin? (Donostian, bederen, halako franko egon baitzen).

Segur aski, lehenbiziko uholderik zakarrenak pasatzen utzi ondoren, Diozesiak eta apaizak ohiko usadioetara itzuli ziren, zalaparta handirik gabe, hemen ukitu dugun predikuen alorrean. Lehenengo kolpean, Ministroak irabazi zuen; ondoren, osorik ez izan arren, euskaldungoak, apaiz eta kristau xume euskaldunek. Lekukotasun eta azterlan berriek esango digute, agian, tokian tokiko egoerak zinez nolakoak izan ziren.

Gobernuaren agindua harturik eta Gotzainaren arauak jasota, badirudi noraezean aurkitu zirela herri eta hirietako elizgizonak; baina esan daiteke, hilabeteen harian, beren gain zuten ardura pastoralari (nahitaez komunikazio eroso eskatzen zuen zeregin horri) aurre eginez, herri euskaldunak euskaldun izan zirela elizetan ere, baina elebidunetan zailago gertatu zela lehenengo euskal maila berera itzultzea, nahiz eta euskarari ere lekuren bat (edo gehiago) berriro

eman zitzaion. Horretan ez zuten gutxi lagunduko aldekoagoak ziren inguru soziolinguistikoek, elizgizon euskaltzaleek eta eliz erakundeen irekitasun hobeak.

Egia-Atotxako kasuan, iraganeko ohiturei berriz helduz eta bertara bildutako fraide gazte berrien indarrez, etxean bertan, Donostian eta herrietan komentu horretako sermolaritzaren loraldia (euskarazkoarena ere) 1945-1955. urteetan ezar daiteke, hain zuzen hemen deskribatu diren gertakarietatik urte gutxitara.

Aztergai aberats bat dago 1937-1940. urteetako gertakizun hauetan: artxi-bo zibiletako espediente, Gasteizko nahiz Kataluniako Gotzaindegietako paper, Parrokia eta Komentuetako kronika eta agiri, elizgizon eta herritarren oroitzapenetan. Espero dezagun egonarri hobeagoko langilerik izango dela horretarako.

BIBLIOGRAFIA

- Atxaga, M., 1996, *EAJ eta euskara: eburn urteko bide malkartsua*, Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa.
- Azurmendi, J., 1979a, *Arana Goiri-ren pentsamentu politikoa*, Donostia: Hordago.
- Azurmendi, J., 1979b, *PSOE eta euskal abertzaletasuna : (1894-1934)*, Donostia: Lur.
- Basabe, L., 1935, “La predicación en la Seráfica Provincia de Cantabria” in *Homenaje a la Seráfica Provincia de Cantabria...*, 146-158.
- [Benet, J.], 1973, *Catalunya sota el règim franquista*, Paris: Edicions Catalanes de París.
- Boletín Oficial del Obispado de Vitoria (BOOV)*, 1938, Vitoria.
- “Congreso de literatura y predicación franciscana en euskera (1960, Arantzazu)”, *Cantabria Franciscana* 57-58-59, 1961. [Ale berezia].
- Carr, R., 1969, *España 1808-1939*, Barcelona: Ariel.
- Crónica del convento de los franciscanos de Atocha, 1923-*, Egia-Atotxako Frantziskotarrak, Donostia.
- Equipo Mundo, 1970, *Los 90 Ministros de Franco*, Barcelona: Dopesa.
- Etxaide, J., 1986, *Etxaide jauna*, Donostia: Erein.
- Euskaltzaindia, 1978, *Euskararen liburu zuria*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Évêché de Bayonne, 1910, *Congrès Diocésain*, Bayonne: L. Lasserre.
- Ferrer i Gironès, F., 1985, *La persecució política de la llengua catalana*, Bartzelona: Edicions 62.
- Franciscanos de Atotxa, 1927-, *Libro de actas del Discretorio*, Donostia, Komentuko Artxiboa.
- Franciscanos de Cantabria, 1937-, *Libro de actas capitulares y definitoriales*, Donostia, Artxibo Probintziala.
- Gandiaga, B., 1961, “El euskera en el Colegio Seráfico y en la carrera”, *Cantabria Franciscana* 57-58-59 [Ale berezia: *Congreso de literatura y predicación franciscana en euskera* (1960, Arantzazu)], 1961, 245-261.
- García Isasti, P., 2004, *La España metafísica. Lectura crítica del pensamiento de Ramón Menéndez Pidal (1891-1936)*, Bilbo: Euskaltzaindia. [N. B.].
- Garmendia, V., 1984, *La ideología carlista (1868-1876), en los orígenes del nacionalismo vasco*, San Sebastián: Diputación Foral de Guipúzcoa / Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Guardiola, C-J., 1980, *Per la llengua. Llengua i cultura als Països Catalans 1939-1977*, Barcelona: Edicions de la Magrana.

- Homenaje a la Seráfica Provincia de Cantabria en el septuagésimo quinto año de su restauración (1859-1934)*, 1935, [Arantzazu]: Impr. de la rev. "Aránzazu".
- Intxaurren, M., 1926, *La Iglesia y el euskera*, Pamplona: Imp. Federación C.S.M.
- Intxausti, J., 1978, "Abertzaletasun katalana eta hizkuntza", *Jakin* 7, 1978, 5-45.
- Intxausti, J., 1989, "Iraultzaren hizkuntz politika", *Jakin* 51, 1989, 69-86.
- Intxausti, J., 1990, *Euskara euskaldunon bizkuntza*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Intxausti, J., 2005, *Un convento en la ciudad. Historia de los franciscanos en San Sebastián y Egia-Atotxa*, Donostia: Kutxa Fundazioa.
- Iturralde, J., 1978, *La guerra de Franco. Los vascos y la Iglesia* (2 libk.), San Sebastián: Izarra.
- Lauzurika, J., A. A. de Vitoria, 1938, "Normas para la predicación sagrada", *Boletín Oficial del Obispado de Vitoria* LXXIV, 1938-5, 81-83.
- López Antón, J. J., 1999, *Escritores carlistas en la cultura vasca. Sustrato lingüístico y etnográfico en la vascoología carlista*, Pamplona: Pamiela.
- Martínez Núñez, Z., 1924, "Normas particulares para la predicación sagrada (Circular número 14)", *BOOV* LX, 1924, 1-4.
- Miguel Gómez, M., 1885, *Decretos y Constituciones del Sínodo Diocesano*, Vitoria: Imprenta de Cecilio Egaña.
- Onaindia, A., 1973, *Capítulos de mi vida, I: Hombre de paz en la guerra*, Buenos Aires: Ekin.
- Onaindia, A., 1975, *Ayer como hoy. Documentos del clero vasco*, Saint Jean de Luz: Axular.
- Pabón, J., 1952-1969, *Cambó* (3 libk.), Barcelona: Alpha, [1 libk., 1876-1918].
- Preston, P., 1998, *Franco, "Caudillo de España"*, Barcelona: Grijalbo.
- Primo de Rivera, J. A., 1952, *Obras completas de Jose Antonio Primo de Rivera. Edición cronológica*, Madrid: Dirección General de Información.
- Rentería, J., 1982, *Pueblo Vasco e Iglesia. Reencuentro o ruptura definitiva, I: Vizcaya en la diócesis de Vitoria (1930-1950)*, Bilbao: Itxaropena.
- Rossell, M., 1977, *La Generalitat de Catalunya. II. La política cultural*, Barcelona: Undarius.
- Sánchez Erauskin, J., 1995, *Por Dios hacia el Imperio. Nacionalcatolicismo en las Vascongadas del primer franquismo (1936-1945)*, San Sebastián: R & B. Kriselu.
- Solé-Tura, J., 1971, *Introducción al régimen político español*, Barcelona: Ariel.
- Tamames, R., 1975, *La República. La era de Franco*, Madrid: Alianza.
- Torrealdai, J. M., 1982, "Euskararen zapalkuntza (1936-1939)", *Jakin* 24, 1982, 5-73.
- Torrealdai, J. M., 1998, *El Libro Negro del Euskera*, San Sebastián: Tarttalo.
- Uribe, A., 1996, *La Provincia franciscana de Cantabria, II: Su constitución y desarrollo*, Arantzazu: EFA.

- Urrutia, A. (C.M.F.), 1923, “El euskera y la Iglesia” in *III Congreso de Estudios Vascos: Lengua y enseñanza (1922, Gernika)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 96-100.
- [Urrutia, J.], 1978, “Euskararen prozesu historikoari eragiten dioten faktore juridiko-legalak” in *Euskararen liburu zuria*, Bilbo: Euskaltzaindia, 383-440.
- Villota Elejalde, I., 1985, *La Iglesia en la sociedad española y vasca contemporáneas*, Bilbao: Desclée de Brouwer.

3

PEDAGOGIAK

Lehen bi ataletan hizkuntzarekiko jarrera sozialak eta jokabide politikoak ikusi ditugu, betiere iragan historikoari begira; orain, ezagutzaren eta ahalegin pedagogikoaren balioak azpimarratuko dira hirugarren parte honetan. Horretarako hiru idazlan dakartzagu hona.

Lehenengoak literatur didaktikako zenbait baliabide aurkeztu eta erakusten ditu, ohar teorikoen ondoren adibide praktikokoak ere proposatuz. Urte eta erdiko lanaren eskarmentu laburra jasotzen du batxilergorako eskainiriko idazlan honek. Komeni da argitalpen data gogoan izatea (1963-1964), idazkera bere molde zahar hartan utzi baitugu, ukitu gabe.

Bigarren lanak ere irakaskuntzari begiratzen dio, hizkuntzen eta euskararen historia sozialerako Eskolan leku bat irabazi nahirik. Hain diziplinarteko gaia den honek, hiztunen ezagutza eta gogo argitu eta susper ditzake, arriskuan diren hizkuntzak laguntzeko. Orrialde hauetan, munduko beste hizkuntzen itzulinguruan kokatu nahi dugu euskararen kasua.

Hondarreko idazlanak, XIX. mendeko euskal politikari eta pedagogo gutxi ezagun baten biografia aurkezten du, garaiko ideia politiko eta aurrerapen pedagogikoak lagun, eskolagintzari ekin eta euskara eta gaztelania ikasteko bizitza luze-ko irakats liburua sortu zuenaren biografia, L. Astigarraga Ugarte-rena alegia.

EUSKERA BATXILLER-MUTILLENZAT*

Nere ikasleekin zer egiten dudan agertzeko eskatu zait, eta honetaraxe noa lerro hauetan. Nere iduriz, irakasleok elkarren berri behar dugu jakin, eta lan hau elkar-hizketa honen atari gerta baledi, uste dut ez litzakela lan arras alferra izango.

Egiten dudanaren alkantzua konpreni dezagun, behar dugu lehenik jakin zein jende dudan nere klasean. Hara:

- 14'tik 17 urtetaraiñoko mutillak. Batxilleratoko laugarren eta bosgarren urteak.
 - Klase honetan denak euskaldunak dire: 18 bosgarrenean, 31 laugarrenean.
 - Batzuek ez dakite euskera haundirik. Hiru urteetan zehar guzietan idatzi dute zerbait. Irakurtzen ba-dakite, ta gramatika-puska bat ere bai.
 - Baserritarrak, 15 dire bosgarrenean; 19 laugarrenean.
 - Kaletarrak, 3 dire bosgarrenean; 12 laugarrenean.
 - Bizkaitarrak, 3 bosgarrenean; 4 laugarrenean.
 - Gipuzkoarrak, 15 bosgarrenean; 27 laugarrenean.
- (Klase-lanerako, gipuzkoar bezela kontatzen ditut bi napar: baztandarra bata, ta lizarragatarra bestea).

* 1963-1964, *Euskera* 8/9, 408-440. [Euskaltzaindiaren V. Biltzarrean irakurritako txostena]. 1963 ondorengo arau akademikoen arabera zuzenketarik ez dugu egin kasu honetan, hain zuzen ordutik honakoan burutu den arauketa nabariago gera dadin.

BATXILLERATUAN, EUSKERA IRAKASTEKO, BEHAR-BEHARREKOA DUGU POESIA EMATEA¹

I. Zergatik behar da poesia?

I.I. Giza-bideek eskatzen dutelako

Giza-izakia osotasun bakar bat da: adimen - irudimen - edermen - oroimen - nahimen - zentzumen... Guziok gizakiak dire ta sakabanatueziñak. Arimari ahalmen-zirrikitu batetik, hau da, gramatika hutsez, mintzatu nahi izatea zozokeria bat da, giza kontrakoa.

Gizonaren arima dantzari-taldearen idurikoa da, ta bere barne-bizitza jatorra makilla-dantza bat. Doiñu bakarrak zortzi-hamahi gizon jartzen ditu dantzari. Bakoitza guzientzat ari da, ta ez dezake iñork bere kasako dantzari asma; doiñu bakarraren deira talde osoak erantzuten du, ez denak berdin, baiña bai orok elkarrentzat. Honelatsu da giza-arima ere: ahalmenak ez dute sekula bakarkako aureskurik. Ideia batek, sentimenduak... ahalmen-talde dena jartzen du ekiñean eta batabestearen zerbitzuan. Holakoxea da giza-izaera.

Norbaitek gure arimari dei egin nahi badezaio, ez dezala ahalmen bakarra-entzat soilik izan liteken doiñurik jo, gizonaren batasun-kontra ariko bailitzake: gure ahalmenak elkar-nahasiak daude ta, hizkuntza bat erakustean, gizon osoari begira jardun behar dugu.

Gure barnean, giza-izate osoa esnatzen da egunsentiko xori-txiuntaren deira, ideia baten sorginkeriaz: millaka burutapen zahar iratzarriko dire hitzberritze baten eragitez. Eta sentimendu bakarrarekin ere berdintsu: lehenengoaren ondotik milla oiartzun jeikiko dire arimako ahalmen-ibar eta haranetan. Gizona, beraz, ahalmen guziekin ari da bere ekiñean: osokiro.

Giza-moldadura ta izan-modu hau ukaeziña da. Gizona ez da apalaz osatutako gela bat. Euskal-irakaskintzak gizonari begiratu behar dio, ta ez arima-barnetik larrutu ondoren, honen azalarekin, adimen-larruarekin, gelditu. Euskara ez dezakegu eraman gure arima-gelara urretxindor triste ta mutu baten antzera, kaiola itxi batean. Ideiek eta sentimenduek libre behar dute izan arima

¹ Poesia, ez da hemen bertso. Aipatzen duguna literaturaren argia ta ederra da: Jainko-izadien gozoa ta lillura hitzetan elurtu ta isuria. Mintzaira, poesiaren mirariz, eder bilakatzen da: horra literaturaren jatorria.

-kolkoan. Xori librearen iduriko (hizkuntzak gure gizatasunari zor dion zerbitzuan leial, gramatikakeriak ahazturik), euskerak zeru ozkarbi denak kurri behar ditu aldenik alde. Gramatikakeriak, teknika delako, barneko euskal-oiartzunak hesitu egiten ditu ta hil. Ez gaitezke, ba, hemen geldi. Hori ere bai, hori bakarrik ez. Bestela, delako euskalzaletasun batekin, euskeraren eta gizatasunaren traidore ta saltzaille izango gera.

Eziketak gizatasun-bideak iriki behar ditu. Hau da goiko horretatik datorkigun ondorioa. Gizagintza da irakasleen lana. Herriari begira ta herriari so leloturik, gizonaz ahazten denak, hau da: euskera irakatsiaz, herritasun bat gorde nahi lukela-ta, ikasleen gizatasunak herritasun-ur epeletan beratzera doanak ez du irripar ezirik merezi. Gure edukazioak umanismo izan behar du, ots: gizaahalmenak oro ekintza bakar batean jartzen ahalegindu, ta gizona, abaniku eder baten antzera, alde orotara iriki behar du. Benetan euskal edukapenik nahi baldin badugu, ekin dezaiogun giza-bide honi, baita euskera irakastean ere.

Sar dezagun euskera bein betiko ta sekula guzietarako edukazio jatorraren bideetan. Gizonak gere baitan daramakigun orkesta isil eta aberatsa esnatu behar du edukatzaillak. Eta gramatika-behatz bakarrez doiñua sortu nahi luken irakasleak zer-nolako orkesta-aidea ukanen du ikasleen arimengandik? Euskal-klaseetan ez gakizkiola mintza matematika-enteleguari bakarrik. Ez dugu oraindik aski gramatikatik, baiña bai zenbait gramatika-zarpilkerietatik.

Bai, ba-dakit. Esaten ditudanak teoria lausoak direla jaurtikiko dit norbait; baiña euskal-ikastoletan ibilli zeratenok konprenituko didazute. Mme. Staël'entzat, eziketa jakin-sentitzeak parean aitzina eramatea da. Nik ezin ikusi, ordea, gramatika maitagarriak zein eder-sentimendu eman dezaioken gizonari. Honegatik dio Alba Pelayo'k: Ederraren edukazio-balioa ikusi ez duenaren itsukeria bai dela galanta; nun aurki liteke izan ere gazteria sakontasunean hobeki zuzen dezaken biderik?

Estetika ahazten duenak ez dezake iñolatan umanismo egiazkorik egin, ezta edukazio jatorrik eman ere, ezta euskaltasun zuzenik sortu ere.

Kofesa dezagun: euskerak umanismo-lana egin behar du. Euskerari sakontasuna eman behar zaio gure izpirituetan; gure mintzairari giza-goibearen neurria zor diogu, giza-leialtasunez jokatu nahi badugu beintzat. Euskalduna ez da lehenen gizon ta ondotik euskaldun, konejuak lehenbizi abere ta ondoren koneju ez diren bezelaxe. Giza-errotik bertatik dator euskalduna euskaltasunez jantzia. Ta gizatasunari dagokion sakon-zabaleko euskera eman behar zaio ikasleari. Hau nahi ez baldin bada, aitor dezagun gaurgero gure euskaltasuna, zenbait udariatarren antzera, galtza motxekin uzteko asmotan gabiltzala.

Asmoak bestelakoak baldin baditugu, berriz, on-har dezagun bertanbera umanismo-bidea. Izan ere ez da gizatasun horren neurriko euskerarik izango, gizon osoa zehar eta giza-ahalmen guzien medioz lan egiten ez bada. Giza-arimaren erdi-erdian, bihotz-bihotzean, zuzter-zuzterean

landatu behar da euskera, hortik denboraren poderioz sustraiak izpiritu guzira zabal ditzan. Honela, landareak gogo osoaren zumoa izango du, edozein gogo-izpi ikutzea euskal-zuzter bat mugitzea izango da. Orduan, euskera barretik deserrotu nahi lukenak arima osoa oiñaze-samiñetan jarriko luke. Gure gizaera euskeraz mamitzen badugu, hizkuntza umanismo bidez eman zaigulako, ez da munduan gu deseuskaldundu gaitzaken indarririk.

Euskerak, gizatasun osoari begira dela, bete behar du bere zeregiña, ez baitezake gure gizatasunetik fitsik ere arbuia, euskaltasunaren etorkizunak berak ere horixe galdatzen baitigu.

Ta hitzak? Zer dio hitzak guk darabilkigun honezaz? Hitza beti izan da misterio. Bere baitan giza-izpirituaren beraren taupada daramaki, hitzaren errailetan bizia isuri baitu gizonak. Hitza ez da ideia soillik, ideia maitemindu ta enamoratu baiño: ideiarri gizonaren sentimendu, irudipen eta intziriak erantsi zaizkionean, hitza argitara jaio ditek.

Iñorengandik hitza jasotzean, Giotto'k eta Spagnoli'k pintatu diguten hura berritzen da. San Frantzisko'k hitz-egiten die bere xoriei ta, bukatzearekin, han doaz denak egalarri munduaren lau parteetara. Honen pareko zerbait dugu guk ere izpirituetan: hitzaren ideia atzeman orduko, isilpeko sentimendu aunitz esnatu ta egadan doazkigu arimaren urdiñean. "Ama" esango zait, baiña ama hori ez da mundura gizaki bat ekarri duen emaztekoa bakarrik. Hitzak inguru oparoa du: honela edo hala maitatu nuena da ama; egun batez eskoba-kirtena nere iztarrean hautsi zuena; bestean, gaixo ta triste nengoelarik, lau musu luze eman zizkidan emakume maitagarria... Bai, hitza sentimenduz troxaturiko ideia da, ta areago, zenbaitetan sentipen hutsa ere bai.

Gramatika sentipen-iturri izan ote da iñoiz? Euskal-aditza naiz sufijoak ikastean, bihozkada asko jaso ahal dituzue gramatiketatik. Behin egin dut gramatika-lan bat, baiño amodio-gose zeratenok ez joan, mesedez, hara.

Arrazoikeria hutsaren lejiar hitzak sentimendu oroetz garbitzen baldin baditugu, azkenean ideia bera ere erre egingo dugu. Unamuno'rentzat hizkuntza izpirituaren odola da, ta odol hau ez dezakegu gure barne-sentimenduen lisibarako erabil. Ez. Aintzira batera bota ahal duzue iñoiz harritxo biribil bat? Hara nola joan zen barnera, ideia adimenera bezala, ta ikus nolako uhiñak uraren loan, hitzak gure ariman biztu dituen sentimenduen idurizat.

Hizkuntzak giza-izpiritu darama bere kolkoan, ta ez zaigu zillegi aberas-

tasun hori ideia elkor batzuetara herstea. Gaurko euskaldunok denok konprenitzen omen dugu erdera; hau dela-ta, noiznahi egin omen dakiguke erderaz: predikuetan, mintzaldietan, irratian, errezoetan... Hauxe bai dela zozokeria geometrikoa! Euskaldun arimak konzetu poligonuz egiñak ote ditugu, gero? Holako jende "pratikuarentzat" erantzuna: bai ulertzen dugu erdera, zuek baiño langilleagoak geralako; baiña ez dugu berdin maitatu ta sentitzen, zuek bezin gizatiar baigaituzue. Ideia maite dugu, baiña areago amodioa.

Gramatika hutsak nahiz hizkuntza-teknikak eman ez dezaiguketena literaturak eskeiñi beharko digu.

Zergatik ez euskaldunon eder-sena euskeraz ezi? galde dezakegu literaturari xuxenagoan begiratuaz. Euskaldungoa, artistaren euskaltasuna, gorde nahi bada, baitezpadakoa da hau. Guk ere, Euskal-Herrian, ba-dugu zorionean eder-sentimen bat, bere hortan iraunarazi ta bizkortu behar duguna.

Gizonak edonun idoro dezake edertasuna, ta ikaslea euskeraz ikustera bultzatzen ez badugu, edertasun horiek denak, izaki guziak, euskeraren etsai billakatuko dire, honela erdera izango baitu edertasunak jario-bide. Ez ditzagun laga besomotz euskal-gogoak, eder senaz moztu ta irendurik. Bide honelan lanik ez egite hutsa euskaldungoari saldukeria bat egitea da. Itsumenik franko ba-dugu lehendik ere, gehiago sortu gabe. Idek ditzagun gure leihoak ta beha eder-mundu miresgarrira!

Eder-sena euskeraz esnatzea ahazten badugu, begira zer gerta dakiguken: mutillik azkarrenak eta argienak literatura-mundurako erbestean jaioko zaizkigula. Ez pentsa, gero, hau dena nunbait, noizbait eta nolabait jazo ditekenez beharra denik. Ez, zoritzarrez! Izenak ere eman litezke norbaitzuk gogortuaz.

Labur dezaizuedan honezkero ibilli dugun bidea. *Lehenen*, giza-osotasun bakarraren izenean eskatu dut poesi-edukazioa, gramatikaz ez dezakegula gizatasun hori ase-ta. *Hurrengo*, euskerarekin ezi egin behar ditugula gure mutillak esan dut, eta edukazio honen babesean literatura-bandera zabaldu dugu. *Hirugarren*, euskera umanismo-lana egitera bortxatua dela iruditu zaigu, esan nahi baita, giza-ahalmen orori begiratu behar zaiela, ta honetarako, berriz ere, ez dela aski gramatika. *Azkenean*, ikusi da gramatika-bidea ez dela nahikoa hitzaren ondo-sakona ta maitasuna dastatzeko, ta hizkuntzaren haundiak zerbait goikoagorik eskatzen digula: poesia.

Horra gure baso honetako bidetxigorrak. Gizonaren eta mintzairaren literaturarako deia erakusten digute gramatikaren eskasiak eta ahultasunak. Nolabait ere, hau dena arrazoi-bide negatibua da, baiña ba-da beste arrazoi sakonago ta jatorrago bat: eder-sentipenaren bikaiña.

Eder-sentimendu jatorrak arima-barnean duen edadura ikus dezagun. Agian, mistika-momentu zenbait salbu, nekez idoro liteke eder-sentimenduak baiño ahalmen gehiago ekiñera bultzatzen dituen ezer. Hementxe ari da izpiritua oso-osorik jardunean. Rizzi'k garbi esango du: estetika-esperientzian gizon osoak, pertsona denak, atzematen du objektu osoa: zentzuek ba-dituzte kolore ta doiñu-hots, adimenak baita forma ta ideiarik, irudimenak zenbait dastagarri, maitamenak nun lilluratu... Ta hau dena egintza bakar sorgiñean! Poesiak ez ahal dizue sekula halako eziñegon zerutiar bat barneratu? Ez zaituzte inoiz gozamen ase ta freskoz bete? Horra, ba, ederraren muin maitalea.

Eder-sena, instintua, ez da noiznahi bazter dezakegun zerbait. Passeri Pignoni'k esango digu: haurraren arima-moldaduran oiñarrizkoa da eder-sena, ta derriorrekoa mundu-ingururako bide bezala. Sen honen zabaleroa arimaren beraren edadura-parekoa da: ahalmen guziengan diardu, ta hauek denak sen horren zerbitzuan ari dire. Beraz, eder-esperientziaren bidez arimaren zabalgoibehe guzietan ukan dezakegu eragin gizatiar bat, eta guk nahi badugu, eder-esperientzia euskeraren zerbitzuan ta zerbitzurako jaiio ta izan dakiguke. Baiña poesia gramatikan, hizkuntzaren kalaberaz egiñiko presondegi horretan, ito nahi badugu, ta ikasleak elkorkeria hauekin lotzera erabakiak baldin bagaude, beste nunbaitetik helduko zaie poesiaren ederra, ta orduan, noizbait gure armarik onena izan zitekera, horra etsaiaren eskuetan geure kontra ta gure ondamentitan. Ikus nola lagun dezaiguen gure itsukeriak!

Ta oraindik ba-du eder-sentimenduak balio ahaztuezin bat: izadiaganaiño-ko biderik erosoena dela, jatorrena. Erljio-sentimenduak misterioaren atarira eramaten gaitu; sentipen honen xirripak garbitu egiten dizkigu begi lausoak. Erljio-sentipenak, materiaren behelaiñoz ikusieziñak zitzaizkigun zeru-goiak erakusten dizkigu: elkar ikusi gabe ere, esku emanda ibiltzera sakatzen ditu gizona ta misterioa.

Moral-sentimenduak gizona bere egintzeekin erlaziotzen du. Gizonagandiko egintzek ba-dute zerikusirik giza-izaerarekin, ta honen menpean neurtu behar ditugu. Eder-sentipenak, berriz, beste erlazio bat sortzen du, gizona errealidadearekin har-emanetan jartzean. Munduaren izakia bizikiro edoski dezagun, eder-sentimendua behar da.

Bai polliki esan digula Sartre'k munduaren eskasia: "Gauzak, bide-erdia bakarrik ibilli duten ideiak dire". Zugaitza, izar bat, hilargia, intza... : guziok izan ez baitire beren izangure, izan-gose, izkutuak nahi luken hainbat, eta guk, geuk, amodioz eta sentipenez osatu behar ditugu. Eginkizun honetarako bi tresna ditu gizonak: astrazioa ta estetika-sentimendua, baiña bakoitzak du bere zeregina.

Estetika-sentipenak, izadia atzeman eta osatzean, betekizun hauek ditu:

- a) Irakurleak jaso dezala olerkariaren mundu antzaldatua objetibidade ta sujetutasun osoan.
- b) Izadia, bizipen universalista batean atzeman, artea guziona ta guziontzakoa baita.
- d) Ikaslea askatasun-ekintza batera behartu, artea bere izaeraz zeharo librea baita. Honela, gaztearen libertade-eskeari irten-bide bat ematen diogu.

Lehenen bi puntu horiek ez ditezke beste medioz ardiets, eder-esperientziaz ez bada. Izadiaren bizipena, ta ederraren bidezkoa hain zuzen, beharrekoa zaigu gizonori, ta eder-esperientziara bultzatzen ez dugun mutillari izaera-behar hau egarritan uzten diogu. Gizonak deika dauka mundua, baiña dei hau eder-antenez bakarrik sar dakiguke bihotzera: autena hau zokoratu nahiz apurtzen duen maisua izadiaren eta gizonaren hiltzaillea, asesinoa, da. Sasi-maisua! (M. Dufrenne).

Eder-sentipenak munduaren esperientzia berri bat ematen digu: estilo bat, estiloa mundu-bizitzen ikus-molde berezi bat baita. Honegatik, estilorik ez duena gizon eskasa da, pobrea bere pertsonaren sakonean.

Metafisika ta psikologia-kutsuko arrazoiketaok utzita, gogora dezagun euskaldunok ere umanismua dugula, ta izan dugula, elburu. Euskal-Herrian ba-dakigu ez dela edozein nahi bezin gizabete. Gizongaiak ideal honetara eraman behar ditu edukatzaileak, ez dugu gizaxkarik nahi inun. Orain urte bete lagun bat joan zen, Meza Berrirako, bere herrira, ta haurtzaroko lagun batekin topo egin zuen. Hamahiru urte ziren elkar ikusi ez zutela. Harrezkero zenbait bizi-bidaia eginak! Ta gazte harek, mirestuta, isil-une batean goi-beheak begiratu ondotik, hauxe esan zion praille lagunari: “Bai, hi gizon egin haiz”.

I.2. Biderik baliotsuena dugulako

Ederra maitagarri denez, berebiziko inportantzia du urteotan. Hamalau -hamazazpi urteko gizona maitasunera jaiotzen ari da. Bere bizitza arrosa-pil-pira gorritz asean dabil, eta maitagarri orori besarkatu nahirik bizi da. Honegatik, indar eta egarri hauezaz balia gaitetzen euskeraren onerako. Baiña gure euskal-klaseetan eder-maitakizun gozoen orde, gramatika-ozpiña eskeintzen badiegu, segurki ez dugu gazte-multzo haundirik irabaziko.

Eder-gose hau euskeraz asetzen bada, sekula-sekuletan maitatuko dute gure ikasleek arbasoen hizkera, eskerronez begiratuko diote. Ederraren bidea lora-

bidea da, poz-iturriz ezatua. Hementxe dario gaztetxoak behar duen lillura-mendu-arno gozoa. Zillegi balitzait, edertasuna mistikuen gezi leguna dela esango nizueke. Gomuta Santa Teresa'ren gezi-zauritzea. Behin jasan duenak betiko du barnean.

Gramatikakeriak elkorrak direlako ere behar dugu literatura. Zergatik ez ditugu, ba, emango beharreko zaizkigun hizkuntza-arau horiek azukre gozotan bildurik?

Euskal-poesia oparoa da. Ez diteke idoro euskal-literaturan ezer helduagorik. Orain aipatzen dizuedan poesia, bertso-poesia da noski. Hain zuzen, urteotan, Batxilleratoan, behar dugun literatura-mota da gure artean mardulena. Ba-dago nun autaturik. Hori bai: aukeratu egin behar da, ez baitago –nik dakidanez– ikastoletarako behar litzaken antologiarik.

Mutilleri lehenbaitlehen erakutsi behar zaie gure poesia, beren gogoentzat eder-bazka nun topa dezaketen adieraziaz. Ederzale baldin bazerate, segur naiz: ba-duzue olerkari autaturen bat, zuentzat oso-osokoa dena, zuen eder-egarria asetzeko ur gardena. Nik ba-ditut nereak: Juan Ramón, Tagore, Otero, eta liburuetatik Gerardo Diego'k eraturako *Poesia Española Contemporánea, Antología* erderazkoen artean. Euskeraz, berriz: Aita Gandiaga'ren *Elorri* ta Josepe Azurmendi'ren poema argitaragabeak. Izpiritua erorita dudanean, arima zimeldurik daukadanean, horiek dire nere adiskide ta poz-emaille. Izadiak barnea berritu dezaigun, lehioak behar ditugu; aipatu horiek dire nereak. Idek ditzagun gazteen izpirituak, bihotz-kutxak, hor kolkoan, ederraren diztira sar dakien. Ta bereziki, erakus dezaiegun Euskal-Herrian ditugun aberastasunak, millonarioak baigera poesian. Txunditurik geldituko zaizkigu, gaiak eskatzen duen jatortasunez agertzen badiegu.

Erderaren pareko izan gaitzen ere behar da Batxilleratuan poesia. Erderak bere ikaskaiak ditu urtean-urtean maillatuak. Euskerari itxura onik emango badiogu, jantzi berdiña nahiz hobea zor diogu. Bestela, gure mintzaira bigarren maillakoa gertatuko da. Honek ondorio gogorak ditu.

Direla zenbait urte Ikastetxe bat ezagutu nuen. Ba-zen han ikasleek izkribatzen zuten aldizkari bat, euskeraz ere ematen zen zerbait. Ta euskeraren tamala!, besterik ezin zutenek euskerari heltzen zioten. Gure hizkuntza zen han eskapa-bide bakarra, edonork zezakena baitzen... Baiña urteen buruan ba-dakit gauzak aldaturik direna: ikastetxe honetako mutillik argienek –esan didatenez– euskeraz egiten dute gaur. Garai baten erbesteko lantegietara joango zirenak, orain euskeraz ari dire: euskerari begirunez eta itzalez begiratzen zaio. Ta diotenez, hau dena gramatika-husteria batzu ahaztu direlako. Euskera itxura-hobeturik dabil orain. Beste ikastetxe nagusi batean ere berdintsu: jaio zen egun batez errebista bat, eta bapatean ikusi zen han idazteko haiñakoak gutxi zirena.

Harrezkero euskerak errespetorik haundiena du, intelektual prestijio bat-edo du. Eta dena mutillik argienak bertan ari zirelako. Bai, euskerak zerbait haundirik egingo badu, gizon hauen zai dago.

Bide erosoen hauxe dugu, poesiarena. Hizkuntza bere zilborrari begira ausnarketan hastean, bildurtzeko da ez ote duen itsuskeriaren bat egingo. Gutxienik narzisismua da hori. Zerbait eman-behar gorrian jartzen ez badugu, gure aholku denei galdera honekin erantzungo die ikasleak: “Ikasi, ikasi... Zer deabrutarako, gero?” Gizon haundia egiten denean gauza ederrak egingo dituelakoak ez du gehiegi urduritzen. Hor, klasean bertan, eman dezaiogun zerbait adierazi beharra, ta beharkizun hau euskeraz sortu baldin badiogu, bere zerak holaxe agertu beharrean aurkituko da. Ederra euskeraz jaioa ikusi du, euskal-jantziz bizitzen ikusi du, ta honen ondoren nola demontre eman lezake hori dena euskeraz ez bada? Gramatika ere, bide batez, ikasi egingo du. Ikusia baitu mintzaira zarpillak ez duela barnean edertasunik gordetzen. Gramatikatik behar diren denak azter ditezke poesi-komentario on batean, geroxeago ikusiko dugun bigarreanean bereziki.

Euskera etorkizun-argipean jarri behar diegu gure ikasleeri. Ba-dela hor bide ederrik adierazo behar zaie mutillei. Zein mutikok ez du, noizbait, berekiko esan: “Nik idazle izan behar nitek...”, ta agian gehixeago: “... kapaz nauk-eta”. Ilusio hau ez da agian aitortuko, baiña bai barnean, txinbeleta maitagarri baten antzera, begira-begiratuko. Epitetu polit bat eman denean nahiz lantxo egoki baten ostean nolako poza mutillarena: zer esango ote dio, gero, maisuak?

Gaztea jaioko da, bai, egun batean eder-mundura, hau ere jaiotza baita. Oi euskal-klasean izango balitz! Lehen eder-musu hau euskeraz balitz, harrezkero hor genuke izadi oso bat euskaldungoaren alde. Izan ere hain da hunkigarria memento hori!

Oraindik gogoan dut une hura. Hamasei-hamazazpi urte nituen. Hazitxo beraz. Zenbait izerdi ordurarte, nunbait bizi zen ederra ikusi ta ikutu nahirik; baiña eziñak ninduen gatigu: beti haruntzaxeago zebillen ikusieziñeko ilusioa. Ta, hara!, bapatean eskutaratu: bera etorri zitzaidan, ez nintzan ni mogitu, ta neure eskuetan nuen edertasuna! Udaberriko arratsalde bigun bat izan zen; egun haretako azken ikas-ordua. Eguzkia epel-epel erortzen Errigoiti-aldetik. Mutillok ikasten geunden. Ba-dakit oraindik nun nengoen eserita. Leihoak zabalik zeuden. Urte haretan baizen sakon eta misterioitsua ez zait sekula gerta primadera, ta gure gela-aurreko udare-zugaitzak orduantxe ari ziren lora-edurrak urturik, horriz jazten...: Ta instant haretantxe ikusi nuen nik hitzaren ederra ta lilluramendua. Harrezkero, nere ustez, ba-dakit nora jo behar dudan idaztean. Gehienetan ez naiz helduko, baiña norakoa eskuetan daramat.

Horixe da gure lehenen eginkizuna, gure poesia hau ematean: une paregabe hori euskal-lanean etor dakiela; han nunbaitetik ematen zaigun eder-lorategi hau euskal amantalean eskein dakigula. Esan dezala mutillak: “Hau duk nere mundua, euskal-idazle izango nauk”. Baiña nola ardiets dezakegu holakorik? Lehen urrats honetarako izango da ikusiko dugun lehenbiziko komentario-bidea.

2. Nola eman behar da poesia?

Hamaika t’erdi era ta modu ba-dire edertasuna zabaldu ta aztertzeke, baiña horietatik denak, edo gehienak, hiru hauetara erakar litezke. Bide hauek ez dire euskerari bakarrik dagozkionak, hizkuntza guzienenak baiño.

Edertasun-bidean irakasbide denak ez dire mailla berekoak. Ta komentario denek ez dute zeregin ber-bera. Jar dezaizkizuedan hemen horietako hiru:

- a) *Eder-gosea piztu*, ederraren zastada sentiarazi. Arestian aipatu dudan eder-sentimendu horretara heldu. Hau agitz inportanea dela uste dut, eta gero etorriko direnetarako lehenen mailla.

Orain hamar urte, fraide egin nintzanean, bizkaitar Aita Maisu jakintsu bat izan nuen. Berak beti esaten zigun zera: “Begira, senti ezazue behin Jainkoaren gozotasuna, unetxo batean bederen, eta segur zerateke salbazio-bidean”. Artista-bizitzan ere berdintsu gertatu ohi da: une hunkigarri hori geugan suma bageneza, ederrerako deia gure baitan dukegu betirako.

Hau beharrekoa baldin bada, ez dezatela etxekonean ediren. Ederrerako biderik erosoena euskera gerta dakiela.

- b) *Ederra sortzeko teknika*: ez eder-etorria lotzeko, aurkezpen-erosotasunak emateko baizik. Betebehar honetarako egokia da benetan Correa-Lázaro’ren liburuxka. Ez da derrepente ongi ta nahi bezala erabilliko, baiña erabilliaren erabilliz laister mendera diteke. Bai egoki etorriko litzaiguke holako zerbait euskal-atalei ezarria!
- d) *Izadia ezagutu ta bizkuntza aberastu*. Aita Rizzi’ren jardun-bidea aproposa da honetarako. Zoritxarrez, hau dena aurrera eramateko ez ditugu iñun, Euskal-Herrian, beharreko genituzken hiztegi ta liburuak, eta zahartu ere egingo gera dena ardietsi arte.

Honera heldu geranez gero, ikus ditzagun hiru eginbehar hauetarako erabil litezken metodoak. Lehenik, xehetasun gutxirekin, metodo bakoitzaren teknika emango dut; ondoren, hori bera komentario batean erabillia. Ez dago zeresanik: hirurok goiko poesi-urrats horiek (a, b, d) emateko hartzen ditugu.

2.1. Lehenen metodoa

a) *Mugarriak*. Lau unetan osatzen dut nik. Bakoitzak bere betekizuna du.

1. *Irakurri*. Geldiro egin behar zaie mutillei. Arreta guziz. Sentidu guzia gordeaz. Behar bada ez dire denaz jabetuko, baiña hau hurrengo puntuan zuzenduko da. Hemen aski zaigu ongi irakurtzearekin.

2. *Uler-arazi*. Ez du fitsik gelditu behar illunpetan. Dena, oso-osorik, atzeman behar da: hitzak, esaerak... Ez da esan nahi, derriorrez, literatura-irudien zergatia ikusi behar denik. Aski da poesi-atala bere literaltasunean konprenitzea.

3. *Poesia-mundua sortu*. Komentario honetan, hau da momenturik garrantzitsuena. Hemen jarri behar ditu irakasleak gogo osoa, bere etorri ta ahalmen denak. Izpiritu gazteak eskutik eraman behar ditu, bere bihotzaren eder-taupadak suma-araziaz, edertasuna hunkitzera. Komentario-une hau da bereziki eder-izadian esna-arazteko berebizikoa. Zeregin hau betetzen badu (ez noski lehenen ahalegiñarekin), lortu du nekezena.

4. *Berrito irakurri*. Irakaslea deklamatzaille hona balitz, ainbat hobe. Leitu ondoren, deklamatu egin dezake orduan. Ez du olerkiak eta edertasunak ezer galduko, asko irabazi baiño. Komentarioaren ostean askozaz ere kapazago dugu gure mutilla olerkiaren eder-balioa dastatzeko: orain, ideia ta sentipenak bat eginda, beren osotasunean ikusiko ditu.

b) *Entsegu bat*. Aita Gandiaga'ren *Elorri* liburutik jasotzen dut poesia hau (77 or.). Aurrera igaro baiño lehen gogora dezadan zera: lehenengo metodo honetan ez duela inportantziarik poesiari zor zaion leialtasunak, olerkia ez baita hemen edermundua sortzeko aitzakia baizik.

I. *Irakurri:*

BEGIRATU dot, ta, ixiltasunak
bakartasunez bildurik nauka.

Klaustro mortuan gelditasuna:
aize gabeko ur lo bat dago.

Ez dagi arnas aide argiak
ezta zirkiñik mututasunak.

Noizik-beiñeko pausoak, praille bakarra,
gereiza dira..., gauza baiño.

Sortzen ez diran berbak ba-deutse begirunerik
zerraldo datzan aide zuri ta santuari.

Begiak emen. Begiak, diñot,
eta arimea jabetu jataz, entzumen utsez,
amestu nitun bazterrak baiño arutzagoz.

Eta biotzak
komentutzar au, neurea, diño,
gogobete ta nagusikiro,
berekaxa.

2. *Uler-arazi.* Eman dezaizkiegun behar diren hitz eta esaeren esanahiak. Adibidez hona: *Mortu* “desierto”. *Zirkin* “movimiento”. *Gereiza* “sombra”. *Zerraldo* “yacer largo”. *Datza*, = *etzanda dago*, “yace”. *Jabetu* “adueñarse”. *Entzumen* “oído”. *Komentutzar*, = *komentu baundi*. *Gogobete* “satisfecho”. *Nagusikiro* “como dueño”.

3. *Poesia-mundua sortu.* Hitzez-hitz joango gera aitzina, ta pauso bakoitzean, eder-jauregi honetan, ate berriak irikiko zaizkigu. Poesia honen gaiak eskatzen digunez, klaseko isiltasuna urratu-bildurrez mintzatuko gera:

- *Begiratu dot:* Begiak zabalik, dena begi, ikusmin, begi mirestuak arima -begietan. Gogoia kristalezko begi egin zait. Klaustroan ez naiz gorputz, fraide-arima bakarra baiño.
- *Ta:* Arima gorpuzgabetuak bihotzaren taupada mundura luzatu du.
- *Ixiltasunak:* Isilla ez da ezer, ez da zerbait. Astratua da hemen, ta deusezaren isilla gaiñera: isilla ezerezean murgildua.
- *Bakartasunez:* Ezerezaren jantzia. “Bakarra” Urlia egada geldian bizi da soillik. Luma ikusieziñezko dama da bakartasuna.

- *Bildurik*: Aize gozo-biguna bailitzaxe, maitasunak bihotza bezelaxe, bururakizun epel batek gogoa lez. Bakartasuna jantzi bihurtu da.
- *Nauka*: Ta hortxe nauka euki ere isiltasunak bere bakartasun-sehaskan.
- *Klaustro*: Horra klastru hutsa, kristalezko kupulapean. Argi-makutsean dena.
- *Mortuan*: Ez dago ezer, ez da deus ageri, desmateriatua oro: izakiak argi-labetan desegin dire.
- *Gelditasuna*: Hitz luzea, eroria, astratua. Mortuan ba-da zerbait, ba-da norbait: gelditasuna argitan.
- *Aize gabeko*: Aiza uraren (ikus ondotik) lagun zen, baiña desegin da arrunt, erabat: bere baitan gelditu egin baita aizea.
- *Ur lo bat*: Tantoka-tantoka gelditasun gardena (hitzak ere tanto ta apur dire beren silababakarrean); dena bakan ezerez argitsuan. Aizerik ezak loa eman dio urari, giroari.
- *Dago*: Aizea hil egin baita.
- *Ez dagi arnas*: Aidearen zirkiñik kaskarrena arnasa izan liteke, ta hori ere askas du: aidea hil egin da.
- *Aide argiak*: “Aide” ta ez “aize”, gelditasuna adieraziaz. *Argiak*: argia bakarrik baita zer eta nor klastruan.
- *Ezta*: gelditasunaren geldia lerropetuz.
- *Zirkiñik*: Mogimenduetan txikiena da hori (ia beti ezezko esaeratan erabiltzen da: ez du zirkiñik egin...). Onomatopeia-balioa: *i* horiek izkribu-eraz bezain hertsia baitire hotsez ere.
- *Mututasunak*: Hitz luzea, aldenik aldekoa, ta *u* horiekin betetasun oparo ta jausia duena.
- *Noizik-beiñeko*: Pausoak ez datoz jarraian, ttiki-ttaka bizian, holakoek gelditasuna hautsiko bailukete. Aldian-aldian datoz, banaka-banaka.
- *Pausoak*: Hitzak bezin materiatusun guti. Bokal asko, ta konsonantee-tatik *s* goxo bat.
- *Praille bakarra*: Bakartasunaren mortua, norbait agertzean, nabarmenagotu egiten da. sentigarri bihurtzen baitu mututasunaren dardara.
- *Gereiza dira*: *R* bigun horien neurriko gereiza. Gereiza ezin hunki ta pausoak berdin. Pauso-hotsa desmateriatu egin da berriz ere.
- *Gauza baiño*: Pausoek ez dakarte ezer, desgauzatuak datoz banan-banan.
- *Aide zuri*: Aidea argi egiñik: zurtasun dirdaitsu bat erori da zerutik.
- *Santuari*: Zerutik baitator, ta garbia da: komentuko santutasuna han-txe baretu da...

- *Zerraldo datzan*: Aidea geldi, zabal, hilda, gorputz: hor datza herio-zuritasuna.
- *Begirunerik*: Santutegian gaude; hildako santu baten ondoan... Bertsoa biziki luzea da, hillak luze baitaude beti.
- *Sortzen ez diran berbak*: Hildakoaren aurrean isiltzen goaz beti, ez da hitzik sortzen. Berba izan ez direnak, gorpuzgabeak ere, isillik daude, begirunez. Nolako begirune santua ote lukete jaioko balire hitz horiek?
- *Begiok emen*: Hasierara gatoz berriro. Begien tokia da hau: begitegia. Begiak ase-asetzeko lekua haxe!: argi haundi ta betea...
- *Begiak... arutzagoz*: Arima, begi bihurtua, hemengo materiaren axala eten-zulaturik harutzago joan da: bere ames-gurariak hautsi ditu, entzumenak kizunik, atzemangarririk, ez duen giroa atzean utzita. Materia mehetu denean, ametsak berak ere gainditu egin dire olerkariaren bihotzean. Hemengo mundu-argia igaro, amets-izadia pasa, ta horra olerkaria “hirugarren” mundu misteriotsuan.
- *Eta biotzak...:* Dena beterik, ametsen muin gozoa dastatu ondotik, komentuak bete du olerkaria: barnean du dagoneko mundu zoragarria. Gogobete dago komentuaren haundia bere baitan duela. Arima ere argiz bete da, ta dena beretzat du (berekaxa).

4. *Berriro irakurri*: Oso geldi, kasik letraz-letra egiñaz. Ongi deklamatu balitz, askozaz hobe.

2.2. Bigarren metodu (Correa-Lázaro)

- a) *Mugarriak*. Sei une ditu bigarren bide honek. Ikus dezagun labur-labur dena. Emango diren lumeroek *Cómo se comenta un texto en el Bachillerato* (E. Correa Calderón y F. Lázaro, Ediciones Anaya, Apartado 371, Salamanca) liburura bialtzen dute. Zehaztasun gehiago hor bertan topa ditezke, nahi izan ezker.

Metodu hau erabiltzeak ba-ditu bere izerdiak, baiña agian hortara jarrita ez litzake hain zailla. Nik, kofesatu behar dut, ez dut oraindik aski ezagutzen, eta barka bekik hemengo nere ausardia, bideak urratzen hasi behar gorrian baigaude.

Analisi-metodu honek sei une ditu, ta hola banatzen dire:

1. *Irakurri arretaz*. Pauso hauek eman behar ditugu hemen:
 - Ezagutzen ez ditugun hitzen esanahia billatu.
 - Hitzak esanahi zenbait balitu, gure honetan egoki letorkena hartu.
 - Interpretaziotan sartu gabe, izkribu-atala ongi konprenitu.
 - Bosnaka-bosnaka lerro nahiz bertso denak lumeratu: 5, 10, 15...

2. *Nundikakoa ikusi, atala kondairan kokatuaz*:
 - Zatia da ala testu osoa?
 - Zein literatura-jenerutakoa dugu: Poesia (epika, lirika, dramatika), oratoria ala didaktika.

- A) *Testu osoa balitz*, izkribatzaillaren obra guzian duen leku jakiña idoro beharko zaio (21, 49, 50).
- B) *Atala balitz*, hiru kasu gerta litezke:
 1. *Irakurria den obrakoa da*: holakoan, izkribatzaile horrengan obra honek duen zer-ikusia agertu behar da. Ta ondoren: zein leku dagokio testu honi obra horretan?
 2. *Kapitulu nabiz obra czagunekoa da*: idazlearen obra-barnean zein leku dagokio. Obra honen esanahia. Azal dezagun kapitulua, ta hemen zein toki du gure atalak? (64).
 3. *Obra ezezagun batekoa da*: kursoko ikas-liburua mia dezagun (euskerez egiteko dauzkagu liburu hauek...), ta gero 1) puntuan bezela jarrai dezakegu. Deus aurkituko ez balitz ikas-liburu horretan, ez gaitezen estu. Goazen aurrera.

3. *Temaren billa* (22-28). Orraz dezagun gure atalaren asuntua xehapen guzietatik. Ez dedilla izan ezer sobranterik, ezta deus eskasik. Labur-labur dena. Billa dezagun zatiaren bihotz-hitza, sintesi-hitza, laburpen-hitza. Honetan huts-egitea, komentario guziraiko bidea galtzea da: hau dugu hemen zeregiñik inportanteena, ta zaillena.

4. *Barne-moldaduraren billa*. Esan-bideak ba-du noski hor estruktura bat. Ikus, ba.
 - Metrika-neurri ta moldadurak azter ditzagun, atala bertsoan baldin badago.
 - Temaren hara-honakoek daramazkiten zatiñoak ikus ditzagun. Ahapaldiek ez dute beti holakorik erakusten. Ba-daude gainera honelako zatiñogabeko atalak ere (37).

— Zatiño bakoitzean temak hor izan behar du gain-egadan (30-36, 52-53).

5. *Tema-zehar forma esamiñatu*. Benetako komentarioa orain egin behar da.

— *Oinarria*: Testuaren tema beti ageri da testu beraren forman (38-39, 54-55).

— *Analisia*: Hauxe erakutsi behar da: testuaren forma-era bakoitza temaren beraren halabehar batek beharturik jaio dela. Hitzak, joskera, metrika, erretorika-irudiak, t. a.: orok tema-barnean aurkitu behar dute beren izan-arrazoia. Azterketa astun honetarako ikas-liburuek lagunduko digute.

— *Izkribatu*: Seigarren eta azken puntura pasa aurretik, oraiñartean ikusiak garbi-garbi idatziko dire (57).

6. *Amaiera* (41-55, 59-60).

— *Atzera-begirada*: Erakus dezagun funtsean, xehetasun gabe, oiñarri-legea nola bete den.

Eritzia: Eman dezagun geure uste-iritzia: egiatia, apal, irmoa, esaera txanponezkorik gabea.

b) *Entsegu bat*. Ongi ezaguna den ondoko atal hau hartu dut nere honetarako.
I. *Arretaz irakurri*:

Ura gizona, ura!

Zazpi oin ta erdi bai luze, makal-zugatza bezain zuzen, pagorik lodiena baizen zabal, arte gogorra bezela trinko, gorosti ezearen antzera zimel.

Orrela zan Joanes nik ezagutu nuanean.

Sendoak zeuden oraindik artzai zarraren beso zaintsuak, txit azkarrak bere oiñak, zindoak bere bular-auspoak.

Ura = a; makal = chopo; zugatz = árbol; bezain, baizen = tanto como; pago = haya; arte = encina; bezela = lez; trinko = denso, macizo; gorosti

= acebo; zimel = enjuto; zaintsu = de mucho nervio; azkar = vigoroso, ligero; zindo = sano, firme; bular-auspo = pulmones; arizti = robledal; jaurti = lanzar, arrojat; oin = pie (medida).

Hiztegitxo honekin ez dago hor iñungo euskaldunentzat misteriorik.

2. *Atalaren mundikakoa*

Garoa nobelaren hasiera da atal hau; liburuaren lehenen kapitulutik jasoa, beraz. Izkribu honen egille Txomin Agirre (1864-1920) dugu. Gaiñerako bere obretatik *Auñamendiko Lorea* ta *Kresala* ditu aipagarrienak, ta biok ere nobelak dire.

Garoa honek Zabaleta baserrikoen gora-beherak jaulkitzen ditu, ta bertako nagusi den Joanes da eleberriaren ardatz-pertsona, protagonista. Eleberriaren lehenen horrialdeetan horixe ematen zaigu: Joanes gorputz-arimaz, zabal-zabal, irakurlearen irudimenarentzat. Biziki ikusgarria zen artzain zaharra, ta benetan miresturik aurkezten digu idazleak. Mendian idorotzen du honek bere gizona ta txundituta gelditzen da haren gorputz-bikaintasunaz. Hementxe, lehenbiziko lerro hauetan, azaltzen zaigu Joanes'en gorputz irudia.

Ohar hauekin, ba-dakigu honezkero, ataltxo honi euskal-literaturan dagokion eser-lekua zein den.

(Nahi izan ezkeru irakaslea mintza liteke Tx. Agirre idazleaz, honen izkribuez, baita euskal-nobelaz ere).

3. *Temaren billa*

Idazleak zerbaitetarako izkribatu du hau. Asmo jakin bat bete nahi zuen noski. Zein da, ba, atal honen ideia-ardatza? Honatx: *Joanes zabarraren gorputz gazteak izkribatzaillagan sortu duen mirespena deskrazio-bidez ematea*. Ideia honi begira, epaitu beharko dugu orain atal osoa: aukeratu duen bidetik helburu horretara iristen bada, idazleak lortu du nahi zuena.

4. *Barne-moldaduraren billa*

Atal hau ez dugu bertsoz egina, ta oraingoan beintzat bazter ditzakegu neurt-hitz-legeak. Agian, hala ere, egin liteke banaketaren bat, pentsamendu ez baitugu bapatean ematen, maillaka baizik. Berriro irakurriaz, berealakoan ikusiko dugu ba-direla hor zenbait zatiño:

- a) Amirazio-esaera bat (1 lerroan).
- b) Artzaiñaren gorputz-aurkezpen orokorra (2-4).
- d) Epifonema hat (5).
- e) Joanes'en presentazio xehetua (6-7).

5. Tema-zehar forma esamiñatu

- a) Zatia: *Ura zan gizona, ura!*

Mirespen-irudi, amirazio-figura, batekin hasten da. Temari zegokion erarik egokiena agian. Hiru balio eder aipa ditzagun hemen:

Amirazio apropos bat deskizio baten ordeko izan diteke. Bere bidez ez zaigu ezer berezirik esaten, baiña idazlearen arima-zehar zerbait ikusi dugunaren susmoa izango dugu. Ondoren etor ditezken zertzeladei aurea harturik, aitzinetik sentipen beroz ematen zaizkigu.

Mirespen-irudiak irakurlearen jakin-gurea iratzarri egiten du. Ondotik letorkena benetan jakingarri bihurtzen da guretzat. Ta galdera xuxenean datorkigu mingain-puntara: zer zuen, ba, gizon horrek?

Esaeraren jatortasuna ere ongi euskalduna da. Erderara itzulieziña da hori. Uradun esaera oso gurea da, ta birresanez gehiago nabarmentzen da bere jatortasunean. Lorezko euskal-arkupe honetatik garamazki protagonistaganaiño izkribatzaillak.

Temaren bihotz-bihotzean dago amirazio hau: egoki baitator bai mirespena agertzeko, bai deskriziorako.

- b) Zatia: *Zazpi oin ta erdi bai luze, makal-zugatza bezain zuzen, pagorik lodiena baizen zabal, arte gogorra bezela trinko, gorosti ezearen antzera zimel.*

Zer eta nolakoa zen, ba, holako amirazioaren iturria?, galdetzen diogu gure buruari. Hona!, erantzuten digu orain idazleak. Baiña bere mirespenak bultzaka daramakiela, ezin dizkigu xehapen denak bertan-bera zabaldu. Temaren bi ideia-uneen (amirazioa ta deskizioa) artean tiraka bat sortzen da: deskizioa behar du, ta amirazioak begirada lausotu egiten dio idazleari.

Honegatik, gizandi haren aurrean, lehenbiziko "O!"aren ondotik gorputz osoko erretratu bat emango digu Txomin Agirre'k bigarren zatiño honetan, mirespenak ez baitu bestetarako betarik utzi. Beraz, argi dago hemen temaren bertakotasuna, presentzia.

Aukerakoa da deskizio hau, baita bere gonbarazioengatik ere. Izan ere,

artzaiña izanik Joanes, mendiko semea ta tontorretan hezia, inguruan zuen bizi-girotik jaso beharko zituen bere giza-edergailluak. Bere bizitzari dagozkion tasunak, kalitateak, ditu gure gizonak.

Joanes euskalduna ere ba-da. Honegatik, bere giza-tankera Euskal-Herriarena da: Euskal-Herriaren azala bere jantzia. Nolako arbola, halako ezpala. Zatitxo honetan iperbolea gain-egadan dabil; ta beti euskaltasun-sirimiria dariola.

Ikus ditzagun epitetuak eta gonbarazioak. Zugaitzetatik gonbarazio-helburutzat, geureenak aukeratu ditu, maiteenak: makal-pago-arte-gorosti. Ta lerrotxo bat gehiago ekarri bagenu, geurekin izango genuen haritza ere. Ta epitetuak? Biñaka ematen zaizkigu: gonbarazio-helburuari izaeraz dagozkion epiteturik aproposena ematen zaio (Pago *lodi*, arte *gogor*, gorosti *heze*), ta zugaitzen kalitate horiek neurriagotu egingo dire Joanes'gan gizatasunez jaztean (makala, *zuzen*, pagoa, *zabal*, artea, *trinko*, gorostia *zimel*). Ez ahal duzue iñoiz holako gizonik ikusi: nik bai Kanpion'en *Narraciones Baskaseko* apaingarri batean: Aitor bera zen... Eta guk, nola goraiapatuko genituzke guk euskal-artzain baten gorputz-bikaintasunak?

Esan dugu, zati honetan ez dago deskribio-xehetasunik. Ba-dakigu zergatik ere. Ez dakiguke, beraz, plastikutasun haundirik eman, zerbait haundiren susmapen miretsia baiño.

Gonbarazio asko, baiña denak arras liferenteak dire. Artzaiñari ematen zaion pintzelada bakoitzak tonalidate berezia daramaki gonbarazio-lokarrarian ere: *bezain* - *baizen*, - *bezela* - *antzera*. Zinema-travelling bat dela esan liteke: hara-honako honek gauza berari higidura bizia ematen dio teknika-mogimenduaren bidez.

Ikusten dugu, ba, honaiño esan direnekin, zein artezki eman digun Agirre'k bere amirazioari zegokion deskribio-jantzia, temak berak eskatzen zuen parekoa.

d) Zatia: *Orrela zan Joanes nik ezagutu nuanean.*

Amirazioz beteriko epifonema bat da. Ez dezala, gero, iñork zalantzarik ukan, holakoxea zen gure gizona-ta. Honezkero irakurleak eskatzen dituen xehetasunetarako ate irikia dugu afirmazio hau. Behin ta berriz tema begibistan da.

e) Zatia: *Sendoak zeuden oraindik artzai zarraren beso zaintsuak, txit azkarrak bere oiñak, zindoak bere bular-auspoak.*

Sendotasuna erakutsi nahirik (hori baita lehenago ere adierazi izan nahi digun tasun bat), hasiera-hasieran jarriko da “sendoak”, inkiridu-legearen bortiztasuna zorrotzagotuaz. “d) Zatia”ren arrazoi-oiñarria argitan jartzen du hemen: mirespena ez da batere harritzeko. Hitzak berak ere ba-duela eufoniak ematen dion sakontasun bat esan liteke: “s” hori gezi bat baita, ta “n” ta “o” horiek sendotasunaren barreneraiño garamazkite.

“Zeuden” aditzak iraupena ematen digu, aldakaiztasuna. Urteak ez dute ezer ikutu, lehengoan dirau sendotasunak. Ez ahal da hau biziki txundigarria. Joanes, bere haretan egon dago: ez dio “sendoak *ziran*”-ik, “*zeuden*” baiño. Temaren uhiñak honaiño ere heldu dire. Ta ondotik datorren “oraindik” hori gogoan baldin badugu? Iraupen horren harrigarria!

Artzaiña zaharra da. Datu honek kontraste-balioa du bereziki, deskri-ziorako beharrekoa dela ere, mirespen-arrazoia hor baitago. Sendotasuna besoetan ikusi ohi dugu gizonok, eta Agirre’k beso zaintsuak aipatzen ditu, arestiko pago lodia ezin ahazturik behar bada. Ez dire xamurrak beso horietxek! Urteek eta lanek zaildu dituzte, bai! Zain gogorrez zertuak dire. Honatx, ba; Joanes’i eman zikioken kalitaterik preziatuena: honen gain doaz, zankarteka, mirespena ta deskrizio-errealismua.

Bigarren esakunean elipsi bat daukagu: “zeuden” kendu egin da, ideia-aren-ariñari esaeran bertan ere lagunduaz. “Txit” aberbioak ere ez dirudi eufonia-asmorik gabe dabillenik, hitza bapatekoa baita, bizkorra: onomatopeia? Ez ahal da gelditasuna, ta geldotasuna, zahartzaroaren penarik samingarriena: ba, gure artzain zaharrak ez du honelakorik ere. Amiragarria zinez!

Hirugarren begirada batean ere ba-da Joanes’gan zerbait berririk. Ez zen bera itxurazko gaztea bakarrik, egiazkoa baizik. Kanpo ta barne, bere gaztetasuna gorputz guzira isuria zuen. Ez zen beragan zaharren arnas-estukarik, bular-zindotasuna zuen barrutik.

Hona hiru datu laburretan oso-osorik gizona: beso -oin- bular. Gorputzeko gazte-bikaintasunik nabarmenenak hor izan ohi dire. Bereziki hemen ageri da nabarmen-nabarmen ataltxo honen tema: deskrizio-amirazioak. Esaeraren hara-honakoak beti du gaiñera, zerbait berririk, betiko egoera ta ibillera berdiñak utzita: *sendo... -txit... -zindo...* esaera bakoitzak du bere hitz-ordenamendua. Artzaiñaren mendi-ibillaldien antzera, frasea ere ibiltari da.

6. Amaiera: azterketaren ondorea

Agirre beti izan da maisu bere izkribuak euskal-arnasez biltzen, ta hemen ere bizi-bizi dauka bere balio haundia: gogora lehenen zatiñoa, hor

baitago nabarmenen hizkeraren euskaltasuna; berdintsu bigarreanean ere. Agirre erromantikua dela esan da, ta lehenengo zatiñoan horrelakorik suma dezakegu, zerbait galduaren tristura alegia: *ura... ura*, esango digu. Gaurero honelakorik ez dela, esan nahi zaigu nunbait: nostalgia, lehen-miña du izkribatzailleak bihotzean. Ta bihotz-samin hau nobelaren muiña da.

Laburki erakusten zaigu gizaki miresgarri hori: gonbarazio ames-arazle ez zehaztasun baliotsuz. Atal honi edonundik darizkio idazlearen amirazio ta lehen-ametsa. Deskizio dena bihotz-hunkitu honekin ondua dator.

2.3. Hirugarren metodoa (Aita Rizzi, S. J.)

Mugarriak. Oraingo han da biderik nekezena. baiña baita baliotsuena ere. Ez dut uste gaur-egun oraindik euskeraz metodo hau erabil dezakegunik. Ez noski komeni ez zaigulako, behar genituzken liburu ta tresnak eskas ditugulako baiño. Honegatik ez naiz hirugarren honetan asko luzatuko. Nahi duenak, eta euskal-irakasleok nahi izan behar dugu, *Humanidades* errebistan aurki dezake, 33'gn. zenbakiaren 383'gn. horrialdean². Hemen gain-begiratu bat bakarrik emango diogu denari.

I. Errealidadearen analisisa

- a) *Hitz-izadia:* Izaki naturala bere ikusguneetan, aspektuetan, aztertu: ura-elurra... Hiztegiari, hitzaren esanahi ta argillunak ikusi: sinonimuak, antonimuak... Esanahi berdintsuko hitzak sailka taldetu: galgal, poil-poil...
- b) *Izpiritu izadia:* Izakiak sinbolu ere ba-dire ta sinbolutasun hori idoro behar dugu. Zein giza-errealidade ematen digute izakiek sinbolupean?: mendiak giza-irmotasuna ukan dezake sinbolutan...
- d) *Biblia ta Liturgia-izadia:* Zer ote diote darabilkigun kreatura honezaz bi horiek?

² Comillas'ko Aita Jesuitek argitaratua.

2. *Izkribuaren analisia*

Poetak errealidadea autatu egiten du, eder aldetik garbitu ta bat egin: bere goi-hatsaren eragitez, mundua ederrez baliotsu bilakatzen da. Baiña irakurleak gertu egon behar du olerkariak ematen dion izaera berri hori atzeman eta jasotzeko. Honetara, irakurlea prestatzera alegia, zuzentzen da analisi hau.

a) *Analisi atarian*

1. Idazkiaren esplikazio literala.
2. Idazkiaren asuntu-aurkientza (ojetua: zeru izartsua Fr. Luis'en *Noche serenan*).
3. Idazkiaren tema-ideia (ojetuan begiratzen dugun ikusgune apartekoa: zeru izartsuaren ederra *Noche serenan*).
4. Idazkiaren ideia poetikoa (poetaren kontenplakerak duen trazendentzia-balioa: mundutar bizitzatik besterako igo-bidea *Noche serenan*).

b) *Analisia*

1. Esaeraren balio-semantikoa: ojetuak (zerua, argiak, lurra...), sentimenduak (argiz apaindua, urrats isillez...), ideiak (zein patu gaiztok nauka loturik?... Hau dena *Noche serenan*).
2. Esaeraren gramatika-joskerak: fonologia, morfologia, sintasia... Orain ikusi behar da poesiaren tema-ideiak ta gramatika esaerak elkarri nola laguntzen dioten.
3. Esaeraren estilistika: erretorika-irudiak...
4. Esaeraren arkitektura: Nola iruten dire poesian perioduak, pertsonak, ojetuak. Osaki bakoitza nola kokatzen da olerkiaren barnean.

d) *Birkreazioa*

Analisiak, poesia-gorputza zatitu, biziebaki, egin du. Baiña gure zeregiña burutuko bada, ikusia birsortu egin behar da. Gerekuntzak eta imitazioak mailaka joan behar dute: 1) hitzak geretu ta imitatu, 2) gramatika-usarioa, 3) erretorika-irudiak.

3. Osakuntza

Edozein izakik hamar milla sarrera-ate ditu, ta guziotatik sar gaitzke olermenaren laguntzaz:

- a) *Literatura-esparruan*: aztertu dugun atalaren pareko izkribuak irakurri.
- b) *Ikus-arteetan*: kuadrak, dokumentalak, telebista...
- d) *Entzun-arteetan*: musika-saioak, konzertuak... Dena gure gaiari dagokiona.
- e) *Naturalezaren, izadiaren, bizipenak*: ibillaldiak, ikustaldiak...

Horra hiru bide, ta hiruron bide-gurutzean gizon bat: irakaslea. Hemendik nahiz handik, maisu onak biderik izango du, baiña literaturan ume-zapitan gaudenok eskarmentuaren poderioz ikasi bearko ditugu bideok. Besterenarekin nahikoa baldin badugu, ez gera hala ere hain gaizki.

Irakasleak lillurapen-makillatxoa behar du. Kreatura bakoitza edertu egin behar du ikasleen aurrean. Ez dezatela hauek inoiz ezer izan-makutsean ikusi: edonun ederraren zoramen-bidea topa dezatela. Honetarako agian irakasleak berak ere idaz-lantxoren batzuk egin beharkodizkie.

Lehenen izadiko zerbait erakutsi ta bere ederra billatzera behartu ditzagun gure mutillak, ta ondoren, behar bada eziñean eseri direnean, eder hori, mamiturik, eskuartean erakutsi, “hona hemen!” esanaz: leiho bat ez da leiho izango, ederreraigo iges-bide baizik. Lorea ez da botanika-ikasgaia gertatuko, ederraren muin-printza baiño. Zelaia ez da belardia izango, edertasun berde-hezea izanen da. Eder-mundurako sarrera erosoagoa da izaditik, naturalezatik, gizonon arte-obretatik baiño. Ikusarazi dezaiegun mundua, gero izkribuz hori ematera behartuak gerta ditezten.

Ederra atzeman duenarentzat bortitza da barnean gorde nahi izatea. Gure mutillen arimak eder-zoramenetan blai jar ditzagun, idazle bihur ditezten.

Esango zait behar bada harako hura: ezin liteke horrelakorik mutil-talde batekin lortu (barka dezaidatela euskal-andereñoek, nere mutillak bakarrik aipatze deitoragarria, zuentzat, euskal-nexka ponpoxa guzientzat ere ba-duzue hau-ta). Irakasleontzat ez dute dizipuluen arimek hesirik alde-aurretik. Guk bide denak iriki behar dizkiegu mutillei, ta ondoren, gazteongan ahalmenik baldin bada, segi ditzatela. Gehienetan geu gera pekatari.

Gauza asko egin litezke, baiña geuk ikasi egin behar dugu lehenen. Errientsa on bat aurkitu zutenean, Puerto Rico'ko herri-eskola batean 18 olerkari jaio ziren. Nik ba-dakit gure euskal-ikasleak ez direla hain arin esnatzen eder-mundurako, baiña badute edermenik eta zortzi urterekin ez bada ere, Batxilleratuan

bederik eman behar diegu eder-argia. Hona hemen Puerto Rico'ko eskola horretatik bi olerkari koxkorren lanak:

La Primavera

Ya llegó la primavera
con su pico de algodón.
Todos los pájaros cantan
y en el jardín todo es flor.
El campo ríe de verde
y en el campo todo es flor.
¡Ya llegó la primavera
con su pico de algodón!

Gladys Coss, 8 urte.

El Mar

Las olas del mar
vienen y van
al son del viento
que las arrulla
con su cantar.
Y al sol brillante
sobre las aguas,
tan transparentes
como el cristal,
las olas vienen,
las olas van.

Norma Iris Rivera, 10 urte.

Ikasleek ederra izadian atzeman dezaten, maisuak ernai egon behar du gauzen edertasun hori ikusi ta erakusteko. Mutikoaren begiak hara ta hona zuzendu behar dire: atzo, gaur, bihar, orain, han, hemen, basoan, iturrian, karrikan... Beti ta nunahi begiak zabal: leihopeko jolasak, gauaren isilla, haraneko terrala, arratseko lehenen izarra, baratzeke lora hilla, zelai-erdiko piñu beltza, kearen gora-nai neurtua, udazkenaren heriotasuna...

Ikasleek beren lanak egiten dizkigute. Zergatik ez erabilli hauen gain gure metodoak; hirurotatik, lehenen biek beintzat balio dute honetarako. Hala ere, bigarrenak gehiegi desalima ditzakelako, hobe dugu lehenen metodo hori, samurragoa baita: beti aurkituko ditugu zenbait edertasun, ikaslearen lantxoak zerbait balio badu behintzat, ta horren gain sortuko dugun mundua erabat beretzat joko du ikasleak.

Idaz-teknika ikasteko, lehenengoa ez baiña, beste biak egokiagoak dire. Ez dago, ordea, dena batera ikasi beharrik, alfer-lana bailitzake: has gaitezen epitetuetatik; hitzak etorriko dire ondoren, irudiak ere bai, joskera, lanaren osotasuna...

3. Zer eman liteke literaturan?

Olerkiak obeki datoz lehenen komentariarako, gehienetan poesia-trinkotasun hertsia goa ukan ohi dute-ta. Bilduma egoki batzu falta zaizkigu eskoletarako. Erderaz ba-dire antologia ederrak, baiña gu ume-oihaletan gaude oraindik. Bilduma onak, aberatsak eta merkeak behar ditugu, Bergua'k espainolez daukan horren antzekoak-edo. Izan asko baiño lan-izkribu onak hobe. Ba-ditugu zenbait izen jator ere: Etxahun, Lizardi, Lauaxeta, Mitxelena, Orixe, Elizanburu, Azurmendi (honek zoritxarrez argitaragabeak bere lanak)... Holako batzuekin olerki-bilduma oparoa izango genuke gure zeregiñerako. Hitz-lauz ez dakit hainbestekorik bilduko litzaken.

Deskizioaren, narrazioaren eta ideia-estiluaren teknikak ere eman beharrekoak ditugu. Honetarako Schökel'en *Formación del estilo* liburua erabilli ohi da gure ikastetxean. Liburu baliosa dela esango nuke. Teknika hauek ezagutu gabe beti ibilliko dire galdu samarrak gure mutillak. Zalantza-uneetan jakin dezatela zeri heldu.

Zein lan eta jardukizun eman? Nere esperientzia eskasak ezer balio baldin badu, hobe da, ia beti, idazlanetarako gai hertsia bat ematea. Ta horixe hartzera behartu egin beharko da gure ikaslea, mundu ezezaguna baitu berak eta ez du ikusten nora joan liteken alde-aurretik: arbola, hodeia, argi-printza, hil-gorputza, erre-kastoa, txoria, izarra, t. a. Honelako gairik ez da faltako.

Nundik nora ibil diteken ikus dezazuten, apendizean emango dizkizuet zenbait lantxo, baita gai batzuetarako, etsenplu bezala, har ditzakezuten olerki batzu ere.

Mutilla irudi billatzera behartu behar da, eta ez du honelakorik egiten gai zabala duenean, bere horrialdetxoa handik eta hemendik jasotako txutxuputxukeriekin bete baitezake. Ta horixe izan, hain zuzen, errezena! Poesia-munduan buruz behera ta ankaz gora sartu nahi badugu gure mutikoa, iges-bideak itxi egin beharko dizkiogu. Honegatixe aukeratuko dizkiogu gai jakin-jakiñak.

Lanak burutu ondoren, galdera honekin geldituko zaigu gaztea: "Nola demontre egin behar nian, ba, nere idazlan hau?" Honetarako, irakasleak berak presta dezake zerbait, edota luzagarrian aipatzen diren poesietatik autu. Nundik heldu jakin ez duten gai hori bera idazle onak nola erabilli duen ikusteak harritura utziko ditu, ta beste hainbestetarako gosetan. Oso ikasbide ona izan liteke hau, benetako interes bizia izaten baitute holakotan idazkia ezagutzeko.

Mutikoenak berak ere irakur ditezke, tajuzkorik baldin bada behintzat, zuzendu ta hobetuaz. Ikus dezatela beren bide beretik noraiño joan ziteken.

Irudi-billa izkribuak aztertu. Hartzen da olerki bat. Hor dago hori bere osotasunean. Ba-dire hor erretorikak aipatzen dituen irudiak. Ba-dakite gazteak zein zailla den horiek sortzea; honegatik irudi horiek dauden tokian aurkitzera beharko ditugu.

Esate baterako, hemen daukagu Aita Gandiaga'ren "Xirimiri" poesia. Nere mutillak millaka aldiz ikusi ez badute, ez dute inoiz ikusi Arantzazu'ko lanbroa; batean etxe barnetik izango zen, bestean paseokoan... Urtearen erdia lanbrotan bizi du Arantzazu'k. Hara, ba, nola ikusten duen olerkariak irudi-iruditan muttiko lanbro txepela:

XIRIMIRI txanka meia,
nora barik eta bustia,
baso aldetik agertu da gaur,
artzaiek, tontoz, jaurtia.

Xirimiria muttikoa da, luxe-meia.
Ez du seriotasunik, ez gizontasunik.
Ez da benetan gizon prestua.
Formalidade gutxi du bere
hara-honakoetan, eta Urbiko
artzaiek, tontotzat harturik, bota egin
dute. Horra lanbroa irudiz jantzita.

Ideiak eman eta irudiak eskatu. Irakaslearentzat lan erreza da: poesia bat hartzen du, ta bertako ideiak larrugorritan ematen dizkie ikasleeri, desirudituak. Ideia horiek irudiz beztiturik eman behar ditu orain ikasleak. Jardukizun honen ondoren, banaka-banaka galde dezaieke ea nola egin duten. Azkenik ideiak jasotzeko erabilli genuen olerkia irakurriko die.

Bi eratara erabil dezakegu lan-modu hau. Olerki labur bateko ideia denak xeheki-xeheki emanaz, honelatsu egingo genuke:

ARKAITZAK, elorriak,
biak gorri,
arima emon eutsen
aideari.
Arratsalde guztia
laiño busti.
Joran bat zan arima,
mendiz-mendi.

Gugan larritasun haundi bat
daukagu. Samingarria benetan.
Goibeldu egiten gaitu geure barru
guzian.
Dena tristetu zait, eta tristura
denon gain, hor dut oraindik nahi
ta gurari bat.

Bigarren era zera izango litzake. Eman funtsean, jeneralki, ideia bat-edo, eta gazteak sor dezala irudi-mundua oso-osorik. Adibidez, Aita Gandiaga'ren *Elorritik* "Usain, erle..." (33 or.) diona hartuko genuke, ta hauxe besterik ez genuke esango: "Lan bat egin behar didazute, ta honatx gaurko zuen gaia: ariman nahasian ditugu tristura-oiñaze-poz-negarrak. Ea nola adierazten duzuen hori irudiz".

Epitetu, irudi, gonbarazioak, t. a. kendurik, poesia osarazi. Gehienek gustora egiten duten lana da hau, ez baita hain zailla. Aurkitzen dituzten pitxien diztira argitara eman behar zaie, lehenengo komentario-metoduaren arabera zerbait irakasleok egiñaz. Luzagarrian ematen ditut "Gazteluaitz" poesiarekin egiñak.

Olerkariak eta poesien gaiak (deskrizioetarako bereziki) ezagunak baldin baliatuzte, askozaz ere interesgarriagoak gertatuko litzazkieke. Honegatik, nik gehien erabilli ditudanak frantziskotarrak izan dire: Gandiaga (nere ikasle guzien maisu izana), Azurmendi (Arantzazu'n egunero ikusi izan dutena), Mitxelena... Gaiari gagozkiola, berriz, Arantzazu-inguruko deskrazio-gaiak inguratzen ahalegindu naiz. Txomin Agirre'k ere ba-ditu nereontzat atal egoiak.

4. Nork irakas lezake literatura?

Literatura-arteengan fede haundia duenak. Nolabait betetzera datorrenak ez du baliozko gauzarik egingo. Artea, giza-eginkizun sakona dela sinisten duenak bakarrik irakas dezala, gure artean franko baitire fede hau galdu ta agian iñoiz izan ez dutenak. Ez diteke ezer egin itxurakeria hutsez.

Ederra sentitzen duenak, eta nolabait sentiarazteko lain denak. Eder-kreatzaille izan behar du irakasleak gutxi edo asko. Ba-liteke bera idazle ez izatea, baiña bere benetako zeregiña nekez beteko du, ederrik sortzeko ahalmengabea denak. Hori bai, ez pentsa hasi baiño lehen ezin dezakezunik, haurrak ere ez baitaki, lehenen urratsa eman aitzinetik, xuxen ibilliko denentz.

Literatura-teknikak eta kondaira ezagutzen dituenak. Ez euskaldunak soillik, baita erdaldunak ere. Hizkuntza bien jabe ta irakasle bada, hainbat hobe: bere bizi-tzarekin erakus beza argi ta garbi zereko hau: euskera-lanetara ez doala besterik eziñean. Ikus dezatela gazteak, euskerak ez duela iñoren jakinduria murrizten, eta euskal-irakasleak ba-dakiela gauzarik franko, bai bere alorrean eta bai besteenean.

Giza-kultura zabala duenak. Zabala ta sakona. Ahalegin bedi, honetan irakasle-lagun guzien gaiñekoa izaten, ez arrokeria tontoz ari dela, euskeraren prestijio

ta izen onaren beharrak eraginda baiño. Ez dedilla gerta iñorentzat gure mintzaira bigarren maillako zerbait, beti zarpil eta lotsatia. Euskerari bruxa kendu ta frak dotorea jantzi behar diogu, ta au euskerarekin gabiltzanok bakarrik egin dezakegu, ez dakizuela burura, Jainkoarren, bestek egingo digunik.

Gramatika-zirrikituak ezagutzen dituenak. Baiña ez horietan galtzeko, beharreko den laguntzarako baizik. Gramatika buru-haundia tarteko zelako, noizbait euskera gertatuta da asignaturarik gorrotatuena. Hori behin izan da, baiña ez du berriro izan behar.

Jainkoagatik eta Aren santu guziengatik, euskeraren irakaslea ez dedilla izan egun batez zertara jo ez zekielako euskerari heldu ziona. Irakasle poetak behar ditugu, irakasle ta bide batez poeta ta goimaillako karreradun direnak. Ezer jatorrik nahi bada behintzat, ez dago beste biderik: gaiñerako sasi-erremedio denak, ezur hautsia kamamilla-ur goxoz sendatu nahi izatea dira. Hala ere nik ez ditut ezagutzen, gure artean, gizon horiek. Ba-da bat, baiña ikusten dugunez, berari eskatzen zaio Euskal-Herri'ko ezbehar denak zuzentzeko, ta ba-dakit hamar milla ta bosteun ta hirurogeitazortzi zeregin dituenak. Ez gaitetzke beraz beragana joan. Horiek horrela, ba-dut itxaropenik: kasik erabaki dugu, dirudienez, gure burugogorkeriak orma baten kontra afusilatzea, ta hau egin ondoren jaio diteke behar dugun libertadearen egun-sentia. Euskalzale guziok kasko-pean daramazkigun lau tabu horietxek prejitu, erre ta zakurrei botatzen dizkiegunean, zeru santuan izango gera hil aurretik ere gure Euskal-Herri honetan.

Intelektualek, pentsalariek, jakintsuek, kulturagille guziek behar duten askatasun-giroa sortzen dugun egunetik geurekin izan ditzazkegu bestela etxe-koanera joango ziraken euskal-semerik prestuenak. Batxilleratu guzizako testuak behar ditugu eta bilduma egokiak eta komentario-liburuak eta hiztegiak eta dena..., baiña hori guzia egin lezaiguketenak erakarri egin behar ditugu gurera, lanerako behar duten giro ona eskeiñiaz. Al, ta geu, geure aldetik, ikasten eta egiten, irakasten eta eragiten hasten baldin bagera, geure eginbeharrak betetzen ikasten baldin badugu, ez goaz bide gaiztoenetik. Eta zorioneko gu, egin dugun lanarentzat kritikari zorrotza aurkitzen badugu: grisa ez baita zuri, ezta beltz ere; baiña –hau ere bai–, Martin Txilibitu eizerako ta eiztari jaio zenez, mendira joan dedilla ta ondoren, gehienik ere, iges egin zion erbiaren ipuiña konta dezaigula: jakintza ta pedagogia-liburuetarako Don Lohontxo baitugu kritikari zintzoa.

Eman dizuet hemen nere pekatuen aitortpena. Orain, maisukide maiteok, zuenak entzun nahi nituzke. Betozen lehenbaitlehen.

APENDIZEAK

I. Idazlan hertsia

LOINAZ, 16 urte.

Lili berria.—Goizeko argi-sentia. Zeru kiskaliaren urdin argia baso-lili gorrixkan dirdir. Lili berria gaueko illunari zabaldu zaio polliki, ixil-ixillik.

Lili txikiak irribar usain goxozkoa dauka ernetzen bere orritxo legunetan.

Gauari iriki zaio ta intz-malko zillarrezkoa utzi dio gauak bere altzo birjiñean... Antxe usaiñez bildu-bildua ta txinbeletatxo danari bere pitxi ederra erakusten daukagu...

Zeruko urdin garbia bere ixpillu txikian gordeta.

IÑAKI BERISTAIN, 15 urte.

Illerria.—Illerrian nago, bakarrik, giro larri batez bildua.

Iretargia, izarren maitea, paketsu zeru urdin zabalaren zabalean. Bere argi gardenaren izpi motelak illerrian ixiltasun dira.

Kupres itzal illunak, lurrera luze erorita, kurutzetxo erdoitueri muin dagiete.

Orma zaarra, untzez ta gooldioz estalita, serio ta triste dago.

Aize astun bat, polliki ta nagusi, onuntz-aruntz dabil.

Ixiltasuna, illerrian ixillik, etzana, luze, zabal.

Illobi barruko ittute baten erortze makala, ontzaren negar-zotin sorrarekin bat, entzuten da bakarrik.

Dana da

Ixiltasun...

Dana da

bakartasun...

L. OLABERRIA, 14 urte.

Goiza erortzen.—Goiza gaixo, mokoti, terral emez bustia. Urbi-aldetik, xarpaz jantzia, errenka-errenka jetxi da.

Errekastoaren abesti oker, urratua, laiño artean ittotzen doa, larri itzaldua, urruti.

Bere oin otzarekin ikutzean, emaratu egin da Arantzazu, oiñetarañoko txapelean bilduta, laiñozko txapel xuri-zabalean.

Arkaitz artean ixiltasun luze, gogor bat etzanda dago, larrez betea.

Bide luzeetan zear ba-dator egunaren biotza, dardaraz, ozkirri.

Eta ba-doa terral ximur-negartia erreka-ondotik barrena, arrastaka.

Ba-datoz aurren argiak, kiñuka bixian, anka punttan, ttin-ttin, xaltoka, oiñak terralean bustitzeko bildurrez bezela.

Galdu da belaiñoa Urbi'rako bidexka garbian azken arnasa emanda.

Ta berriro errekastoa xirolari.

Goiz gaixo, mokoti, terral emez bustia; Urbi'tik beera, errenka-errenka, xarpa zaarrez jantzia jetxi da goiz elbarria.

2. Izkribu gaietarako olerkiak

ABEREA: "Erbiak eta igelak" (Oxobi, *Milla Euskal-Olerki Eder*, MEO, 963'gna).

"Oillaskoa eta axeria" (Oxobi, MEO, 969). "Axeria eta mahatsak" (Oxobi,

MEO, 970). "Igelak" (Mirande, MEO, 999). "Katuari" (Kerexeta, MEO, 649).

"Usoa" (Elizondo, MEO, 676). "Mitxeleta" (Jakakortajarena, MEO, 811).

ABERRIA: "Gernikako arbola" (Salaberry, MEO, 984). "Errimiña" (Azkue, MEO, 252). Eta beste millaka.

ARRATSALDEA: "Arratsaldeak" (Gandiaga, *Elorri*, 96 or.). "Ilhuntzia" (Babaki, MEO, 987). Eta *Elorri* poeman agertzen diren beste aunitz.

EKAITZA: "Galerna bat mendian" (Barbier, MEO, 948). "Ekaitza" (Etxaniz, MEO, 873).

ELIZAN: "Koruko" (Gandiaga, *Elorri*, 174 or.).

ELLORRIA: "Usain" (33 or.). "Arkaitzeko" (32 or.). "Udalenak" (32 or.). Ta *Elorri* aurkitu ditezken beste asko.

ELURRA: "Goizaldeko elurra" (Lauaxeta, *Bide Barriak*, 122 or.). "Edurra" (Gandiaga, *Elorri*, 188 or.).

GAUA: "Zorionaren" (Gandiaga, *Elorri*, 186 or.). "Illuna" (G., *Elorri*, 178 or.).

"Gau" (G. *Elorri*, 100 or.). "Gabeko irrintzia" (Lauaxeta, *Bide Barriak*, 38

or.). "Iretargia" (Gandiaga, *Elorri*, 107).

HERIOTZA: "Haur hilaren arreba ta ama" (Lafitte, MEO, 978). "Xaubadin"

(Lafitte, MEO, 982). "Xabierto'ren eriotza" (Lizardi, MEO, 770). "Otartxo

utsa" (Lizardi, MEO, 773). "Biotzean min dut" (Lizardi, MEO, 774). "Herioa"

(J. Etxeberri, MEO, 155). "Otoi, adiskide..." (Loramendi, MEO, 818).

HILARGIA: "Ilargia" (Azkue, MEO, 253).

- ILLUNTZA: "Illuntzeko" (Gandiaga, *Elorri*, 176 or.). "Arrats gorri" (Lizardi, MEO, 781). "Illunabarra" (Arruti, MEO, 706).
- IRRINTZIA: "Irrintzina" (Barbier, MEO, 947).
- ITURRIA: "Iturri-negarra" (Lauaxeta, *Bide Barriak*, 40 or.). "Ur-xirripa inhar batekin guduan" (Lafitte, MEO, 977).
- ITSASOA: "Uhainen dantza" (Lafitte, MEO, 976). "Itsasora!" (Lauaxeta, *Bide Barriak*, 137 or.). "Itsasoa" (Iratzeder, MEO, 990). "Itxasua" (Etxeita, MEO, 516).
- KEA: "Etxeko kea" (Lizardi, MEO, 782).
- LANBROA: "Xirimiri" (Gandiaga, *Elorri*, 60 or.).
- LOREA: "Lore-buru" (Gnndiaga, *Elorri*, 52 or.). "Mao Gorri" (Lauaxeta, *Bide Barriak*, 28 or.). "Lore igarra" (Tapia-Perurena, MEO, 888). "Lora bateri" (Errebido, MEO, 244).
- UDABERRIA: "Neskatx urdin jantzia" (Lizardi, MEO, 772). "Sagar-lore" (Lizardi, MEO, 775).
- UDAZKENA: "Udagoena" (Gandiaga, *Elorri*, 193 or.). "Udagoen-usaiña" (Gandiaga, *Elorri*, 195 or.). "Ondar gorri" (Lizardi, MEO, 775).
- ZERUA: "Aidean" (Gandiaga, *Elorri*, 181 or.).

OHARRA: Ba-dakit sasi-bilduma hau txepelkeria bat dudana; baiña horrelaxe utzi beharko da gaurkoz. Olerkari asko falta dire ta oso onak, Orixe esate baterako. Edonork ezagutzen ditu gure poeta gorenak, eta beren poemetatik osa lezake hemen agertu dena. Barka, ta eskerrik asko.

3. Poesia besomotzak osatzen

Gazteluaitz Arantzazu'ko arkaitz ezagun bat da. Honen sahetsean, errekon-doa, praillegaien futbol-zelaia aurkitzen da. Olerkaria Josepe Azurmendi dugu. Olerkia osatuko digutenak bosgarren urteko ikasleak ditugu, euskera hobekitxoan darabilkitenak. Errima-legerik-eta gordetzekorik ez zaie eskatu.

LOINAZ
(Errezil'goa)

Gerizpeak *itzaltzen*
arratsarekin batera.
Argi *urtu gorria*,
argi *epel makala*,
tu urrun arrats bera.
Gazteluaitz ondotik
zantzo ta karraxi-ots,
jolas-ziprizitiña,
aidea *urratuaz*
pozen *pozak lertuak*.
Nor litzaken ume...
Arratsalde zauri
odol-iturri,
inguru *motelek* pena.

OLERKARIAK

Gerizpeak *luzatzen*
arratsarekin batera.
Argi *more biguna*,
argi *fresko leguna*,
ta urrun arrats bera.
Gazteluaitz ondotik
zantzo ta karraxi-ots,
poz biurrien ezpal,
aidea *ebakitzen*
pozen *gezi zorrotz*.
Nor litzaken ume...
Arratsalde zauri
odol-iturri,
inguru *moreen* pena.
Gazteluaitz-pean
alaitasun labe,
labeak karraxi.
Nor litzaken ume
ume alai beti.

ARZAILLUZ
(Goiaz'koa)

Gerizpeak *zorrozten*
arratsarekin batera.
Argi *gozo txukuna*,
argi *motel kutuna*,
ta urrun arrats bera.
Gazteluaitz ondotik
zantzo ta karraxi-ots,
egunsentiko txinparta,
aidea *txulatzen*
pozen *arrats mingots*.
Nor litzaken ume...
Arratsalde zauri
odol-iturri,
inguru *geldoen* pena.

ZABALETA
(Legazpi'koa)

Gerizpeak *illuntzen*
arratsarekin batera.
Argi *legor joanbera*,
argi *illun ilbera*,
ta urrun arrats bera.
Gazteluaitz ondotik
zantzo ta karraxi-ots,
txori nekatuen istillu,
aidea *zulatzen*
pozen *tximista oker*.
Nor litzaken ume...
Arratsalde zauri
odol-iturri,
inguru *astunen* pena.

OIARZABAL
(Andoain'goa)

Gerizpeak *illuntzen*
arratsarekin batera.
Argi *urre mee*,
argi *bigun bare*,
ta urrun arrats bera.
Gazteluaitz ondotik
zantzo ta karraxi-ots,
ume-pozen altzo,
aidea *lotutzen*,
pezen *iñar biurri*.
Nor litzaken ume...
Arratsalde zauri
odol-iturri,
inguru *tristeen* pena.

J. BERISTAIN
(Errezil'goa)

Gerizpeak *illuntzen*
arratsarekin batera.
Argi *urdir illuna*,
argi *eztitsu goxoa*,
ta urrun arrats bera.
Gazteluaitz ondotik
zantzo ta karraxi-ots,
kanpai gazteen soñua,
aidea *jolasten*
pozen *txiñare berri-emaille*.
Nor litzaken ume...
Arratsalde zauri
odol-iturri,
inguru *gorrien* pena.

HIZKUNTZEN ETA EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA*

I. Gaiari helduz

[N. B.: Egokiera eta jakite-garapen ezberdinek suspertu dituzte azken hamarkadetan Hizkuntzen Historia Soziala (HHS) eta Euskararen Historia Soziala (EHS). Euskaltzaindiak bere lanen bidez behin eta berriz iradokita utzi du eremu historiko honetan dagoen zeregina, batez ere *Euskararen Liburu Zuria* argitara eman zuenetik.

Bestalde, azken mende-erdi pasatxoan Soziolinguistika izan da, ikergai honetarako ere baliagarri izan daitezkeen metodo-ereduak aurkeztu dizkiguna, eta historialariok hortik ikusi dugu hizkuntzen historia egiteko aukera berri bat. Orain, hamar-hamabost urtetik hona, berriaz abiarazita dago hizkuntzen historia soziolinguistikoaren ikerkuntza. Eta gurean, Irakaskuntzako jardunak ere erakutsi du zein premiazkoa den euskarak iraganeko gizartean izan dituen egoeraz jabetzea.

Horrek guztiak ekarri gaitu, irakats curriculuma berrikustean, propio EHSri ere leku bat ematera].

I.1. Hizkuntzen Historia Sozialaren garrantziaz (HHS)

Hizkuntzen historia soziala (HHS), horrela izendatuta ez da ageri Unibertsitateetako curriculum-etan, nahiz eta gisa batean nahiz bestean, han eta hemen, historia sozial horretako gaiak, modu solte eta sakabanatuan, beste gai-eremuetan agertu ohi diren: historia unibertsalean, antropologian, kultur historia nazionaletan, hizkuntzen eta literatura nazionalen iragana deskribatzean, etab.

* 2004, in Garagorri, X. (ed.), *Euskal curriculum: Kultur ibilbidea. Herritik mundura eta mundutik berrira. Adituen ekarpena*, Donostia: Ikastolen Elkartea / Eusko Jaurlaritza, 151-165.

Hala ere, berorren behar nabaria ukaezina gertatzen ari da, adibidez Soziolinguistika hizkuntzen presentzia soziala ulertzeko lanabes hermeneutiko berriak aurkitu eta lantzen ari denetik: gaurgero, herrien kultur iraganak aztertzeko hizkuntzen historia sozial horri erreparatu beharra dago.

Premia hau, hizkuntzen iraganaz diharduen argitalpen-zerrenda luze batek erakusten digunaren arabera, azpimarratuta dago, gutxienez XX. mende hasieratik hona, eta are gehiago mende horren bigarren partean, frantsesaren, ingelesaren, gaztelaniaren eta beste hainbat Estatu-hizkuntza ofizialen kasuan.

Baina hizkuntzekiko ezagumendu historiko-sozialen hau are premiazkoagoa gertatzen zaie, iragan zail baten ondorioz beren eremu eta erabilpenak *jatorrizko* lurralde, kultura eta funtzio sozialetan bizitza murriztu zaien herri-hizkuntzen historian.

Esan nahi dena ulertzeko hizkuntza-kolonialismoak sortu dituen kultur geografia berriak begiratu besterik ez dago: azkeneko 500 edo 200 urteetan hor izan diren aldakuntzak planeta-dimentsioa hartu dute: frankofonia, hispanofonia, anglofonia...

1500 edo 1800eko mapa linguistikoeak eta gaurkoak mundua gisa oso ezberdinetan koloreztaturik zuten eta dute. Horrek guztiak herrien arteko harremanak, kidetasunak eta lehiaketa-moduak aldarazi ditu, eta etengabe aldarazten ari da. Gogora gaur egun ingelesa nola ari den sartzen Europako kontinentearen barruan, adibidez frantsesari lekua janz EBko erakundeetan eta, oro har, nazioarteko harremanetan eta kulturatan.

Hortaz, hizkuntzen iragan soziala ezagutzea gaurkotasun nabariko zerbait da, hots, egun jazotzen ari diren fenomenoak konprenitzeko baliozko tresna bat eskaintzen digu.

I.2. HHSak Euskal Herrian izan dezakeen garrantziaz

Esandakoak mundu osoan eta Europan ere garrantzia baldin badu, zerbait bertsua eta are gehiagokoa gertatzen da hizkuntza ofizial bakarreko Estatuetan bizi behar duten berriazko hizkuntzaren bat duten Lehen Munduko herri txiki edo handiagoetan.

Izan ere hizkuntza-kolonialismoaren hori –ñabardura eta ezaugarri propioekin ulertuta– ez baita gertatu Hirugarren Munduko kolonialismo europar eta iparramerikarrarekin bakarrik.

A. Tovar-ek *Lo que sabemos de la lucha de lenguas en la Península Ibérica* izenburuarekin adierazten zuena (1968), edo Certeau-Julia-Revel-ek Frantziako Iraultzari salatu zioten *glotofagia* (Certeau et al. 2002 [1975]) horren adierazgarri onak

dira. Eta beste adibide bat emanez: Europako iragan linguistikoa ezin daiteke uler hizkuntza zeltek izan zuten iragan zabala orain duten eremu mugatuekin alderatu gabe, eta aldakuntzaren zergatiak bilatzeke.

Euskara eta euskaldunak ere Europako herrien iragan berezi horretan daude, ezaugarri guztiz propioekin gainera, ulertzen zaila den biziraupen luzearekin eta modernotasunerako gaitasun biziarekin.

Euskal Herriko herritarrek ezagutu egin beharko lukete Europako hizkuntzen historia soziala, orainaren eta etorkizun posibleen aurrean kontzientzia argia izan eta arduraz jokatzeko.

1.3. Zer da *Hizkuntzen Historia Soziala*?

Esan dugu: oraindik jakitate-eremu honek ez du lortu Unibertsitateetako antolamendu akademikoan bere aitorten ofizial osoa. Horregatik, komeni da *Hizkuntzen Historia Sozialaz* jardutean zertaz ari garen espresuki adieraztea, eta ondoan hurbil izan ditzakeen beste jakite-eremuetatik bereiztea.

1.3.1. *Definizio baten bila*

Giza eta Gizarte-Zientzietan hainbatek hartu du giza hizkuntza bere aztergaitzat, eta horietako bakoitza hizkuntza bere ikuspuntu berezitik ikertzen saiatu da. Horrelako Zientzien artean daude Linguistika, Filologia, Psikologia, Antropologia, Soziologia, Zuzenbidea, Politologia, etab.

Hauetako batzuk, gainera, hizkuntzez bakarrik arduratu dira; hori da Linguistikaren edo Filologiaren kasua, hark giza hizkuntzarekiko teoria orokorrak landuz eta Filologia, berriz, batez ere hizkuntzen iraganeko testuak aztertuz.

Psikologia, Zuzenbidea, Antropologia edo Soziologia ere arduratu dira hizkuntzak ikertzen, bakoitzak bere ikuspuntutik begiratuta: adibidez, giza psikearen garapen linguistikoak nola gertatu ohi diren aztertu du Psikologiak, hizkuntzen erabilpen ofizialen legeriak eta politika erakutsi dizkigu Zuzenbideak, hizkuntza-kodea kulturaren barnean nola txertatzen den Antropologiak, edo hizkuntzako gizartean une jakin batean nola eratu diren deskribatu izan digu Soziologiak.

Hori dena baliozkoa eta premiazkoa ere izan arren (eta batzuetan HHSarekin zerikusi oso hurbila duena), ez da HHSak azaldu nahi duena.

1.3.2. *Zer da, hortaz, HHSa?*

Hasteko, *Historia* da, hots, denboran zehar gertatu diren aldakuntzen azalpena, egon diren jarraipenak eta etenak erakutsiz, eta aldiari aldiko sinkronian aztergai dugunaren aldaeren arazoak bilatuz.

Hizkuntzak aipatzean, bere adiera zabalean hartu behar da hitza: horrelaxe ezagututako hizkuntzak ditu bere gaitzat HHSak, baina baita dialektoak ere, eta pidgin, lingua franca, argot edo hizkera berezituak ere: hau da, kode linguistikoren bat darabilten hiztunak eta berauen hizkuntza-biziera soziala dira HHSaren ikerketa esparrua.

Orobat, HHSak hiztunek bere hizkuntz(ar)en erabileran ezagutu dituzten mintzairaren gizarteko hizkuntza-ohitura, arau, erabilpen, garapen nahiz murriztean berri ematen du, hau da, hizkuntza-kodea bere barnean aztertzea Linguistika nahiz Filologiari utziz (lexikoa, gramatika, etab.), hiztunek eta hizkuntza-produkzioak gizartean izandako azalpen sozialak begiratzen ditu Historia Sozialak. Hizkuntzaren baitako kodeak berak aldatzean edo mantentzean, gizarte-harremanek nola eragin duten erakustea ere HHSaren barruan egon daiteke.

Horrela, hizkuntzaren kanpoko kode soziala hiztunen artean nolakoa den erakusten du HHSak: noiz eta nola erabiltzen den hizkuntza, zein azalpen sozial eta kultural dituen, halako edo bestelako barruti sozialetan edo gizarte osoan zein eta nolako lekua duen, hizkuntzaren lurraldea nola banatzen den, zein hizkuntza-politika bizi duen, etab.

Hizkuntza batek izan ditzakeen gizarte-azalpen guztietako aldakuntza eta jarraipenaren deskribapen arrazoitua eman nahi du. Horren guztiaren denboraren hariko aldakortasun soziala da HHSaren eremu propioa: historia.

Hiztun-taldek eta hizkuntzek beren gizarteak eta lurraldeak izan ohi dituzte, eta hizkuntz(ar)ekiko dituzten harat-honatak (mugak, funtzioak); hizkuntz arteko bizikidetza nahiz lehia ere HHSaren aztergaia dira; hortaz, hizkuntz arteko historiak ere ardura daiteke.

Hizkuntzen geografia, demografia, zuzenbidea, antropologia kulturala, politika, literatura, argitalpenak, etab. (hizkuntzaren alde soziala dakarren zernahi) HHSean bil daiteke.

1.4. HHSa Euskal Herritik begiratuta

Euskal Herriak bizi izan duen historiagatik, eta mendeetan zehar hizkuntzari gure gizartean sortu izan zaizkion egokierengatik (egokiera onak eta txarrak, denetik), HHSak zer erakuts franko izan dezake. Hori da ondoren azpimarratuko dudana.

1.4.1. *Zer esan dezake euskarari buruz HHSak?*

Mendebaldean milaka urtetan bizi izan den hiztun-talde batek eta hizkuntzak –euskarak– zer erakutsi asko du, Historiak eman dion eskarmentutik.

Baina iragan hori irakurtzen asmatu behar da. Irakaskuntza, hain zuen, horretarako gune sozial aparta da, alde batetik ikerlanak sustatzeko eta batez ere daki-gunaren berri eman eta taldeko gogoeta emankor bat elkarren artean egiteko.

Baina, geure eremu geografiko txikira mugatu gabe, komeni da euskararen kasua Historiako beste hainbat hizkuntzaren testuinguruan begiratzea, euskararen historiari espreskiago heltzean.

Bestalde, dagoeneko Euskal Eskoletan euskara irakasten da (hizkuntza-kodea landuz) eta baita Euskal Literatura ere (ahozko ekarpen ederrak eta idatzizkoak), eta horretan ari direla Irakasleek badute aukerarik euskararen historiako alde sozialen bat edo beste aipatzeko: adibidez, Literatura Errenazimentu eta Erreformaren testuinguruan nola jaio zen, edota Euskarak jasan dituen debeku politikoak, liburugintzaren garapena, etab.). Hala ere, argibide horiek oso zatika eta sistematikotasun gutxiz aurkeztu izan dira, nik uste.

HNSa arreta gehiagoz eskaintzean, ekarpen on batzuk egingo lirateke, behintzat, ondoko xede hauekin:

1. Euskararen kasua beste hainbat hizkuntzaren arteko bat dela erakutsi.
2. Munduko testuinguruan kasuak zein ezberdinak izan diren adierazi.
3. Mendebaldeko hizkuntza gutxituen artean euskararen kasuak duen interesa agerian jarri.
4. Ikertzaileentzat gaiak duen interesa azaldu.
5. Berezikiago, euskararen kasua bere osotasunean argitara ekarri.
6. Hizkuntzarena euskal historia orokorrarekin lotu.
7. Euskararen iraganaz eta orainaz kontzientzia ohartuago bat sortu euskal mintzatzaileen artean.
8. Euskal Herriko erdaldunen artean euskararen garapen sozialak argitu, jazarpen eta gutxiespenak ere erakutsiz.
9. Hizkuntzaren beraren historiari eta Euskal Literaturari testuinguru soziohistoriko zabalago eta sozialki errotuago bat eman.
10. Euskaldungoaren kopurua aldatuz nola joan den erakutsi.
- II. Euskararen lurralde-agerpen historikoak deskribatu.

Besteak beste, horiek izango lirateke HNSak gure Irakaskuntzan izan ditzakeen xede nagusi batzuk, Europan gaur bizirik dagoen kultura-aniztasun eta eleaniztasunari oinarri berriak eskainiz.

1.4.2. *Bizitzaren joan-etorrian*

HNSera eramán nauten bi une eta mota ezberdinetako egokierak aipatuko

ditut hemen, Euskal Herriko beste zenbaiten antzeko bizipenak ere badirelakoan¹: bata, neure haurtzaro eta nerabegarokoa, eta bestea, ikerkuntzan gertatutakoa, biak ere nolabait Irakaskuntzarekin lotutako bizipenak.

1.4.2.1. 1940-1960. urteetako Eskolan

Gerratearekin jaio nintzen, erreketek nire herrian sartu eta hurrengo astean: hala ere, nire paper ofizialetako lehenengo izena “Joseba Mirena” izan zen. Familia euskalduneko semea, Gipuzkoako Goierri euskaldunean jaioa. Baina nire lehenengo Eskolak erdaldunak izan ziren (Karitateko Alabekin, Viatortarrekin, eta batez ere *Escuela Nacionalean*). Azken honetan, esperientzia polit bat bizi izan nuen: laster jakin ahal izan nuen euskalduna ere izan zitekeela Eskola, nahiz eta erdaldun hutsa ikusten nuen. Aurretik eta ondoren izandako maisu erdaldun porrokatuen tartean, bat iritsi zen Segurara euskaraz zekiena eta Euskal Herria ere maite zuena: Gotzon Egaña. Honi esker jakin genuen mutilok Seguran Eskolak ez zeukala zergatik erdalduna bakarrik izan. Bizipen honen ondoan, neure amak ere bultzatu ninduen etxean neure gauzatxoak erdaraz ez baizik euskaraz idaztera. (Hori dena 1940-1948. urteetan izan zen).

Ondoren, fraide-bidea hartu nuen, Arantzazun izan nuen hizkuntz arteko egoera zailaren bigarren esperientzia: hango Kolegioan erdara zen guztiz nagusi, eta nik ez nuen euskarazko ikastordurik izan lehenengo bi urteetan (1948-1950). Horrek biziki atzendu ninduen euskararen erabilpenean, hirugarren urteko euskal ikastaroak bere asteroko ordubete urriarekin apenas konpondu zuen atzerapena (1950-1951). Hurrengo hiru urteak erabakigarriak gertatu zitzaizkidan, ordea (1951-1954): Foruko Seminarioan Aita Imanol Berriatua izan nuen maisu, Kepa Enbeita eta beronen familia bertsolaria lagun, eta nire euskal erroetara itzultzeko modua izan nuen. Filosofiako urteek egin zuten gainerakoa (1955-1958), eta orduan hartu nituen eginkizunak (lagunen artean irakasle eta *Gure Izarraren* zuzendari). Zailtasun-erraztasunak txirikordatuz euskal lanerako gutxi-asko trebatuta atera nintzen, ia hogeituro urteko eskola-esperientzia hartatik (1940-1958). Eta geroztik beti izan dut norberaren baitan eta gizartean hizkuntzaren esperientzia sozialak duen garrantziaz kontzientzia, *Jakineko* zuzendaritzan (1958-1962) eta Irakasle gisara Foruan praktikara eramana (1962-1964). Hurrengo urteetarako oinarri pertsonala gertatu zen hori dena.

¹ [N. B.: Idazlan hau argitaratu den liburu berean Jesus Altuna maisuak egin duenaren antzera, zilegi bekit nire esperientzia mugatuagotik hitz egitea].

1.4.2.2. *Ikertzailearen topaketak (1974-1976)*

Esandakoa, ordea, ez zen iritsi Zientzia jakin batekiko atxikimendurik sortzera: urte haietan Euskal Herrian ez genuen ezagutzen Soziolinguistikarik, eta horrek historian izan zezakeen aplikazio egokirik. Gure lanak batez ere zernahi gai euskaraz idaztean eta horretarako hizkuntza batu bat moldatzean zeuden. Bagenituen, noski, hizkuntzari esparru berriak irekitzeko asmo eta proiektuak, baina gehiagorik gabe; batez ere praxia zen nagusi.

1964an Goi-Ikasketak egitera joateko aukera izan nuen: hasteko, hizkuntza klasikoei ekitea erabaki zen orduan. Hala ere, Letretako lehen bi urteak burutu ondoren egin behar zen ondoko aukera berezitua, eta Bartzelonako Unibertsitateko inguru hartan Historiari ekitea hobe nuela erabaki nuen. Eta hortik Historia Erlijosora heldu nintzen. Besterik ez, artean.

Hona itzultzean, 1971n *Jakinen* zuzendaritza eman zidaten, eta *Anaitasunan* ere zuzendari lana egin behar izan nuen (1972-1973). Beste zenbait lagunekin lan-modu horietan nenbilela, Euskaltzainditik eta SIADECOTik egiteko jakin bat eman ziguten *Jakinen* ari gineno: *Euskararen Liburu Zuriaren* lehen hiru kapitulu teorikoak egitea: hizkuntza bere baitan (Manolo Pagola) eta hizkuntza bere testuinguru kulturallean (Paulo Agirrebaltzategi), alde batetik, eta hirugarrena –hizkuntza eta politika–, neuri izendatu zidatena.

Zoritxarrez, ni ez nintzen politologoa, edo legegizona, historialaria baizik, eta okerrena zena: hizkuntzen historia ez nekien deus, esatekorik. Hala ere, lanari historiatik ekitea hobe nuela pentsatu nuen, eta bila hasi nintzen, hobekixeago ezagutzen nuen Errenazimentutik hasita. Tiraka-tiraka hariak hainbat datu jakingarri jarri zizkidan aurrean, gaur oso ezagunak, baina orduan nonbait galdu batean zeudenak: hasteko, Konetzke, geroxeago Michel Certeau eta lagunak, etab. Batez ere Konetzke alemaniarren *Colección de documentos para la historia de la formación social de Hispanoamérica* mundu oso bat ireki zidan une hartan, gero zoritxarrez nahi hainbat garatu ahal izan ez dudana. Ondoren, adibidez, *Euskal Hitz* Erakusketan (1987) eta *Euskara, euskaldunon hizkuntza* liburuan (1990) egin ahal izan nuen nire saiakera bat, euskarari berari begira oraingoan.

Honek guztiak erakutsi bat du: hizkuntzaren alde sozial hau historialariok ia beti erakunde akademikoetatik kanpo landu behar izan dugula (hori azpimarratzen du, esate baterako, EHUK bere Udako Ikastaroetan edo Diplomatura jakinen batean bakarrik gai hau jorratu izanak). Egoera aldarazi egin behar dugu, bada, eta euskal curriculum eta berorri legokiokoen plan estrategikoa egokiak izan daitezke horretarako, neurriren batean.

2. Zenbait eduki historiko-soziolinguistikoren aukera, mendez mende

Oharra: Letra zuzenean, Europako eta kultura unibertsalari dagozkion ezaupideak, prozedura eta trebetasun orokorrak, eta balio eta jarrera orokorrak jasotzen dira. Letra etzanean, aldiz, euskal kulturari dagozkion ezaupideak, prozedura eta trebetasun espezifikoak, eta balio eta jarrera espezifikoak jasotzen dira. Gaur eguneko informazio-bilaketa batez ere Internet-en egin ahal izango da, baina komeni da entziklopedia eta kontsulta-liburuak ere aintzakotzat hartzea.

<i>Gertaera eta kontzeptuak ezagutu</i>	<i>Lan-prozedurak eta trebetasunak</i>	<i>Bereganatu behar dituen balio eta jarrerak</i>
<p>* Europako “jatorrizko” herri eta hizkuntzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Herriak – Hizkuntzak – Hizkuntzen paleokronologia 	<p>Informazio bilaketa-lanak abian jarri:</p> <ul style="list-style-type: none"> – <i>E. Britannica</i> eta <i>Universalis</i> oso egokiak dira argibide orokorretarako, hemen eta geroagoko kapituluetan – Internet ez ahantzi 	<ul style="list-style-type: none"> – Iragan luzeak dakartzan iraupen-balioak sentiarazi – Ondare linguistikoan Europak ezagutu dituen jarraitutasun eta etenen arrazoiak erakutsi
<p>* Euskara Europako Historiaurrean:</p> <ul style="list-style-type: none"> – <i>Historiaurreko euskal biztegia</i> – <i>Lurralde “euskoide” zabala</i> – <i>Euskaldunak: lurralde eta herri posibleak</i> – <i>“Euskal” Akitania harrigarria</i> 	<ul style="list-style-type: none"> – <i>Ebrotik Garonarainoko herrien mapa aztertu</i> – <i>Akitaniako idazkunak</i> – <i>Oiartzun eta Lergako idazkunak</i> 	<ul style="list-style-type: none"> – <i>Euskararen antzinatasun erlatiboa erakutsi</i> – <i>Euskara isilaren presentzia errealaz kontzientziatu</i> – <i>Beranduagoko erromatarrak dira horren lekuko</i> – <i>Hizkuntza mintzatu/ idatzien arteko dikotomia erakutsi</i>

<p>* Indoeuroparrak Mendebalderantz:</p> <ul style="list-style-type: none"> – <i>Indoeuropar</i> kontzeptua – Olatu-aldi ezberdinak: zeltaurrekoak, zeltak – Mendebaldeko hedapena – Ekarritako hizkuntza(k) 	<ul style="list-style-type: none"> – Indoeuroparekoen mapak bila eta azter – K.a.ko mapa indoeuroparra landu – Grezia eta Erroma bereziki gogoan izan 	<ul style="list-style-type: none"> – Herriak beren autarkia politikoan bizi daitezke – Inperio bateratzailerik gabeko Mendebaldea ere egon da
<p>* Euskararen etxeko eta auzoko indoeuroparrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> – <i>Leben indoeuroparrak (zeltaurrekoak)</i> – <i>Zeltak</i> – <i>Kulturen arteko elkar-bizitza?</i> – <i>Orduko EHko hizkuntzak bemen eta inguruetan</i> 	<ul style="list-style-type: none"> – <i>EHko eta inguru hurbileko zelten mapa egin</i> – <i>Hizkuntza zeltei euskarak hartutako maileguen zerrenda llaburra osa</i> – <i>Gaur egungo Europako bizkuntza zelten mapa egin</i> 	<ul style="list-style-type: none"> – <i>Kultura handien beriotzarainoko aldakortasun posiblea</i> – <i>Gaurko herri txikiek izan dezaketen iragan handiaz ohararazi</i> – <i>Irautearen balio ekologiko-linguistikoa azpimarratu</i>
<p>* Erromatarren latina Mendebaldean:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Inperioko hizkuntzak: grekoa eta latina – Tokian tokiko hizkuntzak – Galia eta Hispaniako herrien hizkuntzak – Inperio erromatarra latinaren hedatzaile – V. mendea: berrikitan latindartutako herriak 	<ul style="list-style-type: none"> – Erroma eta Italiako aurreko herrien mapa – Inperioa hizkuntza bitan banatuta: mapa – Inperio erromatarren mapa orokorra begiratu, herri txikien presentzia adieraziz – Testu klasikoetan ageri diren herriak bila, batez ere Galia eta Hispanian 	<ul style="list-style-type: none"> – Kulturak eta sonak hizkuntzen bizitzan duten garrantzia erakutsi – Hizkuntzak hedarazteko botere politikoak eta kulturak duten indarraz jabetu – Antzinateko etnografiaren interesa azaldu
<p>* Erromatarrek Euskal Herrian:</p> <ul style="list-style-type: none"> – <i>Erromatarren presentzia: kronologia eta geografia</i> 	<ul style="list-style-type: none"> – <i>EHko erromatartzearen mapa orokorra</i> – <i>EHko erromatartzea eta beste zenbait herritakoak</i> 	<ul style="list-style-type: none"> – <i>EHko erromatartzearen muga eta lorpenen neurria erakutsi</i> – <i>Beste tokitako arrakasta</i>

<p><i>ezberdinak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> – <i>Presentzia</i> moduak – <i>Aziarnak eta kulturgintza</i> – <i>Latina eta euskara: toponimia eta maileguak</i> 	<p><i>alderatu (bondakinen balioa, herrietako latinezko ekarpen literarioak. . .)</i></p> <ul style="list-style-type: none"> – <i>Euskararen biztegi “latino” zabarra erakutsi (bitz-zerrendak. . .)</i> 	<p><i>erromatarra eta gure-koaren erlatibotasuna ezagutzera eman</i></p> <ul style="list-style-type: none"> – <i>Euskal erresistentzia erlatiboaren arrazoiak</i> – <i>Inperioko latinak euskarari egindako ekarpenak</i>
<p>* Mende <i>ilunak</i> (Antzinate berantiarra eta lehen Erdi Aroa):</p> <ul style="list-style-type: none"> – Inguru politiko berrian – Barbaroak Mendebaldeko jaun – Aurreko kultura ofizialaren krisia – Hizkuntza etorri berrien ahulezia – Kristautze-prozesuak Mendebalde aldatuan – Mendebaldeko Eliza erromatarraren latina 	<ul style="list-style-type: none"> – Europako mapa barbaroaren iruzkin orokorra – Estatu barbaroen garapena Penintsulan eta Galian (mapak) – Garaiko testu adierazgarrienen azterketa – Bisigodoen hizkuntzaz zer dakigu (argibide bilaketa) 	<ul style="list-style-type: none"> – Herrien nortasunari eusteko goi-kultura landuaren premia – Kristautze-prozesuetako latindartze eragina Europan – Elizako goi-kultura eta hizkuntzen etorkizuna
<p>* Mende “<i>baskoiak</i>” (VI-X. mendeak):</p> <ul style="list-style-type: none"> – <i>Euskal herritarren aukera berriak: demografia. . .</i> – <i>Euskal geografiaren berrindartzea?</i> – <i>Hizkuntzaren bedapena?</i> – <i>Kristautzea burutzen: latina, Elizaren hizkuntza ofiziala</i> – <i>Herrien hizkuntzen lekua EHko Elizan</i> – <i>Euskara, agiri idatzirik gabeko mintzaira</i> 	<ul style="list-style-type: none"> – <i>Euskal herritarrei buruzko bisigodo eta frankoen testuak aztertu</i> – <i>Kanpoko erasoen mapa kronologikoak egin</i> – <i>Kristautzea eta euskararen erabilpena (testu-azterketa)</i> 	<ul style="list-style-type: none"> – <i>EHak erakutsi zuen barne-erabakimena</i> – <i>Indar demografikoaren balio historikoa</i> – <i>Kultur garapen eskasaren ondorioak</i>

<p>* Erdi Aroko aukerak Mendebaldean (IX-XV. mendeak):</p> <ul style="list-style-type: none"> – Kristau Inperio eta Erreinuen sortzea, eraketa eta bilakaera – Mendebaldeko kristautzearen burutzeak – Latinezko kultura kristauaren garapena: politika eta kulturguneak – Aukerak eta arriskuak – EH inguruko hizkuntza erromanikoen sortzea eta elkarren arteko lehia (arrakastak eta porrotak) – Erromantzeen garapen “ofizialak” eta literarioak 	<ul style="list-style-type: none"> – Mende ezberdinetako bizpahiru mapa politikoren alderaketa – Kristau inperioaren eraketa (Karlomagno...): mapak – Testu politiko hautatuen iruzkina – Erdi Aroko kulturguneen geografia – Penintsula eta Hexagono-ko Erreinu berrien kronologia – Europako Done Jakue bidea – Hizkuntza erromanikoen lehen testuen kronologia 	<ul style="list-style-type: none"> – Inperioa eta herrien arteko harremanen aldakuntza-uneen garrantzia – Hizkuntzen ordezkatzeko / segidaren arteko egoeren garrantzia – Kultur sorguneen eta boteregune politikoen arteko lankidetzak – Erlijiotasunaren zeregin kultural, ekonomiko eta soziala – Hizkuntza herritarren ofizialtasunerako bideak – <i>Lingua franca</i> deituen balioak
<p>* Euskal Herriko Erreinu eta Herrialdeen garapena (IX-XV. mendeak)</p> <ul style="list-style-type: none"> – Euskal Herriaren erakundetze politikoa: Nafarroa eta gainerako Herrialdeak – Euskal Herrietako kultur-guneak: monasterioak – Euskara eta bizkuntza erromanikoen auzokotasuna: lekukoak – Erdi Aroko Euskal izendegia: pertsonena, 	<ul style="list-style-type: none"> – Akitaniako garapen politikoen mapa – Nafarroako Erreinuaren garapen politikoen mapak – Euskal Herriko “beste” herrien kokalekuak: arabiarrek, frankoak, juduak – EH inguruetako bizkuntza erromanikoen lurraldeen mapa – EHko bizkuntzen kokapen geografikoa (mapa) – Euskal Herriko bizkuntzen mapa 	<ul style="list-style-type: none"> – Euskaldunen bedapen-ingar historikoa aditzera eman – Hizkuntzen arteko orekaren zailtasunak – Botere politikoak bizkuntzen artean egin ditzakeen hautapenen garrantzia – Euskal Elizaren euskalduntze mugatuaren ondorioak

<p><i>leku-izenak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> – Euskararen lekukoak: testu zabarrak – Erromaniko nafarra – Mundu ofiziala: euskararen aukera handi galdua 	<ul style="list-style-type: none"> – Euskal monasterioen argazkiak iruzkindu – Errioxa euskalduna: mapa – Erdi Aroko euskarazko izendegia: bilaketa 	
<p>* Europako Errenazimentua eta Erreforma (XVI. mendea):</p> <ul style="list-style-type: none"> – Monarkien garapen nazionalak (Frantzia, Espainia, Ingalaterra) – Hizkuntza nazionalen garapen kulturalak: literaturak... – Errenazimentua, latinaren eta herri-hizkuntzen artean (humanistak) – Erreforma protestantea, herri-hizkuntzen aldeko erabakia eta praxia – Hizkuntzekiko garaiko pentsamendua eta jarrera kultural eta politikoak – Hizkuntza nazionalen arrakasta: hizkuntza-ideologiak eta politikak – Herri, nazio eta kultura baztertuen hizkuntzak Europan – Gaztelania Ameriketean 	<ul style="list-style-type: none"> – Errenazimentua definitu: kontzeptua eta kronologia – Errenazimentu kulturalaren Europako mapa – Europako artista nagusienen lauki laburra (aukera eztabaidatu) – Zer ziren <i>humanistak</i>: izendegi laburra (id.) – Hizkuntzei buruzko testu ideologikoak – Nebrijaren testua gaztelaniari buruz: iruzkina – Frantzisko I.aren frantsesari buruzko dekretua (1539) – Herri-hizkuntzei buruzko humanisten testuen azterketa – Europako Biblia itzulpenen leku eta datak eman lauki batean 	<ul style="list-style-type: none"> – Egokiera berrian beste hizkuntzek aurrera edo atzera zergatik egin duten iradoki eta azaldu. – Beste herri europarretako garaiko hizkuntza-apologien esanahi historikoa argitan jarri

<p>* Errenazimentua eta Erreforma protestantea Euskal Herrian:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Errenazimentua eta euskal literaturaren sorrera (1530-1560: Etxepare) – Erreginaren Erreformaren abaleginak: Testamentua Berria (1571: Leizarraga) – EHko euskalarien euskararekiko pentsamendua – Lorpen literario mugatuak 	<ul style="list-style-type: none"> – Etxepareren “Sautrela” eta “Kontrapasa” aztertu – Etxepareren testuak beste erbesteko batzuekin alderatu – Nafarroa Beberoko Erreformaren lorpenak: itzulpen-taldea eta Testamentu Berria – Leizarragaren hitzaurreak aztertu: zein ideia linguistiko ditu – Garaiko euskalari apologisten liburuak – Euskarazko lehen saio literarioaren segidarik eza (azalpen kronologikoa) 	<ul style="list-style-type: none"> – Garaian garaiko korrante bizi berriekin batera jardutearen balioa – Euskaraz lan egitearen emankortasuna – Erdaraz eginez (bakarrik) euskarari lagundu nabiaren emaitza eskasak
<p>* Barrokoaren mendea Mendebaldean (XVII. mendea):</p> <ul style="list-style-type: none"> – Erreforma Katolikoaren emaitzak: literatura erlijiosoa – Espainia eta Frantzia Europako hegemoniaren borrokan – Urrezko bi mende literario elkarren segidan, Espainian eta Frantzian – Espainieraren arrakastak aurreko mendetik hasita – Frantsesaren arrakastak Hexagonoan eta Europan ere – Hizkuntza baztertuen egoera Europan 	<ul style="list-style-type: none"> – Mende hasiera eta bukaerako Europako maparen azterketa – Mende honetako arrakasta literario handien berriak bilatu (Frantzia, Espainia) – Zertarako Akademia bat Frantzian? (1635) – Luis XIV.aren konkistak eta lurralde berrietarako dekretuak: testuen azterketa 	<ul style="list-style-type: none"> – Hizkuntza politika landu eta ohartu baten garrantziaz jabetu – Geroko borboitar espainolen hizkuntza-politika ulertzeko giltzarriak eman – Hizkuntza ofizialen normalizazioaren garrantzia (Akademiak)

<p>* Euskararen lorpenak eta mugak (XVII. mendea)</p> <ul style="list-style-type: none"> – Erakunde zibiletatik baztertuta – Elizaren ezaqumendu ofizialak: Calaborra, Iruñea, Baiona – Euskal literaturaren birsortzea. Sara-Donibane – Obra maisu baten testuingurua: “Gero” (1643) – Hegoaldeko ezinak 	<ul style="list-style-type: none"> – Gernikako Batzarrak eta euskara (1613-1633) – Calaborrako Sinodaletako testuen azterketa historikoa – Klaberiarren poema, Garibairi buruz: testu iruzkindua – Axularrek zergatik balako laudorioa Etxauz Apezpikuari buruz? – Euskararekiko Axular-en ideiak (1643) – Euskarari buruz garaiko autore espainolen testuak 	<ul style="list-style-type: none"> – Euskararen ofizialtasunerako zailtasunak erakutsi (dependentsia politikoak eta hizkuntza) – Euskara kultur bizitzan erabiltzearen garrantzia – Boterearen babesaren garrantzia, euskararen garapen sozialean (Eliza)
<p>* Argien mendeko aukerak (XVIII. mend.)</p> <ul style="list-style-type: none"> – Borboitarren hizkuntza politikak Frantzia eta Espainian, Luis XIV. aren ondotik – Kataluniako kasu eredua (1714...) – Ameriketako burubide politiko-linguistikoko espainiarra – Iraultzaren bi jokamolde: herri-hizkuntzak propagandarako, ala frantsesa bakarrik Iraultza egiteko? 	<ul style="list-style-type: none"> – Katalanari buruzko dekretuetako testuen azterketa – Ameriketako hizkuntza-politika argizatua (1772) – Rousseau-ren ideia linguistikokoak: testuak – Frantsesaren arrakasta munduan (mapa?) – Alemanaren lorpen berriak: idazleen lauki arrazoitua – Iraultzako testu kontrajarrien alderatzea 	<ul style="list-style-type: none"> – Hizkuntzarekiko gogoeten eragin sozial eta politikoaz jabetu – Borboitarren eta Iraultzako azken erabakien segidatasuna erakutsi – Hizkuntzaren eta botere politikoaren berezko zerikusia argitan jartzea
<p>* EHko XVIII. mendea Ipar-Hegoaldeetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Iparraldeko garapen literarioa eta Iraultzaren oihartzunak 	<ul style="list-style-type: none"> – Etxeberri Sarakoaren zenbait ideia linguistikoren azalpena – Larramendiren gramatikako testuak 	<ul style="list-style-type: none"> – Kultur gaiak euskaraz ematearen balioa (Etxeberri Sarakoa) – Euskararen inguruko politikaz sortutako

<ul style="list-style-type: none"> – Koroa eta euskal Erakunde Publikoak: barreman zailak – Hegoaldean Loiolako jesulagunen lanak: Larramendi gidari (1729. . .) – Euskal Herriko Adiskideak eta euskara – Gipuzkera eta bizkaieraren literatur jaiotza – Testu idatzien tamaina, zabalkunde eta xedeak – Koroaren hizkuntza-politika: Aranda eta beste 	<ul style="list-style-type: none"> – Larramendiren gramatika eta hiztegia, garaiko lan akademikoan – Zalduntxoeren testuren bat (azterketa) – Euskara Eskolara ote? – Arandaren debekua Kardaberaz-i (testu-azterketa) – Iraultzako euskal testuak 	<ul style="list-style-type: none"> – eztabaiden garrantzia – Euskararen erabilpen eta izen onerako euskararekiko idazlan arauemaileen garrantzia – Talde-giroko lanaren emankortasuna (Loiola) – Euskararen kultura isilarazteko abaleginen esanabiaz ohararazi (Aranda)
<p>* Estatu liberal berrien barnean (XIX. mendea):</p> <ul style="list-style-type: none"> – Estatu-egitura berrien garapena – Ideologia eta proiektu soziokultural kontrajarriak – Amerikaren independentzia – Iraultza industrialak – Migrazioak: emigrazioak eta inmigrazioak – Gerra zibilak – Kultur tresna ofizial berriak: Eskola. . . 	<ul style="list-style-type: none"> – Bi testu kontrajarri: Iraultzako eta alemanen batena? – Hizkuntza-abertzaletasun berrien Europako lekukoak (mapa) – Austria-Hungariako hizkuntzekiko testuak – Lege eta arauetan aipatu ere gabeko herri-hizkuntzak – Arrakasta literarioa lortu zuten herri txikien kasuren bat: Finlandia? – “Hizkuntza da aberria” 	<ul style="list-style-type: none"> – Hizkuntzen aurkako eraso politikoaren bi motak: isilduarena, zigortuarena – Herrien erresistentzia eta sormenaren balioa – Estatu moderno erakundetuagoaren arriskuak eta ahalbideak erakutsi
<p>* <i>EH iraultza liberalaren aurrez aurre (1789-1876):</i></p> <ul style="list-style-type: none"> – Euskaldunak gerra zibilaren artean, eta emigrazio-bideetan 	<ul style="list-style-type: none"> – Iraultzak “patois” deituei buruz esandakoak – Humboldt-en euskararekiko iritziak – Euskara Bizkaiko 	<ul style="list-style-type: none"> – Iraultza liberalen hizkuntzekiko egitarau politikoak jabetu – Horrek piztu zituen erresistentziak erakutsi

<ul style="list-style-type: none"> – <i>Euskal Erakundeen ezabatzea (1839, 1876)</i> – <i>Lehen mende-erdiko euskararen lorpen literarioak eta eragozpenak (Gerriko)</i> – <i>Hizkuntzarekiko kontzientzia argitzen, baina aterpe ofizialik gabe</i> – <i>1850etik aurrerako ekimen kulturalak: Euskal Jaiak</i> 	<ul style="list-style-type: none"> <i>Batzarretan (testua)</i> – <i>Euskara eskolara?</i> – <i>Euskararekiko kontzientzia kultural eta politikoa</i> – <i>Iparraldea kultur eragile: Abadia eta Euskal Jaiak</i> – <i>Iparragirreren euskararen aldeko kantak ikasi</i> 	<ul style="list-style-type: none"> – <i>Euskaltzaletasun berrituaren lehen saioak agerian jarri</i>
<p>* Bi menderen arteko gatazka europarrak (1870-1939):</p> <ul style="list-style-type: none"> – <i>Europako Estatu nazional eta kolonialistak (1884...)</i> – <i>Iraultza Industrialak eta migrazioak</i> – <i>Frantziako III. Errepublika (1871-1914)</i> – <i>Herri txikietako abertzaletasunak: Otomanoak, Ingalaterra, Austriako Inperioa, etab.</i> – <i>Europako hizkuntza txikien garapen literario-kulturalak</i> – <i>Gerra Handia (1914)</i> – <i>Estatu berriak Europan</i> – <i>Espainiako Gerra (1936)</i> – <i>Nazismoa eta II. Mundu Gerra</i> 	<ul style="list-style-type: none"> – <i>Kontinente europarreko hizkuntza-gatazkak: testu txekiar bat?</i> – <i>Kataluniako hizkuntza -abertzaletasuna: testuak (Manresa, etab.)</i> – <i>Emigrazio linguistikoak: EEBBetako alemanen Eskolak, galestarrak Argentinan</i> – <i>Parlamentuko eztabaida baten antzezpena</i> – <i>Renaixença katalaneko hizkuntza-arrakastak (lauki bat egin: obra, autorea, urtea)</i> – <i>Iberiar Penintsulako hizkuntzen mapa</i> – <i>II. Errepublikako hizkuntzekiko testuak (1931-1936)</i> 	<ul style="list-style-type: none"> – <i>Europako zenbait herriren arrakastak erakutsi</i> – <i>Hizkuntzekiko eztabaida politikoen bidea deskribatuta utzi</i> – <i>Politikarien diskurtso linguistikoa argitan jarri</i>

<p>* Eusko Pizkundera (1876-1936):</p> <ul style="list-style-type: none"> – Euskal Hegoaldea, Espainiako proiektu kanobistaren barnean – EHko Industri Iraultza eta demografi aldakuntzak – Estatu Espainiarraren proiektu kulturala – Euskaldunen demografia: zenbat euskaldun? – Euskal Hiriburuetako kultur taldeak eta bizkuntza – Hizkuntza- abertzaletasunaren agerpena – Hizkuntzaren aldeko talde herritar, kultural eta ofizialen lanak – Alderdi politikoen euskararekiko jarrerak – Aldizkariak, argitalpenak – Euskarazko azalpen kulturalen garapena – Gidari eragileak: J. Manterola, G. Mujika, Aitzol. . . – Euskaltzaleak elkartzeko abaleginak (Hendaia, 1901; Hondarribia, 1902) – Euskaltzaindia 	<ul style="list-style-type: none"> – Zenbait pertsonairen biografiak idatzi: Abadia, Manterola, Campión, etab. – Mapa batean Eusko Pizkundeko idazle bandien sorterrriak eman – Eliz Sinodoetako testuak (Gasteiz) – Campión-en euskararen aldeko arrazoiak bildu (“Gramática”, 1884) – Katekesirako bizkuntza-debekuak (1902) – Euskal Eskolaren eskea – Talde euskaltzaleak: “Euskal Esnalea” (1907) – Alfonso XIII.aren Oñatiko bitzaldia – Euskaltzaindiaren sorrera-agiria – Diktadurako dekretuak (1924, 1925) 	<ul style="list-style-type: none"> – Estatu modernoak bizkuntza-politika malgu bat eramateko dituen ezinak – Eusko Pizkundera ekarri zuen euskararekiko praxia eta gogoeta teorikoa erakutsi – Eskuratutakoaren balioa eta mugak aditzera eman – Hizkuntzak alderdi politikoen egitarauetan ageri dira jada
<p>* Gerraondoko diktadura luzean (1936-1975):</p> <ul style="list-style-type: none"> – Iparraldea bere bide eta kronologian (gerratea, erresistentzia) 	<ul style="list-style-type: none"> – II. Mundu Gerraren osteko Europako mapa – Frankismoaren kronologia epekatu bat eratu 	<ul style="list-style-type: none"> – Kolonialismoak hizkuntzekiko izan duen politika argitan jarri – Hizkuntza estatal ofizialen aldeko

<ul style="list-style-type: none"> – Gerra Hotza – Frantziako politikaren une, arazo eta lerro nagusiak – Frankismoa munduko testuinguru politikoan – Frankismoaren lehen bi hamarkadak: falangea eta autarkia – Gerra hotza eta frankismoaren nazioarteko onarpenak – Frankismoa garapen ekonomikoaren ahaleaginean – Francoren azken urte zailak (1968-1975) 	<ul style="list-style-type: none"> – Frantzia eta kolonietako mapa kronologiko bat egin – Deskolonizazioaren mapa datatua egin – De Gaulle Québec-en: prentsa atalak – Katalanaren debekuak frankismoan – Deskolonizazioa eta hizkuntzak (Aljeriako kasua?) – Kolonia ohietako jatorrizko hizkuntzen mapak 	<p>politika orokorrak agerian utzi</p> <ul style="list-style-type: none"> – Jazarpen linguistikoaren errealitatea erakutsi – Hizkuntza-politiken aldakuntzen ahalbidea erakutsi
<p>* Euskara eta euskal kultura frankismoan:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Egoera politiko ez-demokratikoa – Mintzatzailearen jazarpena eta espazio ofizialen debekua – Euskaltzale erbesterratuak, Europan eta Ameriketean – Hizkuntza-erakundeak geldiarazita – Lehenengo debeku praktikoak eta berehalako zailtasunak (1936-1956) – Euskal Erbestearen eta Barnearen arteko barremanak – Eskola, hedabide eta 	<ul style="list-style-type: none"> – Euskararen debekuak: testuak – “Euzko-Gogoa”ren salakuntzak – Politikarien salakuntzak: J. A. Agirre – 1939-1950 urteetako euskarazko argitalpen-lekuen mapa kronologikoa egin – Euskaltzaindiko argitalpenen gerraosteko kronologia finkatu lauki batean – Euskaltzaindiaren frankismo garaiko Batzarretako berriak bildu: urteak, lekuak, gaiak – Norberaren berriko 	<ul style="list-style-type: none"> – Euskararen jazarpena deskribatuta utzi – Herritarren hizkuntza-borondate euskaltzalea azpimarratu – Euskararen iraupen eta berreskurapenerako ekimenak eta zailtasunak aditzera eman – Lortutakoak eta lortu gabeak erakutsi

<p><i>administrazioen jarrera linguistikoak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> – 1956ko bihurtzea – 1960etako hizkuntzaren aldeko ekimen sozial nagusiak: ikastola, prentsa, irratia, argitalpenak, euskararen normalkuntza, alfabetatzea eta abar 	<p><i>ikastolaren historia laburra idatzi</i></p> <ul style="list-style-type: none"> – “Zeruko Argia”ren lehen alea (1963) aurkeztu ikasgelan – Alfabetatzea noiz hasi zen berrian? – Etxean duzuen euskal libururik zabarrena aztertu – Euskara Batuaren urte esanabitsuenak finkatu 	
<p>* Gerra Hotzetik eta Diktaduratik Autonomiara:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Krisi ekonomikoan (1973...) – Sobiet Batasunaren desagertzea – Islamismoaren molde politiko berriak – Munduko eskualdearteko desorekak – Txinaren irekiera erlatiboa – Teknologia berrien jaiotza – Ekonomia eta politika globalizatuak – Munduko arazo ekologikoak – 2001eko bihurtzea? – Espainiako demokraziaren lorpen eta ezinak 	<ul style="list-style-type: none"> – Konstituzioko hizkuntza-artikuluari buruzko Kongresuko eztabaida – Estatu Espainiarreko Estatutuetak hizkuntzei buruzko testuen azterketa – Hemerotekan bilaketak egin, eta aurkitutakoa ikasgelan komentatu 	<ul style="list-style-type: none"> – Aurreko mendeetakoaren ondoan eman diren pausu berrien balioespena – Egoerak dituen mugak, Estatu Espainiarrean eta Frantziako Errepublikan

<p>* <i>Hegoaldean, Iparraldean (1975-2002)</i>:</p> <ul style="list-style-type: none"> – <i>Estatutua (1979) eta Hobekuntza (1982): euskararen ofizialtasuna, koofizialtasuna</i> – <i>Horren ondoriozko hizkuntzarekiko Legeak</i> – <i>Hizkuntza-Erakunde ofizialak</i> – <i>Euskararen aldeko molde guztietako herritar ekimenak</i> – <i>Aldizkari, argitalpen, bedabide, administrazio, irakaskuntza eta abarretako euskararen presentzia (lortua, lortzekoa)</i> – <i>Iparraldeko egoera</i> 	<ul style="list-style-type: none"> – <i>Nafarroako hizkuntza-mapa (biru eremuak)</i> – <i>Hiru Probintzietako mapa soziolinguistikoaren aurkezpena</i> – <i>Euskara herri-eskoletan: tokiko elkarrizketak belduei</i> – <i>Euskararen presentzia administrazioan, industrian, merkataritzan: test praktikoak, elkarrizketak</i> – <i>Euskal liburugintzaren garapena (estatistikak)</i> – <i>Internet: Euskarari buruz dagoen informazioaren azterketa</i> – <i>Iparraldeko erakunde eta elkargoen berriak bildu</i> – <i>Iparraldeko euskarazko argitalpen zerrenda bat moldatu</i> – <i>Iparraldeko euskaltzain eta idazleen zerrenda egin</i> 	<ul style="list-style-type: none"> – <i>Autonomiarekin lortu direnak azaldu</i> – <i>Herri ekimenak egindakoak erakutsi</i> – <i>Herrialdeen arteko ezberdintasun instituzional eta soziolinguistikoak erakutsi</i> – <i>Iparraldearen kasu berezia</i> – <i>Nafarroako dinamika</i>
---	---	---

3. Oinarrizko bibliografia

[N. B.: Hemen iradokizun mugatuak eskaintzen dira, baina ondoko liburu honetan eta Euskaltzaindiaren Sareko atarian topa daitezke albiste osagarriak: *Euskararen Historia Soziala. Argibide bibliografikoak*, 2011, Euskaltzaindia. Oharrak bereziki balio du hemen aipatzen ez den Soziolinguistika gogoan hartzeko: s. v. "Soziolinguistika". Euskaltzaindiaren Atarian: <<http://www.euskaltzaindia.net/ehsbib>>].

3.1. Bibliografia orokorraz

Hizkuntzen historia soziala lantzeko nahitaezkoa da lehenik mintzaira bakoitza bizi izan den gizartearen historia ezagutzea: herrien historia, alegia, gure kasuan Euskal Herrikoa, eta beste herrietan bakoitzarena.

Gizarte-historia orokorren ezagutza hori, lortutzat edo bilagarritzat ematen dugu hemen, eta horretaz bibliografiarik ez dugu aipatuko.

3.2. Hizkuntzei buruzko bibliografia

Hizkuntzen historia sozialari orokorrean erantzungo dion obra bakar osorik ez dago merkatuan, dakidanez. Hizkuntzen eta/edo Literaturen historia orokorrak begira daitezke, betiere iragan historiko horietan alde sozialak bilatuz. Hain zuzen, horixe izaten da jeneralean zailena, alde sozial hori aski garrantuta aurkitzea.

Entziklopedia orokor batzuetan hizkuntzen historia sozialaz hainbat albiste bildu ezinik ez dute irakasle-ikasleek; batez ere *Enc. Universalis* frantsesa eta *Britannica* iparramerikarra ditugu gogoan. Dena den, inguruko zenbait hizkuntzen historiak gogoraraziko ditugu hemen, neurriren batean baliagarriak direlakoan:

Europa, Hexagonoa, Penintsulako hizkuntzak

Askoren artean, 1973, *Les dialectes romans de France à la lumière des atlas régionaux*, Paris: CNRS.

Giordan, H. (ed.), 1992, *Les minorités en Europe. Droits linguistiques et Droits de l'Homme*, Paris: Éditions Kimé.

Moreno Fernández, F., 2005, *Historia social de las lenguas de España*, Barcelona: Ariel.

Tovar, A., 1968, *Lo que sabemos de la lucha de lenguas en la Península Ibérica*, Madrid: Gregorio del Toro.

Walter, H., 1994, *L'aventure des langues en Occident: leur origine, leur histoire, leur géographie*,

Paris: Robert Laffont. [Gaztelaniazko edizioa, 1997, *La aventura de las lenguas de Occidente: su origen, su historia y su geografía*, Madrid : Espasa-Calpe].

Frantsesa

Certeau, M. et al., 2002 [1975], *Une politique de la langue. La Révolution française et les patois: l'enquête de Grégoire*, Paris: Gallimard.

Cohen, M., 1987, *Histoire d'une langue: Le français. Des lointaines origines à nos jours*, Paris: Messidor.

Rey, A. (ed.), 2007, *Mille ans de langue française. Histoire d'une passion*, Paris: Perrin.

Galiziera

Askoren artean, 1986, *Lingüística, Sociolingüística e Literatura galaico-luso-brasileira-africana de expressao portuguesa*, Pontevedra: O Ensino aldizkaria, 1986-6/10. [Historia osoa izan gabe hainbat gai interesgarri ditu].

Mariño Paz, R.; Moscoso Mato, E., 2012-10-18, *Historia externa da lingua galega*. <http://www.usc.es/fgsec/material/galega3_historia_externa_lingua_galega.pdf> [Iradokizun eta agiri interesgarriak ditu].

Gaztelania

Cano, R. (ed.), 2004, *Historia de la lengua española*, Barcelona: Ariel.

García Isasti, P., 2004, *La España metafísica*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Konetzke, R., 1953-1962, *Colección de documentos para la historia de la formación social de Hispanoamérica, 1493-1810* (5 libk.), Madrid: CSIC.

Lapesa, R., 1986⁹, *Historia de la lengua española*, Madrid: Ed. Gredos.

López Morales, H., 1998, *La aventura del español en América*, Madrid: Espasa.

[Menéndez Pidal, R., 2005, *Historia de la lengua española*. Madrid: Fundación Ramón Menéndez Pidal / Real Academia Española].

Solano, F., 1991, *Documentos sobre política lingüística en Hispanoamérica (1492-1800)*, Madrid: CSIC.

Ingelesa

Fernández, F., 1982, *Historia de la lengua inglesa*, Madrid: Gredos.

Hogg, R. M. et al., 1992-2001, *The Cambridge History of the English Language*. Cambridge University. (6 libk.).

McCrum, R. et al., 1992, *The Story of English*, London/Boston: Faber and Faber/BBC Books.

Varia: Sarean <http://en.wikipedia.org/wiki/History_of_the_English_language>. Ataritik hasita langai anitz eta ona aurki daiteke.

Italiera

Migliorini, B., 1969, *Historia de la lengua italiana* (2 libk.), Madrid: Gredos.

Katalana

Badia i Margarit, A. M., 1976, *Ciència i passió dins la lingüística catalana moderna*, Barcelona: Universitat de Barcelona.

Badia i Margarit, A. M., 1985, *Llengua i poder. Textos de sociolingüística catalana*, Barcelona: Editorial Laia.

Duarte, C.; Massip, A., 1984, *Síntesi d'història de la llengua catalana*, Barcelona: Edicions La Magrana.

Ferrer i Gironès, F., 1985, *La persecució política de la llengua catalana*, Barcelona: Edicions 62.

Nadal, J. M.; Prats, M., 1982-1987, *Història de la llengua catalana*, Barcelona: Edicions 62.

Okzitaniera

Baris, M., 1978, *Langue d'oïl contre langue d'oc*, Lyon: FEDEROP.

Bec, P., 1985, *La langue occitane*. Paris: PUF.

Brun, A., 1973 [1923], *Recherches historiques sur l'introduction du français dans les Provinces du Midi*, Genève: Slatkine Reprints.

Portuguesa

Fonseca, F. V. P. da, 1985, *O português entre as Línguas do Mundo*, Coimbra: Livraria Almedina.

Silva Neto, S. da, 1979³, *História da língua portuguesa*, Rio de Janeiro: Presença.
<<http://cvc.instituto-camoes.pt/conhecer/bases-tematicas/historia-da-lingua-portuguesa.html>>

3.3. Euskarari buruzko bibliografia

Euskarari dagozkionetan, bitakoren bat: a) langaiak argitalpen ugaritan sakabanatuta daude, edo b) sintesi bakar batzuetan begira daiteke behar dena.

Ez da ahaztu behar Euskal Literaturaren Historietan (Villasante, Mitxelena, Sarasola, Urkizu) alde soziala nabarmenki ageri dela sarritan: eskueran dagoen hori jaso eta antolatu egin behar da, bilaketarako ikasleari alde aurretik eman dakioken galdera-zerrenda lagungarri baten bidez. Hona oraingoz [2004] proposatuko duguna:

- Allières, J., 1979, *Les Basques*, París: PUF. Col. "Que sais-je?" I668.
- Askoren artean, 1977, *Euskararen Liburu Zuria / Libro Blanco del Euskara*, Bilbao, Euskaltzaindia.
- Askoren artean, 1987-, Bidegileak liburuxka-saila, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [Alde soziala bereziki zaintzen du].
- Askoren artean, 1995, *Euskara atzo eta gaur / Pasado y presente de la lengua vasca / Passé et présent de la Langue Basque*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco / Gouvernement Basque. [cda da, eta Interneten ere aurki daiteke <<http://www.euskara.euskadi.net>> helbidearen barruan. Bertan topa daitezke Intxausti 1990-1992 liburuko langaiak ere].
- Ciervide, R., 1991, *Euskal Herria. Lugar de encuentro de Lenguas y Culturas*, Vitoria-Gasteiz: Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte.
- Echenique Elizondo, M. T., 1987², *Historia lingüística vasco-románica*, Madrid: Paraninfo.
- Euskaltzaindia; Siadeco; Ugalde, M., 1979, *Hizkuntz borroka Euskal Herrian / Conflicto lingüístico en Euskadi*, [Arrasate]: Ediciones Vascas / Lan Kide Aurrezkoa.
- Intxausti, J., 1990-1992, *Euskara, euskaldunon hizkuntza / Euskera, la lengua de los vascos / Euskara, la Langue des Basques*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza / Donostia: Elkarlanean. [Ikus Askoren artean 1995].
- Jimeno Jurio, J. M., 1997, *Navarra. Historia del euskera*, Tafalla: Txalaparta.
- Lafon, R., 1973, *La langue basque*, Bayonne: Bulletin du Musée Basque.
- Madariaga, J., 2008, *Apologistas y detractores de la lengua vasca*, San Sebastián: FEDHAV.
- Merino Urrutia, J. B., 1978, *La lengua vasca en la Rioja y Burgos*, Logroño: Diputación Provincial.
- Michelena, L., 1964, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, San Sebastián: Auñamendi.
- Michelena, L., 1977, *La lengua vasca*, Durango: L. Zugaza.
- Torrealdai, J. M., 1977, *Euskal idazleak, gaur*, Arantzazu: Jakin (EFA).
- Torrealdai, J. M., 1997, *Euskal kultura gaur*, Donostia: Jakin.
- Torrealdai, J. M., 1998, *El libro negro del euskera*, [San Sebastián]: Tarttalo.
- Tovar, A., 1980, *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, Madrid: Alianza editorial.
- Urkizu, P. (ed.), 2000, *Historia de la literatura vasca*, Madrid: UNED.
- Xamar, 2001, *Orekan: herri eta hizkuntzen ekologiaz*, Iruñea: Pamiela.
- Xamar, 2006, *Euskara jendea. Gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza*, Iruñea: Pamiela.
- Yrizar, P., 1973, "Los dialectos y variedades de la lengua vasca. Estudio lingüístico-demográfico", *BAP XXIX*, 1973, 3-78.

Zuazo, K., 1999, *Arabarrak Euskararen Herrian*, Gasteiz: Arabera.

Zubiaur, J. R., 1990, *Las ideas lingüísticas vascas en el siglo XVI*, San Sebastián: Univ. de Deusto, Mundaiz.

LUIS ASTIGARRAGA UGARTE, POLITIKARI ETA PEDAGOGO EUSKALTZALEA (Segura, 1767 - Gasteiz, 1840)*

Luis Astigarraga Ugarte aipatzean, euskal Eskola eta Hezkuntzan bideurratzailea izandako norbaiten aurrean gaude, eta aldi berean XIX. mendeko euskal alfabetatzailea izandako baten aitzinean. Hala ere, nahikoa ezezaguna izan dugu Astigarraga, beroni buruzko albisteak urriak izan baitira, oso tantaka emandakoak, gainera (batez ere Lasa-rengandik jasotakoak)¹.

Zerbait osatuagoa ekarri nahiko nuke orain², euskal Hezkuntzaren historialariek eskueran izan ez ezik osatuz eta biribilduz joan daitezten. Lehendik genekiena jasoko dut, noski, eta zenbait albiste osagarri eta zehatzago bilduko orrialde hauetan.

Oraingoz Astigarraga pedagogoari eskaini zaion lanik dokumentatuenean, zera idatzi da: garaiko zinezko argiztatu baten aurrean gaudela esatea ez da inolako gehiegikeria. Bere barru kezkatia heziketa entziklopedikoa eskuratzera eraman zuen, betiere metodo pedagogiko aurreratuenekiko sentiberatasun handiz gainera, dio Benito-k³.

* 2007, in Bilbao Bilbao, B.; Perez Urraza, K.; Pérez Urraza, K. (ed.), *Paulo Iztueta, euskal pentsamenduaren eraikitzaile* liburuan eman zen (Bilbo: EHU), 161-196. Orain, izenburua zuzendurik eta testua osatu eta birmoldatuta ematen da argitaraldi hau (ik. *Ikastaria. Cuadernos de Educación*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 16, 2008, II-45).

¹ J. I. Lasa izan zen, uste dut, erbia eraiki zuena (ik. Lasa et al. 1968: 48-51). Geroztik han-hemen xehetasun errepikatuak eman dira, eta J. de Benito-ri zor diogu urrats berri bat. Neuk osatu dut zerbait Segurari eskainitako lanetan (Intxausti 2006a: 282-291).

² Ikus Intxausti (ed.) 2003a: 251 (J. A. Garro), 303-308 (J. de Benito Pascual), 568-571 (J. Intxausti).

³ Jatorrizko erdal testua hitzez hitz jasoz: “creo que no es exagerado afirmar que nos encontramos ante un verdadero ilustrado del momento. Su inquietud le llevó a adquirir una formación que podríamos calificar de enciclopédica con una gran sensibilidad por todo lo relacionado con los métodos pedagógicos más avanzados” (Benito Pascual 2003: 303-308).

Hori horrela, esan beharra dago, bestalde, XVIII. mendeko Argien luzapeanean Astigarraga Ugarte hau ez zela nabarmendu bakarrik Eskolaz arduratu zelako, baizik eta Zalduntxoeren beste alderik ere baduela gizonak: aurrerapen teknikoa maite zuen, Europako ideia eta korronte intelektualak ezagutu zituen, Euskal Herriko kazetaritza berriaren hastapenetan ibili zen, etab.

Ikusiko dugun bezala, nazioartekotasun praktikoa bizi izan zuen Astigarragak, gogoz alde batetik eta bortxaturik bestetik. Errefuxiatuen atzerria ezagutu zuen, eta atzerriko hizkuntzak ikasi ere bai; Koroaren zerbitzuan ibili zen, European bezala Ameriketara, baina erroak Euskal Herrian mantendu zituen, eta bizitzako aldarte on eta txarrek utzi zioten neurrian, bere lan mai-teenak Euskal Herrian, Gipuzkoan, euskal Hiriburuetan eta Segura bere sorterrian sustatu eta abiarazi nahi izan zituen.

Aurrera baino lehen, ordea, komeni da esatea XIX. mendeko ideia eta asmo bizenak (askatasuna, hezkuntza, ekimen ekonomikoak, etab.) oso bere barruan zituela, eta Frantziako Iraultzak bultzaturiko modernitatea bere egin zuela, horretan politikari ere zegokion lekua emanez, ideien zabalkundean eta Administrazio orokorrean bezala sorterriko Kontzejuan.

Eta testuinguru zabal horretan euskaltzale berritzaile bezala ageri zaigu Luis Astigarraga. Gauzak sobera bortxatu gabe esan dezakegu garaiko euskaltzaleen artean nortasun kultural eta sozial konplexuenetakoa erakutsi zuela herritar *paisano* eskolatu honek. Euskal idazlea izateke, hizkuntzaz ardura serioa erakutsi zuena da Astigarraga Ugarte.

I. Familiartea eta bizitza

Luis Astigarraga Ugarte Gipuzkoako Goierrin jaio zen, Segurako hiribilduan; baina Astigarragarren leinua kanpotik etorritakoa zen; hori bai, berehala txertatu ziren herriko familia handikien artean (Arrue eta Oriatarrekin ezkonduz, adibidez)⁴.

⁴ Leinu eta familia hauen berri jakin nahi duenak begira beza Aginagalde 2003. Aginagalde berari zor dizkiot, gainera, Oria-Astigarragarren leinuen albisteak, eskuzabalki utzi dizkidanak.

I.I. Astigarragararrak

Segurako Astigarratarrak Ataundik etorri ziren herrira, XVII. mendean, Joan Mz. de Astigarraga Maria Arrue Oria-rekin ezkontzean. Horrek aukera eman zien, gainera, Oria maiorazkoa eskuratzeko. Arruetarren historia, ostera, askoz lehenagotik zetorren bertan (XV. mendearen erdi aldetik edo)⁵, eta gaur egun ere beraien jauregia zutik dago Seguran⁶.

Segurako bigarren belaunalditik aurrera, Udal Kontzejura ere iritsi ziren Astigarratarrak, eta XVIII-XIX. mendeetan ez zen falta izan herrian familiarte horretako Zinegotzi eta Alkaterik⁷.

Gure pertsonaiaren aitona, Joan Ignazio Astigarraga Elosegi, izan zen familiaratik lehenengo Alkatea (1731-1733); Luis-en aita Jose Joakin Astigarraga Agirre ere Alkatetzara iritsi zen, eta birritan izan zen herriko Alkate (1764, 1773). Osaba Jose Ignazio Astigarraga Agirre, berriz, alkatetza bererako hautatua behintzat izan zen nahiz eta kargua ez zuen hartu eta iloba Luis-i paso eman zion (1805). Berehala jakingo dugu nor zen osaba hau.

Beraz, ez da batere harritzekoa ondoko belaunean, Luis Astigarraga Ugarte, aipatutakoen semea eta iloba, Segurako Kontzeju-buru izatera heldu baldin bazen behin eta berriz. Astigarragarrenean ez ezik herriko handikien tradizioan ere ezaguna zen zenbait familiatako segidatasun politiko hori. Lehendik eta gero halatsu gertatu zen herrian Estensoro, Berasiartu, Arrue, Zurbano edo Lardizabaldarrekin, eta Aro Modernoko azken hamarkadetan Astigarragararrak ere iritsi ziren *klub* horretara⁸.

Tokiko elitearen nagusitasun politiko hori nahikoa segurtatuta zegoen udal Ordenantzen bidez. Izan ere, hauteskunderetako hautapen-prozedura 1723ko Ordenantzek araututa zeukaten, eta kargudun ohiek erabakitzen zuten ondo-koen hautagaitza (6. Ord.) (Intxausti 2009: 237-239). Bestalde, familia jakin batzuen erbesteko arrakasta ekonomiko eta administratiboa ere sozialki erabakigarria gertatzen zen hautagai izendatua izateko.

⁵ Arruetarren leinuaz, Aginagalde 2003: 216-218.

⁶ Begira Santana-ren lanean Arrue Jauregiari buruz dioena, Santana 2006: 74, 134-135.

⁷ Familiakoien Alkatetzak ondoko hauek izan ziren: Joan Ignazio Astigarraga Elosegi, 1731-09-29an hautatua (1731-1733. urteetan Alkate izana); Jose Joakin Astigarraga Agirre (1764-01-01 eta 1773-01-01: 1764 eta 1773), Luis Astigarraga Ugarte (1797-01-01: 1797), Jose Ignazio Astigarraga Agirre (1805-01-01: ez zuen kargua hartu), Luis Astigarraga Ugarte (1805-01-12, 1806-01-01: 1805 eta 1806) eta Luis Astigarraga Izquierdo (1833-01-01: 1833). Ikus Garro 2003b: 591-603.

⁸ Intxausti 2006a: 26-29; Intxausti 2006b: 118-121.

Luis Astigarraga Ugarteren familiarekin hurbiletik berorrek abonatu duen pertsonaia J. I. Astigarraga Agirre osaba izango da batik bat. Hain zuzen, osaba horren bidez lortu zuten Astigarragarrek kanpoko arrakastaren berme hori. Iloba berak utzi zigun Jose Ignazio osabaren laudoriozko aurkezpen laburra (Astigarraga 1821: 10):

Desde el año 1800, se hallaba establecido en San Sebastian mi respetable Tio D. José de Astigarraga y Aguirre, Caballero de la Orden de Carlos III, Comandante Militar de Marina de aquella Provincia, Juez de Arrivadas de Indias, é inspector de la fábrica de anclas de Guipuzcoa; cuyos honoríficos encargos tubo a bien conferirle S. M. el Señor Rey D. Carlos IV en atención á sus dilatados servicios, y á los distinguidos méritos contraídos en la Marina y en el empleo de Gobernador y Comandante General de las provincias de Santa Marta y Rio Hacha en el Reyno de Santa Fe de Bogotá. Habiendo tenido el honor de nacer en la villa de Idiazabal, y criándose en la de Segura, y en otras del pais Bascongado.

Osabak atek jo eta bermaturik, Madriloko Ministerioetako bulegoetara ino iritsi zen Luis. Goierriko politikan osaba-ilobek sustatuko dituzte Aizkorpeko⁹ eta Goierriko bide-proiektu berriak (1803-1806), horretarako probintziarteko herri-mendien Partzuergoko Udalerriak elkartzera deituz (*Parzonería*), Gipuzkoako eta Arabako Batzarretan proposamenak aurkeztu, ikaslan teknikoak egin eta Madrileraino joanez.

1.2. Zertzelada biografikoak

Joan-etorri handiko eta aldarte gorabeheratsuko ibilera izan zuen Astigarraga Ugarterek, bai bere ikasketa urteetan eta bizitza profesionalean, eta berdin herriko bere ardura politikoetan edo Euskal Herriko hiriburuetan sustatutako ekimenetan. Nabaria da berarengan bide berriak urratu nahia: horretarako prestatzen ahalegindu zen gaztetan, eta heldutasunean ez zuen erraz amore eman aurrera atera nahi izan zituen bere asmoetan.

⁹ *Aizkorpe* azken urteetan Aizkorri ondoko Gipuzkoan Herri-Erakundeek darabilten leku-izena da, Segura, Idiazabal, Mutiloa, Zerain eta Zegama biltzen dituen Goierriko bailara adierazteko.

Esan bezala, Luis Astigarraga Ugarte Seguran jaio zen, 1767ko uztailearen 14an, eta egun berean bataiatu zuten Jasokundeko Parrokian¹⁰; Gasteizen hil zen, San Migel Goiaingeruaren Parrokiako paperetan ageri denez, 1840ko urriaren 10ean¹¹. Hortaz, P. Iturriaga pedagogo sonatua baino II urte zaharra goa dugu, eta honen lehenengo argitalpena (*Arte de aprender*, 1841) inprimatu baino urte bete lehenago hildakoa.

Jose Joakin Astigarraga Agirre eta Josefa Jazinta Ugarte Elordui senar-emazteen lehen semea zen haurra: geroago etorriko ziren M^a Manuela alaba eta Jose Joakin beste semea (1773). Bost laguneko familia izan zen, beraz, Luis Astigarraga-ren sendia.

Uste daiteke lehen eskolatzea Seguran bertan egin zuela, eta maisu euskalduna izan zuela bertan, zeren herriko Eskolarako irakasle-gaien euskalduntasuna aintzakotzat hartu izan baitzen lehiaketa-deialdietan (1754an, adibidez), baina Eskolako ikasle arteko harremanetan euskararen erabilpena zigortuta zegoen, Udalak berak ezarritako arau pedagogikoaren arabera. Hala ere, Dotrina euskaraz ere eman behar zen (Intxausti 2003b: 547). Dena den, oraingoz ez dugu eskueran Luis mutikoaren lehen eskolatzearen albisterik.

Gipuzkoako Aldundiari eta Batzarrei zuzendutako txosten eta proposamen-idazkietatik ezagutzen dugu, modu orokorrean, Astigarragak bere ikasketak nondik nora eraman zituen. Benito-k laburtzen digunaren arabera, Latina, Filosofia eta Legeak ikasi zituen, eta Gortera joanik, San Fernando Erret Akademian eta San Isidro Erret Ikastegietan ibili zen Madrilen (Benito 2003: 305).

Ibilera akademiko horrekin batera, saiatu zen, gainera, Matematika eta Zientzietan, eta hizkuntzen ikasketa bereziki maite izan zuen: “cultivé las lenguas como la Bascongada, Latina, Castellana, Francesa e Inglesa”, beraren

¹⁰ Bataio-agiriak honela dio (DEHA 2840-002-001): “Dia martes a catorce de julio de mil setecientos y sesenta y siete, bautizó con mi licencia Don Juan Agustín de Goicoechea Pbro. Beneficiado de esta Parroquial a un hixo, que nació el mismo día, de don Joseph Joaquin de Astigarraga, y doña Josefa Jacinta de Ugarte su legítima muger, y nieto de don Juan Ignacio de Astigarraga, y doña María Bautista de Aguirre todos vecinos de esta villa, y de don Francisco de Ugarte y doña Josepha de Elordui vecinos de Gámiz en el Señorío de Vizcaya, a quien pusieron por nombre Luis, Xabier, Buenaventura, Joseph. Tubo padrino a don Joseph Francisco de Astigarraga Pbro, y Beneficiado de esta Parroquial, y por verdad firmo a una con el referido don Juan Agustín. *Don Joseph Antonio de Echeverría. Don Juan Agustín de Goicoechea*”.

¹¹ GEHA. 03167 001 00 (M00120002 02). Eskerrak Maixa Goikoetxeari heriotzako urte-egunak eskuratu dizkidalako.

hitzetan esateko. Bere ogibidea jarraiki, Penintsulan ez ezik Amerikan ere izan zuen zereginik (Benito 2003: 305)¹².

Luis Astigarraga Ugarte birritan ezkondu zen, oraindik jakin ez dakidan data batean M^a Rita de Izquierdo-rekin lehenengoz, eta, bigarrenez, Donostiako Sta. Marian 1824ko azaroaren 27an berriro, Josefa Joakina Murgiondo Telletxea-rekin. Sei seme-alaba izan zituzten Luis eta beronen lehen emazteak, lehenengoa Luis Migel Astigarraga Izquierdo, Gasteizen 1798an jaiotakoa¹³. Seme hau izan zen aitaren erbestealdikoan haren ondasunak zaintzen ahalegindu zena¹⁴, eta 1833an Segurako Alkate hautatu zutena.

Arbasoengandik, eta batez ere aitarengandik jasotako kezka politikoak gidatu zuten semea ere, izan ere Astigarraga Ugarte bera politikaria izan baitzen.

2. Herri-gizon eta politikari

Lehen urteetako bizitza profesionalaren ondoren (1787-1796. urteetan edo), Administrazioan, politikan eta irakaskuntzan eman zituen gure protagonistak bere indarrrik onenak.

2.1. Itsas armadan ingeniari

1821ean bizialdiko meritu jakingarrienak aurkeztean, kasik autobiografia laburtu batean zera dio, artean gaztea zela egindako bidea deskribatuz (Astigarraga 1821: 18-19):

En el año 1796, siendo Ayudante mayor, y estando en virtud de Real orden agregado al cuerpo de Ingenieros de Marina, obtuve mi

¹² Non ibili ote zen Ameriketara? Hogeita hamar urte bete aurretik izan zen hori (1796a baino lehen). Hain gaztea zelarik, pentsa daiteke, gainera, osabaren inguruan eman zituela Amerikako bere zerbitzuak, hau da, Kolonbian (Sta. Marta, Río Hacha).

¹³ Luis Miguel Astigarraga Izquierdo Gasteizen 1798ko maiatzaren 8an bataiatu zuten. Aginagaldek landuriko Astigarragarren genealogiatik jasotako datuak.

¹⁴ GAO. Elorza Civiles. N^o 5152. Luis Astigarraga Izquierdo espediente: aitari bahitu zitzaion ondasun "lotu" (*vínculo*) baten erredituak eskatuz.

retiro con fuero militar y merced de Hábito¹⁵ en la orden de Montesa. Aunque en conformidad de los fueros de Guipuzcoa, ningún militar podía ser elegido para empleos Municipales ni de Provincia, desde el inmediato año de 1797, la N. y L. Villa de Segura me hizo el honor de nombrarme por unanimidad de votos para su Alcalde y juez ordinario, á imitación de otros pueblos, que fundandose en la inobservancia de este fuero y en otras muchas razones muy poderosas, hacían el debido aprecio del mérito, idoneidad, y celo patriótico de sus hijos Militares. En años siguientes me ha dispensado repetidísimas veces igual honor confiriendome con la misma unanimidad y alternativamente los empleos de Alcalde, Regidor, y Síndico; así como también se ha servido honrarme la M.N. y M.L. Provincia de Guipuzcoa con sus encargos, comisiones y empleos, siendo uno de ellos el de Diputado general adjunto en las críticas circunstancias, en que se hallaba el pais en el año 1808.

Astigarraga Ugarte-ren albiste ezagunenak Eskola eta Pedagogia munduari lotuta ageri baldin bazaizkigu ere, bistan da, testu horren arabera, herri-gizon publikoaren jarduera ere biziki maite zuela gure protagonistak. Segura sorterrriari, Aizkorpeko bailarari eta Gipuzkoako Probintziari lotua ageri da jarduera hori¹⁶.

2.2. Herriko alkate

Hiru alkate-aldi izan zituen Astigarraga Ugartek (1797, 1805, 1806)¹⁷, 1797an eta 1806an zuzenean aukeratuta, eta 1805ean osaba Jose-ren ordezkotza harturik¹⁸.

¹⁵ Hortaz, segurua da “Montesako Abituaren mesedea” egin zitzaioala; hortik aurrera, Abitua jasotzeko eskea egin zezakeela. Borja Aginagaldek esaten didanez, Astigarraga ez da ageri Abitua hartutakoen zereendetan. Ez zuen interesik izan prozedura aitzina eramateko, edo aldarte politikoek ez zioten lagundugero asmo horretan.

¹⁶ Oraingoan ezingo dut biografia politiko hori osorik eman, baina hemen aipatutakoaz gain beste datu osagarriak ere bilatu beharko lirateke pertsonaiaren soslai politikoa osatzeko.

¹⁷ Neuk idatzi izan dudanaren kontra (Intxausti 2003b: 568; 2006a: 283), 1833an Segurako Alkate izandakoa ez zen izan L. Astigarraga Ugarte, beronen seme Luis Astigarraga Izquierdo baizik, Segurako Udal Aktetan garbi ageri den bezala: “Alcaldía de don Luis Astigarraga e Izquierdo”. SUA. A-I-16-14, fol. 82.

¹⁸ SUA. A-I-14-I (1805-01-01): “Año de 1805. Alcaldía del S^{or} Dⁿ José Ignacio de Astigarraga Comandante de Marina de S^o Sebastián, siendo su then^{te} su sobrino el S^{or} Dⁿ Luis Astigarraga”.

Lehen alkate-aldian (1797) ohiko gobernu zereginen ondoan, bi egiteko bederen azpimarra daitezke Segurako Udaletxean. Konbentzioko gerratearen ondorioz (1794) gerrako kalte aurre egin behar izan zien, eta kaltetuei lagundu: alde batetik, “cuenta de guerra” eta “daños de los franceses” bezalako atalak ikusten dira Udaletzeko Aktetan¹⁹, eta bestetik, Astigarraga Ugarteren bizitzan ardura iraunkorra izango den Eskola eta Irakaskuntzarena. Alkate aldia bukatu aurretik, 1797ko abenduaren 19an, “Plan general para el establecimiento del Maestro de Gramática” bat ikus dezakegu udal agirietan²⁰.

Baina alkate-aldi emankorrena 1805-1806. urteetako izan zuen. Ospitaleetako Arautegi berria moldatu, Segurako merkatu eta feriak defendatu, pilotaleku berria eraiki, Parrokiako benefizio-plangintza berria sustatu, irakas-kuntzaz arduratu eta batez ere Sandratiko bidearen indarberritzeaz arduratu zen (1805-1806)²¹.

2.3. Bide-proiektuen bultzatzaile

Azken arazo hau larria zen Segura eta Aizkorperako, 1760. hamarkadan Arlaban-goaren ondorioz Goierriko beste bide zahar honek indarra galdu zuenetik (Intxausti 2006b: 169-182; Achón Insausti 1998: 125-136). Gipuzkoako bide-kaminoen historia eman digunetako batek zera dio: “Segura quedará totalmente desplazada una vez que se renuncia a convertir San Adrián en entrada para coches y comenzará una continua procesión de peticiones para el arreglo de aquel paso” (Achón Insausti 1998: 134-136).

Aizkorpeko Udalerriak eta Mendi-Partzuergoa (*Parzonería*) Sandratiko horren alde saiatu ziren, Probintzian eta Madrilen (1779, 1801, 1803), eta planoak egiteraino iritsi zen asmoa Astigarraga Ugarteren azken alkate-aldian,

¹⁹ SUA. A-I-13-6, fol. 234, 248 (1797-01-21, 1797-03-22).

²⁰ SUA. A-I-13-6, fol. 267, 288-291 (1797-12-19).

²¹ SUA. A-I-14-1 fol. 207-217 (Ospitaleak: 1805-01-15); A-I-14-1 fol. 253r-254r (Merkatua: 1805-03-27); A-I-14-2 (Pilotalekua: 1805-11-29); A-I-14-2, fol. 8 (1805-12-04: Benefizio-Plangintza); A-I-14-2 (1805-12-4: Sandratiko bide-planoa). Herriari orduan eman zitzaion, gero tradizio handikoa izan den kirol-leku berria, pilotalekuarena: “Se trató acerca de la formación de la plaza, y ejecución de un juego de pelota para diversión pública, demoliendo la casa llamada de Aztiria, propia del vínculo de Aldaola, permutada con el equivalente de una tierra propia de esta Villa, sobre que otorgaron la escritura correspondiente los Señores comisionados Dⁿ Luis Astigarraga y Dⁿ José Luis de Aguirreburualde [...] para la ejecución de la obra, y de un cubierto que el público desea se construya cerca de la Iglesia aprovechando la teja, ripia y demás de dicha casa de Aztiria”. SUA. A-I-14-02 (1805-11-29).

udaleko aktetan ikus daitekeenez (Achón Insausti 1998: 144). Baina Astigarragaren asmoetan bide hari iraganbide berria bilatu zitzaion, ez Sandratikoa, Otsaurtekoa baizik.

Hain zuzen, asmo hau bertatik bertara lotuta dago kasik hamabost urte geroago Astigarragak argitaratu emandako Proiektu sonatuarekin.

Astigarraga Ugarteren aurreko historia politiko eta pertsonala ezagutzen ez duenarentzat txundigarria gertatu behar du halako titulua eman zitzaion liburu hark: *Memoria sobre el proyecto y la posibilidad de comunicar el Mar Océano con el Mediterráneo* (Bilbo, 1821)²². Eta are harrigarriagoa oraindik titulua irakurtzen bada:

...POR MEDIO DE UN CANAL, que principiando en las inmediaciones de San Sebastián, y siguiendo por Hernani, Urnieta, Andoain, Villabona, Tolosa, Alegría, Legorreta, Villafranca, Beasain, Segura y Cegama en Guipúzcoa, y por Alsasua, Valle del río Araquil, Artazco[z], y otros pueblos de Navarra, llegue a unirse con el de Tudela.

Hala ere, ez dago sobera harritu beharrik: Egitasmoak kanal hori egitea seriooki proposatzen zuen, premiazko topografia lanak egin eta gero, baina kanalaren ondoan Otsaurteko bide-kamioarena argi eta berririo defendatzeko aukera edo aitzakia da kanalaren hori. Aski da liburu horretako aurkibidea begiratzea, bidearenari eman nahi zitzaion garrantzia jakiteko: “Extracto de la representación dirigida al Ministerio por el Comandante de Marina de San Sebastián sobre el restablecimiento del antiguo camino de S. Adrian” (1803) eta ondoko kapituluak (ik. I. Eranskina) (Astigarraga 1821: 8):

²² Argitalpen-azalak zera dio, osorik: MEMORIA / SOBRE EL PROYECTO Y LA POSIBILIDAD / DE COMUNICAR EL MAR OCÉANO / CON EL MEDITERRÁNEO / POR MEDIO DE UN CANAL, / que principiando en las inmediaciones de San Sebastián, y / siguiendo por Hernani, Urnieta, Andoain, Villabona, Tolo- / sa, Alegría, Legorreta, Villafranca, Beasain, Segura y Ce- / gama en Guipúzcoa, y por Alsasua, Valle del río Araquil, / Artazco[z], y otros pueblos de Navarra, llegue a unirse / con el de Tudela. / INTERESANTE HALLAZGO / del punto de vertientes á ambos mares, hecho por el bri-/gadier de Ingenieros D. Carlos Lemaury en la altura de ot-/saurte cerca de Cegama, como único que presenta la natu-/raleza para la construcción de este canal; É IMPORTANCIA / de que se restablezca desde luego el antiguo camino de posta / por dichos puntos, y por varios pueblos de Alava: con expresión de la Reales Ordenes expedidas sobre el asunto, y / de los pasos dados por ambas Provincias y otras Comunidades. / Por d. Luis de Astigarraga y Ugarte, Miembro de la Sociedad de Instrucción de París, etc. / *Egestatem operata est manus remissa: manus autem fortium divitias parat.* Proverb. Salom. Cap. 19, vers. 4. EN BILBAO: EN LA IMPRENTA DE D. PEDRO ANTONIO DE APRÁIZ. / AÑO DE 1821.

Me tendré por muy dichoso si publicándose de este modo en todo el Reyno el importante hallazgo del punto de vertientes á ambos mares en la falda de Otsaurte, se promovieren los dos proyectos, de que trata esta Memoria [kanala eta errepidea], ó si a lo menos se diere principio al restablecimiento de nuestro antiguo camino de Postas por la parte más baja de la cordillera de S. Adrián, con arreglo a las Reales órdenes que se han expedido sobre el asunto, y á los pasos dados por las Provincias de Guipuzcoa y Alaba, por los pueblos interesados principalmente en el proyecto.

Bide-kanalen kontu hau kezka eta ahalegin zaharretatik, eta 1803ko maiatzaren 9an Madrilen Jose Astigarraga Agirrek Luis ilobaren bidez Ministerioan aurkeztutako Txosten batetik zetorren, eta hark Ministerioan eta handik eskatuta Aldundietan ere egin behar izan ziren ikaslan eta eztabaidetatik (Astigarraga 1821: II, 13-16):

[...] una enérgica representación [zen osabaren hura], en que se exponían sucintamente las razones que le ocurrían como á natural del pais y como á comandante de Marina, para que el Gobierno protegiese y facilitase la ejecución de esta obra, que a un mismo tiempo era sin la menor duda tan asequible como interesante al bien general del Estado.

Urte haietako txosten eta abar Astigarraga Ugartek 1821eko bere *Memoria* horretan laburtu zituen, egitasmoak izandako joan-etorriak eta onartutako ebazpen ofizialak jasota (Astigarraga 1821: 16-26). Fronte ezberdinetan aha-legindu zen Astigarraga Ugarte, bide-kanalena bultzatzen: Mendi-Partzuergo ezberdinen artean, Gipuzkoa eta Arabako Aldundietan, Gipuzkoako Batzarrean (Tolosa, 1804)²³, eta hori dena sakatzeko baita Txosten teknikoa prestatzen ere, 1804ko irailean, Carlos Lemaurren Teniente Koronel Ingeniaria teknikari zela (Astigarraga 1821: 38-45). Lortutakoaren berri honela eman zuen idazleak, *Memoriako* VI-VII. kapitulu-izenburuetan:

Interesante hallazgo del punto de vertientes al mar Oceano y Mediterraneo, ignorado hasta esta época, como único que presenta la naturaleza para la construccion de un canal que comuniqué á ambos

²³ Batzar Nagusiak: Tolosa, 1804-07-03.

mares; y posibilidad de este gran proyecto sin tantas dificultades como el canal de Murcia.— Descripción del camino proyectado por la falda de Otsaurte; su longitud y ventajas comparadas con los defectos del actual camino de Salinas; y cálculo del coste que tendrá el nuevo trozo que se intenta construir por aquel punto.

Otsaurteko bide honen asmoak, eta kanalak zer esanik ez, areio bortitzak zituen Probintzian (Arlabangoaren aldeko guztiak noski), eta gauzak atzeratuz joan ziren. Jose Astigarraga Izquierdo seme zinegotzia, adibidez, Otsaurteko egitekoari heltzeko asmoekin zebilen 1830ean ere, baina Erregek ukatu egin zion plano berria egiteko baimena, nahiz eta eskea 35 herri ordezkatzuz egin zuen²⁴.

Hogeiren bat urte geroago arte, Goierrik ez zuen bide nagusi berria bere lurretatik pasatzen ikusiko, eta orduan ere, berriro Aizkorpe albora geratu zen, N-I errepeidea Etxegarartetik joan zenean (1851).

Honela bukatu zen bide-kanalen asmo hura, zeinetan Astigarraga Ugartek gogo eta indarrak jarri zituen, eta egiten baldin bazuten, bere ondaretik ere ahal zuena jartzeko prest agertuz. Nondik zetorkion, bada, gizon honi herri-lanetarako halako grina? Zein habia eta ezpaleko gizona zen bera?

2.4. Euskal *argiztatu* eta liberala

Astigarraga Ugarteri bi mundu ideologiko eta politikotan bizitzea egokitu zitzaion: Erregimen Zaharrean jaio eta hazi zen, gizon egiteraino, bere ogibide eta harremanak testuinguru hartan izan zituen, itsas armadako zerbitzuetatik erretiratu aurretik (1796). Frantziako Iraultzaren (1789) eta hemen Konbentzioko Gerraren (1794) garaiak ziren. Ikusi dugu, horren ondorioz, frantsesek egindako kalteak konpontzen ahalegindu behar izan zuela, herriko Alkate egin zutenean (1797).

Inguruan historia hori bizi izandako gizonak zein bide hartuko ote zuen ondoko bere jokamolde politikoan?

Euskal *argiztapenen* mundutik zetorren bera, eta Frantzia zen Astigarraga Ugarterentzat aurrerapen berrien herrialdea, ideia berriak ez ezik egintza berriak ere iradokitzen zituen. *Memoria*-ko sarrera hitzek erakusten dutenez, gure protagonistak mirespenez begiratzen zion Frantziari: Luis XIV.aren garai-

²⁴ GAO. JM IM 2-6-56.

ko Colbert-en obrak eta kanalgintza handietatik hasita, Frantzia zen Penintsulako garapen ekonomikorako eredia²⁵.

Herrien aitzinamendua oinarrizko egiturazko obren gainean eta hezkuntzako baliabideen bitartez (eskola) eraiki eta segurtatu behar zen. Erreforma politikoen premia sumatzen zuen, zalantzarik gabe, eta 1800eko hamarkadan bizi izandako kudeaketa ezinek (Probintziako eta Madrilekoak, denak batera) liberalismo erreformatzailearen aldera lerrarazi zuten.

Azpimarratzekoa da hemen nola Sandrati/Otsaurteko errepide/kanalen arazoa Astigarraga osaba-ilobek Probintzian ez ezik Madrildik eraginez bideratu nahi izan zuten. Hortaz, hurrengo hamarkadetako bide-sarearekiko herri-botere birbanaketaren auzia mahai gainean jarri zuen oso goizik (1803): Gipuzkoako bideen ardurak ordura arte bezala Udalerriena izan behar zuen, ala Probintziarena? Bidegintza modernoa Gipuzkoako Batzarretatik ala Madrilgo Ministerioetatik kudeatu behar zen? Arazoa Astigarragak ez zuen jarri, noski, modu soil honetan, baina biziki saiatu zen Gortetik hemengo Batzar eta Aldundietan proiektu berriak susta zitzen.

Liberalismo politiko, ekonomiko eta ideologikoa, segur aski bere gordintasun osoan hartu gabe, Espainiako aldarre politikoez iradoki ziotenaren arabera, bere jarrera politiko praktikoa azalduz joan zen: 1809an Irungo aduanetako Diruzain Nagusi izendatu zuten, Jose Bonaparteren zerbitzuan jarduteko. Horrek bere ordaina ekarri zion gero, eta erbestera joan behar izan zuen: beranduena 1815ean zegoen Parisen.

1820an behintzat itzuli ahal izan zuen berriro Hegoaldera, Riegok Erregeari Konstituzioa ezarri ondoren. Hirurteko Konstituzionalean (1820-1823), Astigarraga Ugarte berriz ere gizon publiko bihurtuko da, Prentsan bezala Herri-Erakundeei egin zizkien proposamen zaharberrietan. Hamabosten bat urte lehenago eskuetatik utzi behar izan zituen egitasmoei gogoz heldu zien oster, adiskide politikoen artean harrera hobea izango zutelakoan.

Probintziako Batzarrak begi-bistatik galdu gabe, eta beraiek aintzakotzat hartuz, Astigarragak ongi zekien Erreinuko politika konstituzionalak porrot egiten bazuen, etorkizun zaila izango zutela bere hemengo proiektu ekonomiko eta pedagogikoez. Eredu berriak ere Madrilan zeuden, batez ere: Parisen ikusi eta ikasitako eskola-lan lankastertarrak bezalatsu, Flórez Estrada (Artola 1999:

²⁵ Frantziako kanalen eredia gogorarazten du, Languedoc-ekoa adibidetzat jarritz (Astigarraga 1821: 3-5).

329, 486, 536, 619) ekonomista liberal handiaren izena errepikatuko du behin eta berriz bere *Memorian* (1821).

Azpitarratzekoa da hemen desamortizazioen auzian zein jarrera erakutsi zuen Astigarragak. Ez da arazo horretan teoriarari orokor bat, baina Gipuzkoa-Araba arteko Mendi-Partzuergoko ondarearen aurrean liberalismo klasiko nagusiak erakutsitako ideia bertsuak izan zituen Astigarraga Ugartek ere, zera baitio bere *Memoria* ausartean, orduan indarrean zeuden hiru Mendi-Partzuergoen emankortasun eskasa salatzen zuela (Astigarraga 1821: 80):

[...] cada una de estas tres Comunidades [parzoneras] posee separadamente unos terrenos inmensos de pastos, bosques, y arboledas, que en poder de ellas van desmereciendo y menguándose cada año de modo increíble, los cuales en manos de particulares prosperarían considerablemente con un incalculable beneficio de los compradores y del público.

Herri-lurren berehalako desjabetze haiek nondik nora joan ziren ezagutzeko parada eman digu gero historiak, eta historialariek zorrotz salatu dituzte garaiko burgesiaren jokabidea eta hainbat herritar xumek desjabetze haien ondorioz galdutakoa.

2.5. Kazetaritzan

Oro har, Astigarraga Ugarteren ideia politikoei gagozkiela, gogora dezadan beraren kazetari-lana ere. Parisetik itzultzean, Bilbon jarri zen bizitzen eta J. A. Zamakola-rekin batera *El Despertador* abiarazi zuen Bizkaiko hiriburuan, astean bitan agertzeko zena²⁶. Ez zuen izan bizialdi luzerik, eta bi epealdi laburretan 17 zenbaki eman zituen argitara, lehenengoa 1821eko irailaren 10ean, eta azkena 1822ko martxoaren 8an²⁷. Argitalpen hark bere osagarria, hau ere laburra, *El Patriota Luminoso* izan zuen, hau da, aurrekoaren bi epealdien artean Lartigue-

²⁶ Bilboko Prentsa liberalaren lehen urteak ezagutzeko ikus Fernández Sebastián 1989: (J. A. Zamakolari buruz: 159); Fernández Sebastián 2002: 335-372. Astero birritan atera zen Bilbon *El Bascongado liberal*, 1813-1814. urteetan.

²⁷ Hamazazpi zenbakiak elkarren jarraian zenbakiturik daude, nahiz eta tartean hutsunea dagoen (1821eko urriaren 27tik 1822ko otsailaren 28ra); hutsarte horretako argitalpena izan zen *El Patriota Luminoso*, itxuraz eta ideologiaz berdina. Astelehen eta asteazkenetan agertu izan zen *El Patriota* hau: ikus Ruiz de Gauna 1991: 149.

rekin elkartuta kaleratu zuena²⁸. Bien arteko jatorrizko batasuna erakusten duten bata bestearen arteko erreferentziak ez dira falta bietako orrialdeetan, eta Astigarragak maite zuen Otsaurteko errepede-kanalen berririk ere badago jasota²⁹.

Bi kazeta hauek garbiki militanteak dira, haizatzen dituzten ideia politikoe-tan bezala atzerri eta Espainiatik jasotzen dituzten albisteetan ere. Ohikoak ziren “Noticias Estrangeras” saila, ondoko “Advertencia” nahiz “Reflexiones” politikoren bat, edo herrien historia politikotik ateratako azalpen eredugarriak, betiere Erregimen Konstituzionalaren erro historikoak erakutsi eta beraren bikaintasuna argitara ekarri nahi dutenak. Eta afan handiz agerian jarri nahi da nola 1812ko Konstituzioa euskal Foruen luzapena eta hobekuntza den. Tesi politiko horren alde eta kontra erabilitako arrazoiak metatu eta aldekoak indartzen saiatu zen *El Despertador* bere lehenengo zenbakitik hasita³⁰. Bi aldizkariak egin zuten beren eginahala, konstituziozaleen testuak hedatzen, Errege konstituzional eta Gobernuaren lege eta dekretuak, eta Buru Politikoaren azalpenak ezagutzera ematen.

Kazeta hauetako editorialak edo izan daitezkeenak sinatu gabe agertzen ziren, eta, tamalez, ez daukagu Astigarragaren iritzi-artikulu sinaturik ere. Horregatik, batik bat hurbilduz antzeman behar ditugu gure protagonistaren ideia politikoak. Astigarraga Ugarteri bere *alderdi* politikoa izendatu behar bage-nio, ondoko datuok har daitezke aintzakotzat: frantsestuen artean egon zela badakigu (1809); era berean, Espainiaren erreformarako ereduak atzerrian begiratu zituela ere bai; bestalde, fernandotarren zigor politikoek markatu zuten (1815), eta segur aski ez zuen Riego-ren altxamendua baino lehen etortzerik izan (1820).

²⁸ *El Patriota Luminoso*-k 10 zenbaki eman zituen argitara, 1821eko urriaren 31tik 1821eko abenduaren 1era. Ruiz de Gauna 1991: 305 (hogeiren bat izan ote ziren dio honek). Nik eskuetan izan ditudanak, hamar bakarrik dira, eta denak segida kronologiko osoan emanda daude.

²⁹ *El Patriota Luminoso* 10, 1821-12-01.

³⁰ *El Despertador*, I. zenb., 3. or (1821-09-10): “Los lectores del prospecto de este periódico habrán visto no sin admiración que se dice en él, que los Bizcaynos han perdido poco ó nada en haber admitido la Constitución Política de la Nación Española, y que antes bien han ganado cuanto pudieron desear, puesto que habiéndose restablecido las antiguas Leyes fundamentales de esta Monarquía, que son precisamente los Fueros antiguos de España y Bizcaya, han venido por este medio y por el influjo de las Cortes á hermanarse con los habitantes de las demás provincias de la Nación que fueron sus aliadas en otros tiempos y compañeros de confederación”.

Ondoko hilabeteetan, beste frantsestu asko bezala, liberal moderatuen lerro nagusian eman dezakegu inondik ere Astigarraga (1820-1823)³¹; bigarren “aldi absolutistako” ibilera politiko-administratiboan urte haietako lerro liberalagoan egon daiteke (1823-1833). Ez da ahaztu behar urte horietan lortu zuela Madrilen Segurako Eskolarako baimena. Baina berehala karlisten harrobia bilakatuko zen absolutista *apostoliko*en mugimendutik at geratu zen Astigarraga, ondoko zantzuek erakusten dutenaren arabera: Gerra Karlista hastearekin batera Astigarragatarrak desagertu egin baitziren Segura karlistatik, esan bezala babesa Gasteizen bilatuz.

Jarrera politiko hori aurreko urteetatik bideratuz zetorren familian, eta 1823-1840 urteetako bidegurutze politikoetan erabateko hautua egin behar izan zuten Astigarraga aita-seekek, politika-bideen artean.

Luis Astigarraga Izquierdo Alkateari –semeari, alegia– suertatu zitzaion arazo dinastikoz Segurako herriari azalpen ofiziala eman beharra (1833), arazo dinastikoa alde aurretik konpondu behar zuten Gorteetako Akta (1789) herrian ezagutzera emanaz. Udal Kontzejuan egin behar izan zuten, lehenengo, eta herriko Bikarioari pulpitutik beste hainbeste egingo ote zuten galdetuz, gero:

[...] si tendría inconveniente de leerlo en el púlpito un día festivo ó conclusión de la Misa Mayor y explicar en bascuence a los asistentes lo sustancial del contenido de dicho testimonio [Koroaren segidatasunari buruzko 1789ko agiriaz ari da].

(Ikusten da garrantzizko egokieratan, 1723ko Ordenanatzak aldarrikatzean egin zen bezala, euskaraz egin behar zirela horrelako aldarrikapenak)³².

Jakina denez, 1789ko Akta hark ez zuen aski indar izan, zeruertzean ageri zen gerra-ekaitza ekiditeko, eta gerra onartezina gainera etorri zitzaien Astigarragatarrei ere. Batzuek mendira jo zuten bezala³³, beraiek hiri seguru batera alde egin zuten, Seguratik kanpo, orduan bertan edo geroxeago, Gasteiza³⁴. Ez zuten hau hiri arrotza, lehendik ere han bizi izandakoa baitzen sendia.

³¹ Hain zuzen, Hirurteko Konstituzionalean frantsestuei egotzi zitzaien familia politiko liberalean gero eta nabarmenago indartuz zihon lerro politiko liberal moderatua sustatzea (Artola 1999: 549-550).

³² SUA. A-I-16-4, fol. 91r (1833-06-15).

³³ Ondoko asteetako udal aktetan ikus daitezke armak hartuta karlistekin herritik joan zirenen zerrendak.

³⁴ Eskueran ditudan 1833tik aurrerako datu denak Gasteizkoak dira, behintzat.

Hortaz, ez zuen izan jarraitzerik Astigarraga Izquierdo-k alkatetzan, eta J. M. Zurbano ikusten dugu Udaletxean Alkate-ordezkotza hartzen; urte hartako urriaren 16az geroztik Astigarraga Izquierdo ez da ageri Aktetan³⁵. Astigarragatarrak ez dirudi, bada, herriko tradiziozale edo erregetiar absolutisten artean zeudenik, eta erabat karlista izango zen Seguratik aldendu egin ziren.

Astigarraga Ugarte-ren familiako azken urteetako kontuak dira horiek, baina itzul gaitezen aurreko hamarkadetara, aurkeztu ez ditudan Astigarraga Ugarteren bestelako alde ez-politikoak begiratzeko.

3. Eskolagintzan eta pedagogian

Herri-lan materialak ez ezik giza kultura eta izpirituari zegozkienak ere maiteak izan zituen Astigarraga Ugartek, eta bizitzan zehar behin baino gehiagotan erakutsi zuen kultura eta hezkuntzaren bere estimua. Bi modutara saiatu zen horretan, ideia eta metodo pedagogiko-didaktiko berritzaileak aurkeztuz lehendabizi, eta Eskola berrien sustatzaile bezala, gero. Bietarako pausoak eman zituen, bai bere inguru pribatuan, bai bizitza publikoan (Udalek edo Probintziak abian jar zitzaizketen plangintzetan).

3.1. Metodo berriak hedatzen

Arestian esan den bezala, Goi-Ikasketak egindako gizona zen Astigarraga Ugarte, eta bizitza politikoan 1805-1806ko Alkate-aldietan erakutsi zuen jada Eskola eta Irakaskuntzarekiko zuen bere lehia (ikusitu dugu hori ere), baina, artean, Segurako herriaz arduratuta bakarrik.

Astigarraga Ugarteren proiektutan, 1807an Gipuzkoako Batzarretara eramandakoa aipatu behar da lehenengo. Artean, gerra napoleondarra lehertzeko zegoen, eta oso urrun Hirurteko Konstituzionalak ekarriko zituen eskola-proposamen berriak.

Donostiatik eta 1807ko ekainaren IIko datarekin, Azkoitiko Ezohiko Diputazioan aurkeztu zuen testuan Astigarraga Ugarte teoria pedagogiko berriak Gipuzkoan ere hedatu eta ezartzeko premiaz ari zen. J. H. Pestalozzi (1746-1827) maisu eta pedagogoaren ideiak goraiatzan zituen, erabateko

³⁵ SUA. A-I-16-4 (1833-10-16ko eta hurrengo Aktak).

eskola-berritze bat egiteko. Aurreko hogeita bost urteetako ahaleginen ondoren, hain zuzen 1805ean lortu zuen maisu suitzarrak bere Eskola berri arrakastatsua Yverdon-en irekitzea. Hortaz, Astigarraga Ugarte, inondik ere, adi-adi zebilen munduko ideia berrietara begira, eta Erakunde gipuzkoarrak jakinaren gainean jarri nahi izan zituen 1807ko urte horretan.

Urte berean, Hernanin bildutako hurrengo Diputazio Arruntaren eskuetara pasatu zen Astigarragaren Txostena, eta Erakunde honek Batzorde bat sortu zuen, Pestalozzi eta metodo onenak gogoan hartuta, Probintziako Lehen Irakaskuntzarako Plana molda zezan. Garaiak ez ziren batere samurrak, eta urtebeteren buruan artean Batzordea bilerarik egin gabe zegoen, Elgoibarko Batzar Nagusiak bildu zirenean. Berehala gerra piztu zen, eta honelako proiektuek lehenetsun guztia galdu zuten, gerraren zurrunbiloan (Benito 2003: 305-306).

Astigarragak berak ere bestelako lanetara iragan beharra izan zuen, eta 1809an Irungo Aduanetako Diruzain Nagusi gisa jardungo du lanean, arestian esan dudan bezala. Politika eta administrazio-lanak nagusitu ziren beraren eguneroko jardunean.

1808-1812 urteetan Cádiztik Espainia osoan eraikitako Erakunde-sistema konstituzionala goitik behera etorri zen 1814ko maiatz-ekainetan³⁶. Gerrate ondoko *garbiketa* politikoa abian jarri zen, lehenengo frantsesuen kontra eta geroxeago liberal kadiztarren aurka, izan ere erresistentzia liberala testuinguru horretan gogortuz joan baitzen. Gezurra badirudi ere, *pronunciamento* deituen tradizio espainiarra liberalen eskuetan jaio zen, eta 1814-1819 urteetan sei altxamendu ezagutu ziren, Riegorenaren aurretik (Artola 1999: 489, 492, 495, 496, 500, 501). Hobe zuen, bai, Astigarragak Paris aldean itxaron, atzerriko aurrerapen berriak ezagutzen zituen bitartean.

3.2. Parisetik dator notizia

Altxamenduen artean, azkenik Riegorenak arrakasta izan zuen, eta frantses-tuek eta liberalek erbestetik itzuli eta agintera igotzeko aukera izan zuten. Itzulitako en artean zegoen Astigarraga Ugarte: arestian esan bezala, etorri eta

³⁶ “La nueva máquina política no se distingue en absoluto de la que dejó de funcionar en mayo de 1808, ni existe tampoco el menor interés [...] por introducir la más mínima novedad institucional, excepción hecha de la ya aludida limitación en las facultades del Consejo de Castilla” (Artola 1999: 420).

Bilbon jarri zen bizitzen³⁷. Gipuzkoako Buru Politikoari (Gobernariari, alegia) idatzitako gutunean (1820ko urriaren 17koa), hau dena gogorarazten dio bere buruaz ari dela³⁸:

[...] habiendo residido cerca de dos años en París, se ha instruido medianamente en el nuevo método de enseñanza mutua, como lo verá v.s. por la adjunta traducción; y noticioso ahora de que v.s., y la Diputación Provincial, como encargada por el párrafo quinto del artº. 335 de la Constitución de promover la educación de la juventud, tratan de introducir en esa Provincia este excelente método; no puede menos de molestar la atención de v. s. con esta humilde representación, ofreciéndole sus cortos servicios, sin más interés que el de ser útil a su patria, caso que resuelvan establecer un curso Normal gratuito de dicha enseñanza, como va a verificarse en esta Villa de Bilbao a instancias del exponente. [...]. Bilbao 17 de octubre de 1820.

Euskal Erakundeen eskuetan jarritako txostenetan behin eta berriz azpimarratu zuen Astigarragak kanpoko ideia eta metodo berriez lortu zuen ezagumendu zuzenaren balioa, eta Pariseko *Société pour l'Instructione*ko bazkide bezala aurkeztu zuen bere burua, egindako ikastaro berezituaren berri emanez³⁹.

Ikasi ez ezik, Elkarteko kide izatera ere iritsi zen, bada, eta Penintsulara itzultzean interesik handiena jarri zuen, bere txostenetan, han ikasitakoen eta

³⁷ Ez da pentsatu behar 1820an frantsestuak erbestetik itzultzean, susmo txarrak eta baldintzarik gabeko harrera egin zitzaizkion: absolutistek nahiz liberal espainiarrek bihotzez gorrotatutako politikariak ziren haiek, berrizaleak zirelako edo Jose Laren zerbitzura ibili zirelako. Lehenengo batean, Gobernuak euskal Probintzietara bildu zituen halako espainiar guztiak, eta erabaki horren ondorioz Astigarraga Ugartek etortzean egoitza Euskal Herrian bertan hartzerik izan zuen. Ikus Artola 1999: 537.

³⁸ GAO. JD IM 4-6-32.

³⁹ GAO. JD IM 4-6-32. Ziurtagiri baten gaztelaniazko itzulpenak zera dio: "PREFECTURA DEL DEPARTAMENTO DEL SENA. Certifico que el Señor Astigarraga (Luis) Español refugiado, antiguo Tesorero Principal de Aduanas de Irún, ha seguido el Curso Normal de enseñanza mutua desde el mes de Enero hasta el veinte y dos de Febrero de 1817, á fin de introducir este método en España, quando volviere á su patria. -- El Sr Astigarraga ha asistido con exactitud a todas las Sesiones, y habiéndose concluido el Curso, ha adquirido bastante conocimiento del método, para poderlo enseñar a sus Compatriotas. París, 22 de Febrero de 1817. *El Inspector de las Escuelas Elementales, Profesor del Curso Normal, Nion*". Hurrengo beste ziurtagiri batek, berriz, "se halla perfectamente instruido, y en estado de enseñarlo" dio, Erakunde hartako Lehendakari-orde Laborde Kondearen sinadurarekin.

atzerrian zituen harremanen berri ematen (hauek, proposatutako ekimen berrien bermea zirela adieraziz). Benitok azpimarratu duen bezala, Astigarraga Madrileko Eskola Normala (1818) jaio aurretik zebilen Irakasleen prestakuntzarako bide aurreratuenen bila (Benito 2003: 306).

Pariseko *Société pour l'Instruction Élémentaire* hau jatorriz ekimen pribatuak sortutako Elkarteak izan zen (1815), baina laster Gobernuen babesa jaso ez ezik “elkarren arteko irakaskuntza” ahalbidetu eta hedatzeko berorien sustapena ere irabazi zuen. Ez zen mugatu, gainera, eskoletan metodo berria indarrean jartzera, horretarako premiazkoa zen Maisu-Eskola abiarazi zuen, Eskola Normala alegia⁴⁰.

Elkarte horren lehen gurasoak hiru izan ziren: Charles de Laysterie, Alexandre de Laborde (1773-1842), eta Joseph-Marie Gérando (1772-1842). Lehenengo biak ziren batez ere buru teoriarriak, eta hirugarrena horrezaz gain sustatzaile politiko-instituzionala (filosofoa eta Estatu-Kontseiluko kidea baitzen Gérando). Hain zuzen, Astigarragak aurkeztutako ziurtagiritan lehenengo bien sinadurak jaso zituen, bere gaitasuna frogatzeko. Hortaz, harreman onak zituen gure maisu pedagogoak Parisen⁴¹.

Astigarragak eta urte beretan Gipuzkoako Herri-Erakundeek ere, sustatu nahi zuten “elkarren arteko irakaskuntza”, oraingoan J. Lancaster (1778-1838) pedagogoaren arrastoan zetorrena, hau da, Maisuen eskasiak eta ikaslearteko elkarren laguntzaz baliatzeko asmoak bultzatutako esperientzia zen. Euskal Herrira XIX. mendeko lehen hamarkadetan iritsi zen korrante pedagogiko berri hau⁴².

Metodo lankastertarra Ingalaterratik hedatuz joan zen (*Improvements in Education* liburua, 1803; *Lancasterian Institution*, 1810), eta Europan ez ezik Amerikara (1818) ere zabaldu zen. Hortaz, egun-eguneko metodoa zen Astigarragak proposamena egin zuen une hartan (1820).

3.3. Eskolak irekitzen: Donostia, Segura

Hautapen pedagogiko berrien testuinguruan, 1820ko urtea ez zen batere desgokia ageri, agintean martxoaz geroztik liberalak zeudelako, eta 1812ko

⁴⁰ *Société pour l'Instruction Élémentaire*ren historia ezagutzeko ikus Gontard 1959: 281-296.

⁴¹ JD IM 4-6-32. 1817-10-17 datarekin Bilbotik Aldundiari egindako proposamenaren eranskinean jasotako ziurtagiriak.

⁴² “Elkarren arteko” metodoa Euskal Herrian nola landatu zen jakiteko: Lasa et al. 1968: 42-47. Historia horretan aparteko lekua aitortzen dio historialariak Astigarragari.

Konstituzioak Hezkuntzarako ezarritako eginkizunak metodo berrien bidez egikaritu nahi zirelako (Benito 2003: 306)⁴³.

Gipuzkoako Aldundiari bidalitako *Memorial* hark 1820ko urriaren 17ko data darama⁴⁴, zoritxarrez, beranduegia, Aldundia aurreraturik baitzebilan eskola-berrikuntzen kontuan. Jada abiarazita zuen bere aldetik ekimen berri bat: Madrilera bidalita zeukan Tolosako Insue maisua metodo berria ikastera, eta Tolosa bertako eta Mutrikuko eskoletan ari ziren lehenagotik “elkarren arteko irakaskuntzaz” baliatzen. Bigarrenez kale egin zuen Astigarragak Administrazioari bere asmoak saltzean...

Baina erne zegoen, ekimen praktikoko berriak Gipuzkoan nondik nora joango ote ziren. Donostian, adibidez, ekimen ofizialik ez zen falta, Hiri honetan eskola-berritze baten premia nabaria eta sentitua baitzen liberalen artean⁴⁵. Eta, inondik ere, berritzeak metodo berriez baliatzea ere esan nahi zuen, lankaster-tarras hain zuzen. Horregatik 1822ko azaroaren 16an Donostiako Udalak Manuel Etxeberria izendatu zuen “director de la Escuela de Enseñanza Mutua”, hamar mila errealeko soldata eta lankideak ematen zizkiola⁴⁶. Manuel Etxeberria ezaguna zen Probintzian, Mutrikun jarri baitzuen halako Eskola bat (1821), eta Bilboko Udaletik ere eskatu zituzten maisu mutrikuarraren albisteak (Lasa et al. 1968: 44-46). Astigarraga bera ez ote zebilen, orduan, tarteko lanak egiten?

1820ko urrian Probintziari bidalitako deia berandu heldu baldin bazen, Donostian, ustekabeen noski, aukera berria sortu zitzaion laster. Lehen udal ahaleginek porrot egin zuten, Etxeberriak lankide onik izan ez zuelako ere bai⁴⁷. Bilbotik Donostiara etorri zen Astigarraga, eta Hirurteko Konstituzionala amaitzean, bere Eskola-proiektuari heldu zion. Agirietan zehaztu ez badut ere, 1823-1824ko ekimena da Donostian ireki zuen Eskolarena⁴⁸.

⁴³ Probintzietako Gobernu eta Aldundiek beren zereginen artean “promover la educación de la juventud conforme a los planes aprobados” izango dute (1812ko Konstituzioa: 335. art., 5. pasarte).

⁴⁴ GAO. JG IM 4-6-32.

⁴⁵ Udal Konstituzionala indarrean jartzean urte berean heldu zitzaion eskolen arazoari (1820-07-08): “Nota de los establecimientos de Instrucción existentes en esta jurisdicción [de San Sebastián]”. DUAO. H-00310-L, fol. 549-553. Udalerriko eskola-sistemaren egoera deskribatzen da bertan, eta ez da falta elkarren arteko irakaskuntzaren balioespenik.

⁴⁶ DUAO. H-00312-L, fol. 477-479.

⁴⁷ “El primer intento revolucionario de alterar los métodos tradicionales pedagógicos [1820-1823], por vía oficial fue un fracaso” (Lasa et al. 1968: 47). Eta hori arrazoi ezberdinengatik, Donostian, esate baterako, maisu lagunek ez zituzten onartu erraz ez Etxeberria eta ez berorren metodoak.

⁴⁸ Hala dio berak. Segurako ekimenak (1825) zuen bermea eta seriotasuna azpimarratu nahirik, noski.

Hala ere, Donostia utzita, laster jaioterrirako bidea hartu zuen Luis Astigarragak, eta 1825eko udazkenean Seguran dugu gure maisua. 1825-1829. urteetan ireki zuen hemen Eskola, legezko traben artean Erakunde ofizialetan egin behar izan zituen ibilera aspergarriei gaina hartuz. Bazekien kudeaketa politiko-administratiboa nola eraman. Oztopoek eta ezezkoek ez zuten kikildu, eta bere gisara eta bere kabuz aurrera egin zuen.

Hamar-hamabost urte sorterritik kanpo ibili ondoren, prest zegoen Irakaskuntzaren goragoko maila batean (oraingoan, Humanitateen Eskolan) dirua eta lana sartzeko. Horretarako baimenak behar eta lehendik zituen harremanez baliatu zen: lehenengo, herriko Irakaskuntza Batzordeaz, eta beronen bidez Hiriburuko Batzordea eztenkatu zuten premiazko baimenak eska zitzaion (eskaria 1826ko ekainean bidali zitzaion beroni).

Baina, baimena etorri aurretik ere (1825eko udazkenean), Segurako bere etxean irekita zuen Astigarragak Eskola, eta lehen urrats hori eman ondoren egin zuen Hiriburura baimen-eskea. Dena den, eskualdean inguru hurbileko babesa bazuen, nonbait, proiektuak, eske-agirian esaten denez (Benito 2003: 307):

... ha obtenido la aprobación no sólo de esta N. Villa y su vecindario, sino también la de los Ayuntamientos de otras ocho Villas de la circunferencia, del Sr. Diputado General, del Clero y de otras muchas autoridades, habiendo dirigido anteriormente la solicitud competente a la Superioridad.

Sostengu sozial hori gorabehera, ez zen samurra gertatuko baimen ofiziala eskuratzea, tartean legezko eragozpen jakin bat baitzegoen, 1826ko urtarrilaren 16ko Latinitate eta Humanitateen Ikastetxeetarako Arautegi Orokorrak, bere 55. artikuluan, zera esaten zuelako (Benito 2003: 307):

... podrá ponerse un Colegio de Humanidades en toda ciudad o villa que sea capital de Provincia o cabeza de Partido, siempre que no hubiera ya otro.

Baina Segura ez zen Hiriburu edo Barruti-burua. 1826ko abuztuan Ahdun Nagusiari idatzi zion babes ofizialago baten premia azpimarratuz: bere *curriculum*a aurkeztu eta eskuzabalki egindako gastuak gogorarazten zizkion, gelak prestatzen egindakoak, noski, baina baita baliabide didaktikoetan

Madriilen eta Parisen emanak ere⁴⁹:

En esta atención y en la de que se ha empeñado el suplicante los tres años anteriores en unos gastos considerables, y aun superiores á sus facultades, para redificar su casa [de Segura] con este objeto tan interesante al público, y por traer de Madrid, Paris y otras partes muchos libros, mapas, globos, y demas efectos que son necesarios en un establecimiento de esta clase.

Bere babes-eskea egitean, Astigarraga ez zebilen bakarrik, bederatzi herrietako Udal eta Erretoreen 22 ziurtagiri bildu eta bidali zituen Batzarretarako Gipuzkoako Aldundira, 1826ko abuztuaren 17ko gutunarekin batera. Bost egun geroago erantzun zuen Aldundiak bere gomendioa eskainiz.

Madriletik baimena ez zen etorri berehala, baina Astigarragak 1829ko maiatzaren 1ean adierazi ahal izan zion Gipuzkoako Ahaldu Nagusiari, nola eman zion baimena Madrileko Irakaskuntza Publikoko Ikuskaritza Nagusiak, eta Eskolarentzat Probintziaren pasea eskatzen zuen, baimena legezkotasun osoarekin egikaritu ahal izateko.

Ez dakigu noiz arte luzatu zen Humanitate-Eskola honen bizitza, zeren eta Seguran Agirreburualde apaizak lehiakide izan zitekeen Latin-Eskola (*Latinetxea*) eraiki baitzuen 1831n (gero, 1860ko hamarkada arte behintzat lanean jardun zuena) (Intxausti 2006a: 141-147), eta dakigun bezala, gerra karlista ere berehala lehertu baitzen.

Eskolagintzako ekimen guztiok emaitza motzak izan baldin bazituzten, oraindik aipatu ez ditudan Astigarragaren euskararen aldeko kezkek, gogo biziak eta argitalpenak onarpen praktikoa zabal eta iraunkorragoa izan zutelaren behar da hemen.

4. Euskara ere Eskolara

Astigarragak hizkuntzen ezagumendu irekia zuen, eta zekizkienak Euskal Herriko Eskoletan modu egitarautu batean hedatu nahi izan zituen. 1825eko urrian irekitako Segurako Eskolarako Probintziari bere babesa eta laguntza eskatu zizkionean (1826-08-17), han irakasten zituen gaztelaniaren gramatika,

⁴⁹ GAO, JD IM 4-6-47.

latina, frantsesa eta ingelesa aipatzen ditu⁵⁰.

Horrekin batera, argi dago Astigarraga euskaltzale fina zela; bere argitalpen eta eskuizkribu guztietan ageri da hori. Eta, besteak beste, euskal herrietako eskoletan elebitasuna, garaiko lege berrien arabera, legez ere ezargarría zela baieztatu zuen behin eta berriz. Horretan, arau ofizialen babesa euskarari ere eman zekiokoela uste zuen, eta horri nahi zuen. Haur euskaldunentzat eskola -estatus berria eskatu zuen, legeei iruzur egin gabe eman zitekeena⁵¹.

Euskararekiko ideiak eta asmoak ez zitzaizkion jaio erabat bere bakardade isiletik, ezagutu zituen argitalpenen eta euskalarien harremanetatik baino. Guztien gaineratik Larramendiren obra erraldoia eta ahalegina miretsi zituen Astigarragak. Horregatik, 1829an Gipuzkoako Batzarrari jesulagunaren *De la Antigüedad y Universalidad del Bascuense* (Salamanca, 1728) liburua (Astigarragak berak oharretaturik) argitara emateko eskatu zion. Izendatutako Batzordeak aldeko iritzia eman zuen, hedapenerako iradokizunak ere eginez (*Registro de ...* 1829: 60):

[...] la Comisión [...] es de opinión, que la Junta invite a todos los pueblos y particulares de su distrito a subscribirse á una obra, que redunde tanto en realce de la Historia del pais bascongado, y que autorice al mismo tiempo á su Diputación, para que de acuerdo con el editor auxilie con las medidas que juzgue más oportunas su mas pronta, clara, sencilla, y mas cómoda edición, para que pueda así generalizarse en todo el distrito y Provincias adyacentes con mas facilidad.

Batzarrak ontzat eman zuen proposamena, nahiz eta ez dudan izan aukerarik gero argitalpen hori egin zen ala ez jakiteko.

Iraganeko Larramendirena ez ezik garaiko euskalari handien berririk ere bazuen Astigarragak (Juan Bta. Erro apologista edo F. Lecluse Pariseko katedradunarena, adibidez); bestalde, Pablo Pedro Astarloa Madrilen ezagutu zuen (“a quien tube el honor de tratar en Madrid el año de 1803”, dio berak)⁵².

⁵⁰ GAO. JD IM 4-6-47.

⁵¹ GAO. JD IM 4-7-51. “De D. Luis de Astigarraga y Ugarte remitiendo dos egemplares del Dicionario Manual Bascongado y castellano dispuesto por él”. 1826-01-16ko Errege Gutuna eta Eskoletako Arautegiaren 12. artikuluan oinarritzen du Astigarragak bere arrazoiketa: artikulua horren arabera, gaztelaniaren eta latinaren artean erabili behar den elebitasuna era berean erabil daiteke euskara eta gainerako hizkuntzen artean, betiere haur euskaldunaren lehen hizkuntzaz baliaturik, uste du Astigarragak.

⁵² GAO. JD IM 4-7-51: ibid.

Harreman guztietatik jaiotako euskaltzaletasunak batez ere pedagogian eta eskolan aurkitu zuen, laster, bere bidea.

4.1. Euskara eskola-tresna eta irakasgai

Euskararen aldeko bere jarrera arrazoitzen saiatu zen Astigarraga, berehala aurkeztuko dudan *Diccionario manual bascongado*n bezala Erakundeei aurkeztu zizkien proposamenetan.

Liburu txiki honek bere baitan zituen asmo zabalak “A la juventud bascongada” zeritzan erdarazko hitzaurrean eman zituen egileak (ikus testua Eranskinetan). Geurea dugun ohiko ama-hizkuntzan eskolatu beharra aipatzen du lehenik; norberaren hizkuntza erabili ez ezik, ezagutu eta araututa erabili behar dela. Horretan, Espainiako Erret Akademiaren gaztelaniarako jokabide berak nahi zituen euskararako ere (hain zuzen, Erakunde haren testu bat jasoz aurkeztzen du Astigarragak bere arrazoiketa, hitzaurre horretan), eta garaiko gure egoera soziolinguistikoa dakar argudioa osatzeko:

Así se explica la Real Academia Española en el prólogo de su gramática castellana; y yo añadiría que en ninguna provincia de España es tan necesario este estudio [norberaren hizkuntzaren gramatikarena, alegia] como en el país bascongado, donde el único idioma que se aprende en la juventud es el bascuence; y donde la lengua castellana es tan exótica como la francesa ó la de cualquiera otra nación estrangera, particularmente en algunas aldeas.

Azpimarratzekoa da arrazoiketa honen indarra: euskaldunak, euskalduna izateagatik, bere hizkuntzan eskolatua izan behar du, hizkuntza arautua ere izan dezan. Jatorrizko lehenengo arrazoia da hori. Ondoko testuan (1825eko apirilaren 28an Probintziari zuzendutako azalpena da) arrazoi pedagogikoa ez ezik norberaren jatorrizko hizkuntzaren biziraupenerako (kasu honetan euskararen mesederako) Eskolak egin dezakeen ekarpena azpimarratzen digu Astigarragak⁵³:

Si un profesor ó maestro ha de enseñar el castellano, latín ú otro cualquier idioma á un Frances, Ingles, Aleman, ó Italiano; si ha de ins-

⁵³ GAO, JD IM 4-7-51.

truirlos en la aritmética y demás ciencias; *¿no es indispensable que sepa explicarse en la lengua que cada uno de ellos entienda?* Además de la ventaja que de este método ha de resultar para la más pronta y perfecta instrucción de la juventud bascongada en la gramática castellana y latina, en las lenguas extranjeras, en la aritmética y otras ciencias; *¿cuanto no contribuirá esta práctica para conservar el bascuence en su pureza y perfección [...]?* [Azpimarradura] ⁵⁴.

Bistan da gaztelania irakasteko lanabes bezala ere ikusi zuela Astigarragak bere liburutxoan. Larramendi laburtu hau, *Diccionario* alegia, herritarren eskuetan jartzean, herritar arruntek beren hizkuntzan –gaztelanian nahiz euskarari, oro har– eskolatzeko dituzten ezin eta eragozpenak salatzen ditu Astigarragak, eta ez du ahazten euskaldunak duen egoera zailagoa:

Como el único diccionario de que tengo noticia, es el del padre Larramendi, el cual consta de dos grandes tomos en folio, y no se encuentran ejemplares de él, por lo cual los pocos que hay cuestan trescientos ó cuatrocientos reales; estoy firmemente persuadido de que en dar á luz este pequeño manual, hago un importante servicio al país bascongado.

Gaztelania ikasteko balio zuen liburuak, noski, baina euskaldunak alfabetatzeko ere pentsatuta zegoen. Ikusi dugu horretaz zer dioen Astigarragak berak, eta gogoan hartzekoa da, gainera, liburu berean Luis Arozena legegizon eta Probintziako zentsore ofizialak dioena ere, autoreak esandakoetatik harago baitoa beratu:

Esta obrita [...] bastará para que los Bascongados [= euskaldunak] á costa de muy poco trabajo puedan hablar su idioma con arreglo a los principios del arte, puesto que contiene y explica todas las partes de la oración, así en Castellano como en Bascuence, con multitud de ejemplos en cada una, de manera que estos mismos ejemplos forman un compendio de diccionario en ambos idiomas, resultando de aquí otra ventaja; á saber, que los Españoles de otras Provincias en que es desco-

⁵⁴ Liburuxkaren bigarren argitaraldia Probintziari aurkeztean, euskara *gordetze* hori *erabiltzearekin* ere lotzen du Astigarragak (Gao. JD IM 4-7-5).

nocida la lengua Bascongada, pueden también a beneficio de esta obrita aprender con muy poco trabajo, aunque no á hablar con perfección, a lo menos á darse á entender en bascuence [...].

Gero, ez dut uste, erbestekoek euskara asko ikasiko zutenik, baina euskaldunek bai erdararik; alabaina, euskal alfabetatzearen aldeko ahalegina hor dago, eta ez liburua idatzi eta argitara emanaz bakarrik, berori garaiko eskoletan banatuz ere. Hainbatetan errepikatu ziren ondoko edizioak dira horren probarik onena, eta ikusiko dugu horretaz Luis semeak 1841ean Batzarrei idatzitakoa.

